

Militarismoa eta antimilitarismoa.

Iragana, oraina, erronkak

© Alizia Barriocanal, Iban Zaldúa

© Udako Euskal Unibertsitatea

ISBN: 84-86967-81-3

Lege-gordailua: BI-1160-97

Inprimategia: RGM Servicio de Impresión. Larramendi 4. BILBO

Azaleko diseinua: Iñigo Ordozgoiti

Banatzailleak: UEU. General Concha 25, 4. BILBO telf. 4217145
Zabaltzen: Igerabide, 88 DONOSTIA

AURKIBIDEA

SARRERA

<i>Alizia Barriocanal eta Iban Zaldua</i>	7
---	---

IRAGANA

ESTATU MODERNOAREN ARMADA

Joseba Zuazo, EHUko irakaslea	15
-------------------------------------	----

ARMADA NAZIONALA ESTATU LIBERALAREN

<i>GARAIAN (XIX-XX. mendeak)</i>	31
--	----

Javier Ugarte, EHUko irakaslea

DERRIGORREZKO SOLDADUZKAREN EZARPENAREN

LEHEN URRATSAK GIPUZKOAKO ZENBAIT

<i>UDALERRITAN XIX. MENDEKO AZKEN LAURDENEAN</i>	49
--	----

Gorka Alijostes, Historialaria

ANTIMILITARISMOA ETA BAKEZALETASUNA EUROPAKO

<i>HISTORIAN (1815-1918)</i>	73
------------------------------------	----

Ludger Mees, EHUko irakaslea

ORAINA

<i>MILITARISMOA, GAUR EGUNGO GIZARTEA ETA ARMADA</i>	89
--	----

Gotzon Hermosilla, Soziologoa

<i>SOLDADUZKA, AZTERKETA ANTROPOLOGIKO BAT</i>	97
--	----

Kepa Fernandez de Larrinoa, EHUko irakaslea

<i>GASTU MILITARRAK: ESTATU-ARRAZOIA</i>	111
--	-----

Luzio Tabar, “Gerrarik Ez” taldeko partaidea

<i>INSUMISIOAREN ERAGINA EUSKAL GIZARTEAN</i>	119
---	-----

Rafael Ajangiz, EHUko irakaslea

<i>ANTIMILITARISMOAREN ETA NAZIONALISMOAREN KONTZERTUAK</i>	133
Iñaki Barcena, EHUko irakaslea	

ERRONKAK

<i>DESOBEDIENZA ZIBIL EZEZAGUNA: ZERGA-ERAGOZPENA</i>	147
Kerman Ibarra, irakaslea	

<i>ANTIMILITARISMOAREN ETORKIZUNAZ</i>	159
Iban Zaldua, Gasteizko KEM	

<i>MUGIMENDU ANTIMILITARISTA</i>	167
Angel Calvo, Zigor Murgoitio eta Eugenio Riaño, Elorrioko Kakitzat	

SARRERA

1995eko UEUko XXIII. Ikastaroetan Historia eta Soziologia sailek (eta baita, egun batez, Zuzenbidekoak ere) “Militarismoa eta Antimilitarismoa” deituriko kurtso bat eskaini zuten. Ikastaro horrek eta liburu honek helburu berdina dute: aipatu kontzeptu horietan sakontzea, disziplinarreko ikuspuntu batetik. Izan ere bertan soziologoek, historialariek eta antropologoek parte hartu zuten, nagusiki. Gai hauen inguruko gure interesa egun euskal gizarteak dituen eztabaidagaririk garrantzitsuenetakoaren gaurkotasunean datza, dudarik gabe. Izan ere, antimilitarismoa “modan” dago Euskal Herrian. Ala beronekin hain lotuta dagoen in(t)sumisioaz¹ ordezkatu beharko genuke antimilitarismo hitz luze xamarra? Euren burua antimilitaristatzat jotzen dutenek ez lukete hau erraz ametituko, baina benetan arrakasta izan duena insumisioa izan da, eta ez dago hain argi zein puntutaraino **mezu antimilitarista erradikala**, hots, hasieratik insumisioa bultzatu duten Kontzientzi Eragozpen Mugimenduak (KEM) eta Kakitzatek, sakon sartu den ala ez gure gizartean. Beste era batean esanda, gizartea argi eta garbi soldaduzkaren aurkakoa bezala azaltzen bada ere, ez da hain ziurra ea, bide horretatik, antimilitarista bihurtu den. Baina argi dago antimilitarismoak gora egin duela gure artean.

Aurrera jarraitu aurretik, zehaztapen bat egin beharrean gaude. Liburu honen argitaratzaileek, artikulugile gehienek bezalaxe –hala uste dugu behintzat, definizio honen barnean ikuspegi asko sartzen badira ere–, gure burua antimilitaristatzat jotzen dugu, modu batean edo bestean, eta bilduma hau batipat antimilitaristentzako edo antimilitarismora gerturatu nahi dutenentzako material-multzo bat izatea nahiko genuke. Hau esanda, argi utzi behar dugu ez dela ez gaiari buruzko saiakera oso eta trinkoa, ezta panfleto luze xamarra: ikastaro bezala, helburu zientifiko eta dibulgatzaileekin aurrera eramandako unibertsitate-mailako lana burutu nahi izan dugu –lortu dugun ala ez, beste kontu bat da–. Baina egileon abiapuntua argi uztea legezkoa iruditu zaigu: euskal gizartearen gorabeherak –eta, euren artean, insumisioaren arrakastak– ukitutako soziologo eta historialari birena, hain zuzen ere.

Intsumisioa soldaduzkaren aurkako talde antimilitaristek (hasiera batean batipat KEM-MOC-ek), 1989tik aurrera bultzatutako desobedientzia zibileko estrategia bat da soldaduzka eta ordezko gizarte-zerbitzuari (OGZ) uko egitean

1. Egia esan, bai “insumisioa” bai “intsumisioa” hitzak bereizi gabe erabili ohi dira kaleko hizkuntzan, nahiz eta bakoitzaren hautaketaren inguruko interpretazioa nahiko esoterikoak egon badauden, Udako XXIII. Ikastaroetan saio osagarri bezala egin zen “Antimilitarismoa eta bakezaletasuna” mahainguruan sortu zen eztabaidan ikusi ahal izan gehuen bezala. Argitaratzaileok sarrera honetan Euskaltzaindiak emandako “gomendioak” jarraituko baditugu ere, artikulugile bakoitzari askatasun osoa eman diogu gustokoagoa duena erabiltzeko.

datza, helburu argi bat duelarik: soldaduzkarekin bukatzea gizartean mezu antimilitarista bat zabaltzen den heinean. Aipatu taldeak lehenago sortu baziren ere (MOC 1979an eta Mili KK-Kakitzat 1984an, NATOr buruzko erreferenduma euren ibilbidearen mugarri inportanteenetakoa izan zelarik), intsumisioaren estrategia ez zen gauzatzen hasi 1987-88 urte arte, kanpainiaren lehenengo urtea berez 1989 izan zelarik². Mugimendua Espainian planteiatu bazen ere, zifra guztiek salatzen dutenez, Hego Euskal Herrian izan du arrakastarik handiena, Bartzelona, Madril eta Zaragoza bezalako guneak nahiko atzetik darraizkiolarik. Hortaz (hau da nabarmendu behar dugun lehengo aspektua), Hego Euskal Herrian ondo erroturiko estrategia dugu intsumisioa; indar honen lekuko da Iparraldean ere ezarri izana, Frantzia intsumisio mugimendurik ez badago ere³. Honek arrakasta horren sustraien hausnarketara garamatza. Argi dago soldaduzkak (oro har) Espainian zuen “prentsa txarrak” (istripuak, isekak, denbora-galtze sentsazioa, suizidioak...), gerra zibilak eta frankismoak heredentzia bezala utzitako espainiar ejerzitoaren ikuspegi ezkor eta antidemokratikoak, 1960ko hamarkadatik zabaldu ziren gerraren aurkako mugimenduen oihartzunek, etab. zerikusia izan dutela intsumisioaren garapenean. Ezin dugu ahaztu faktore desberdintzaile nabarmen bat: nazionalismoak (eta batez ere ezkerreko nazionalismoak) Euskal Herrian eta batez ere Hego Euskal Herrian duen garrantzia, estatuaren deszentralizazioak aukera politikorik aproposena eskeini duelarik⁴. Intsumisioak, hortaz, sei urte bete ditu eta bitartean gauza asko gertatu da: gartzeleratze selektiboak, zigorren gogorketa (gartzelako urtebetetik bi urte, lau hilabete eta egun famatua, eta 1995ean onartutako Zigor Kode berriak ezartzen dituen ezgaikuntza zehapenetara), agintariak eragindako bereizketei aurre egiteko *plantoa*, herri eta auzoetako taldeen agerpena eta biderkaketa, intsumisioaren aldeko gizarte-koltxoiaren sendotzea (intsumisioen senideen eta adixkideen elkarteak, erakundeen aldeko aldarrikapenak, udalen “intsumisioa”...), ekintzen ugalpena, Euskal Nazio-Askatasunerako Mugimenduak (ENAM) eragozpenari buruz izan duen jarrera-aldaketa eta Malatxa taldearen sorrera⁵, eta abar luzea. PPren gobernu berriak planteiatu duen soldaduzkaren eta, hortaz, OGZren desagerpenak, mugimendu antimilitaristaren itxaropenak asetzen ez baditu ere eta, ordea, erronka berriak mahairatzen baditu ere, erakusten digu mugimendua, hein batetan behintzat, arrakastatsua suertatu dela; azken finean, urte hauetan ekimena beti intsumisioaren aldekoek izan dute, panoraman emandako aldaketa gehienak espainiar gobernuak

2. Espainiako Parlamentuak Kontzientzi Eragozpenaren legea 1984-aren abenduan onartu zuen, baina legea indarrean jartzeko araudia ez zen 1987 arte onartu, eta OGZa ez zen martxan jarri 1988 arte.

3. 1991etik Patxa eta gero Maia taldeek lortu dituzten mobilizazio mailak, halere, orain arte Hego Euskal Herrikoak eta Espainiako hainbat eskualdeetakoak baino baxuagoak gertatu dira.

4. Ikus J. Casquete (1995), *The socio-political context of mobilization; the case of the anti-military movement in the Basque Country*, MA Thesis, New School for Social Research (kopia ziklostilatua).

5. Egia esan, ez dago oraindik oso argi zein puntutaraino kontsidera daitezkeen antimilitaristak ENAMen (eta, beraz, ETAre) gaurregungo estrategiari hain loturik agertzen zaizkigun jarrera eta talde berri hauek. Aipatzekoa da intsumisioak Malatxaren ihardueran duen bigarren mailako garrantzia eta gizarte-kontrolaren gaiaren gainean egin dituen ekarpen aberasgarriak, batez ere segurtasun indarren rolar dagokionez. Eztabaida irekia dago eta, edozein kasutan, interes handiarekin jarraitu beharko dugu bilakaera hau. Liburu honek, tamalez, ezin du gai honi buruzko pista gehiegirik eman: beste talde antimilitaristei bezala partehartzeko gonbitea luzatu bagenion ere, Malatxak, azken momentuan –hots, 1996ko udazkenean–, testurik ez bidaltzea erabaki zuen.

erantzun edo erreakzio gisa hartutako erabakien ondorio baino ez direlarik. 1997an bertan hasi den “Kuarletean Insumisioa” kanpainia beste urrats bat izango litzateke bide honetan. Norainoko arrakasta eta eragina izango duen iragartzea zaila bada ere, arazoa berriro ere militarren munduan kokatzea du helburu nagusi, gehiegi “judizializatu” den “ohiko” intsumisioak indarra galdu duelakoan-edo. Intsumiso berri hauek ere uko egiten diote ejerzitoari, baina kuarletean egun batzuk igaro ondoren –lehenengo formulazioan ez bezala–. Soldaduzkaren desagerpena bizkortuko badu ere, azken orduko taktika honek ez ditu profesionalizazioak eta bake-ekintzetarako gure armada berrien imajin landuak antimilitarismoari planteiatzen dizkioten arazo berriak konponduko.

Borroka hau guztia kontestualizatu beharrean gaude, ordea. Alde batetik, ez delako ezerezatik sortzen eta, bestetik, mugimendu berri honek memoria bat behar duelako, apala bada ere. Eta hemen, esan bezala, bai soziologiaren bai antropologiaren bai historiaren lana ere behar-beharrezkoak ditugu.

Historiak “bainu antimilitarista” honen behar handiago duela uste dugu, askotan (gehienetan, esango genuke) Kondaira gizakien arteko borroka eta guden zerrenda soilaren zikinkeriaz jantzi baitute. Honek ez du adierazi nahi, jakina, errealitate militar eta beliko hori ezkutatu behar dela uste dugunik; bai, ordea, aspektu horri eman zaion lehentasuna, batipat historia nazionaletan, zalantzan jarri behar dugula, inposatu edo nagusitu den militarismoari azaldu zaizkion trabak edota alternatibak azalaraziz eta analizatuz; antzeko zerbait da, esate baterako, azken urte hauetan ekonomi lerro ortodoxoei historikoki egin zaizkien kritiketaz baliatuz ekologia edo, hobeto esanda, ekonomia ekologikoa garatzen saiatu dena, nahikoa emaitza onez gure ustez⁶. Pozgarria da benetan intsumisioaren arrakastaren inguruan dudarik gabe arlo honetan Euskal Herrian sortzen ari diren lan eta ikerketa lerro berriak, Jose Mari Esparzaren liburu ezagunak adierazten digun bezala⁷.

Soziologian, botere harremanen analisiak teoria ezberdin askoren sorrera eta garapena ekarri du, arlo eta modu askotan agertzen delako. Antimilitarismoan inplikaturiko aktore eta erakunde ezberdinen azterketa rolen zehaztapena, gizatalde ezberdinen ekintzak eta antolakuntza –haien artean herri mugimenduen– eta gizarte-sareak, besteak beste aztergai dira; eta hau guztia –inkesta soiletara murriztu gabe– desafio handia da gaurko soziologoentzat.

Antropologian errito eta errepresentazio sozialen analisia, zientzia honen parte txikia dena, oso argigarria suertatu zaigu armadaren diskurtsoaren analisian; hor dugu, gugandik nahikoa gertu, Joseba Zulaikaren lan ezaguna⁸.

6. Ikus J. Martínez Alier eta K. Schlüpmann, *La ecología y la economía*, Mexiko 1991; Euskal Herrian antzeko bide batetik egindako lana Roberto Bermejorena litzateke, *Manual para una economía ecológica*, Bilbo-Madril 1993.

7. *¡Abajo las quintas! La oposición de Navarra al ejército español*, Tafalla 1994.

8. *Chivos y soldados. La mili como ritual de iniciación*, Donostia 1989. Gure bildumako Kepa Fernandez de Larrinoaren artikulua estuki erlazionatua dago lan honekin.

Liburuaren egitura ikastaroaren gogoan zegoen berbera da eta hitzaldiak hiru bloketan sailkatu ditugu:

Iragana non estatu modernoaren sorreratik mende honetara Estatu eta Armada erakundeen bilakaera eta garaiko ‘antimilitarista’ edota ‘bakezale’ izan diren ekintzen eta pentsamoldeen adierazpena aurki daitekeen.

Oraina non egungo gizakiek armadaren analisi eta praktika ezberdinen ondorioz nagusi diren balore militarren eta antimilitarren hedapena eta erakundetzea nabarmentzen diren.

Erronkak non oraingo mugimendu antimilitaristen joerak eta praktikak zer nolako etorkizuna dakarten antzematen saiatzen den.

Autoreen ekarpen nagusiak azpimarratuko genituzke.

Lehenengo atalean –*iragana*– Joseba Zuazok Estatu Modernoak berekiko dakarren armadaren sorrera eta bilakaera erakusten digu, hain beharrezkoak ziren soldadu bilketen aurkako jarrerak bazirela argi utzirik.

Javier Ugartek, azken bi mende hauetako historiatic abiatuz, Estatu Nazioaren krisia iragartzen du eta berarekin hain loturik dagoen armada –bi estatu nagusiren adibidea hartuz– aldatze bidean dagoela azaltzen digu, mende honetako iritzi publikoa politika gerraren bidez jarraitzearen kontra egotearren.

Gorka Alijostesek Gipuzkoako zenbait herriren adibide oso dokumentatuak eskeintzen dizkigu eta joan zen mendearen azkenengo laurdenean ere gazteek soldaduzkatik ihesari ematea kasu gogorri arrunta zela ikus daiteke.

Ludger Meesen idazlana bakezaletasunaren aintzinako iturburuekin hasten da, mende honen hasieran bi kontzeptuen bereizketara heltzeko, Antimilitarismoa eta Bakezaletasuna. Garaiko Europan gerrari buruzko bi ideia diferente –komunitatean gerra eraso soila dela alde batetik eta gerra gizartearen korrupzio gisa, bestetik– izanik, garaiko kultura politikoan lehenengoa nagusitu zen eta antimilitarista erradikalak aberriaren etsaiak kontsideratu ziren. Hala eta guztiz haien ondare garrantzitsuak kultura politikoan dirau, besteak beste Europa batuaren konfliktoetan bitartekaritzaren ideia, hain zuzen ere.

Bigarren atalean –*oraina*– Gotzon Herminosillak Antimilitarismoa ideologia orokor eta iraultzaile gisa aurkezten digu –hutsune teorikoak izan arren–, ekinbide teorikoz eta praktikoz osaturiko ideologia, gizarte eredu alternatiboa bilatzen duena, eredu horren diseinua egiteke bada ere.

8. Chivos y soldados. la mili como ritual de iniciación. Donostia 1989. Gure bildumako Kepa Fernandez de Larrinoaren artikulua estuki erlazionatua dago lan honekin.

Kepa Fernandez de Larrinoak Armadak duen 'etsaia'ren gaineko diskurtsoa aztertuz, kontzeptuen azterketarako eredu zorrotza eta oso landua erabiliz, benetan etsaia zein den argitzen digu.

Luzio Tabarek Gastu militarren nondik norakoa datuz ondo horniturik erakusten digu, Estatu arrazoia agerian jarritz.

Rafael Ajangizek Mugimendu Antimilitaristaren eragina egungo gizartean nabarmena dela baieztatzen du; helburu ez instrumentala baizik eta adierazkorra izanik –gizarte aldaketa du helburu– gizartea aberastu egin du: aktore politiko guztietan, diskurtoetan, politika formalean, demokrazia partehartzailean eta Mugimendu Antimilitarista beraren esistentzian isladatzen delarik.

Iñaki Barcenak, bestalde, Antimilitarismoa eta Nazionalismoa sinbiosi alternazionista batean aurkezten digu Estonia, Eslobenia eta Euskadiren kasuak aztertuz; nazio desmilitarizatuaren dilema eta nolakotasuna kasu hurbilean planteatu nahi du.

Hirugarren atalean –*erronkak*– oraingo eta bertako mugimendu antimilitaristaren –edo antimilitaristen– ekinbideak zer nolako etorkizuna dakarren antzematen da. Mugimendu gehiagoren iritzirik jasotzen saiatu arren –Iparraldeko mugimendu antimilitaristena eta Malatxarena, batez ere–, ez dugu lortu.

Kerman Ibarrek fisko eragozpena zertan datzan azaltzen digu hala nola proiektu alternatibo honen hedapen ezaren eta ahuleziaren arrazoiak.

Iban Zaldua (KEM) mugimenduaren urratsak gogoratuz hasten da, soldadutzaren desagertzea zer ekar dezakeen – ez da hainbeste gazte hurbilduko– aztertuz jarraitzen du eta garai berriei aurre nola egin zehaztuz bukatzen da.

Angel Calvo, Zigor Murgoitio eta Eugenio Riañok (Kakitzat) borroka antimilitaristaren gailurraldia –1980 NATO– eta bidean ezagututako amuak –LOC, 3. gradua etabar– gogoratzen dituzte balantze positiboa eginez eta armarik onena zein den argi utziz: mezu antimilitarista sendotzea eta indarrak batzea.

Argi dago gai asko ukitu gabe uzten ditugula: gure helburua ez zen militarismoaren eta antimilitarismoaren unibertso historikoaren azterketa agortzea, material batzuk lotzea eta euskal publikoari aurkeztea baizik. Militarismoaren eta antimilitarismoaren inguruan esan, idatzi eta eztabaidatzen den gehiena, tamalez, erdaraz egiten da, baita gure artean ere. Alde honetatik, liburu honek badu helburu nagusi bat: euskaldungoari gai hauen inguruko eztabaidarako parada ematearena.

Edozein kasutan, eskerrak ematen bukatu nahiko genuke jadanik gehiegi luzatzen ari den sarrera hau. Lehenik eta behin, gure 1995eko ikastarora hurbildu egin zen ikasle eta entzule mordoari, zeinaren galdera eta partehartzeak bereziki aberasgarriak izan baitziren. Bestetik, ikastaroan parte hartu baina, dena delakoagatik, artikulu bihurtu ezin izan ez duen Rafael Sainz de Rozas-i bere “Objekzioa eta intsumisia Hego Euskal Herrian” dinamikarekin kurtsoaren mementurik gorenetakoa bat eskaini baitzigun. Eta, azkenik, zuri, irakurle urrikalkor horri, eskerrak baino barkamena eskatu nahiko genizuke: liburua 1996an argitaratzekoa bazen ere, ezin izan dugu lehenago plazaratu, ditxosozko betiko diru-arazoak etab. direla medio. Tamalez, atzerakuntza nabarmena da zenbait artikuluk eskaintzen dituzten “azken orduko” datuei dagokienez (L. Tabar, K. Ibarra eta talde antimilitaristen azkenengo bi idatzietan, esate baterako). Hala ere, eta noiz idatzi ziren kontutan hartuta ere, hartu genituen bezala uztea erabaki dugu. Liburu honetan bildutako lanak eztabaida eta hausnarketak aberasteko eta horrela antimilitarismoaren ekinbideak argi eta zihurrago izateko baliogarri izango direlakoan...

Alizia Barriocanal eta Iban Zaldua
Gasteizen, 1997ko apirilak 28an

IRAGANA

ESTATU MODERNOAREN ARMADA

*Joseba Zuazo
EHUko irakaslea*

Artikulu honetan Estatu modernoaren ezaugarriak aztertzen ditugu (erromatar zuzenbidea, burokrazia, zerga berriak, merkantilismoa, diplomazia, muga naturalen berreskurapena, armada iraunkorra,...). Eta beraien artean bereziki armada modernoaren deskribapena absolutismo garaian, hala nola beraren kontra sortzen ziren erresistentziak.

ESTATU MODERNOAREN EZAUGARRIAK

Ertaroko erresumen desegituraketaren ondoren eta XV. mendearen bukaeran nobleteria menperatu ahal izateko prozesuari hasiera eman zioten erregeek. Ohiko hierarkietan eta kristautasunean oinarritutako batasuna bertan behera geratu zen.

Erresuma berri hauen arazo nagusiak bi ziren:

a) lurralde batasunaren beharra, banaturik zeuden lurraldeak bildu behar zituzten;

b) politika erdiratzailea finkatzea, funtzio ezberdinak bereganatzea eta administrazio moderno eta korapilatsuagoa eraikitzea.

Bi prozesu hauek lurralde batasuna eta politika erdiratzailea gero eta bateratuago eman ziren. Frantziako erresuman Luis XI. erregearekin, Ingalaterrako erresuman Tudor leinuarekin, Gaztela-Aragoi erresumetan Errege Katolikoekin koroaren agintea nagusitu zen nobleteriaren gainean. Erresumak gero eta handiagoak izateko joera nabaritzen zen. Frantziako erresumaren kasuan, XVI. mendeko hasieran koroaren agintepean lehen independenteak ziren Borgoina eta Britainia dukerriak geratu ziren, 1493 eta 1532 urteetan hurrenez hurren. Gaztela-Aragoi erresumetan Errege Katolikoek ezkontzaren bitartez bere pertsonengan eman zen agintearen batasuna, lurralde bakoitzak bere pertsonalitatea gorde zuen arren, eta Nafarroa hala nola Granadako erresumetan konkista zela medio. Britainiar Irletan Galeseko printzerria Ingalaterrako koroaren administraziopean 1536tik zegoen.

Beste eredu politikoak zeuden: hiri-errepublikak eta hiri-jaurerriak, printzerri laikoak eta eleizakoak Alemaniako eta Italiako lurraldeetan; Errusiako eta Poloniako lurraldeetan erregetza erdiarotiarra ostera.

Lurralde batasunarekin loturik eta erret agintearen areagotzearekin batera erregetza absolutuaren teoria gauzatu zen. Mugarik eta kontrolik gabeko erregetzaren subiranotasuna zen, eta menekoei obeditzeko beharra soilik onartzen zitzaien. Haatik, teoria hau bere osotasunean gauzatu ezina zen, inongo erregetzak aginte absolutua ez baitzuen izan bere menekoen gainean, bai zuzenbide naturala, bai jainkozko zuzenbidea, bai zuzenbide forala beste subiranotasun ezberdinen iturriak zirelarik.

Bodinoren subiranotasunaren teoriak Europako pentsakera politikoan eragina izan zuen, baina baita ere arestian aipaturiko kontraesan horien ispilua zen. Bodinok botere politikoaren ideia modernoa burutu zuen; hain zuzen, lege berriak sorrerazi ahal izateko eta bere erantzukizunik gabeko nagusitasuna ezarri ahal izateko ahalmen osoa bultzatzen zuen: «Maiestate subirano eta botere absolutuaren ikurra menekoei legeak ezarri ahal izateko eskubidea da, gehienetan bere baietzik gabe».

Erregetza eta despotismoa parekatu ohi dira, baina Montesquieuk ondo bereizten zuen bata eta bestea: «Erregetzan pertsona batek agintzen du ezarritako eta finkatutako legeen arabera; eta despotismoan pertsona batek agintzen du legerik eta araurik gabe».

Garai hartan ere printzearen aginte absolututzat hartzen zuten egileak ziren James Morice (1593) eta Loyseau (1609); baina baita aginte hori legez mugaturik zegoela ere pentsatzen zuten. Ronald Mousnier-entzat, eta Frantziako erresumari dagokionean, erregetza absolutuan jainkozko eta naturazko legeek mugak jartzen zituzten; baina erret aginte mugatua bazen ere, ez zegoen batere araturik. Erresuma modernoaren ezaugarrien artean ondoko hauek bereiz ditzakegu:

1. ERROMATAR ZUZENBIDEAREN BERRESKURAPENA ETA PRINTZE IRUDIAREN NAGUSITASUNA

Erregetzen kutsu erdiratzailearen garapenarekin erromatar zuzenbidea bat zetorren. Lurralde batasunaren eta administrazio erdiratzailearen ideiak erromatar zuzenbidean kokagune ezin hobea zeukaten. Mendebaldeko erregetzen oinarrian legegizonez osaturiko administrazioa zegoen: Gaztelako erresuman letratuak, Alemaniako printzerrietan doktoreak, Frantziako erresuman “maître de requetes” delakoak. Burokrata-legegizon hauek erresuma absolutuaren defendatzailearik sutsuenak izan ziren, erromatar zuzenbideak printzeari ematen zion legegintzarako ahalmenaz eta erromatar zuzenbidezko lege bateratuen ideiaz baliatu ziren. Berpizkunde garaian mendebaldeko Europan suertatu zen sistema

juridikoen akulturzioa, erromatar zuzenbidearen erara hain zuzen ere, legegizon hauen ardura izan zen.

2. BUROKRAZIA ETA GORTEZKO NOBLEZIA

Agintaritza sendoa eta erdiratzailearekin batera erresumako eskualde guztiak kontrolatu eta lege bateratuak ezarriko zituen sistema burokratikoa garatu zen. Erresuma absoluta kontserbakorra zen heinean, ohiko pribilegioak mantendu zituen eta koroaren kontra zeuden pribilegioak edo ohiko legeak bakarrik ezabatzen zituen. Erresuma modernoan gizarte pribilegiadunak iraungo du; baina burokrazia profesionaldu zen, bereziki erregearen inguruan zeuden instituzioetako partaideak. Erresuma modernoaren instituzioak toki guztietan antzekoak izan ziren (Erret Kontseilaritzak, Kantzularitzak, Estatuko Idazkaritzak, Zuzentza Gorteak, ogasunerako erakundeak, ...).

Frantziako erresuman *Parlements* izeneko gorte subiranoak zeuden (Paris, Toulouse, Grenoble, Bourdeaux, Dijon, Aix, Ruan). Zeregin judizialak zituzten, eta Pariseko Parlamentua apelazio gortea zen, baita erresumako oinarrizko legeen zaintzailea ere. Ertain maileko agintarien artean bailioak eta seneskalak zeuden, funtzio judizialak, administratiboak eta militarrek betetzen zituztelarik.

Frantziako erresuman estamentuak ordezkaten zituzten bi motatako asanbladak zeuden. Estatu Nagusiak eta Estatu Partikularrak bereizten ziren. Estatu Nagusiak Normandia, Britainia, Borgoña, Delfinerria, Langedoc, e.a. lurralde handiei zegozkien; ostera, Estatu Partikularrak Velay, Charolais, e.a. lurralde txikiagoei zegozkien. Orokorrean erregearen agintea nagusitzen zen heinean askoz gutxiago deituak izango ziren; eta alderantziz, erret indarraren ahuleziak deiaren maiztasuna erakartzen zuen. Azken batean asanblada hauek koroaren diru beharraren arabera biltzen ziren. Gaztelako erresuman sarri biltzen ziren Gorteak Karlos V. eta Felipe II.aren erregealdietan; hain zuzen ere Komuneroen Iraultzaren ondorioz erregearen esanetara men egiten zutelako. Aragoiko erresuman Gorteen subiranotasun maila askoz sakonagoa zelako, ez zuten hain errez diru laguntzarik onartzen eta ez ziren hain sarri biltzen.

Burokraziako karguak salgai zeuden, heredagarriak eta jabego pribatu bilakatu ziren. Denbora joan ahala, burokrazia honen iruzurrak eta eraginkortasun ezak estatuko egoeran eragin ezkorra sorrerazi zuten. Gaztelako kasuan, udal mailan, kolonietan eta erresuman kargu publikoen salmenta barra-barra hedatu zen, bereziki Felipe II.aren erregealditik aurrera. Gaztelako burokrazia honek ez zuen inolako jarrera politiko iraultzailerik izan XVII. mendean.

Frantziako erresuman burokraziarik sendoena eman zen eta XVII. mendeko hasieran 40.000 lanbide publiko zegoen. Honek nobleziaren barne bereizketa (noblezia ezpataduna eta noblezia togaduna) sorrerazi zuen. Burokrata hauek zeukaten antolakuntza sistemak (gorporazioak) jarrera politiko independenteak

izan ditzaten aukera ematen zuen. Frantziako erresuman *parlements* delakoetako epaileek, eta konkretuki Parisekoek 1648an, Fronda izeneko matxinadari hasiera eman zioten.

3. ZERGA BERRIAK

Estatu berriko beharrezanean erantzuteko ohiko diru iturriak eskasak ziren eta bai pertsonengan bai merkatal elkartrukaketan zerga bereziak ezartzen saiatu ziren. Horrekin loturik beste jarrerak aurkituko ditugu: zerga berezi horiek behin betikoak eta ugariak izan zitezten; eta baita ere, zerga berriak eskatzeko Estatu Orokorretan edo antzeko instituziotan lortu behar zen menekoen onespena baztertu nahi zuten.

Gaztela eta Frantziako erresumetan erregeek instituzio horien menekotasuna lortu zuten, diru iturri berrientzako pribilegiadunen asanbladaren onspena ez zitzaizen hain beharrezkoa izaten. Erresuma guztietan zergak eta tasak ezartzeko eskubidea bereganatu nahi zuten erregeek, bereziki denbora luze eta konkretuetan zehar; adibidez, erregealdiak irauten zuen bitartean, Ingalaterrako Tudor leinuko garaian.

Zerga berriak –ugariagoak eta maizago biltzen zirenak– txiroek ordaintzen zituzten, Frantziako erresuman “*taille*” eta “*gabelle*” izenekoak, Gaztelako zerbitzuak,... Gaztela erresumako kasuan nobleziak eta apaizgoak ez zuen zergarik edo petxarik ordaintzen. Erret zergarik garrantzitsuenak ziren: Zerbitzuak eta Zerbitzu bereziak (atzerriko politikaren beharrei aurre egiteko bigarren zerbitzu hauek onartu zituztelarik); Milioien zerbitzuak garia, ardoa, olio eta elikagai arrunten gainean ezartzen ziren zergak ziren; Alkabalak salerosketen gaineko zergak ziren.

Frantziako erresuman, zerga zuzenen artean “*taille*” delakoak erret sarreraren bi herenak betetzen zituen. Armadarako dirua zen eta nekazariak ordaintzen zuten. Zeharkako zergen artean “*aides*” eta “*gabelles*” delakoak zeuden. Lehenengoa salgaien gainean ezartzen zen eta azkenean ardoaren gainean. Bigarrena gatzaren gaineko tasa zen.

Ingalaterrako erresuman diru sarrerak eta gastuak orekatuak izan zitezten ahaleginak egiten zituzten. Arrazoia Parlamentuaren paper garrantzitsuenean zetzan, bertan zerga berriekiko legeak onartu behar zituztelarik.

4. PENTSAKERA EKONOMIKOA: MERKANTILISMOA

Merkantilismoa ekonomian nagusitu zen ideia multzoa zen. Erresuma barneko mugen desagerpena eskatzen zuen, produktuen ekoizpenerako barne merkatu bateratua helburua zuelarik. Erregetzaren agintea areagotzeko helburua

izanik, ondasunen kanporaketak bultzatuz; eta oster, metale preziatu eta txanpon kanporaketen debekatuz; hala nola armez kanpoko merkatuen kontrola bermatu nahi zuten. Garai hartan munduko aberastasuna eta ondasunak mugatuak zirela pentsatzen zuten eta ondorioz barneko produkziarako merkatuak bilatu behar zituzten (Amerika, Afrika, Asia eta Europako beste erresumak). Hortik letorke gerla iraunkorraren egoera. Baita ere Erret Lantegiak sorreraziko zituzten Frantzia eta Gaztelako erresumetan, edo Merkataritza Elkarte Pribilejiatuak Ingalaterrako erresuman. Euskal Herrian Orbaizetako Armagintzarako Lantegia edo Caracaseko Merkataritza Elkarte Gipuzkoarra, esate baterako.

Merkantilismoaren arabera, estatuaren partehartzea ekonomian bultzatzen zuten. Erresuma sendotzea eta ekonomiaren kontrola elkar loturik agertzen ziren. Merkantilismoa gerlazalea zen oso (Montchrétien, Jean Bodino), gerla iharduera ekonomiko errentagarria eta ezinbestekoa jotzen baitzuten.

5. DIPLOMAZIAREN AGERPENA

Erresuma modernoaren tresna berria zen. Italiako lurraldeetan XV. mendean asmatua, XVI. mendean Europa osoan zehar zabaldu zen. Europako erresumen arteko harreman sistema zen; gehiago zeukan espioitzaz (erresumako arlo ahulenak edo atzerriko arriskuak aurrikustea) diplomaziaz baino. Lehendabiziko erregetza erdiratzaileekin batera atzerriko erresumetan enbaxada iraunkorrak ezarri zituzten.

6. ARMADA IRAUNKORRA ETA ETENGABEKO GERLAK

Estatu absolutuaren ezartzearekin batera XVI-XVII. mendeetan garatu ziren profesional-armadaren oinarriak. Felipe II.aren armadak 60.000 soldadu zuen bitartean, ehun urte geroago, Luis XIV.aren armada 300.000 soldaduz osaturik zegoen. Oraindik ez zuten inolako zerikusirik estatu garaikide eta burgesaren armadarekin (ikus, honetarako, Jabier Ugarteren artikulua, liburu honetan bertan). Une hartan ez zegoen armada nazionalik, ezta ere egin beharreko zerbitzu militarrik, eta soldadu nahasmena ohikoa zen, non atzerriko mertzenarioek armadaren ardatza osatzen baitzuten. Mertzenari hauek erregetza erdiratzaile berri hauek lurraldeetatik kanpo biltzen ziren, eskualde menditsuetako miseriak kanporatzen zuen biztanlegoak partaide hauek eskeintzen zituelarik. Frantzia, Holanda, Gaztela, Austria eta Ingalaterrako armadetan suabiarrak, albaniarrek, suitzarrak, irlandatarrak, galestarrak, turkiarrak, hungariarrak, italiarrak eta euskaldunak biltzen ziren.

Mertzenarioen erabilera eta nobleziaren mesfidantza bere menekoekiko (nekazariak, ertaineko klaseak) loturik agertzen ziren. Jean Bodin-entzat, errepublika batean meneko guztiak armez janztea eta meneko hauek legeekin edo

nagusiekin bat egitea ezinezkoa zen. Beraz, matxinadari zitzaion beldurraren ondorioa zen armada mertzenaria. Artean, XVIII. mendeko bukaeran edozein armadatak bi herenak mertzenariak ziren, nahiz eta ezinbesteko zerbitzu militarra ezarrita egon.

Estatu modernoa edo absolutista gerlarako makina besterik ez zen. Adibidez, estatu frantsesean bildu ziren lehendabizikoetarako zergak, “taille royale” delakoek helburu militarra zeukaten, “Compagnies d’ordenance” ordaindu ahal izateko. Edo XVI. mendeko estatu espainolean errenten %80a gastu militarri zegokion. Frantziako Iraultza aurreko garaian erresumako “diru aurrekontuetan” gastu militarrek dirusarrerak baino gehiago ziren.

Absolutismo garaian nazioarteko gerla egoera iraunkorra zen. Bakealdia hogeita bost urteetako bazen XVI. mendean, zazpi urteetara mugatu zen hurrengo mendean.

Mendebaldeko Europan erresumako indar militarra eta aberastasuna (ekoizpenerako gaitasuna nola diru sarrerak) elkar loturik agertzen ziren. Erresuma hauen artean inork nagusitasun absolutua lortu ez zuenez, gerlek helburu militarra zuen ikerkuntza bultzatu zuten (Kennedy, 1994). Teknologiak eta merkatal aurrerakuntzak ere norgehiagoka horretan parte hartzen zuten eta hazkuntzarako oztoporik ez zegoen bitartean, garapen ekonomikoa eta eraginkortasun militarra batera eta espiralean gauzatzen ziren. Adibidez, Habsburgotarren Leinuak (1500-1650) eta beraiek osaturiko erlijio aliantzak iharduera militarretan gehiago gastatu zuten bere oinarri ekonomikoak eskaintzen zuena baino. Geroago XVIII. mendean, armada erregularraren kostua hain handia izanik, banka eta diru mailegu sistema garatu zituzten erresumek (Ingalaterra kasu) beste erresumen artean abantaila izugarria lortu zuten. Hala ere bilakaera ekonomikoa eta garaipen militarra ez datoz bat denboran zehar eta ezin dugu esan determinismo ekonomikoa zegoenik. Kokapen geografikoa, antolaketa militarra, aliantza sistemak, e.a. eraginkorrak ziren.

Aro Berriaren hasieran Europako egoera politikoaren nahasmena nagusi zen: erresuma eta printzerri txikiak, jaureriak, hiri estatuak bakoitza bere aldetik eta inolako gidaritzara politiko erlijiosorik ez. Gainera hurrengo mendeetan izango ziren mundu potentzietan, Gaztela, Aragoi, Frantzia eta Ingalaterrako erresumetan, barne tentsio ugari zegoen. Eta mundu mailan zibilizazio gune garrantzitsuenak antzeko egoeran zeuden (Europa, Turkiar enperadoregoa, Ming Leinuko Txina, Mogolen garaiko India, Moskobiako dukerria). Bata bestearen atzean gailurrera heldu ziren eta ondorengo porrota jaso ere. Txinan XV. mendean burokraziaren jarrera atzera-koi eta kontserbakorraren ondorioz gainbehera suertatu zen. Erresuma musulmanek XVI. mendean nagusitasuna lortu zuten, baina Turkiar enperadoregoak bilakaera ekonomikoa sorrerazi ezin zuenez, berriztapenen kontrako jarrera kontserbakorrak azaldu ziren. Indiako enperadorego mogolean

gerlen gastuak porrota erakarri zuen. Japonian Tokugawa Leinuak XVII. mendean autobazterketa bultzatu zuen. Moskobiako Dukerriak mendebalderuntz hedapen geografikoa mugaturik zeukalako eta teknologikoki eta ekonomikoki atzeratutik zegoenez, osagai militarra soilik eskuratu zuten, bolboraren teknologia hain zuten.

Europako mendebaldean aurrerakuntza ekonomikoak eta teknologiaren dinamikak, egitura sozialak, geografiak eta zatiketa politikoak, deszentralizazioa eragin zuten. Baina erresumen arteko elkar harremanak merkatal ekonomiaren bitartez gauzatu eta merkataritzaren etekinetatik zergak jasotzen zituzten. European botere militarren kontzentrazioa eman zen eta erresuma edo errepublika aberatsak armada indartsuak zituzten. Eta artilleriaren monopolioa Gaztela, Frantzia eta Ingalaterrako erresumetan eman zen. Baina gune ekonomiko eta militarren aniztasunean zetzan zentralizaziorako oztoporik nagusiena eta armagintza lasterketa eman zen gune politiko guztien artean. Armada diruz ordaintzen zenez bere eraginkortasuna bermatu nahi zuten, diru iturri iraunkorrak (zergak) sorrerazi eta ziurtatu nahi zituztelarik.

European eman zen aniztasun politikoaren ondorioz, ez zegoen beste erresumen gainean boteregune indartsurik; nagusitasuna lortu nahi zuen erregetzak teknika militarra hobetu eta garatu behar zuen. Beraz lurralde ezberdinak menperatu ahal izateko artilleriaren garapena eman zen (mugikorra eta kalibre handikoa) eta baita ere honi aurre egiteko murraila eta gotorlekuen handitasuna bultzatu zuten, honi zegokion diru kostuarekin batera. Itsas enperadoregoaren nagusitasuna lortu ahal izateko ere bolboraren erabilera indartu zen eta honekin batera itsasuntzigintzaren garapena. Europako itsasuntzi astunek (karabela, galeoiak) aukera gehiago ematen zuten kalibre handiko kainoiak jarri ahal izateko. Honek ere diru inbertsiorako joera sorrerazi zuen, aurrera eraman nahi zituzten egitasmoak (bidaia geografikoak, datu geografikoen bilketa sistematikoa, faktorien ezarpena,..) gauzatu zitezen.

Itsas arkitekturan aldaketak eman ziren luzaera handiko eta su potentzia gehiago zuten kainoiak ezarri ahal izateko, eta honek ere itsas komunikazioa ziurtatzeko tresna baliagarria suertatu zen. Itsas gerlan taktikak ere aldatu zituzten. Lehen abordaiak erasotzen bazuten, geroago artilleriaz itsasuntziak txikitzen hasi ziren.

Modernitatea ere gerlara heldu zen eta gizarte mailan zenbait erresumatan eta alorretan eman ziren aurrerakuntzak (entrepresaren ideia, arriskuaren ideia, lehiaren ideia,..) iharduera militarretan ere ezarri zituzten.

NAZIOARTEKO GERLA LEGEEN AGERPENA

Aintzinako zibilizazioetan ere gerlarekiko mugak ezartzen zituzten. Hain zuzen, legerik gabeko gerlen ondorioak alde bientzako are kaltegarriagoak izango zirela, ur pozoinqueta eta baso erreketak debekatzeko saioak egin zituzten. Adibidez, Egipton K.a.1400 urtean gerla presoekiko tratuak arautu ahal izateko, Indian K.a. 500 urtean Manu legedian pozoinketak eta legezkoak ez ziren armak debekatu ahal izateko, edo Islamiarrek K.o. 600 urtean Koran liburuan oinarritutako lehenengo nazioarteko legedia osatu zuten, non suzko armak, ur pozoinketak eta baso erreketak debekatzen baitzituzten. Bere helburua gerletan gizaldekoko neurriak ezartzea zen. Eleiza katolikoan ere Agustin (354-430) eta Tomas de Aquino (1225-1274) bidezko gerlaren aldeko jarrera azaldu zuten. Letran-go Kontzilioan (1139) arma jautikitzailak gaitzestu zituzten ere. Ingalaterran XIV. mendeko bukaeran gerla presoekiko eta zibilekiko arauak legeztatu zituzten. Baina neurri utopiko hauek bertan behera gelditu ziren.

Aro Berriaren hasieran, Hugo Grocio-k (*De Jure belli ac pacis*, 1625) nazioarteko legediaren hastapenak finkatu zituen. Honek, legedi naturalaren eraginpean eta Hogeita eta Hamar Urteetako Gerlaren ondorioz, gerla preso, gerla zakura, zigor kolektibo eta beharrezko ez ziren kalteekiko zalantzak azaleratu zituen.

Geroago XVII. eta XVIII. mendeetan Ilustrazioaren eraginpean gerlaren aurkako jarrera etikoak eta arrazionalistak burutu zituzten. Bai Jean-Jacques Rousseau eta *Enciclopèdie*-ren jarraitzaileak estatu frantsesean, bai Bentham Britainiar irletan eta bai Kant ideia bakezalen alde agertu ziren. Ideia hauek askoz gehiago hedatu ziren Estatu Batuetan eta Britainia Handian, bereziki egoera geografikoagatik eta bertan zeuden armada profesionalak disziplinatuta ahal izateko. Bestalde, Napoleon-en armada herrikoia eta Von Clausewitz-en gerla osoaren ideiak (*Gerrari buruz*, 1845) ere azaldu ziren.

ESTATU FRANTSESEKO ARMADA XVIII. MENDEAN

Ahalik eta gutxien militarizaturik zeuden erresumen artean Espainiako eta Frantziako erresumak zeuden; biztanlegoaren hazkuntzak ez zekarren armada erregularren hazkuntza (Frantziako erresuman soldadu bat/145 biztanle artean, 1789an) eta Erresumako kredituen %20a baino gutxiago jasotzen zuen lur armadak. Bestaldetik, Ilustrazioaren eraginez militarrek eta jauntxoek ez dute hierarkia sozialen gailur osoa beteko, eta hauen ordeztasunak jakitunek eta ekoizleek ere gorengo maila horretan lekua aurkitu zuten. Ondasun ekonomikoaren ekoizpenak, aberastasunak eta ekonomiak nagusitasuna izango zuten armadaren aurrean.

Armada erregularretik at, mertzenarioak zeuden eta baita ere miliziak ditugu. Burgeseriaren miliziak armadaren laguntzaileak ziren, eta hirietan polizia lana eta

lurraldeko defentsaz arduratzen ziren. Itsasaldeko miliziek kostaldean etsaien lurrartzeak kontrolatu behar zituzten. Erret miliziak, probintziako tropak edo erregimenduak gaizki ikusita zeuden eta armadarako erreserba ziren. Kolonietako miliziak Kanadan kokatzen ziren, 16 eta 60 urte arteko gizonetako osaturik zeuden. Milizia hauen nagusiak jauntxoak eta burgesak ziren, ez zuten disziplina militarrik onartzen eta gerla irregularerako egokienak ziren.

Soldaduen altxadetan kontutan hartzen zituzten baldintzak ziren garaiera (1,50 metrotakoa), 18 urte baino gehiagoko ezkongabekoak izatea, zozketaz aukeratzen zituztelarik 6 urteetarako. Seme bakarrak, apaizen eta jauntxoen zerbitzariak eta baita dirutza ordaintzen zutenak ere (20-60 libera) soldadutzatik libre geratzen ziren. Milizia hauetako nagusiak eskualdeko jauntxoak ziren eta urtean zehar zenbait egunetan biltzen ziren prestakuntza militar eskasa jaso ahal izateko.

Armada erregularra bolondresez osaturik zegoen, baina hauek alperrak, talde sozial baztertuak, lapurrak, protestanteak, diru zorretan zeudenak, umezurtzak, e.a. ziren. Sorterriari zegokionean 2/3 nekazaritza-guneetakoak ziren, eta hauek zalditerian parte hartzen zuten; ostera hiritarrek alfabetizatuak zeudenez azpiofizialen zereginak eskuratzen zituzten.

Atzerriko tropek armada erregularraren %25a betetzen zuten. Garaiko usteen arabera, mertzenarien erabilerak ez zuen nekazaritza edo artesaugintzan eragiten, etsaiez balizko soldadu bat gutxiago zegoen eta erresumak beste soldadu berria irabazten zuen. Suitzarrak, alemaniarak, irlandarrak eta italiarrak ziren nagusiki.

Infanteria XVIII. mendean armadaren zati garrantzitsuena zen. Batailoiak ziren oinarrizko talde taktikoak. Fusilariak su-potentzia altua zeukaten, adibidez Prusiako Federiko II. erregealdian 5 tiro minutuko su-potentzia zeukaten.

Granaderoak elitezko soldaduak ziren. Bakarka borrokatzen zuten kolumnen hasieran. Ofizial txiroentzat bultzapenerako baliabidea zen. Baina XVIII. mendean granadak artileriaren eta injeniariaren eskuetan geratu zirenez infanterian barneratu zituzten. Ehiztariek ere bakarka borrokatzen zuten eta tiratzaile moduan aritzen ziren.

Zalditeriaren kopuruari zegokionean infanteriaren laurdena zen. Eskuadroiak ziren oinarrizko talde taktikoak. Sablez, pistolaz, lantzas eta korazaz horniturik zeuden. Zalditeriaren barne zeuden beste multzoak: dragoiak zaldizko infanteria ziren eta zaldizko ehiztariek zalditeria azkarra osatzen zuten.

Arteria alorrean mende honetan kalibreen estandarizazioa eman zen. Taktikoki su-potentzia altuena toki zehatzetan lortu nahi zuten murrailak desegiteko helburuarekin eta metrailazko bonbak ere erabiltzen zituzten. Artillerian izango duen erabileraren arabera espezializazioa eman zen eta ondorioz artilleria mugikorra eta tiro egiteko maiztasun oso altua lortu zuten.

Injenieritzak itsasportuko eraikuntzaz eta defentsaz ardura zeukan, geroago gotorleku eraikuntzaz ere. Ikastetxe edo eskola berezietan (“Ecole de Ponts et Chaussées”) goi mailako prestakuntza matematikoa jasotzen zuten ingeniariak. Zientzi Akademiako kideek injeniarigaien maila zientifikoa aztertzen zuten. Formakuntzari zegokionean, ikastetxe pribatuetan edo nobleziaren mintegietan aurreikasketak burutzen zituzten.

Hasieran itsasarmadan ez zegoen inolako bereizketarik merkataritzarako eta gerlarako itsasuntzien artean. Portuz portu arrantzale eta marinelen zerrendak zeuden, eta horietatik gerlako itsasarmadarako marinela aukeratzen zituzten. Eta itsasuntzietan marinelen eskasia nabaritzen zen. Ondorioz marinela aldez aurretik nekazariak edo hirietako artesauak izandakoak ziren. Denboraz gero eta su-potentzia gehiago zeukatenez itsasuntzien tonelaia askoz astunagoa zen.

Itsasarmadako ofizialek XVIII. mendean elite zientifikoa osatzen zuten, beraz ez zeukaten prestakuntza militarra soilik. Ilustrazioaren ideiez jantzirik zeuden eta goiko nobleteria liberalaren taldean kokatu ditzakegu. “Guardiamarina” izatea, nobleteria frogak eta matematikako ezagutza sakona ezinbesteko baldintzak ziren ofizialgaiantzat. Denboraz ofizialen kopurua hasiz zenean, nobleteriaren eskaera bigundu zen. Ofizialen prestakuntza teorikoa ona bazen, praktika alorrean Ingalaterrako ofizialak baino txarragoak ziren.

ESTATU ESPAINOLEKO ARMADA XVIII. MENDEAN

Gaztelako erresuman Borbondarren Leinuak XVIII. mendean armadan eta itsas armadan eraldaketa handienak erakarri zituen. Felipe V.ak armadako eredu frantziarra ezarri zuen eta bere ondorengo guztiek horren jarraitzaileak izan ziren. Karlos III.aren erregealdian instituzio pedagogiko berriak, eskola militarrek eta akademiak finkatu ziren. Hego Euskal Herrian, Bergarako Mintegiko ikasketak aprobetxatuz, akademia militarreko ikasketekin parekatzeko egitasmoa proposatu zuten.

Erret armadaren osagaiak infanteria, zalditeria, artileria eta injeniariak ziren. Azken multzo bi hauek Ilustrazioaren ondorioz eraldaketa garrantzitsuenak jaso zituzten. Ikasketa zientifikoak (fisika, kimika, matematika, astronomia) orduz geroztik ikastetxe berezi horietan irakatsiko zituzten eta armada barnean jakiturian oinarritutako hierarkizazio sozial berria ere heleraziko da.

Infanteria Habsburgotarren Leinuaren garaian atzerritarrez osaturik bazegoen, XVIII. mendean atzerritarren garrantzia gutxitu zen eta infanteria zaharra edo erresumako soldaduz osaturikoa garrantzitsuagoa bilakatu zen. Atzerritar hauek waloniarrek, suitzarrak, italiarrak eta irlandarrak ziren, askotan beste armadetako iheskariak. Mende honen bukaeran bataloi azkarrak eta oso mugikorrek antolatu

zituzten. Lineazko erregimentuetan soldadu profesionalak ziren, fusilariz eta granaderoz osaturik zeuden. Probintzietako erregimentuak Gaztelako erresuman soilik ematen ziren. Partaideak bolondresak ziren, baita ehizariz eta granaderoz osaturik zeuden. Nagusi hautakorrak zituzten. Probintzietako miliziak, bere izenak adierazten duenez, bilduak izan ziren tokiko edo lurraldeko defentsaz soilik arduratzen ziren. Partaideak zozketaz aukeratuak izaten ziren. Erret Etxeko zalditeria eta infanteria armadako erreserbak ziren. Zalditeria aristokraziaren semeez osaturik zegoen.

Artileriarri zegokionean, XVIII. mendean zehar espezializazio prozesuari hasieran eman zioten. Partaideak indartsuak izateaz aparte, gutxienezko heziketaren jabe izan behar ziren. Injenieriak artileriatik bereiztu ziren eta bere zereginen artean helburu militarrik zituen geografiaren erabilera zegoen (kartografia hala nola eraikuntza militarrik burutzen zituztelarik).

Erret Armadaren gain eta lurralde foraletan milizia foralak zeuden. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroko lurraldeetan erret armadarako deitua izateko salbuespena zegoen eta Diputazio Foralek bere defentsarako gudatalde propioak antolatzeke eskubidea zeukaten, soldaduak bildu, hezi, armaz jantzi eta elikatu besteak beste. Baina milizia hauek ezin zuten bere lurraldeko muga zeharkatu eta lurralde barruan soilik borrokatu zezaketen. Mugatik kanpo bolondresak soilik joan zitezkeen eta erregeak ordaindutako soldataren kontura.

Soldaduen biltzea Batzar Nagusi edo Diputazio aurrean erregearen eskaerarekin hazten zen, geroago lurralde eta herri mailako konpainiak osatzen zituzten, hurrenez hurren soldadu bolondresez, ezkongabeez eta ezkonduz. Adinari zegokionean 18 eta 60 urte bitartean zuten eta zenbait kasutan salbuespenak ematen ziren: alargunen semeen artean bat bakarrik zozketatzen zuten, ezkonduak, familiaren euskarri ekonomikoa ziren semeak, elbarrituak, enplegu publikodunak, armagintza lantegietako langileak, apaizak, famili buruak.

Euskal Foruak ematen zituzten eskubideak zirela eta, milizia foral hauen buruak (koronelak eta erregeordeak) ez zeuden erret armadako zuzendaritzapean; ondorioz bion arteko tirabirak eta salaketak areagotu ziren. Bestaldetik soldaduen prestakuntza militar eskasa zenez hilkortasuna eta desertzioak ugaltzen ziren borrokan sartzen ziren unean. Desertzioak sarritan herrietako biztanlegoaren eta agintarien laguntzaz ematen ziren.

Itsasarmadan antzeko egoera aurkituko dugu. XVIII. mendean zehar berriztapen materialak egin zituzten, baina marinelen prestakuntza eskasa eta baliabide ekonomiko eza ziren nagusi. Azkenean aurreiritzi ideologikoen eraginez, Ilustrazioarekin loturik berriztapenen ideiak goiko klaseen artean soilik zabaldu nahi zituzten eta beheko klaseen artean heziketa berriztatuen apurrak jasotzen zituzten.

Itsasarmadako ofizialen gorpua zen ardatz nagusia. Guardiamarinen Eskolan (Kadiz) ikasketak burutu behar zituzten; hasieran nobleziako semeak ziren, baina ofizialen beharra areagotu zenean sarrera askoz libreagoa bihurtu zen. Ikasketa maila zientifikoa aurreratua zen oso, baina prestakuntza praktikoak ez zuen halako mailarik. Orokorrean marinel gutxi zegoen ala merkataritza ihardueretan parte hartzen zuten.

Aro Berrian soldadu altxada edo biltze sistemari zegokionean, zenbait adibide hurbil eman dezakegu. Bizkaiko kasuan eta XVIII. mendean marinelen altxadarako hiri, itsasportu eta inguruko elizaurretako fielek eta alkateek Bizkaiko Idazkaritzara marinelen zerrenda bidali behar zuten, marinel bakoitzaren lanbide eta hutsunen xehetasunez. Baita itsasuntzietarako zurginak eta itsasarotzenak ere. Zenbait kasutan marinelak itsasontziak El Ferrolera porturatzeke soilik beharrezkoak ziren; beste kasutan itsasontzien zerbitzurako marinelak behar ziren. Honen trukez soldata berezia jasotzen zuten. Hala ere Gaztelako armada eta Foru instituzioen artean istilu ugari sortu zen. Marinelak biltzeko sistema zenbait kasutan Euskal Foruen aurka zihoala eta Foruhauste hauen ondorioz aipamenak aurkitzen ditugu; legeek betetzearen beharra behin baino gehiagotan aldarrikatzen zutenez lege horiek gutxitan betetzen zirela pentsa dezakegu. “Real Ordenanza de Marina” delakoa kolokan jartzen zen, hortaz. Aldez aurretik Ordenantza horien bost artikuluko soilik bete ahal izateko eskaerak egin zituzten Bizkaian. Zenbait herri agertu ziren nahaspilatua arazo honetan, hain zuzen Ajangiz, Sondika, Erandio eta Baratzaldea. Soldaduen bilketak osatu ahal izateko espetxe-zigorak edo erbeste-ratzeak maiz erabiltzen ziren, Donostiako murrailak konpontzerakoan kasu.

Orokorrean gizarte tradizionalen krisiaren zioak aztertzerakoan gastu militarren eragina gututz azpimarragarria da. 1789ko Iraultza baino lehen Frantzia erresumako finantzetan ematen zen desorekaren arrazoia gastu militarrei aurre egiteko hartu zuten diru maileguren interes ordaindu ezinak zeuden. Beraz, egoera ekonomikoa larriagotzen zenean, maiz armadako soldadu bilketaren aurkako jarrerak azaltzen ziren.

BIBLIOGRAFIA

- Agirreazkuenaga, J. (1993), *Gerra eta bakea Euskal Herrian. Politikagintza lege zaharraren krisialdian*, Gaiak, Donostia.
- Alcoberro, Agusti (1987), “Entre segadors i vigatans: l’ocupacio francesa de 1694-1698”, *L’Avenc*, (109).
- Alvarez-Caperochipi, José A. (1986), *Reforma protestante y Estado moderno*, Madril.
- Andujar Castillo, Francisco (1979), “Aproximación al origen social de los militares en el siglo XVIII”, *Chronica Nova*, Instituto de Estudios Almerienses.

- , (1990), “Militares e Ilustración. El pensamiento militar de Manuel Aguirre”, *Chronica Nova*, Instituto de Estudios Almerienses.
- Arnaiz Hidalgo, Alejo (1990), “Del ejército de la Ilustración al ejército nacional”, *Revista de Historia Militar*.
- Barrenechea, J. M. (1984), *Valentín de Foronda*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.
- Berenger, Jean; Meyer, Jean (1993), *La France dans le monde au XVIIIe. siècle*, Paris.
- Borreguero Beltrán, Cristina (1989), “Administración y reclutamiento militar en el ejército borbónico del siglo XVIII”, *Cuadernos de Investigación Histórica*, Seminario Cisneros.
- Calvo Poyato, José (1980), “La reforma militar de Felipe V”, *Historia 16*.
- , (1983), “Medio siglo de levas, reclutas y movilizaciones en el reino de Córdoba (1657-1712)”, *Axerkia*.
- Castillo Coloma, Tx. (1986), “Konbentzioko gerla Nafarroan (1793-1795). Gipuzkoa nazionalismorantz zihoan bitartean”, in *Principe de Viana, I Congreso de Historia de Navarra de los siglos XVIII, XIX y XX*, Gobierno de Navarra, Iruñea, 197-240 orr.
- Centre National de la Recherche Scientifique (arg.) (1987), *Génesis medieval del estado moderno, Castilla y Navarra, (1270-1370)*, Valladolid.
- Cepeda Gómez, J. (1990), *El ejército español en la política española (1787-1843). Conspiraciones y pronunciamientos en los comienzos de la España liberal*, Fundación Universitaria Española, Madrid.
- Colloque Internationale d'Histoire Militaire (1991), *L'influence de la Révolution française sur les armées en France, en Europe, et dans le monde*, Vincennes.
- Contreras Gay, José (1981), “Aportación al estudio de los sistemas de reclutamiento militar en la España moderna”, *Anuario de Historia contemporánea*.
- Corona Marzol, Carmen (1986), “Valencia y las milicias provinciales borbónicas. Intentos de introducción y oposición institucional en el siglo XVIII”, *Millars. Geografía e Historia*.
- Cortés Cortés, Fernando (1982), “Guerra en Extremadura: 1640-1688. Ejército, financiación y consecuencias”, *Revista de Estudios Extremeños*.
- Crossman, R. H. S. (1981), *Biografía del estado moderno*, Mexiko.
- De La Torre, J. (1986), “Miseria en la Montaña Navarra: secuelas de la Guerra contra la Convención y años de malas cosechas (1793-1807)”, in *Principe de Viana, I Congreso de Historia de Navarra de los siglos XVIII, XIX y XX*, Gobierno de Navarra, Iruña, 197-240 orr.
- Díaz, Furio (1994), *Europa: de la Ilustración a la Revolución*, Madrid.
- Esparza Zabalegui, José María (1995), *Abajo las quintas*, Tafalla.
- Fernández Durán, R. (1995), “Geronimo de Ustariz y la estrategia militar en el siglo XVII”, in *Gerónimo de Ustariz Historia Institutuaren Aldizkaria*, Geronimo de Ustariz Historia Institutua, 9-10 aleak, Iruñea.
- Ferrán Toledano González, Lluís (1990), “Aux armes Citoyens! Reflexiones sobre l'organització de l'exercit de la Revolució francesa”, *Manuscripts. Revista d'Historia Moderna*.

- Floristán Imízcoz, J. M. (1993), “Conflictos fronterizos, espionaje y vascuence a finales del siglo XVI: 20 documentos inéditos”, *Fontes Linguae Vasconum*, Año XXV, nº 63, Mayo-Agosto.
- Fontana, Josep (1987), “El alimento del estado. Política y hacienda en el Despotismo Ilustrado”, *Hacienda Pública Española*.
- Gil Muñoz, Margarita (1989), “Un estudio sobre mentalidades en el ejército del siglo XVIII (La actitud ante la muerte a través de los testamentos de los oficiales en el reinado de Carlos III)”, *Cuadernos de Historia Moderna*.
- Gómez Ruiz, M. (1989), *El ejercito de los Borbones*, I eta II, Madril.
- Goyheneche, J. (1985), *For et coutumes de Basse-Navarre*, Baiona.
- Gramsci, Antonio (1972), *Notas sobre Maquiavelo, sobre política y sobre el Estado moderno*, Buenos Aires.
- Grozio, Hugo, *De Jure belli ac Pacis*, 1625.
- Gurruchaga, I. (1933), “La matxinada del año 1766 en Azpeitia. Sus causas y desarrollo”, *Yakintza*, 5, 373-392 orr.
- Harris, M. (1980), *Guerras, vacas, cerdos y brujas*, Alianza, Madril.
- , (1987), *Introducción a la Antropología Cultural*, Alianza, Madril.
- Herrero-Brasas, Juan M. (1991), “Informe crítico sobre el servicio militar”, *Claves de razón práctica*.
- Jaume, Lucien (1990), *El jacobinismo y el estado moderno*, Madril.
- Juliá, Santos (1990), “La guerra en la formación de los estados europeos”, *Claves de Razón práctica*.
- Kennedy, Paul Michel (1989), *Naissance et déclin des grandes puissances: transformations économiques et conflits militaires entre 1500 et 2000*, Paris.
- Maraval, José Antonio (1986), *Estado moderno y mentalidad social*, Madril.
- Marchena Fernández, Juan (1979), “La financiación militar en Indias: Introducción a su estudio”, *Anuario de Estudios Americanos*.
- , (1990-92), “Reformas borbónicas y poder popular en la América de las Luces. El temor al pueblo en armas a fines del período colonial”, *Anales de Historia Contemporanea*, Universidad de Sevilla
- Martínez Ruiz, E. (1977) “Una aportación fundamental al ejército español bajo los Austrias”, *Anuario de Historia contemporanea*, (4).
- Miller, John (1987), “Cromwell y la restauración”, *Historia 16*.
- Morales Moya, Antonio (1988), “Milicia y nobleza en el siglo XVIII”, *Cuadernos de Historia Moderna*.
- Orpustan, J.B. (1991), *1789 et les basques*, PUB, Bordele.
- Parker, G. (1976), *El ejército de Flandes y el camino español, 1567-1659. La logística de la victoria y derrota de España en las guerras de los países Bajos*, Revista de Occidente, Madril.
- Pereiro Barbero, María P. (1985), “Absolutismo, ejército y privilegios sociales”, *Estudios de Arte, Geografía e Historia*.
- Pérez Marcos, Regina María (1991), *El poder en Castilla al comienzo del estado moderno*, Universidad Complutense, Madril (Tesia).
- Poulantzas, Nicos (1985), *Hegemonía y dominación en el estado moderno*, Mexiko.

- Quatrefages R. (1977), "A la naissance de l'armée moderne", *Melanges de la casa de Velazquez*, (13).
- , (1978), "Colloque du 12 mai 1977: Les militaires et le pouvoir dans le monde iberique. Introduction historique", *Melanges de la casa de Velazquez*, (14).
- , (1980), "La elaboración de una nueva tradición militar en la España del siglo XVI", *Cuadernos de Investigación Histórica*, Seminario Cisneros.
- , (1981), "Etat et armée en Espagne au debut des temps modernes", *Melanges de la casa de Velazquez*, (17).
- Ramos Martínez, J. (1986), "Especial situación sanitaria creada en Pamplona a consecuencia de la Guerra contra la Convención", in *Principe de Viana*, I Congreso de Historia de Navarra de los siglos XVIII, XIX y XX, Gobierno de Navarra, Iruña, 331.-344. orr.
- Ribot García, Luis Antonio (1983), "El ejercito de los Austrias. Aportaciones recientes y nuevas perspectivas", *Pedralbes. Revista d'Historia Moderna*.
- Roy, Ian (1987), "La revolución inglesa. La derrota de la monarquía (1642-1649)", *Historia 16*.
- Sales, Nuria (1986), "Servei militar i societat: La desigualtat anfront del servei obligatori, segles XVII-XX", *L'Avenç* (98).
- Servicio Histórico Militar/Gárate Córdoba, J.M. (1985), *Historia del ejército español*, Servicio Histórico Militar, Madril.
- Simposio Internacional Organización del Estado Moderno en Italia y España (1992), *El estado moderno en Italia y España*, Bartzelona.
- Strayer, Joseph R. (1986), *Sobre los orígenes medievales del Estado moderno*, Bartzelona.
- Tenenti, Alberto (1985), *La formación del mundo moderno*, Bartzelona.
- Thomson, I.A.A., *Guerra y decadencia*, Crítica, Bartzelona.
- Vicente Alguero, Felipe J. de (1988), "El ejercito en Cataluña durante el reinado de Carlos III", *Pedralbes. Revista d'Historia Moderna*.
- Vidal Plá, Jordi (1988), "La comunitat vilatana davant l'exercit al segle XVIII: Villafranca i el Penedes", *L'Avenç*, (115).
- ZZ.II. (1994), *Los ejércitos*, Fundación Sancho el Sabio, Gasteiz.

ARMADA NAZIONALA ESTATU LIBERALAREN GARAIA (XIX-XX. MENDEAK)¹

Javier Ugarte
EHUko Irakaslea

LABURPENA

Gaur egun munduan zehar ikus ditzakegun armaden oinarriak Estatu liberalaren eraikuntzaren inguruan sortuak dira. Transformazio *historiko-politiko* orokor baten giroan eman ziren beraz (*hiritar, nazio*, e.a. kontzeptuen giroan). Hala ere, *gerrak* berak sortu zituen beharrek ere izan zuten eragina armadek kinka haretan hartutako egitura (helburu pragmatikoak dogmatikoen gainetik azkenean; zentzu honetan, Napoleonen Frantziari propio lotua dago armada modernoa). XIX. eta XX. mendeetan zehar osatzen –eta nolabait aldatzen– joan zen jatorrizko egitura hura (Estatu nazionala aldatzen joan zen era berean). Iraultzak sortutako armadari Ilustrazio garaitik zetorren *erregimentu* sistema erantsiz (hobeto moldatzen baitzen Estatu liberal *heldura*), Clausewitzen teoria militarra (gerra politikaren luzapen bezala) eta von Moltkeren proposamen teknikoak medio izan zirelarik, *konskripzio* izaera finkatu zen armada eredu unibertsal gisara, gizartea bera inoiz aurretik egon ez zen eran militarizatuz (1914a izango litzateke honen epitome eta gailur). Etorkizunera begira, armadek –egun hartu duten egitamua- rekin– Estatu nazionalen patu berea izanen dutela esatea ez da eragabekeria (biek eraikintza historiko berari dagokion neurrian). Eragin haundia izan dezakete ere egun dauden joera antimilitaristek (mendebaldeko kulturaren erabat zabaldua egon den, eta dagoen, ideia clausewitzarraren aurkakoak eta kultura zaharragoetan garatu izan den *gudua mugarritzearen* aldekoak), eta baita azkenengo aldaketa estrategiko eta finantza-beharrek.

ADIERAZPEN GISA

Armaden historia egiterakoan badago hainbat ikuspegi hartzerik. Badago bere aldaketa tekniko-militarren historia egiterik². Baita –eta ideien historia mailan–

1. Testu hau, liburuko gehieneak bezala, Iruñean uztailearen 25ean emandako hitzaldian oinarritzen da (XXIII. UEUko «Militarismoa eta antimilitarismoa» kurso barnean), jatorrizko hitzetatik ezer gutxi aldatuz. Bibliografia xume bat gehitzen zaio azkenean, hemen agertzen diren ideia eta datuak bertan aurkitu daitezkeelarik (ez du, noski, sakontasun borondaterik). Esan beharrik ez dago gaia erabat orokorra dela eta ez duela inolako orijinaltasun gogorik. Beti esaten direnak, baina testu hau bezelako kasuetan esan *behar* direnak, irakurleak zeren aurrean dagoen jakin dezan.

2. Hala nola doktrina estrategikoaren klasikoak eta, era zabalago batetan, Michael Howard eta bere eskolakoak.

militarismoak gizartean izan duen eragina kontatzerik³; edo eta Hungaria batean, Alemanian zein Espainian bertan, *nazionalismoak* eta *militarismoak* izan duten harremanen prozesuaren deskribapena egiterik⁴. Militar teknologiaren aldaketen eta interes ekonomikoen arteko harremanen historia egiterik ere badago⁵. Badago historiografiatik idatzi honetan egingo den baino kondaira kritikoa egiterik armada bezelako erakunde diskutigarri bati buruz. Baina lan honetan sarrera orokor bat egitea zen jomuga⁶, eta hori –besterik ez– da hemen egiten dena⁷.

LIBERALISMOAREN OINARRIAN

1989. urtean Margaret Thatcher Parisen egon zen, Britainia Haundiko lehen ministrari bezela, Frantziako Iraultzaren II. Mendeurrenaren ospakizunetara gonbidatuta. Ohikoa duen fintasunarekin eta atzerritar gonbidatu bati dagokion urguritasunarekin (ez da diplomazia, hain zuzen, *Lady Iron*-en alde ikasiarena), paristarrei hitz egin zien. Lehunki demanda egin zien: gehiegizko garrez ari omen ziren –bere esanetan– Mendeurrena ospatzen. «Giza Eskubideak –azpimarratu zuen ondoren– ez ziren Frantziako Iraultzarekin hasi»; hauek Ingalaterrako Iraultza Loriatsuarekin (1688) batera sortu zirela harroki esan zuen. Beraz, norbaitek ospatzekotan, britainiarrek ospatu beharko luketeela mendeurrena.

Frantziarrek Thatcherrena xelebrekeritzat hartu zuten (eta horregatik barkatu ere). *Le Monde* egunkariak hurrengo egunean, eroari egiten zaion eran, haria hartu zion (edo korrontea jarraitu): «Thatcher andreak zera dio –letra haundiz titulatu zuen–: Giza Eskubideek ez dutela beraien jatorria Frantzian». Ziur ziren Britainia Haundiko lehen ministraria ohikoa zuen bere *enplasto* haietako batekin atera zela. Ez zuen merezi orain *Lady Iron*-ek zuen ezagutzagabetasun txundigarri harekin denbora galtzen hasterik.

3. «Gerra –zion Alemaniaren batasunaren moldatzaile militarra izan zen Hellmuth von Moltke mariskalak– gerra Jainkoaren ordenu unibertsalaren (*Weltordnung*) aldeko eratzaila da (*Ein Glied*). Gizakiak dituen balore nobleenak gerran jartzen dira jokuan». Urte batzuk geroago (1920; *In Stahlgewittern, Tempestades de acero* bezela gazteleratua), Ernst Jüngerrek era honetara deskribatzen zuen bere *abertzaletasun iraultzailea*: «xumearekin eta lurraekin ematen den harreman berria, bonbardaketetako sutatik berriz sortua eta odol ibaiez aberastua». Horrela sentitzen zuen bere abertzaletasuna I. Mundu Gerra jasan berria zuela. Gerra zen balore berrien iturri eta inspiramena.

4. Beste askoren artean R.V. Beraghan (*Militarism. The History of an International Debate 1861-1979*, New York, 1981), Herf (*Il modernismo reazionario. Tecnologia, cultura e politica nella Germania del Terzo Reich*, Bologna, 1988), Alemanian bertan Büsch eta Hintzeren lan klasikoak. Espainian Ballbé, Seco Serrano edo Lleixá. Eta abar.

5. Besteak beste McNeill (*La búsqueda del poder. Tecnología, fuerzas armadas y sociedad desde el 1000 d.C.*, Madril, 1988) ala, ikuspegi zabalago batetik, zibilizazioen aldaketa eta hauen kompetentzien oinarri gisa, Parker (*La revolución militar. Las innovaciones militares y el apogeo de Occidente, 1500-1800*, Bartzelona, 1990).

6. XXIII. UEUko ikastaroetatik datorrena bestalde.

7. Muñoz Molina (*Ardor guerrero*, 1995) edo Ciges Aparicioren (*El libro de la crueldad del cuartel y de la guerra*, 1906) liburuetatik hurbilago sentitzen garen neurrian (edo Schwejk soldaduaeren abenturekin barre egin dugunok), eta militar historian espezialista ez garen neurrian, ezeroso aurkitzen gara armadei buruz hitz egiterakoan. Balio bedi lizentzia honek adierazpen gisa.

Baina Thatcher andreak bazuen bere arrazoi puntua –egokitasunarena alde batera utzita–. Historiari heltzen badiogu, arrazoi puntua baino gehiago. Iraultza liberala (ala *burgesa*, oraintsu arte esaten zen eran) Frantzian gertatutakoarekin identifikatu izan den arren, fenomeno zabalagoa izan zela aspaldi dago historiografia munduan onartua; eta Britainia Haundian –Ingalaterran zuzenago– 1640-1660 artean eta 1688an eman ziren gertaerek badute, zer esanik ez, eraginik harengan⁸.

Bertan eman zen lehenengo konstituzio eztabaida modernoa. Bertakoa da –Erdi Aroko tradizioari interpretazio berri bat emanez– oinarrizko lege batzuren pean (*Common Law*) gobernatu behar denaren ideia, eta baita zuzenbide positiboaren (*leges scriptae*) hasiera (pentsa bestela Edward Coke edo Matthew Haleregan, XVI-XVII. mendeetako juristengan); guztiak, dakigun bezala, zuzenbide Estatuaren muinetariko batzuk. Bertan eman zen alderdi sistema garatzeko ezinbestekoa den *Tolerantzia Legea* eta Parlamentu jokua. Bertan hautsi zen ere “*regnum regis est*” Aintzinako Erregimeneko printzipioa; eta, kontinenteko (Inperio Sakratuko, Poloniako, Frantziako, Suediako edo Hungariako) tradizioa zen *trois prérogatives* jarraituz, garatu ziren lehenengo botere zatiketaren hasimasiak (Matthew Haleren *tripartite indenture* edo John Lockeren *checks and balances*; nondik hartu zuen, hain zuzen ere, Montesquieuk botereen banaketa). Bertakoak dira *Habeas Corpus* eta *Bill of Rights* (Giza Eskubideen aintzindariak, nahiz eta oraindik ez zeukaten azken hauen abstrakzio maila, unibertsalismo borondatea). Jabego printzipioa (*dominium directum*), merkatu nazionala sortzeko legeak, fiskalitate berria (Cromwellena), *Mare liberum* hastapen haritik itsas merkataritzarako emandako legeak, ekonomia erregulatuko zuen lehen bankua, e.a.-ak ere Britainia Haundian garatu ziren XVII. mendean jadanik. Ez bertan bakarrik (pentsa Herbeheretan edo Suedian), baina bai inon baino era zabalago eta distiratsu batean (Frantziako XVIII. mendeko iluministentzat bereziki).

Azalpen honetan luze jo bada ere, apropos izan da, sarritan ahazten baita Ingalaterrako Iraultzak aldaketa liberalean izan zuen eragina. Ez zihoan, bada, Margaret Thatcher hain desbideraturik.

Eta Estatu liberalaren lehenengo pausoak Britainia Haundian eman baziren, *zentzu modernoko armada nazional* bat sortze bidean eman zirenak ere bertan gauzatu ziren urte haietan.

8. 1640an Parlamentua Erregearen kontra altxatu zen aintzinako *Common Law*-en defentsan eta monarkia barnean Erregearen aurrean berak zuen lehentasuna aldarrikatuz (tartean arazo fiskalak, juridikoak, e.a.). Gerra amaitzerakoan, Oliver Cromwellek gobernatu zuen Parlamentuaren izenean (bere *Instrument of Government*-arekin). 1660an berriz monarkia berrezarria izan zen Charles II.aren buruan. 1688an Parlamentuak Herbeheretako *estatuderra* zen Guillaume de Orangeri bere laguntzan etor zedin deitu zion. Apenas biolentziarik gabe koroa bereganatu zuen Parlamentuaren izenean. 1689tik, *Bill of Rights* eta Parlamentuaren kontrolpean, Britainia Haundian erreinatu zuen. Lehenengo iraultza liberala izan zen.

ARMADA BERRIRANTZEKO LEHENENGO PAUSOAK

XVI. mendetik hasitako prozesu luzean, Europako monarkiak beste botereen aurrean –Eliza zein nobleen aurrean– sendotzen joan ziren: gero eta errege-etxe aberatsagoak (errentak garantizatuz), burokrazia haundiagoak, erreinuko eliza teritorialen sortzea (erlijio gerrak medio zirela), e.a. Eta hauekin batera, *erregearen armada iraunkorra* sortzearen aldeko tentsioak ere eman ziren. Aurreko *manupeko* (*vassal*) eta ‘*corps*’ *goardia* (zaldidunez osatuak gehien bat) erakundeak gaindituz, *armada erregular* bat antolatzerantz eman ziren pausoak. Sarritan armada berri horiek aintzinako *corps* goardiei atxekituz agertu ziren, gehienetan atzerritarrez osatzen zirelarik (hala nola Frantziako erregeen *eskoziar arkulariak*, Prusiako Friedrich II.aren *arabiar goardia* edo Europa osoko subiranuek zuten *suizar goardia*). Oroar, *compagnies d’ordenance* deituriko infanteriako mertzenariz osatutako unitateak izan ziren, “erregimentu komandantzia” baten pean zegoen soldaduteria profesionala (hiriren batetan lekutuak eta berari lokarrituak gainera).

Baina monarkia horietan ez zen oraindik *res regni* kontzeptua garatu (are gutxiago armada nazional baten ideia) eta, morroiak edo ehiztariak ziren eran, soldaduak ere erregearen *mertzenari* besterik ez ziren, bere zerbitzari batzuk gehiago.

Gauzak erabat aldatu ziren 1641ean, Ingalaterrako errege Charles I.a eta Parlamentuaren arteko liskarren testuinguruan, Cromwellen gobernupean eta, gero, 1688ko *Iraultza Loriatsu*-aren garaian. XVII. mendean eta Britaniar Irletan hartuko ziren era berriko armada sortuko zuten lehenengo neurriak.

1603an Estuardo dinastia eskoziarra Ingalaterra erreinatzeraz etorri zenetik gauzak ez ziren ondo joan errege eta Parlamentu artean. Hasieratik eman ziren arazo juridikoak, azkenerako arazo fiskalak bihurtu zirelarik (Hogeita hamar Urtetako Gerra eta Eskoziako gerretako gastuak medio). 1629. urtean Charles I.ak Parlamentua disolbatu zuen berriz deirik ez egiteko asmoarekin. Baina 1640an, ezinbestean, inoiz berriz egiteko asmorik ez zuen dei hura, zabaldu behar izan zuen. Asanblada bildurik, “Parlamentu luzea” bezela ezagutu zenari hasiera eman zitzaion. 1641ean, Parlamentuak *Grand Remonstrance* deia sinatu zuen (erregeari erreinuak egindako eskaria edo tiramena). Deian Eliza Anglikarraren erreforma eskatzen zen, Errege-Auzitegien ezabatzea eta –gure gaiari dagokiona–, horren defentsan, *herritarrei mobilizatzeraz* deitzen zitzaien, Ingalaterrako funtsezko legeen (*Common Law*) defentsan armak hartzeraz, beraz, eta Parlamentuaren agindu-pean jartzera. Deiak, agian, ez zuen horrelako garrantzi handirik hartuko (Pariseko *Frondan* ere egin ziren antzerakoak) izan zuen oihartzuna ez balu izan. Garai modernoan lehenengo aldiz *milizia* bezelako zerbait sortzen zen (oraindik mertzenaritzaz kutsua galdu gabe; Keeganek –1993– erabiltzen duen terminologiarekin ari naiz).

Mundu klasikoan hiritar-jabe armatuen erakundeak (*miliziak*, beraz) arruntak izan ziren, Greziako hiri-estatuetan batik bat. Baita europar Erdi Aroan ere (*fyrð* anglosaxoia esate baterako, eta jatorri germaniarra izan zuen *heerfolge* bezela gero ezagutua izan dena). Baina IX eta X. mendeetako krisi militarra zela medio, *ban* sistemagatik ordezkatuak izan ziren (jaunak bere manupeko zaldunei estandarteak altxatuz deitzen zieneko sistema). Tirol aldeko mendietan edo Suitzan instituzioak iraun zuen arren (gero Napoleoni hainbat arazo emango zioten Andreas Hoferren gidaritzapean egon zirenak), erabat marjinalak ziren.

Baina XVII. mendeko Ingalaterrako deialdi eta mobilizazioei ideologia (erlijioa⁹) eta arrazoi juridiko-*nazionalak* atxekitu behar zaizkie (aurrekoen aldean). Interes eta arazo berriak ere, noski,... eta, azkenean eta bereziki, alderdi politikoen arteko burruka izatea. Dei honek planteamendu berriak ekarri zituen armada antolatzeke eta ulertzeko orduan. Lehenengo aldiz *gerra politika beste bide batzuetatik jarraitzeko* (Clausewitz) tresna bihurtzeko bidean jarri zen, armada garaikideen ezaugarria gaur egunera arte.

Charles Erregeak Nottingham gazteluan estandarte jaso eta bereak *bandeatu* zuenean, Parlamentuak armada bat eraikitzeari ekin zion bere *Gran Remonstrance*-an oinarrituz. Era honetara antolatu zuen –Oliver Cromwell eta Thomas Fairfaxen gidaritzapean– bere *Round-head*-en armada iraultzailea. Hasieratik izan zituen armada honek ezaugarri bereziak. Beraiek ere horrela ulertu zuten, 1645eko berrantolaketan *New Model Army* izena eman baitzioten sortutako armadari. Suediako erregeak bultzatu zuen militar estruktura eta teknika erreformatan iradoki ziren (asediorako artileria eta zaldieria berriak, kanoi arin eta mugikorak, ziri erako guda formazioa, unitate txiki eta mugikorak, ofizialitatearen profesionaltzea, e.a.). Baina, bereziki, bere aldaketa nabarmenena hiritar-jabez (edo jabe izateko bidean zeudenez) osatutako bolondresen armada bat izatea zen, erabat ideologizatutako armada (presbiteriarrak, *leveller*-ak, *digger*-ak, e.a.ak beraien utopiaren defentsan enrolatu baitziren erregearen aurka), gerra, neurri batean, politika luzatzeko tresna bezela ulertzen zuena, iraultza egiteko ala erreinuaren aintzinako oinarri konstituzionalak defendatzeko –Parlamentuaren nahietan–, harik eta Putneyn, 1647an, disolbatua izan zen arte. Gainera, *nazio*-Parlamentu baten lehenengo armada iraunkorra hura izan zela esan daiteke; nolabaiteko *armada nazionala*, beraz –nahiz eta, oraindik erabat enbrioizko egoeran izan–.

Halabaina, lehenengo pausu bat besterik ez zen izan (kontinentean, izan ere, apenas jarraitua¹⁰); besteak beste, Aro Modernoko estrukturak, mobilizazio erak

9. Europa osoak, *erlijio gerrak* eta *erreboltak* zirela eta, XVI. eta XVII. mende higitsu batzuk jasan behar izan zituen.

10. Ez zegoen XVII. mendean kontinentean armada *iraultzaile* batek zekarren berrikuntzak probetxatuko zuen erreinurik, denak ere monarkia absolutu bat antolatu nahi baitzuten. Eta iraultza iritsi zenean, XVIII. mende bukaeran, beharrak eta dimentsioak berriak ziren.

eta guda teknikak erabili zuen armada izan zen. Gerra era zaharrera egin zen¹¹: talde txikien mobilizazioarekin, populazio gehienaren ezjakinarekin, altxada edo errekluta orokorrik gabe, tankera gizabidetsuekin, e.a. Ez zen, gero gertatu izango zen eran, gizartea militarizatu.

FRANTZIA: IRAULTZATIK NAZIO-ARMADARA

Ezen armada modernoaren benetako oinarriak 1789-1814eko Frantzia iraultzailean ezarri baitziren; gero –Clausewitz-en teoriak eta Prusiaren modulazio teknikoak bide izan zirelarik–, bere une gorena 1914ko Gerra garaian izan ondoren, egunerarte iritsi den armada-era. Beraz, iraultza liberalarekin bat eginda sortutako armada da egun dugun armada-era. Baina, liberalismoaren aldean –zeinak pentsalari anitz izan baituen eta hainbat naziotan eman diren prozesu historikoen ondorioa baiten–, egungo armada Frantziak une hartan jasan zuen kinka historikoari lotuago dago. Estatu Liberala, neurri batean frantziarra bada (ideiak Ingalaterrari eta konstituzioa Estatu Batuei zor badie ere), armada modernoa propio frantziarra dela esan daiteke (eta germaniarra, baina hauen kasuan ere, Napoleonen Frantziari aurre egitetik eta beraien erregimentu tradizioetik sortua). Thatcher andereak, bada, ezingo luke bere adore nazionalista hornitu –inork ukatzen ez dion arren *ardor guerrero* tinkoa duenik– armadaren sorrera Ingalaterrarantz eramanez, armada modernoa kontinentean sortu baitzen.

Frantzian sortu zen gaur ezagutzen dugun egiazko armada nazionalaren ideia; bertan erabili zen gerra politikaren luzapen gisara bere zentzu osoan (Clausewitzek sorburu mailara igoko zuen kontzeptua); eta Frantzia inperialean, azkenik, militarizatu zen era masibo batetan Europako gizarte osoa, urteak pasa-ahala, konkripzio sistemara eramango zuen praktikari ekinez. Bertan, beraz, sortu ziren egun arte armada modernoak izan duen oinarritzko hizpideak.

Ez eta hasiera batean frantziar Iraultza militarista izan zelako, ezta iraultzaileek *gizon bakoitza soldadu*-tzat hartzen zutelako. Balore militarrek feudalarik ziren –azken batean, aristokraziak bere jatorria, fiktizioa bazen ere, ekintza militarrean oinarritzen zuen– eta, gainera, iraultza hura jabeena izan zen dudarik gabe; beraz, 1789 eta 1791. artean armak eramateko eskubidea *bere buruen jabe irtengo ziren hiritarrena* bakarrik izan behar zela izan zen legegileen borondatea. Armatu baziren ere, erregearen armada fidagarria ez zelako izan zen; eta, iraultzaren erakundeen defentsan, Guardia Nazionalea bolondres adoretsez osatu zuten –beti propietarioak, noski–. Ez ziren honetan lehenengoak izan: iparamerikar

¹¹ Kontatzen da honako hau ilustratzen duen pasadizo bat. Marston Moorren (non Parlamentuko indarrek funtsezko bataila bat erregeari irabazi baitzioten, oraindik-orain hara turismoa egiten dutelarik ingelesek) 1644an (bi-hiru urte bazeramaten gerra zibilarekin, beraz), bataila hasi aurretik lanean ari zen nekazari bati zaldidun batzuk hurbildu zitzaizkion soroa libratzeko kontu eginaz. Eta honen erantzuna inolako berririk ez zuenarena izan zen, feudal jaunen arteko gerraz besterik ez baitzen oroitu: «Arraioa! Beraz, bi horiek demanda egin al dute?» (*What! Has them two fallen out then?*).

kolonitarrak ere, beraien independentzia lortzeko, era honetako armada erabili zuten (indiarrek eta Kanadako frantziarrek beraien lurrei egiten zieten mehatxuari aurre egiteko erabilitako miliziak). Han, ordea, gehienak ziren zerbaiten propietario eta edonork armak eramateko eskubidea aldarrikatzea zen logikak eskatzen zuena (gero EEBBetako Konstituzioan jaso zen eran)¹². Ez, ostera, Frantzian; non, gainera, ezerezetik sortu behar zuten milizia berri hura.

Gauzak erabat aldatu ziren 1792ko uztailean, Frantzia inbasio arriskuan aurkitu zenean. 1789ko antimilitarismo eta klasismoak ahaztu eta armada eragile eta anitza antolatzera abiatu ziren.

Frantziar armadan eman ziren aldaketek praktikotasunezko arrazoiei gehiago zor izan zieten printzipio dogmatikoei baino. Eta hizpide dogmatikoei sentikortasunarekin zerikusi handiagoa zuten arrazoiaren arloarekin baino. Eta hauek, urteak pasa ziren neurrian bakarrik: Frantzian hasi eta Alemanian burutu baitziren.

Ezen Ilustrazio-liberalismoak mundu modernoari eskaini zion taldeko-identitate abstraktua (gizakiaren subiranotasunaz, moralitasunaz, zuzenbide positiboaz, e.a.ez osatzen zena) aurreko errealitate zehatzagoekin (monarkien lurraldetasunarekin eta ondo zehaztu gabeko giza-identitate etniko beroekin –azken hauek Alemanian Frantzian baino gehiago–) gurutzatu behar izan baitzen *nazio-komunitatea* sor zedin. Nazioa eta lurraldezko Estatua ere –eta berarekin *nazio-armada*– *Citoyen* kontzeptua (kosmopolita, unibertsalista, ilustratua) zehatzagoa den *homme* kontzeptuarekin (pertsone singularra, toki batekoa, komunitate ezagun batekoa) konbinatu behar izan zen nazio-armadak eskatzen zuen sakrifizio maila (leialtasuna, patriotismoa bizitza ematerainokoa) onargarria bihurtu zedin.

Beraz dogmatika –sentikortasuna, zuzenago– urteekin etorriko zen: hasiera batean arrazoi pragmatikoak izan ziren armada barnean eman ziren aldaketak bultzatu zutenak.

Eta hasiera-hasieratik monarkia zaharrek lortutako lurraldetasuna erabakiorra izan zen zentzu honetan. Dinamika politikoak lurralde horietan ematen baitziren:

12. EEBBetako armadak baditu bereizitasun ugari orain aipatzen ari garen ereduarekiko. Bere jatorria milizia izatetik aparte (1861ean oraindik, Lincolnek hegoaldeko estatu altxatuen aurka bidali zuen lehenengo zutabea, bederatzi hilabeteko zerbitzua egiten ari ziren 35.000 milizianoz osatuta zegoen), agian bere bereizitasun nabarmenena Clausewitz doktrinaren eza izango litzateke: gerra ez zen ulertu politika beste bideetatik jarraitzeko era baten gisa; gerra politika aurreko zerbait litzateke. Jatorritik (itun politikoa eman aurretik) gizakiak berea defendatzeko zuen eskubidea litzateke (indiarren aurrean; harritzekoa bada ere). Horrela antolatu ziren miliziak: lurralde komunitario batetan defendatzeko tresna besterik ez baitziren. Gauza bera ingelesten aurrean: hiritarrek erregeari bere eskubideen defentsan erantzuteko zuen eskubidea, e.a. Agian honek adierazten du orainsu arte estamentu zibilek militarren aurrean izan duten lehentasuna herri hartan. Eta egun militarrek paper berria betetzen ari badira, arlo ekonomikoan hartu duten garrantziagatik litzateke eta potentzia izateak dakarren menpekotasunetik.

iraultza ere. Iraultza Frantzia gertatu zen neurrian, Europako beste monarkientzat ez ziren bereziki tokiko ilustratu edo liberalak etsai, Frantzia bera baizik. Galiarrak (osotasunean hartuta) ziren, beraz, ordenamendu zaharkituak mehatxatzen zutenak. Iraultza arazo bertikala izatetik horizontal zentzua hartzera igaro zen, monarkia barneko arazoa izatetik monarkia arteko arazoa izatera, hain zuzen (monarkiak eta errepublikaren artekoa bihurtu zen arte). Frantziako taldeen arteko gatazka izatetik, Frantzia eta beste monarkien arteko gatazka izatera igaro zen. Iraultzak berak ere bazuen unibertsaltasun borondatea, zeinak ideia berriak zabaltzera eramaten baitzuen (nahiz eta ez armen bidez, hasiera batean). Ostean, Europa osoko monarkiei iraultzak planteatzen zien desafioaz kontziente izanik, laister frantziar iraultzaileek izan zioten kanpoko erasoari beldurra. Bidezko beldurra, esan behar da bederen: 1790eko abenduan (apenas urtea Pilota Jokuko juramentutik) Louis XVI.ak Prusiako erregeari laguntza armatua eskatu baitzion.

1791ean jadanik –atzerri mehatxua medio, 1789ko printzipio antimilitaristak deserabileran erortzen joan ziren neurrian– agertu ziren Frantzia, iraultzaileen artean, lehenengo jarrera belizistak. Urte horretan, esate baterako, Brissot de Warville girondinoak iraultzak expantsionista izan behar zuela zion, ez bazuen suntsitua izaterik nahi behintzat. Jendearen pasioak piztera etorri ziren ere Pillnitzgo Deklarazioa (Bohemia) eta Brunswick dukeak atera zuen Manifestua. Lehenengoaren arabera Prusiako erregeak eta Austriako enperadoreak ez zuten Frantzia erasoko zutenik aldaratzen; eta Manifestuan, aliatuen komandantea zenak, Frantziako Iraultza mesprezatzen zuen, bere egiteak gogor salatuz. Barne-arazoen neketurik, girondinoen hainbat buruzagik gerran bakarrik ikusten zuten Iraultzaren erakundearen salbazioa. Era honetan, batasun nazionala lortuko litzateke, zioten bere buruari, eta, aldi berean, barneko eta kanpoko etsaiak behingoz tinkatuko lirakeke. Bitartean, Doumouriez bezelako generalek sentikortasun anti-Austriarra bulkatzen zuten herritarren artean.

Gerra eta Iraultza bat egin ziren. Ez zegoen –honela ikusten zen– Iraultza gerra gabe aurrera ateratzerik. Hori zen barne politikak eskatzen zuena, eta hori ere kanpotik zetorren mehatxu harrigarriari aurre egingo ziona (1792ko otsailean sinatu zen aliantza austro-prusiarra). Iraultza, kinka historiko honetan, belizista bilakatu zen: politika gerraz jarraitu beharra zegoela ikusten zen (politika gerra egin eta gerra politizatu), eta armada Iraultzaren –eta bere Estatuaren– alde zatigaitza bihurtu zen.

1792ko apirilaren 20an Austria eta Prusiarri galiar iraultzaileek gerra deklaratu zieten. Ordutik eta 1799ko Brumarioko estatu kolpera arte, Frantzia, ia etengabean, inguruko Estatuarekin gerra bizian egon zen. Ondoren, Napoleonekin, Europaren gaineko hegemoniaren bila, Enperadoreak kontinente osora zabaldu zuen gerra, gerra egiteko era eta bere armada berria. Honetarako, gorago esan bezela, armada eragile eta anitza behar zen.

1. Eraginkortasunaren bila: armada iraultzailea

Posible al zen Antzinako Erregimenetik zetorren *lerro armada* erabiltzerik? Ezen Frantzian ez baitzuen Iraultzak aurreko armada disolbatu (Goardia Nazionala barnerako eta aintzinako armada Estatuaren lurtasuna defendatzeko zen hasiera bateko eskema). 1792rako konturatu egin ziren honelako irtenbide batek ez zuela etorkizunik.

Aintzinako lerro armada erregimentuka antolatuta zegoen eta, arestian genion bezela, erregimentu bakoitzak lotura probintziarra (Languedoc, Rosellon, Artois, Picardie,...), edo probintzietako erdi mailako hiri lotura zuen. Ez zion Parisi hone-lako leialtasun haundirik. Ez zuen, beraz, erregimen paristar berriarekiko loturarik, eta maneiatzeko traketsa zen, oso banandua baitzegoen. Ez zuen estrukturaliki balio. Ez zen hori, baina, arazorik larriena. Bere tropak *miserablez* eta *fortunako soldaduz* osatuta zeuden. Ez zuten, benetan, betebeharraren zentzurik, ez eta moralik ere. Ez zegoen disziplinarik, zigor gogorrez inposatutakoa ez bazen (honek, une iraultzaile hartan, hainbat amotinamentu eragin zuen, Nancy-koa, esate baterako). Are gehiago, ofizialen taldea noblez osatuta zegoen, sarritan beraien kargua salgarria zelarik; ez zuten formazio profesional onena eta asko –aristokratik ziren neurrian– ez ziren fidagarriak; atzerriratzeen ondorioz murriztuta zegoen, gainera, taldea (heren bat inguru galdu zela kalkulatu da). Azkenik oso laburra zen armada hura: krisi garaietan bakarrik erabiltzen zen beharrezko errekluta, bestela mertzenarioak bakarrik agertzen ziren erregimentutan. Txikia, moralik gabe eta teknikoki fintasun gabekoa; ez zen hura tresna egokiena Austria eta Prusiako armadei aurre egiteko.

Esan bezela, arreta antimilitaristak eta klasistak ahantzi eta amerikar logika konstituzionalista (*armak eramateko gizon oroaren eskubidea* –hemen *obligazioa* ere esan beharko litzateke–), orokorki onartua izan zen. Goardia Nazionalan parte hartzeko jabe izatearen betebeharra eliminatu zen eta uztailaren 12an 50.000 mila hiritarrei egin zitzaion dei aintzinako lerro armada berrindartzeko. 1793ko hasiera aldera, 300.000 gizon bolondresen erreklutatzea egin zen (bolondres aurkezten ez zena konskriptotzat hartzen zelarik). Eta abuztuaren 23an *levée en masse* dekretua promulgatu zen, zeinen arabera zerbitzurako gai ziren gizonezko guztiak Errepublikaren beharretara jartzen baitziren.

Aurretik ere emanak ziren era-berriko armada bat sortzera eramango zuten neurri batzuk (kasu batzuetan iraultza kinkari zuzenago zegokienak eta, gero –gera eta Napoleon zirela medio–, ezabatuak izango zirenak). Tropari ematen zitzaion zigor krudelak abolutuak izan ziren; maila hobe merezimenduz lortzen zen, ez jaiotzaz; mertzenarioen gudaoste atzerritarrak ezabatuak izan ziren; beharrezko errekluta abolutua izan zen (iraultza idealaren berotasunean), eta ondorioz, bolondres ateratakoei etxera itzultzeko eskubidea onartzen zitzaion

(1791eko abenduaren 28ko dekretua; Haur Errugabeen eguneko¹³); eta erregimentuak beraien gaztelu hiriekin zeukaten lotura hautsi zen, zerbitzu militarra egitera deituak zirenak Frantziaren izenean egiten zuten bere zerbitzua, ez erregimentu edo probintzia baten izenean.

Era honetan joan zen aintzinako lerro armada nazio-armada zentzuan aldaratzen, soldaduen irudia eta morala hobegotzen ziren bitartean, tropa berdinkideagoa eta kompetenteagoa egiten zihoan heinean.

Hala ere, 1791 eta 1792an egin ziren erreklutak bolondresenak, sutsuak, ia heroikoak izan ziren; estrenatu berri zuten hiritar kondizioak eragindakoak, hain zuzen. Arriskuak ez ziren haundiegiak eta hiritar-soldaduak beraien herrietara bueltatzerakoan auzokoez ohorez hartzen zituzten (eta batzuek edo besteek mesederen bat edo pribilegioren bat ere espero zuten). Bolondreskoak (miliziak) alde batetik eta tropa erregularra bestetik; oraindik hasierako iraultzaren printzipioak gaintitu gabe zeuden (girondinoek gogoz defendatzen zituztenak alegia).

Hurrungo etendura, Amalgama Legearekin eman zen (1793ko otsailaren 21ean). Laburki esanda, lege honek armada erregularra miliziarekin bat egiten zuen (erregular batailoi batek eta bolondres bi batailoik brigada erdi bat osatzen zuten; uniforme berdinak, soldata berdinak, tratu berdina, umezurtz, alargun eta trenkatuentzat pentsioak, eta ofizialordeen hautatasuna). Bere helburua –nazio-armada egiteko bidean– lehenengoak bigarrenei trebetasun militarra ematea zen eta, kontrako bidea erabiliz, miliziek zuten su politikoa erregularrei zabaltzea. Lege honek, miliziaren jatorrizko printzipioak (jabeen armada) zalantzan ipintzen zituen neurrian eta konskripzio bidea erabat irekitzen zuenez, girondinoen aldetik izugarriko oposizioa izan zuen –ia porrot egitera eraman arte–. Azkenean 1793 eta 1794ko neguan indarrean ezarri zen.

Austriarrekin zeramaten gerrak behartu zuen azkenean lege hura. Ze gerra gero eta goriago jartzen ari baitzen: zauritu eta hildakoak, bataila galduak, fronte eguneroko bizitza ere ez zen batere atsegina (lokatza, euria, bisutsa, izar-pean lo egin beharra, gaixotasunak). Iraultzaren idealak urruntzen joan ziren eta jendea etxerunz itzultzen. Are gehiago: etxera joandakoak frontean txandatzeko ez zen inor animatzen. Armada morala galtzen eta murrizten hasi zen. Honek ekarri zuen 1793ko bi *levée en masse* eta abuztuko Dekretua.

Azken dekretu honen ondorioz errekluta metodoak gogortu egin ziren: funtzio horrekin sarjentu bereziak hautatu ziren, Departamentu bakoitzari soldadu portzentai bat egokitu zitzaion, eta errekluta komuna bakoitzean 18 eta 40 arteko

¹³ Onar dadin hemen ematen zaion zentzu ironikoa. Johan Huizingak dioenez, Haur Errugabeen eguna oso zen ospatua behe Erdi Aroan (astero, gainera, batzuetan), eta zorigaiztokoa omen zen egun horretan gauza garrantzitsuei ekitea.

gizonezkoen artean egin zen (zozketaz batzuetan –txartel beltza ateratzen zen–, *boto depuratzaille*-aren bidez besteetan –nekazariak gazte *patriota* baten alde ematen zuten bere botoa beraien ordean joan zedin, mesede egitearren-edo–).

Sistema honek armada soldaduz bete zuen, baina jendea gero eta ezkontentua utzi zuen. Abusu eta injustiziak eguneroko gauza ziren. Hiritar eta artesauak errezago kontrolatzen ziren komunetakoak edo nekazariak baino, herrisketan gazteenak hautatzen ziren behin eta berriro, aberatsak beti libratzen ziren eta funtzionariak zerbitzutik salbu gelditzen ziren. Haserrea gero eta zabalduego zegoen. Berriak etortzen ez ziren neurrian, 1799ko armadaren zatirik haundiena 1793an *txartel beltza* atera zuten zuten zegoen osaturik –ez baitzen erreklutatzerik egin hurrengo urteetan–.

Egoera hori konpontzera etorri zen 1799an eman zen Jourdan Legea: urte beteko zerbitzu militarra ezarri zuen, *errekluta* sistema inauguratu zuen: Frantziako Lehenengo Inperioak izan zituen itzelezko armaden jatorria lege hura izan zen.

Ezen hau izan baitzen era-berriko armadaren ezaugarri nabarmenetako bat: armaden masibotasuna. Iraultza aurretik Frantziak parte hartu zuen azkenengo gerra Zazpi Urteko Gerra izan zen. Galiar monarkiak, 1756 eta 1762 artean eman zen gerran (Iraultza baino hogeita zazpi urte aurretik baino ez), bi armada mobilizatu zituen: lehenengoak 99.000 soldadu zituen eta bigarrenak 24.000. Armada galantak garairako. Ba, 1793an eman zen erreklutatzea 750.000 soldadu lortzeko egin zen. Gero zenbaki hoiek jeitsi ere egin ziren: 500.000-ra, 326.000-ra gutxienez. Ikus daiteke, halere, zenbakietan zegoen alde. Napoleonek, bere aldetik, zifra horiek guztiak gaititu zituen: 1812an, eragingarriak eta gogorkeriak era berean erabiliz, milioi bat gizon baino gehiago zituen armetan, Espainatik hasi eta Errusiaraino. Esan beharrik ez dago armada hori guztia altxatua mantentzeko, ekonomia oso bat eta administrazio inperiala eraiki behar izan zuela, armada ipini behar izan zuela bere antolamendu politikoaren eta Estatuaren erdi-erdian. Eta, gero ikusiko dugun eran, tamainoak berak ere sortu zituen hainbat arazo taktiko eta logistiko, zeintzuren konpontzetik ere aitziniruditu baitzen armada berria.

Ze masa hori guztia maneiatzeko lehenengo ofizialen taldea berri behar izan baitzen. Ez zuten, hasiera batean, erreleboa lortzeko arazo haundirik izan: 1789an %90 aristokratik baziren ofizialen artean, 1794an %3ak besterik ez zuten jatorri hori. Iraultzak monarkiaren armadako ofizialordeei *merkezimenduen araberako karrera* eman zien. Napoleon garaiko hogeita sei mariskaletatik, bost sarjentuak ziren 1789 aurretik (Napoleon bera, Lefebvre, Augereau, Soult eta Ney) eta lau soldadu arruntak (Jourdan, Victor, Bernadotte eta Oudinot). Monarkia absolutuak igotzeko aukerarik eman ez zien –kuma aristokratakoa izan behar baitzuten erregeren ofizialek– gizon baliotsuak ziren. Gizon baliotsuak ziren bezela bizitza zibiletik etorritako hainbat gizon kementsu (Dugommier diputatua, esate batera-

ko). Esperientzia frogatutako eta talantuzko gizonak izan ziren armada hura gidatu zutenak –eta berrantolatu zutenak–. Are gehiago, ofizialitate berri hura –aurrekoek soldaduteria ulertzen ez zuten bezela– troparekin bat egiteko gai zen, azkenean jatorri berdina baitzeukaten. Era honetara –eta ez aintzinako zaldun edo kabaileroso eran– sortu ziren tropa haren *leaderrak* (hala nola Bonaparte, Marceau, Jourdan, Hoche, Kléber, e.a.). Ofizialitate taldea, beraz, askoz ere kualifikatuagoa zen, tropa haiek gidatzeko gai zen, eta –bereziki– bere karrerak Iraultzari erabat lotuak zuten gizonez osatua zegoen.

Buruzagi egokiak edukitzeak berez tropa haiek beldurgarriak bihurtzen bazituzten, are gehiago ziren besteko jendetza izanda. Baina honelako masa haundiekin era egokian maniobratzeko estrategia eta taktika berriak behar ziren. Honetan ere erabateko aldaketa seinالاتu zuen Iraultzak.

Errepublikaren lehenengo esfortzu militarrek, ezinbestean, eraso biolentoetan oinarritu beharra izan zuten, azkar eta presaka erreklutaturiko disziplina gabeko gizon masak ez baitzuten lerroko armadaren instrukzioa hartzerik izan, eta ordenu eta doitasun gabe mugitzen ziren. Mugak zaintzen, gainera, saiatu ziren neurrian, trasladorako zeukaten zailtasunagatik, muga-lerroan zehar sakabanatuak gelditu ziren. Ahultasun hura su-ta-gar iraultzailez kitatzen zuten arren (beraien baionetei aurre egingo zuenik ez zegoela sinestearino), eraginkortasunaren izenean aldaketak egin behar ziren.

XVIII. mendean aintzina erako praktika kontserbatzaileak eraman ziren arren (armada txikiak, alistamentu luzeak, mertzenariodutza, e.a.), eman zen jadanik ilustratuen gustoko armadei buruzko eztabaida teknikoa. Aurreko lerro formazioen aurrean –zeintzuetan indar ofentsiboa mosketeroen lerro ordenatuen suan oinarritzen baitzen–, tropa-adar edo kolumna masiboen beharra aldarrikatzen zuten –zeintzuk, zaldidunen ekintza kementsu baten ondoren eta kanpainako artilleria mugikorraren laguntzaz, beraien lana baionetaz burutuko baitzuten–. Honetarako, prusiar Friedrich Haundiaren planteamendu arrazionaletatik at –zeinaren armada, garaian, erabat mirestua baitzen–, gizon mordoskadak behar ziren. Frantzian ere, ezin bestean, eztabaida hura eman zen: *ordre mince* zahar eta *ordre profond*-en artean. Bigarren opzioa Guiberteko konteak, jeneral ospetsuak, defendatu zuen. Baina estrategia berria alde batera utzi zen hainbeste jende armatzeak monarkia absolutoarentzat zekarren alboko arriskuak haundiagoak zirelako. Baina, Aintzinako Erregimenean ezin zena egin, Iraultzak, hobeagotuta, praktikara eraman zuen.

Comité de Santé Publique-ek ekintza masibo eta erabakiorrak egin behar zirela garbi zuen, 1793an bidali zuen eskutitzean adierazten zuen eran. Robespierrek instrukzio beharra ere ikusi zuen Marte Eskola 1794an irekiz (Thermidor garaian esperimentoa utzi egin zen arren). Carnotek Robespierren ideiak eta *Comité*-arenak berriz hartu eta bultzatu egin zituen, Bonapartek azken

ondoriotaraino eraman zituelarik. Napoleonek Guiberten teknikak eta Iraultzatik hartutako hastapenak batu zituen, armada erabat iraulduz. Tropen mugikortasun arinean zuen konfidantzan, alboetako zaldieria erabiltzen zuen eran, esploratzaile eta hostigamentuan edo lerro faltsuak ipintzen zituenean, baita tropari instrukzio ordenu zabal zein itxian¹⁴ ematen zionean, Guiberten teknikak aplikatzen zituen. Baina tropa hedaketa haundiak antolatzen zituenean gero arin-arin puntu batean konzentratzeko, karga zanpatzailea erabiltzen zuenean eta baionetekin azken ondoriotaraino etsaia jarraitzen zuenean –gerta zitekeen sarraskia kontutan hartu gabe–, orduan Iraultzaren seme bezela portatzen zen.

Frantziako armada, gainera, erabat politizatu zen: Komite Militar haundiak sortuz, komisario politikoaren gidaritza ezarriz, jeneralak Iraultzarekiko zuten leialtasuna kriterio gisa erabiliz, eta soldadu arruntei egoera hobeagoetz (botoa emateko eskubidea, klubetan parte hartzeakoa, egunkari banaketa –7.500.000 ale denera–, foiletoak, abesti patriotikoak, harengak, jaiak eta abar propaganda gisara erabiliz). Gerra politika beste bide batzuetatik jarraitzeko era bazen, armada erabat politizatu behar zen –eta honela egin zen–.

Halere, arazoak –ezin bestean– iraun egin zuten: soldatak berandu eta eskas iristen ziren troparen eskuetara (*assignaduen* bidez); Napoleonek lurraren gainean probisionatzeko zuen ohitura zela eta, gaizki elikatuta, gaizki jantzita eta armamentu eskasarekin ibiltzen ziren maiz. Gainera Pirinio inguruetako edo Britainia-ko herrisketako jendea atzerrian sentitzen zen beraien lur haietatik urruti; *askatasuna* edo *hirikortasunari* buruzko eztabaidak urrunak egiten zitzairen beraien kulturarekiko (hori ulertzen zutenean, oraindik frantsesez ez baitzuten gehienek hitz egiten; euskaraz, probentzalez, bretoieraz, e.a. baizik¹⁵). Zailtasun horiek guzkiekin, Napoleonek milioi bat baino gizon gehiago jarri zituen armetan Europa guztian. Politizatu eta nazionalizatu egin zituelarik neurri handi batetan.

Eta Napoleonen aldatetetatik ikasi zuten bere etsaiek ere. Prusiarrak zuzpertz baziren eta 1813ko Leipzig-ko bataila emateko gai izan baziren, ez zen izan Friedrich Haundiaren ordenu itxiko mugimentu finak berreskuratu zituztelako, disziplina txikiagoko *erasoaldi patriotikoa* bereganatu zutelako baizik. Ehun Egunetako garaian (Napoleon berpatriatu zenean), aliatuak (Austriak eta Prusiak batik-bat) 750.000 soldadu biltzeko gai izan ziren egun gutxiretan¹⁶.

Ezen, Napoleon izan baitzen Iraultza bere *heldutasunera* eraman zuena eta Europa osoan praktika berriak zabaltu zituen.

14. Amerikarrak ekin zioten ordenu zabala bataila-eremuetan erabiltzeari (indiarren irakaskizunetatik atera zuten): zelai zabalean batailara lerroetan joan beharrean, errekaostean eta enboskatzen ziren, edo parapeto ostean, terrenean eta bertako akzidenteak probetxatuz.

15. Eskertzen diot Xabi Ricori zentzu honetan kurtsoa eman zenean egin zidan oharra.

16. Errusiak eraso masiboen ohitura aspaldi erabiltzen zuen. Baita errekluta ere. Baina familien eskuetan uzten zuen, eta aukeratutakoak hogeita bost, hogeita hamar urte egiten zituen soldaduzkan.

2. Napoleonen normalkuntza

Gauza jakina da Napoleonek Iraultzaren *normaltze* papera egin zuela. Honetarako forma diktatorialak aukeratu zituen, jarrera aristokratikoak forma eta erakundeetan, eta negozio gizonen alde nabarmenki jokatu zuen. Enperadore burges bat bihurtu zen (edo burges enperadorea).

Frantziak zuen bulkada iraultzailea kanporantz –armadarantz eta atzerritarren aurka, hain zuzen– bideratu zuen. Frantziaren irudia berria armada bihurtu zen, Frantzia osoa militarizatu zuela (militarrak gobernura eramanez, hauek aristokrata bihurtuz, hainbat erakunde militar sortuz eta, bereziki, gizonezko frantziar guztiei armadatik pasa araziz). Nazio berriaren irudia armadako *heroi errepublikarrak*, jeneralak, pasa ziren izatera. 1789an Frantzia iraultzailearen sinboloa *sans-culotte*-arena izan bazen, I. Inperioarena soldadua izan zen (bertara bideratu zen hainbat iraultzaile goiztar). Armada zen Frantzia antolatzen zuena eta frantziarren harrotasuna. Frantziar mesianismoa armadarantz bideratu zen; *grandeur*-aren hasieratan egongo ginateke.

Napoleonek mobilizatu eta masifikatu zuen armada (Errusiara joan zen *Grand Armée*-k 430.000 pertaide zituen), bera izan zen deialdi sistema aurrera atera zuena (konskripzioruntz pausoak emanaz). Bere kontra garatu zen Jena ondorengo Prusiako armadaren errekluta, *zerbitzu aktibo* eta *erreserbako* ordenantzak lehenengo aldiz indarrean jartzen zuena. Berarekin (eta aurretik) armadak uniformizatzen joan ziren, erregimentu uniformeak alde batera utziz eta arma uniforme nazionalak erabiliz –nahiz eta iraultzarekin galtzen joan ziren apaingarriak berpizte bat izan zuten bere garaian–. Napoleon izan zen armada guztietara Gribeauvalek sortutako kanpaina artilleria arina zabaldu zuena, berak ere txinparteko eta estrietako mosketoiak (baionetarekin, noski) erabiltzera eramanez eta baita Ameriketara famatua egin zen ehizerako erriflea ere. Napoleon ez zen inoiz hornikuntzaz arduratu: tropak zapaltzen duen lur gainean bizi behar zuela zen bere teoria, beraz XVIII. mendeko konboi astun haiek alde batera utzi zituen. Baina bere kontra antolatu zuen Ingalaterrak bere *Royal Wagon Train*, erretaguardiarekin hornikuntza harremanak mantentzeko balio izan zuena. Oraindik talde sanitarioak, komunikazio sistemak, e.a. sortzeko XIX. mendearen bukaerari itxaron beharko zaio. Ez, ordea, injeniari taldearen oinarriak gauzatzeko. Napoleonen armadak eramango zituen lehenengo zapadoreak (Pariseko *École Polytechnique*-en formatuak), zeintzuk fortifikazio lanetan, suntsipenetan eta zubien eraikuntzetan saiatuko baitziren. Eta, azkenik, Napoleonen garaian eman zen, Ingalaterrari egin zitzaion blokeo saialdiarekin, lehenengo aldiz *gerra ekonomikoa*, geroko *gerra osoaren* aintzindaria.

XIX. MENDEKO BILAKAERA (1914 ARTE)

1815etik aurrera armadak izan zuen bilakaerak gutxienez beste artikulua bat merezi du. Baina esan beharra dago Frantziako Iraultzarekin eta Napoleonekin agertu zirela era-modernoko armadak gaur egun arte (1914a gailurra bada ere) izan dituen funtsezko ezaugarriak. Hauek dira: gerra politikaren luzapen gisara ulertzearena (Clausewitz), konkripzioarena eta nazio-armadak antolatzearena. Gainera, XVIII. mendean ez militarizatzen zihoan gizartea goitik-behera aldatu zen. Belaunaldi batean, Europako gizarte osoa militarizatu izan zen, lehen gutxi batzuren esperientzia bazen militar bizitza, orain gehienen esperientzia izatera igaro zen.

Dena den, merezi du Clausewitz jarraitzailea izan zen von Moltkeren erreformen zutabeak aipatzea. Bera izan baitzen Europan hegemonikoa bihurtuko zen armada prusiarra (eta gero alemaniarra) berrantolatu zuena 1866ko Austriaren aurkako gerraren testuinguruan eta 1870-1871eko gerran (Frantziaren aurka eta Alemaniaren batasunarena). Moltkek mende hasierako ikaskizunak gogoan hartu zituen eta teknifikatu eta nazionaldu egin zituen.

1818ko Europa, Europa ez militarizatu bat zen: eskala haundiko konkripzioa kendua zen, armamentu industria lur jota zegoen, jeneralak politikan saiatzen ziren ala erretiroa hartua zuten. Moltke eta Prusia izan ziren epe laburrera berriz Europa militarizatzen saiatu zirenak. 1914an europar gizonezko gehienek zuten beraien kartila non agertzen baitzen gerra kasurako zein zen bere destinoa. Moltke izan zen, esan bezela, aldaketa honen oinarrian egon zena.

Moltkek lortu zuen –iraultza arriskua urruntzeko– soldadua politikoki *inozoa* izatea, era berean bere zainetatik su politikoa korritzen ziolarik, garai haretan Alemanian hain indar haundia zuen nazionalismoa armadaren ardatza bihurtuz. Era honetan lortu zuen –patriotismoa medio– soldaduzka gogoko behar bat bihurtzea (bakoitzaren lurra atzerritarren aurrean defendatzeko borondate hori politizatuz, nazionalizatuz). Berak egin zuen militarrekin kasta berezi eta disziplinatua bat, gizartetik at zegoen kasta, prusiar tradizioan zegoen erregimentalismo sistema indarrean ezarri (erabateko obediencia, disziplina, bakoitzaren sakrifizioa, ohorea, militar izpiritua, talde-leialtasuna, e.a.). Berak antolatu zuen zerbitzu aktiboa eta erreserba, konkripzioa luzatuz eta unibertsalduz. Eta XIX. mendean jadanik, gerra *osoa* izango zenaren seinaleak bazituen (eta horrela aldarrikatu zuen).

Honetaz aparte, armada teknifikatu zuen, gorengo estatua sortuz, komunikabideak (trenbideak) eginaz, arma berriak inkorporatu zituen armadetara (orratzezko fusilak eta atze kargako kanoioak), telegrafoa gehitu zuen komunikazio sistemetara eta laguntzeko taldeak sortu zituen (zapadoreak, komunikaziokoak, sanitatezkoak, e.a.). Beraz, Moltkeri zor zaio (batzuen iritzi, Clausewitz) 1914an bizi izan zen giro militarista berezia (zeinari buruz, mereziko zukeen arren, hemen ezin baikaren luzatu).

Eta 1914ko giroaren ondorioa izan zen lubakietako gerra; gerra osoaren garaia. XX. mendekoa ere litzateke II. Gerran eman zen *Blitzkrieg*-a. Hau ere ez dugu aipatzerik izango. Eta ezta ere, *gerra nuklerra* dela eta sortu diren itzaropen berriak.

AMAITZEKO

Hemen ikusi dugun eran, armada historikoki egun duen forman Estatu-nazionalari lotua sortu zen (bai hasiera batean Frantziako Iraultzan lurraldetasun aldetik sortu zen neurrian eta, gero, justifikazio unean, Moltkeren nazionalismotik).

Estatu-nazionala historikoki joria izan bada ere, egun hainbat gatazkapean bizi da. Bere identitate-atalase azpitik (konfesio gatazkak, etnikoak, hizkuntzenak, e.a.) zein gainetik (multinazionalak, narko-trafikoa, nazioarteko interbentzio esku-bidea –Balkanetan, Afrikan,...–) gatazkak ditu bere egonkortasuna mantentzeko.

Azken urteotan, eta armadak lortu duen dimentsioa eta teknifikazioa dela eta, arazo finantzario nabarmenak sortu dira ere (ikus azken hilabeteetan bide honetan Frantziak berak, nazio-armadaren kumak, hartutako erabakiak). Beraz, litekeena da egun arte ezagutu dugun armada aldatze bidean egotea.

Bestalde, 1914ko hilketak ikusi ondoren, estermínio-esparruak II. Gerratean, Vietnamgo zibilen hilketak, edo gero Irakeko edo Libanoko, Balkanetako gerra etnikoaren izugarrikeriak, Mendebaldean politika gerraren bidez jarraitzearen aurkako iritzi publiko nahikoa haundia sortu da XX. mende honetan (Clausewitzen ideiaaren aurkakoa, hain zuzen; armada berriaren ideia fundatzailearen aurkakoa, beraz).

Hau guztia kontuan harturik, liberalismoarekin sortutako armada-erak aldaketa nabarmenak izan ditzakeela dirudi. Zailagoa zaigu aldaketa horiek zein norabide hartuko duten somatzea. Baina, baldintzatzaileetatik at, gizakiaren borondateak ere bere papera jokatu duela esan beharra dago.

BIBLIOGRAFIA XUMEA

- Bertaud, J.-P. (1979), *La Révolution armée. Les soldates-citoyens et la Révolution Française*, Paris.
- Bertaud, J.P. (1985), *La vie quotidienne des soldats de la Révolution, 1789-1799*, Paris
- Challener, R. (1955), *The French Theory of the Nation in Arms*, New York.
- Doyle, W. (1989), *The Oxford History of the French Revolution*, Oxford.

- Forrest, A. (1986), *La Révolution française et les pauvres*, Paris.
- Fussel, P. (1992), *The Bloody Game. An Anthology of Modern War*, New York.
- Howard, M. (1967), *The Franco Prussian War*, Londres.
- Howard, M. (1983), *Historia de la guerra en Europa*, Madril.
- Howard, M. (1987), *Las causas de la guerra y otros ensayos*, Madril.
- Keegan, J. (1979), *World Armies*, Londres.
- Keegan, J. (1987), *The Mask of Command*, Londres.
- Keegan, J. (1995), *Historia de la guerra*, Bartzelona.
- Lynn, J.A. (1984), *The Bayonets of the Republic: Motivation and Tactics in the Army of Revolutionary France, 1791-1794*, Illinois.
- Muñoz Molina, A. (1995), *Ardor guerrero*, Madril.
- Seaton, A. (1985), *The Horsemen of the Steppes*, Londres.
- Soboul, A. (1959), *Les soldats de l'an II*, Paris.

DERRIGORREZKO SOLDADUTZAREN EZARPENAREN LEHEN URRATSAK GIPUZKOAKO ZENBAIT UDALERRITAN XIX. MENDEKO AZKEN LAURDENEAN

*Gorka Alijostes
Historialaria*

1. FORU SISTEMAREN DEUSEZTAPEN LEGEAK

1.1. Galera baten ondorengoak

XIX. mendean zehar euskal hiru probintziek (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) Nafarroarekin batera, Erdi Arotik indarrean mantendu zituzten foru sistemak galtzen dituzte. Galera honek, gorabehera ugari ezagutu zituen, halaber gerrate karlistak, lege eta dekretu berriak, Nafarroaren banaketa e.a.

Foralitateari buruzko gaiak, euskal historiografian ezezik, estatu espainiarreko historiografia mailan ere azterketa sakonak egiteko aukera eskeini du. Hortaz, gure artean iritzi asko plazaratu da azken ehun urtetan gai honen inguruan. Eraberean, ikertzaile ugari bere tesi doktora euskal foruen galeran oinarritu du, C. de ECHEGARAY, P. de GOROSABEL, FERNANDEZ SEBASTIAN edo LOPEZ ATXURRA besteak beste, bai historiaren ikuspegitik, bai eta soziologiaren, antropologiaren, zuzenbidearen, ekonomiaren edo politikaren ildotik ere. Jende honek guztiak burututako ikerketa eta azterketa sakon eta ezberdinak direla eta, egun, edonork du foralitatearekin zerikusia duten emaitzak eta ondorioak kontsultatzeko aukera, gure udalerrietako liburutegi gehienetan.

Garrantzitsua bezain eztabaidagarria suertatu den gai honek, iritzi kontrajarriak plazaratzeko aukera eskeini die ikerketa hauetan murgildu diren pertsona guztiei. Printzipioz, gure lanak, eztabaida horietatik guztietatik ihes egin nahi du. Baina hau ia ezinezkoa gertatzen da, *derrigorrezko soldadutzaren ezarpena* ikertzerakoan foralitate gaia abiapuntutzat hartzea ezinbestekoa baita.

Dena den gure helburu edo asmoa, XIX. mende bukaerako foralismo berriaren eta derrigorrezko soldadutzaren ezarpenaren arteko uztarketa era laburrean aztertzea besterik ez da.

1.2. Abolizio legeak

Lehen saiakerak Antzinako Erregimena bere sasoi onenean zegoenean izan baziren ere, XIX. mendea izango da abolizioak ezarriko diren epealdia.

1839ko urriaren 25era jo beharko genuke lehenik, bi artikuloz soilik osatutako legediak, Nafarroaren eta euskal hiru probintzien foruak baieztatzen dituela jakiteko. Hala ere, baieztapen hau baldintzapekoa izan zen;

Art.1 *“Se confirman los fueros de las provincia vascongadas y Navarra sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquía.”*

Art.2 *“El Gobierno tan pronto como la situación lo permita, oyendo antes a las provincias, propondrá a las cortes la modificación indispensable que en los mencionados fueros reclama el interés de los mismos.”*

Argi dago, lege honen bidez, foru sistemen eta Espainiako batasun konstituzionalaren arteko uztarketa lortu behar zela.

Uztarketa gerta zedin, 1839ko legediak prozedura zehatza xedatu zuen; probintzia bakoitzeko agintariei edo ordezkariari entzun beharko zitzaizkien. Hau da, lehenik, edozein erabaki hartu baino lehen, lau lurraldeetako Foru Aldundiekin hitz egin beharko zen.

Ondoren, gobernuak prestaturiko lege proiektuak Espainiako parlamentuan eztabaidatu beharko ziren, eta azkenik gorteetako gehiengoek legedi berria onartu beharko zuten. Hortaz, prozedura oso argia zen: haseran diputazioetan kontsulta, jarraian Espainiar parlamentura eta amaieran gorteetako adostasuna.

Nafarroako probintzian Urriko legeak ezarritako prozedurak bi urte luze iraun zituen eta 1841eko udaran bere azkenera iritsi zen. Horrela, urte hartako abuztuaren 16an, Nafarroaren eta Estatuaren arteko harremanak aldatuko eta berregituratuko zituen araudia onartu zen. Legedi berri hau *“Ley Paccionada”* ezizenez ezagutuko da.

Nafarroan hau guztia gertatzen zen bitartean, gainontzeko euskal hiru probintzietan berriz (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa), lehen aipatutako prozedura hori ez zen aurrera eramanez. Izan ere, elkarrizketak, eztabaidak, iritzi kontrajarriak, azalpenak e.a. izanagatik ere, ez zen adostasunik gertatu.

Ondorioz, foru sistema berriaren eta espainiar Estatuaren batasun konstituzionalaren artean eman beharreko uztarketa, Espainiar gobernuak dekretu baten bidez erabaki zuen. Hots, Nafarroan bezala, euskal probintzietako agintariak eta gobernuak ez ziren akordio batera iritsi eta azken erabakia Madrilan hartu zen “hemengoan” iritziak kontutan hartu gabe.

Baldomero Espartero general liberalak, Espainiar gobernuaren erregente zenak, 1841eko urriaren 29an Euskal hiru lurraldeen foru sistemaren egituragabeketa zekarren dekretu berria izenpetu zuen.

Dekretu berriak eta “*Ley Paccionada*” delakoak aldaketa batzuk ekarri zituzten euskal lurraldeetara: hala nola, aduanak kostaldera eramatea, aintzinako instituzio batzuen desagertzea, kanpotar agintarien etorrera eta Espainiar Gobernuko ordezkari berrien onarpena.

Baina egon zen bai bien artean ezberdintasun garrantzitsua, soldadutza gaiarekin zerikusia duena alegia.

“*Ley Paccionada*” delakoan argi azaltzen da, hurrengo urtean eta urte horretatik aurrera (1842) ordurarte inoiz egin ez zuten arren, nafar gazteak, penintsulako gainontzeko gazteen antzera, espainiar ejerzitoaren beharrak asetzera abiatu beharko zirela. Hala egin zuten.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako probintziei luzatutako dekretuan berriz, ez zen derrigorrezko soldadutzaren gainean aipamenik egiten. Horrenbestez, lurralde hauetako foru sistemaren oinarri nagusienak deuseztatu ziren arren, zenbait atalek ez zuten aldaketarik jasan.

Beraz, gipuzkoar, arabar eta bizkaitar gazteek, 1841eko dekretuari jaramon eginez, iraganean antzera, Espainiar ejerzitorea edo armadara ez joateko salbuespena indarrean mantendu zuten.

*“Ez dute zergatik bere probintzietatik kanpo zerbitzatu behar.”
(Recopilación 1697, Fueros).*

Salbuespen edo babes honek, 1876ko uztailaren 21eko legedia ezarri zen arte iraun zuen, azkeneko gerrate karlista amaitu zen arte alegia. Hortaz, hiru probintzia hauetako errebolta armatua, foruen behin-behineko edo erabateko deuseztapen legea inposatzeko aitzaki egokienean bilakatu zen.

Espainiar Estatuko agintari berriek, Cánovas del Castillo buru zela, euskal hiru lurraldeetan derrigorrezko soldadutza ezarri zuten. Horretarako, 1876ko uztailaren 21eko legedia banandu zen. Ezarpen honen ondorioz eta ordutik, gipuzkoar gazteak, urte batzu lehenago nafarrek egin zuten moduan, espainiako zerbitzu militarra betetzera derrigortuak izango dira.

- Legea eta soldadutzari buruzko atalak -

1. *“Los deberes de la constitución española han impuesta siempre a todos los españoles de acudir al servicio de las armas cuando la ley los llama, y de contribuir en proporción de sus haberes a los gastos del estado, se extenderán como los*

derechos constitucionales se extienden a los habitantes de las provincias de Alava, Vizcaya y Guipúzcoa del mismo modo que a los demás de la nación.”

2. *“Las tres provincias referidas quedan obligadas desde la publicación de esta ley a presentar en los casos de quintos y reemplazos ordinarios y extraordinarios del ejército, el cupo de hombres que les corresponda con arreglo a las leyes.”*

2. SOLDADUTZARAKO LEGEDIA XIX.MENDEKO AZKEN LAURDENEAN

XIX. mende bukaeran espainiar gobernuak soldadutzaren inguruan eman zituen lege orokorrak hiru izan ziren:

- Lehena, 1878ko abuztuaren 25ean.
- Bigarrena, 1885eko uztailaren 11ean.
- Hirugarrena, 1896ko urriaren 21ean.

Hiru lege nagusi hauekin batera, militar agintariak eta gobernuak berak ere, zirkular, dekretu eta araudi ezberdin ugari izenpetu zituzten hogeitaz hamar urte horietan. Dena den, gure azterketa hiru lege nagusi horietan murgilduko da.

2.1. Legearen mamia eta edukina

Soldadutzarako legeek hemezortzi kapituloetako egituraketa daukate. Bertan, errenplazu bakoitzean jarraitu behar diren pausoak zehatz mehatz xedatzen dira.

2.1.1. Araudi Orokorra

-Zerbitzu militarra derrigorrez bete behar den lana da, espainiar gizonekoentzat behintzat.

-Urtero luzatzen den deialdira hemeretzi eta hogeitaz hamar urtetako gazteek azaldu beharra dute.

-Udal ezberdinek bando baten bidez errenplazuetako prozesua hasten dela jakinaraziko die bere bizilagunei.

-Hamabost-hogeitamabost adin bitarteko gazteek ezin dute atzerrira aldegin bi mila pezetako ziurtagiri bat lagatzen ez duten bitartean.

-Zerbitzu honen iraupena zortzi urtetatik hamabi urte bitartera luza daiteke eta horietatik guztietatik soldaduek gutxienez erdia zerbitzu aktiboan igaro beharko dute.

2.1.2. Zerrendaketak

Arestian aipatu dugun moduan, udalek udalerrira ezberdinetako gazteei urte horretan ejerzitorea joateko deialdia bando baten bidez jakinaraziko die. Handik gutxira, bizpahiru aste gutxi gora behera, udal guztiek errenplazu hori osatzen duten gazteen zerrenda argitaratzen dute.

Zerrenda hauen antolaketarako eta egituraketarako, udalak, soldadutzarako araudiak agindu bezala, bitarteko ezberdinetaz baliatu ahal izango dira.

Alde batetik apaiz eta eliz-gizonen laguntza jasoko dute, hauek gazteak zein urtetan jaio eta bataitu zituzten ziurtatuko baitute. Udal langileen laguntza ere behar-beharrezkoa izango da, biztanle erroldetan egiaztaketak egingo dituztelako; kanpotarren etorrerak, bertakoen bizileku aldaketak eta bestelako gora beherak kontutan hartuko dituzte.

Azkenik, umezurtz eta karitatezko etxeetako ordezkarien lana baliagarria izango da udal ezberdinentzat, hauei esker leku horietan bizi zen gaztediaren berri zehatza izango baitute.

Errenplazuak osatzeko eman behar ziren pauso guztietatik luzeena zerrendaketa gertatzen zen. XIX.mendeko gizartea kontutan hartuz, luzapen hauek normaltzat har daitezke, egun ezagutzen eta erabiltzen ditugun baliabideak ezezagunak baitziren. Zerrendaketetan, umezurtz edo seme naturalen gorabeherak, kanpotarren gehiketak e.a. zirela medio, gehienetan azken momentuko zerrendaketak egin behar ziren.

Ezintasun teknikoei gazte eta senitarteko batzuen portaera gehitzen badiogu, zerrendaketaren pausoa amaierarik gabeko ekintza bihur zitekeela ohar gaitezke. Horregatik, erraz uler daiteke behin-behineko zerrendaketak osatu arte hainbat udalerritan, bizpahiru hilabete igaro behar izatea.

Erabateko zerrendak osatzen zirenean, bertan zegoen gazte bakoitzari gutun bat bidaltzen zitzaion errenplazuetako urrengo ekitaldira azal zedin.

2.1.3. Salbuespenak

XIX. mendeko soldadutzarako legediak bi motako salbuespenak onartuko ditu: Denboraldiko salbuespena (“Temporal” deritzona) eta Salbuespen Osoa (“Total” ezizenez ezagutuko dena).

Mota bakoitzaren barruan sailkapen bat egin daiteke.

2.1.3.1. Salbuespen osoak

Salbuespen mota hau gutxi gora behera hamar bat arrazoi zirela medio lor zezaketen gazteek. Dena den, burututako ikerketa kontutan hartuz, gure datuek besteak baino nagusiagoak ziren lau-bost arrazoi eskeini dizkigute.

-Garrantzitsuenarengatik hasi nahiean, garai hartako euskal lurraldeetan oihartzun handia izan zuen salbuespen oso mota bat azpimarratu beharra dago. Salbuespen hau liberal boluntarioei eskeinitakoa zen eta 1876ko uztailaren 21eko

legediak hala xedatu zuen: “Azken guda karlistan alderdi liberalaren alde borrokatu zuten soldaduek eta haien semeek, salbuespen osoa lortzeko aukera izango zutela”.

-Gaur egun gertatzen den antzera, beste salbuespen mota bat gaixotasun kronikoa izateagatik lortzen zena izango zen. Salbuespen mota hau lortu ahal izateko lege militarrek ezarritako “Gaixotasunen zerrenda” begiratu behar zen. Zerrenda horretan gaixotasun askok salbuespen osoa lortzeko aukera ematen bazuen ere, gure datuen arabera, gehien azaldu zirenak, besteak beste gutxituak (“deficientes”), hanka motzak eta begietako gaitzak izan ziren.

-Senitartekoren bat, aita edo anaia, soldadutza egiten egoteak, salbuespen osoa lortzeko aukera eskeintzen zuen ere. Ildo beretik jarraituz, Goardia Zibila edo Mikelete izateagatik ere, salbuespen osoa lortzen zen.

-Era berean, legeak apaiz-gizon, praile eta bestelakoei salbuespen osoa ematen zien.

-Salbuespen osoa, itsasoko langileen, preso zeuden gazteen eta meategietako langile zirenen artean zabaltzen da, baita.

2.1.3.2. Denboraldiko salbuespenak

Hona hemen laburbildurik soldadutzarako legediak salbuespen mota hau lortu ahal izateko ezartzen dituen baldintzak eta egoerak.

Denboraldiko salbuespenen artean, orain arte ikertutako udalerrietako datuei jaramon egiten badiegu behintzat, gazte gehientsuek guraso alargun eta behartsuaren egoerak eskeintzen zuen salbuespenan babestu zirela azpimarratu beharko genuke.

Salbuespen mota hau lortu ahal izateko, ziurtagiri fidagarria behar zuen soldadugaiak, eta bertan argi eta garbi adierazi behar ziren familiaren datuak, hala nola: jaioteguna, hildakoen datak, bestelako anai arrebak eta abar. Zentzu berean, salbuespen mota hori eskatzen zuen gazteak, familiaren euskarri bakarra zela eta bere lanaren ondorioz haren guraso eta anai-arrebak bizitzen zirela frogatu behar zuen.

Salbuespen mota hau beste arrazoiengatik ere lor zezaketen soldadugaiek. Alde batetik salbuespen osoa lortzeko hainako gaixotasunik ez zuen gizasemeak (dardarak, zotinak, indar gutxi, eztulak e.a.) denboraldikoan izango zuen aukera, nahiz eta beti hau ez lortu.

Neurri baxukoek ere salbuespen berbera lortu ahal izango zuten. Gaixotasun bezala onartu ezin dezakegun egoera hau, metro bat eta erdira iristen ez ziren gazteei egokitzen zaie. Horretarako hainbat udalerritan neurtzeko tresna berri bat erosi zuten, Irunen, Hondarribian, Donostian e.a.

Mota hauetako salbuespenen artean aipatuko dugun azkena, ikasleei dagokiena izango da. Gazte hauek ulergarria den moduan, ikasketak burutzen dabilzan bitartean soldadutzarako legeek denboraldiko salbuespena eskeiniko diete.

Salbuespen mota honetako egoera guztiek, urtero berrikuntza bat eskatzen dute, urtero egokitu behar dira, egoera eta baldintza horiek berdin jarraitzen duten hala ez egiaztatzeko. Aldaketak urte batetik bestera eman baitaitezke, ikasketak amaitzen direlako, guraso alarguna hil delako, anairen bat 17 urte bete dituelako, zentimetro batzu hasi delako edo soldadutzan zegoen anaiak zerbitzua amaitu duelako.

Hau guztia ikusi ondoren komenigarria da esatea ekitaldi honen garrantzia udalerrarentzat ezinbestekoa zela. Jarraian zetozen pausoei begira, salbuespenen pausoa argi geratu behar zen eta horregatik udal agintariekin batera, ekitaldi honetan militar ordezkariak, mediku jakitunak, eliz-gizonak eta gazteen gurasoak parte zuzena hartuko zuten, zalantzak gera ez zitezen.

Edozein salbuespen mota, Osoa nahiz Denboraldikoa, lortu ahal izateko, derrigorrez ziurtagiriak ekarri behar ziren. Ziurtagiri hauek mota askotakoak izan zitezkeen, jaioteguna eta adina adierazten zituztenak, guraso eta norberaren nortasuna zehazten zutenak, medikuen oneritzia zekartenak, Gobernu Zibila edo Militarraren baimena zituztenak e.a.

Ziurtagiriekin batera kasu askotan lekukoak iritziak eta gainontzeko gazteen onarpena ezinbestekoak izaten dira salbuespena aurrera atera ahal izateko.

2.1.4. Sailkapena

Salbuespenen ondoren soldadugaien sailkapena egiten zen eta aipatutako hiru legeen artean ezberdintasun batzuk egon ziren arren, sailkapenaren atalari dagokionez gure asmoa gauzak erraztea da. Horregatik soldadutzarako sailkapenetik irteten diren gazteak/soldaduak bitan bakarrik banatuko ditugu. Alde batetik salbuespendun soldadugaiak (Osoak edo Denboraldikoak) eta zozketatu daitezkeen soldaduak bestetik, nahiz eta legeetan hainbat ezizen gehiago eman.

Ekitaldi hau salbuespenen osagarri bezala har genezake, bertan udaletako agintariekin batera militar ordezkariak eta urte horretan errenplazuan inplikaturik dauden gazteek eta horien senitartekoek, hartzen zuten parte.

Orain arte eman diren soldadutzarako pauso guztietan adierazi ez badugu ere, komenigarria iruditzen zaigu azaltzea udal ezberdinetako idazkaria soldadutzarako prozedura osoaren berri zehatza hartzen ari zela. Pertsona honek ekitaldi guztietako aktak idatziz, gerora begira batipat, sortu zitezkeen eztabaidak eta kontsultak argitzeko aukera emango zuen eta.

2.1.5. Zozketa

Aurreko atalean adierazita geratu den moduan, XIX. mendeko azken hogeitabost urtetan emandako soldadutzarako hiru lege nagusien artean ezberdintasun batzuk aurki daitezke. Horietatik guztietatik nabarmenena, gure ustetan, zozketaren pausoan edo ekitaldia burutzeko garaian eman zena da.

Zozketa, sailkapenaren ondoren zozketa zitezkeen soldaduekin egingo da bai Espainia baita foru sistemaren deuseztapen legeen ondoren Euskal Herri guziko udalerritan. Soldadutzarako legediak zozketa hau aurrera atera zedin prozedura bat xedatu zuen. Pauso hau labur labur honela zihoan: Udalerrri guztietan bi kutxa prestatzen ziren, hauetako batetan zozketatuko ziren gazteen izen eta abizenak sartzen ziren, beste kutxan berriz gazte hainako zenbakiak zituzten papertxoak. Jarraian, 10 urtetako bi mutil koskorrek, banan banan izen eta zenbaki bat aterako zuten, den-denak amaitu arte.

Prozedura honen ondoren, zozketatu zitezkeen soldadugaiei zenbaki bat suertatuko zaie “zoriar”.

2.1.6. Probintziako kupo osaketa eta kaxarako sarrera

Euskal gaztedia (gipuzkoarrak barne), Estatu espainiarreko gainontzeko probintzietako gazteen modura, 1877. urtetik aurrera Ejerzitoaren beharrak asetzeraz abiatuko da.

Honek guztiak lehen aipatutako puntuarekin (zozketa) du harreman zuzena. Aurreko atalean adierazi den eran, soldadutzara joango diren gazteak zozketatu zitezkeen gazteetatik irtengo dira, zozketan ateratako zenbakia kontutan harturik eta probintzia bakoitzari eskatzen zaion kupoaren arabera.

Espainiar Ejerzitoak eta haren izenean militar agintariek, urtez urte beharrezkoak diren soldaduak, aldizkari ofizialetan argitaratzen duten zirkular berezi batzuren bidez eskatzen dituzte (B.O.E.). Hortaz probintzia bakoitzari, zerrendatutako gazteen arabera kupo bat eskatzen zaio, gero probintziak kupo hori udalerriz udalerrri banatuko zuen, (proportzionalki noski), eskatutakoa osatu arte.

Pauso hau kaxarako sarrerarekin amaituko zen. Atal honetan, gure herrietako gazteak udalaren agintepetik militar ordezkarien “babesera” pasako dira.

Behin kaxan daudela erabakitzen da, gazteen “zorionerako”, zein lekutan bete beharko duten soldadutza; Donostian bertan edo Gipuzkoako beste kuartel batetan, Penintsulako edozein kuarteletan edo kolonietako baseetan, hau da, Ipar-Afrikan, Kuban, Filipinatan, besteak beste.

2.1.7. Iheslari eta iheskariak

Orain arte aipatu ez den izendapen honen atzean, soldadutzarako prozesura azaldu ez diren gazteak daude. Hau da, zerrendatzetatik kaxako sarrera bitartean, edozein arrazoi dela medio, gazteak ez badira ekitaldi batetatik aurrera udaletxean azaltzen iheslari eta iheskariak bezala sailkatuko dituzte, hildakoak eta beste herritan sailkatuak eta zozketatuak izan direnak salbu noski.

Errenplazuetako legedi guztiek, atal oso bat eskeintzen dute egoera horri buruz. Horretaz gain, legedia berak kasu hauetan jarraitu beharreko pausoak eta eginbeharreko epaiketak argitzen ditu.

Iheslariak, “soldadutza ez egiteagatik ihesaren bideari ekiten diotenak dira” ia beti zerrendaketak baino lehen. Iheskarien kasua antzekoa da baina ez berdina, gazte hauek zerrendaketan eta salbuespenetan azaldu dira eta baita beste pausoetan ere, iheskarien ezizena kaxako sarrerara azaldu ez direlako hartuko dutelarik. Bi hauen egoera legez kanpokoak da, gaur egungo intsumisoen antzekoa gutxi gora behera.

Aukera hauetara jotzen duten gazteei txosten berezi bat eraikitzen zaie, bertan iheslari/iheskariari buruzko datuak biltzen direlarik: Datu pertsonalak, senitarteko eta lagunaren datuak, ihesaldiaren eguna, arrazoiak eta jarraitutako norabidea, jantzita zeraman arropen deskribapena, laguntzarik jaso al zuen ala ez adierazi. Hau guztia epaiketa zorrotz eta sakon baten ondoren non lekuko, lagun eta soldadugai diren gazte batzuren testigantzak jasotzen diran, eta baita gazte hauen gurasoenak ere (azken hauek zerbait jakinez gero noski).

Soldadutza betetzeari uko egiten dioten gazteentzat ondorio larriak daude. Alde batetik ejerzitoak eskeintzen dituen “pibilegioak” bertan behera geratzen dira, iheslari edo iheskariarentzat ez dago berrerospenik edo ordezkaketarik (“redención a metálico”), ezta ere salbuespenik edo gehiegizko kuporik. Beste aldetik, gazte horren aurkikuntzak eta harrapaketak sortarazi zitzaizkeen gastuak, inoiz harrapatu ezkerok, ihesean joandakoak ordaindu beharko lituzke edo haren gurasoek.

Dena den dirutako zigor horretaz gain soldadutzarako legediak, harrapatzen diren iheslari/iheskariarentzat, norabide bereziak izango ditu prestatuak; Ipar-Afrika, Kubako irla, Puerto Riko edo Filipinak. Eta hemen gazte horiek hiruzpalau urtetako soldadutza izango dute zain.

Atal honi amaiera emateko komentatu, norbaitek iheslari bat ekarri edo haren aurkikuntzan lagundu ezkerok, berak edo bere semeak soldadutzatik aske geratzeko aukera izango zutela.

2.1.8. Berrerospenak eta ordezkaketak

Diruak aspalditik gizarte gehienetsuetan, jendearen artean betiere sailkapen “naturala” sortarazi du, eta XIX. mendeko soldadutzaren kasuan ez zen kontrakoa gertatu.

Errenplazuetako legedia jarraitu ezker, soldadutzatik aske geratzeko zenbat ordaindu behar zen ikusiko dugu. 2000 pezetan truke kolonietatik aske gera daitezke gazteak, penintsulako librakuntza aldiz 1500 pezetatan ezarri zen.

Hasiera batetan, diruaz gain soldadugaiak haien ordezkoak ere ekartzen zituzten. Ordezko hauek ezin ziren salbuespendunak izan (gaixoak, guraso alargunak zituztenak, neurri baxukoak e.a.). Urteak aurrera joan ahala ordezkari horiek ekartzeko eta bilatzeko ardura agintari militarrek hartuko dute bere gain, lehen aipatutako pezetak ordaindu direla ziurtatzerakoan.

Pauso honek sortarazi zezakeen atzerapena eta luzapena gerta ez zedin, diru ordainak epe labur batetan egitea gomendatzen da, ia beti kaxarako sarreran.

2.1.9. Zigorren atala

Iheslari/iheskarien pausoa azaldu bada ere, XIX. mendeko soldadutzarako legeek atal berezi batetan zigorrak zehazten dituzte.

Gehienetan ihesean dohazen soldadugaien zigorretaz mintzatzen zaigu, hortaz lehen aipatutakoa ez dugu berriz errepikatuko. Hala ere berritasunak ere aurki daitezke.

Garrantzitsuena gure ustez, zigor hauek jaso behar duten pertsonetan somatuko dugu. Honela iheslari gazteak norbaiten laguntza jaso duela ziurtatzen bada eta demostratuta geratuz gero, familiarteko horrentzat, apaiz-gizonarentzako edo udalerriko agintari harendako, gartzelako zigorra egongo zen.

2.1.10. Azken alegazioak eta egoera aldaketak

Udalerrietako saioak laupabost hilabete iraun ditzazke, lehen zerrendaketatik, zozketaraino (abendua-apirila). Epe luze horren tartean egoera aldaketak eman daitezke, azken orduko hildakoak (gazteak eta gurasoak), gaixotasun egoerak, ordezkaketak, berrerospenak eta abar.

Errenplazuko gazteak kaxako sarrera urte horren amaiera aldean egiten dutela jakinda, erraz uler daiteke noizbehinka egoera berriak ematea.

2.2. *Legeen arteko ezberdintasun nabarmenenak*

Arestian aipaturik geratu den moduan, aztertzen ari garen XIX. mendeko azken laurdeneko Estatu espainiarreko Gobernuak, derrigorrezko soldadutzaren inguruan hiru lege orokor ezberdin plazaratu zituen. Bi hamarkada laburren epean, gipuzkoar gazteak eta bertako udalerrietan agintari direnak, **1878ko abuztuaren 21eko legea, 1885eko uztailaren 17ko legea eta 1896ko urriaren 21eko legea**, ezagutu eta aplikatu beharko dituzte.

Egiturari dagokionez hiru legeek antzekotasun nabarmena daukate. Hemezortzi kapitulo horietan zehar oso aldaketa gutxi soma daiteke, lege orokor batetik bestera. Atal gehienak orohar errepikapen hutsa besterik ez dira, gogora; Zerrendaketak, Salbuespenak (Osoak eta Denboraldikoak), Sailkapena, Iheslari/iheskariak, Zigorak e.a.

Berritasunak oso puntu gutxitan eman ziren. Hona hemen laburbildurik gure ustez, garrantzitsuenak diren aldaketak **1878ko, 1885eko eta 1896eko** legeen artean.

2.2.1. **Gazteen adina**

Lehen berritasunak, errenplazuak osatu behar zituzten gazteen adinari erantzuten dio. **1878ko** legeak, soldadugaien adina 20 urtetan ezarri zuen, beste bietan adina 19 urtetaraino jaitsi zen. Horren ondorioz 1885. urtetan bi errenplazu egin ziren espainiar ejerzitorea joateko, urtarrilean lehena 20 urtetako gazteekin irailean bigarrena 19 urtetakoekin.

2.2.2. **Zerbitzuaren iraupena**

XIX. mendeko soldadutzak atal honetan harridura bat baino gehiago sortarazi dezake, gaur egungo ikuspegitik behintzat. Garai haietan zerbitzu militarra urte batzutarako izaten zen, eta ez du zer ikusirik gaur egungo bederatzi hilabeteekin.

1878ko legediak, zortzi urtetako zerbitzua ezartzen zuen eta hauetatik lau zerbitzu aktiboan igaro beharko ziren, beste lauak erreserban. Baina **1885ekoak** eta **1896koak** epe horiek luzatu zituzten, legedi berriek zerbitzua 12 urtetan ezarri zuten, haietaik 6 zerbitzu aktiboan egin beharko zituzten gure udalerrietako gazteek eta beste seiak erreserban.

2.2.3. **Sailkapenak**

Atal honetan eman ziren aldaketa eta berritasun guztiak, soldadugaiak sailkapenaren ondoren hartuko dituzten ezizenei dagozkie.

1878ko legean soldaduak bi motatakoak izango ziren; soldadu aktiboak eta erreserbarako soldaduak. Lehenak soldadutza betetzera abiatuko ziren eta bigarrenak denboraldiko salbuespenen babesa zuten eta baita gehiegizko kupoak eskeinitako “askatasuna”.

1885eko legedian gauzak sinpleagoak baina aldi berean ulergarriagoak egiten dira. Alde batetik zozketatu daitezkeen soldaduak egongo ziren eta bestetik salbuespendunak (kasu honetan bi motatakoak, denboraldikoak eta osoak).

1896ko lege orokorrak aldaketa txiki bat ekarri zuen soilik. Denboraldiko salbuespendun soldaduek izen berri bat hartuko dute, baldintzazko soldaduena hain zuzen ere.

Gure azterketa ulergarria eta arinagoa izan dadin soldaduen sailkapena erreztu dugu, horregatik bitan bakarrik sailkatu ditugu: zozketatu zitezkeen soldaduak eta salbuespendunak.

Atal hau amaitzeko, garrantzitsu izan ziren beste soldadugai batzuetaz mintzatu behar gara, iheslari/iheskarietaz. Hala ere, hiru legedietan berdin azaltzen dira hortaz ezberdintasunik adieraztea ez dugu uste beharrezkoa denik.

2.2.4. Zozketa motak

Ikertzen gabiltzan epealdietako legeek diotena jarraituz, bi motatako zozketa bereizi daitezke. Lehena udalerrietan bertan egingo zen, zerrendaketak behingoz osatuak daudenean. Bigarrena kaxan egiten zen probintziako gainontzeko gazteekin batera.

1878ko eta 1896ko legeetan soldaduen zozketa udalerrri bakoitzean zerrendatutako gazteekin egiten zen. Zozketaren prozeduraz, zozketaren atalean emandako azalpenak hemen ere baliagarriak direnez ez ditugu errepikatuko.

1885ekoan gure ustez bi dira ezberdinatsun nagusienak. Alde batetik zozketa hori, zozketatu daitezkeen soldaduekin soilik egiten da gehi iheslariak, ez dira horretan salbuespendunak sartzen. Eta bestetik, zozketa hori udalerrri bakoitzean egin beharrean, probintziako gainontzeko soldadugaiekin batera egiten da, behin kaxara zuzentzen direnean.

3. GIPUZKOAKO UDALERRIAK DERRIGORREZKO SOLDADUTZAREN DINAMIKAN

Aurkeztera goazkizuen datuak, gertaerak eta egoerak Gipuzkoako hainbat udalerritako artxiboetan bildu eta ikertu diren dokumentuetan oinarritzen dira. Alde batetik Andoingo udalerriko emaitzak azalduko ditugu, 1994ko Leizaur 3.

aldizkarian publikatutako lanaren ondorio direnak. Bestetik egun Oarso-Bidasoako eskualdeko udalerrietan soldadutzarekiko jarrerak eta jokabideak aztertzen dituen ikerlanaren lehen emaitzek osatzen dute.

Bi kasuetan, iturri berdinak erabili ditugu, militarrekin harremana deritzona (Artxiboetan E.5.I “Reemplazos”) eta Udalerriko aktak (Artxiboan A.1 “Actas”). Hau guztia XIX. mendeko azken laurdeneko dokumentuetan oinarrituz.

Maila txikiago batetan, garai hartako Gipuzkoako Aldizkari Nagusia (B.O.P.) eta Egunkari batzuk kontsultatu ditugu. Hemendik ateratako datu gehienak artxiboetan lortutakoen osagarri izan dira. Kasu askotan iturri hauek, oso garrantzitsuak eta baliogarriak izan dira garai hartako soldadutzari buruzko prozesua ulertzerako garaian eta udaletako dokumentuek utzi zitzaizketen zalantzak argitzeko unean.

3.1. Udalerrien erabaki “ikusgarria”

Lehenago aipatu dugun eran, 1876ko uztailaren 21eko Foru sistemaren deuzestapen legeak, ordurarte Gipuzkoan ezezaguna zen derrigorrezko soldadutza ezarri zuen. Gertaera haren ondorioz, 1877ko errenplazua, Gipuzkoako udalerrri guztientzat historian zehar lehena izan zen.

Iragarritako errenplazua urte hartako urtarrilean hasi zen, baina hilabete horren erdialdera Oiarso-Bidasoa eskualdea osatzen duten udalerrri guztiek (Hondarribia, Irun, Oiartzun, Errenderia eta Pasaia) eta baita Andoaingoak ere soldadutzarako prozesua bertan behera uztea erabaki zuten.

Dirudienez, erabaki honetan Gipuzkoako udalerrri guztiek hartu zuten parte, 1877ko urtarrilaren erdialdera. Erabakia harrigarria eta ikusgarria da benetan; hala ere gai honek ikerketa sakonagoak eskatzen ditu inolako ondorio goiztiar atera aurretik.

Udal hauen ustez, soldadutzarako legedia berria eta haren atzetik zetorren prozesua, Gipuzkoako ohituren aurka zihoan, hau da, foruen kontra. Horregatik aurkezten diote probintziako gobernuari dimisioa eta bide batez errenplazuetako pausoekin ez jarraitzearen erabakia.

Ikertzen ari garen udaletako zinegotzi guztiek hartutako erabakia, udal agintarien ikuspegitik zergati hauei erantzuten zieten: “Soldadutzaren legedi berria zela eta, probintziaren interesak oso kaltetuak irteten ziren eta leialtasuna mantentzen diotela erakusteko dimisioa aurkeztea ezinbestekoa dute”.

Gobernu Zibilaren erantzuna azkarrak izan zen, honela hurrengo egunean udalerriek hartutako erabakia onartezina zela azpimarkatuz, errenplazuetako ekitaldiekin jarrai zezaten eskatu zien. Dimisio horrekin gainera udalaren

funtzionamendu guztia oztopatzen zuten eta hori ez zuela onartuko jakinarazi zien Gobernadore Zibilak.

Egun gogorak eta tentsioz beterikoak bizi izan ziren 1877ko urtarrila eta otsaila bitartean Gipuzkoako hainbat udalerritan. Gobernu zibilak indarra erabiliko zuela mehatxatu zuen ere, baina guk ikertutako udaletan ez zen halakorik gertatu.

Azkenerako konponbidea aurkitu zen, honela otsailaren erdikaldera dimisioa aurkeztu zuten udalerriek eta soldadutzarako ekitaldiekin jarraitu zuten. Baina egoera kezagarri horrek ondorio bat behintzat izan zuen, konponbidearen bidera elkar akordio batetatik heldu zirela, bai Gobernu Zibila, baita Foru Aldundiak eta Udalerrriak ere.

Lehen errenplazu horretarako, Espainiako Ejerzitoak Gipuzkoako probintziari 600 gazte eskatu zizkion kupo gisa, udalerrri ezberdinetan banatu zedin. Hala ere soldadutzarako legedietako atal batetan zetorrena aprobetxatuz, Udalek eta Diputazioak erdibana (berrerospen eta ordezkapenen bidez), probintziako gazte guztiak soldadutzara ez joatea lortu zuten.

Akordio horretan argi azpimarkatzen zen diruaren ordaina bien arteko gauza zela, bai Foru Aldundiaren aldetik eta baita Udalerrriaren aldetik (erdibana).

“El reemplazo del año 1877 no se efectuó por haber redimido la diputación a todos los mozos de la provincia, de acuerdo con todos los pueblos, evitando así la primera leva impuesta tras la ley del 21 de julio de 1876”.

Ikertutako Udalerrietan pauso edo egoera ezberdinak eman ziren, bildutako datuen arabera behintzat. Honela Andoain eta Pasaian ez dugu inolako dokumenturik aurkitu urte horretako gazteak soldadutzara joan ez zirela esaten diguna. Hondarribia, Irun eta Oiartzunen berriz ordainketaren ziurtagiriak topatu ditugu eta aktetan jasotzen da.

Gainera azken hiru kasuetan aipaturik geratzen da (dokumentuak daude) urte horretan soldadutza bete behar duten gazteak, Gipuzkoako udalerriek eta Foru Aldundiak akordio baten bidez (dirutan ordaindu beharrekoa noski), libratzea lortu dutela.

1877ko gertaera “xelebre” hura ez zen gainontzeko hogeitalau urtetako errenplazuetan errepikatu. Ez dakigu gogoz hala gogoz kontra baina gauza bat argi dago, hemendik aurrera udalerrietako agintariek soldadutzarako ekitaldiak egiten jarraitu zutela.

3.2. Prozeduraren inguruan gertatutakoak

Gure helburuetariko bat derrigorrezko soldadutzarako prozesuan, protagonista nagusi diren gazteen iritziak eta jokabideak aztertzea baldin bada, hauek ejerzitoarekiko izan zuten jokaera azaldu beharra daukagu.

Baina, ezer komentatzen hasi aurretik gure proposamenak zailtasun ugariekin egin duela topo adierazi nahi dugu. Gazte hauen jarrera zein izan zen jakitea ez da erreza, idatzita ezer gutxi utzi baitute; hala ere beraien pentsamoldeak zeharkako bidetatik ikertzen saiatu gara.

Udaletako aktetan soldadutzarako gaia baztertua egon da, beste “gauzak” izan baitira garrantzitsuagoak garai hartako agintarientzat.

Dena den soldadutzarako prozesuan zehar gertatutako hainbat gorabehera eta egoera, 1876-1900 urte bitartetan Andoainen eta Oarso-Bidasoako eskualdean, mesedegarri izan dira gure helburu nagusi horri erantzun eta ondorio batzuk ateratzeko garaian.

Horretarako kontutan hartuko ditugu gazte hauek zerrendaketaren lehen urratsetik kaxako sarreraraino izan zuten jarrera eta jokabidea. Eta bide batez haien senitartekoak eta lagunak izandako portaera ere aztertuko dugu, kasu gehienetan gazteen portaera bezain adierazgarriak dira eta.

3.2.1. Zerrendaketaren pauso amaitezina

Soldadutzara joateko prozesu osoan zehar, zerrendaketa atalik luzeena da eta horretarako arrazoi batzuk daude.

Alde batetik ezintasun teknikoak, XIX. mendeko gizarteak ez ditu gaur egungo abantailak ezagutzen hortaz guztiz normala da zerrendaketaren lana atzeratzea. Bi hilabete pasatzen ziren lehen zerrendatik, behin behineko zerrenda osatzen zen arte; horretarako gogoratu zerrendaketa atalean adierazitako guzia.

Lehen zerrendan urte horretan 20 edo 19 urte (legeen arabera noski) zituzten gazte guztiak azaltzen dira. Hurrengo zerrendan, egiaztaketa zorrotzak egin ondoren hildakoak kentzen dira. Jarraian, kanpoan bizi direnak kentzen dira, udalerrri horietan zerrendatuko direla ziurtatzen denean. Gero, udalerrira etorritakoak gehitu beharko ziren. Azkenik seme-natural, umezurtz eta “expósito”en kasuak banan bana egiaztatu behar dira. Honen ondorioz ulergarria suertatzen da, behin behineko zerrendak osatu arte hainbeste denbora igaro beharra.

Egon ziren ere jende “despistatuaren” kasuak, batipat legearen berritasunarengatik. Dena den mota honetako jendea 90ko hamarkadan ere azaltzen da eta legedia orduan ez da hain berria.

Egoera berriaren adierazgarri argia, Andoain eta Oiartzungo udalerrietan topatu dugun dokumentu batetan laburbil dezakegu. Gobernu Zibilak Udalerri bietako agintariei soldadutzarako deialdiak euskaraz ere idatzi ditzatela eskatzen dienean.

“En la lengua materna de los vecinos que no es otra que el vascuence”.

Ezintasun tekniko hauei gazte batzuren jokabidea gehitzen badiegu, zerrendaketaren pausoa ia amaitezineko atal batetan bihurtzen zaigu. Hona hemen adibide nabarmen batzuk.

Badira gazte batzuk, inongo zerrendetan azaldu gabe urte osoa igarotzen dutenak. Baina hurrengo deialdian edo handik urte gutxira, norbaitek egoera salatzen du (orokorrean beste soldadugairen bat edo haren senitartekoren bat), udal agintariak hutsuneaz ohartzen dira, bataio ziurtagiria azaltzen da e.a. Gauza da, kasu hauetan guztietan azaldutako gazteak datorren deialdian zerrendaburu izango direla, legeak hala aginduta noski.

Hau guztia kontutan harturik, hasierako zerrendaketan izandako gazte kopuruak amaierako zerrendaketakoekin konparatuz, gorabehera nabarmenak izango ditu.

Udalerrien artean ere ezberdintasun nabarmenak aurki daitezke, honela Oiartzunen ia urtero lehen zerrendatik behin behinekora 25/35 gazteen tarte dago, gainontzeko udalerritan berriz kopuru hau inoiz ez da 20-ra iristen.

Dena den gure azterketa behin behineko zerrendaketetan jasotako datuekin hasi dugu. Horregatik hona hemen, ikertutako udalerrietan bildu ditugun datuen laburpena:

1. taula. Behin behineko zerrendaketak 1877-1899 epealdian

Andoain	664
Irun	1764
Oiartzun	1050
Pasaia	303
Guzira	3781

Udalerri hauek Gipuzkoako probintziaren % 10 baino gehiago osatzen dute. Nahiz eta portzentai txikia izan, azaltzen zaizkigun datuek bere garrantzia daukate, agitaratzen diren mota honetako lehenetarioak baitira.

3.2.2. Salbuespenen babespean

Errenplazurako bigarren pauso honetan, aurrekoan baino gehiago somatu eta ikus daiteke gazte askoren jokabidea. Baina kasu horiek aztertu aurretik jo dezagun bildutako datuek diotena azaltzera.

2. taula. Salbuespenen Taula Orokorra

	OROHAR	DENBORALDIKOAK	OSOAK
Andoain	195	112	83
Irun	636	294	342
Oiartzun	248	162	86
Pasaia	130	57	73
Guztira	1079	568	511

Zendaki hauek kontutan harturik zera esan genezake, salbuespenen babespean zerrendatutako gaztediaren % 30a baino gehiago aurkitu zela. Hau da, zerrendatutako 3 gazteetatik batek behintzat bai Osoa edo bai Denboraldiko salbuespena lortuta, ez zuela soldadutza egingo.

Hala ere, udalerrien artean ezberdintasun nabarmenak jaso ditugu salbuespenen portzentaiei dagokienez: Andoainen % 30, Irunen % 36, Oiartzunen % 24 eta Pasaian % 43, hau guztia zerrendatutakoen gazteen kopuruak kontutan harturik.

Legedien atalean azaldu dugun eran Denboraldiko salbuespena lortzeko, gure udalerrietako gazteak modu ezberdinak zituzten. Alde batetik guraso alargun eta behartsua izanagatik lortu zitekeen salbuespena zegoen, bestetik gaixokeri batzuek eskeintzen zuten “babesa”, neurri baxua izateak ematen zuen “aukera”, besteak beste.

3. taula. Salbuespen motak Udalerrri ezberdinetan

DENBORALDIKOAK	Andoain	Irun	Oiartzun	Pasaia
Guraso alargunak	74	238	122	40
Gaixotasun orokorrak	25	65	38	5
Neurri baxukoak	5	6	6	2
Bestelakoak	3	6	5	4
OSOAK				
Liberal bolondresak	57	265	34	64
Gaixokeri kronikoak	15	65	38	5
Neurri baxukoak	5	6	6	2
Bestelakoak	12	6	5	4

Denboraldiko salbuespenak ezezik Osoak ere lortzeko aukera zegoen. Hauen artean gehien erabili zirenak, XIX. mendeko gaztediaren kasuan behintzat, Liberalen aldeko bolondresana eta gaixokeri kronikoena izan ziren.

Gure datuen arabera salbuespenera jotzen zuten gazteen kuadroaren laburpena hauxe izango zen. Salbuespena lortzen zutenen artean, % 40ak guraso alargun eta

behartsuen kasuarengatik lortzen zuten. % 33ak Liberalen aldeko bolondresa izateagatik. % 17ak gaixokeri ezberdinek eskeintzen zuten aukera aprobetxatuz lortuko zuen salbuespena. % 8-ak neurri baxua izateagatik eta geratzen den % 3an bestelako salbuespenak sartu daitezke (Itsas-gizona, Mikeletea, Apaiz-gizon edo Prailea, Presondegia).

Dena den aipatutako datuak izugarri aldatzen dira udalerrri batetatik bestera. Guraso alargun eta behartsuen kasuak adibidez Andoainen, Irunen eta Pasaian % 40ren inguruan dauden bitartean Oiartzunen ia % 50-ra iristen da.

Gaixokerien kasuetan antzeko zerbait somatu daiteke, honela Andoainen, Irunen eta Pasaian portzentaiak % 20aren inguruan badaude edo ez dira iristen, Oiartzunen aldiz % 30ra iristen da errez portzentai hori.

Dena den, ezberdintasun nabarmenenak Liberalen aldeko bolondresei eskeinitako salbuespenan aurkituko dugu. Andoainen % 30 den bitartean, Irunen % 40tik gora doa portzentaia eta Pasaian gertu du % 50a. Oiartzunen berriz ez da % 15era iristen.

3.2.3. Iheslariak

Ezizen horren barruan (legedien arabera) soldadutza ez egiteagatik ihesaren bidea aukeratzaren duten gazteak aurkituko ditugu. Gizaki hauek legez kanpo jokatu dute beraien ekintzarekin eta gure ustez soldadutzari aurkakotasun nabariena egiten dieten gazteak dira zeren gazte hauek harrapatzen badituzte, gartzelako zigorra baitute zain edo urte batzutako zerbitzua Itsasosteko baseetan.

Zaila suertatzen zaigu jakitea zehatz-mehatz gazte hauen iritzia soldadutzarekiko, ezer gutxi utzi baitute idatzita. Hala ere zeharkako bidetatik hona hemen gazte batzuren iritzia eta jokabidea soldadutza ez egiteagatik.

Gazte batzuk ez ziren Ameriketara joan soldadutza ez egiteagatik, baizik eta egoera ekonomikoa hobetzeko nahian. Dena den guztiak iheslarien atalean sartu behar dira, legeen arabera behintzat.

Aztertu ditugun udalerrietan ia urtero topatu dugu iheslariren bat. Hau da XIX. azken laurdeneko soldadutzari dagokion iheslari taula, Andoainen, Irunen, Oiartzunen eta Pasaian.

	Andoain	Irun	Oiartzun	Pasaia
Iheslariak	73	76	123	29
Zerrend. %	%10'4	%4'3	%11'7	%9'6

Ezberdintasunak begi bistan daude, Irungo gazteek ia 3 aldiz gutxiago jotzen diote ihesaren “bideari”, andoaindarrek, oiartzuarrek edo pasaitarrek baino.

Galdera ugari egin daitezke zenbaki edo “jokabide” honen aurrean. Irundik Frantziako muga oso gertu dago (Andoainekin gonbaratuz behintzat): nola ez zuten gehiagok ihes egin Ameriketara joateko ere portuak gerturago ditu irundar batek andoaindar batek baino. Erantzunak urrengo atala aztertzen denean argituko dira zertxobait.

3.2.4. Berrerospenak eta ordezkaketak

Edozein gaztek ezin zuen 2000 pezeta ordaindu, soldadutza ez egiteagatik. 1877ko lehen errenplazuan gipuzkoar gazte guztiak aske geratu baziren ere (udalek eta diputazioak hartuako erabakiaren ondorioz), gainontzeko errenplazuetan ez zen horrelakorik gertatu. Hortaz diruaren truke soldadutzara joango ez zen gaztea, bere poltsikotik jarri beharko zituen pezetak.

Legeak onartzen zuen mota honetako “salbuespena” baina moralaren ikuspegitik argi ikusten da gazte batzuen portaera.

Berrerospen hauek gainera, azken momentuan egiten ziren, soldadugai gazteak zein norantza edo norabide zuten jakin ondoren. Hau da soldadutza zein lekutan bete behar zuten jakin ondoren eta inoiz ez aurretik. Hortaz argi dago beraien jokabidea soldadutzarekiko.

Andoainen eta Oiartzunen gazte hauek % 3ra besterik ez dira iristen, Irunen eta Pasaian berriz % 6ra, bikoitza.

Hortaz berrerospenen kasuekin, iheslariekin gertatzen zenaren kontrakoa eman zen. Hemen dago gure ustez lehengo atalaren osagarria, Andoainen eta Oiartzunen gazte gehiago iheslari izan zen, berrerospenekin aukera ez zegoelako eta Irunen guttiz kontrakoa gertatu zen. Pasaiako kasua nahiko kurioa da zeren bi kasuetan portzentai altuak baititu.

4. KUBA ETA FILIPINETAKO GERRATE KOLONIALA

4.1. Azken kolonien galera

XIX. mendean zehar Amerika osoak independentzia lortzen du. Egoera hau gogorra izan zen espainiar monarkiarentzat, zeren hiru mende luzez eraikitako inperio koloniala bertan behera gelditzen baitzaio.

1898ko gerratearen ondoren, Espainiaren itsasosteko azken koloniek, Kubak eta Filipinak hain zuzen ere, penintsularekin zituzten harreman politikoak hautsi zituzten.

Galera honek oihartzun handia izan zuen metropolian, garai hartako indar boterentsuengan ez ezik espainiar gizartea osatzen zuten pertsonengan ere. Eta bereziki gatazka hori zuzenean jasan behar izan zuten errenplazuetako gazteengan.

Ohiturak gatazka hau Kubako guda bezela izenpetu badu ere, ezin daiteke ahaztu Filipinetan ere borrokatu zela eta 98ko ezizenez ezagutu den arren 1895an hasia zela gogoratu behar da.

Itsasosteko gerrate honetan gertatutakoak eragin zuzena izan zuen urte horietan soldadutza egitera abiatu ziren gazteengan, beheko taulan argi ikus daitekeenez. Irla hauetara joan behar ziren gazteen kopuruak 90eko hamarkadan izugarri igo ziren, kontutan izaten badugu 80. hamarkadan itsasostera zihoazen gazteak % 5era eta 6ra bakarrik iristen zirela.

4. taula. Itsasosteko zerbitzua Gipuzkoan 90eko hamarkadan

	SOLDADUTZARA	ITSASOSTERA	%
1890-91	1518	168	11'2
1892-93	1300	213	16'5
1894-95	2069	512	24'7
1896-97	2878	1436	49'9
1898	1403	424	30'3

Guda piztu zen unetik, aldeko eta kontrako iritziak sortarazi zituen. Koloniak urruti egon arren, gatazkaren berria penintsulako bazter guzietara heldu zen.

Urte horietan itsasostera abiatutako soldadu gazteak gerratearen ondorioak jasan zituzten, hildakoak ez ezik zauritutakoak eta gaixotasunekin itzulitakoak ugari izan ziren.

4.2. Errenplazuetako gazteen jokabideak

Gazte hauek izan ziren zalantzarik gabe gudaren protagonista nagusienak. Badakigu zaila dela jende honek gatazka harekiko izan zezakeen iritzia zehatz mehatz jakitea, garai hartako gazteek ezer gutxi utzi baititigute idatzita. Hortaz, haien pentsamoldeak eta jarrerak zeharkako bideetatik bilatu ditugu.

Edozein gaztek soldadutzara ez joateko, legediaren kapituluan adierazi dugun moduan, bide ezderdinak zituen. Alde batetik salbuespen legala lortzeko aukera zegoen, bestetik berrerospenen babesa eta bi hauek huts eginez gero iheslari izatea.

Salbuespenak lortu zituzten gazteen kopuruak, Kuba eta Filipinetako gerratearen garaian berdin mantendu ziren, guk ikertutako udalerrietan behintzat. Beraz, soldadugaiek ez zuten salbuespenetan topatu guda kolonialatik aske geratzeko bidea.

Berrerospenen kasuei dagokienez, gauza bera esan daiteke, nahiz eta udalerrri batetik bestera gauzak nabamenki aldatu. Irunen, adibidez, guda kolonialaren urteetan oso berrerospen gutxi eman zen aurreko urteekin konparatuz. Andoainen, Oiartzunen eta Pasaian igoera bat soma daiteke berrerospenen kasuetan baina ez da oso nabaria.

Gure ustez aldaketa nagusia iheslarien kasuetan bakarrik eman zen. 90eko hamarkadan baina bereziki 1895. urtetik aurrera, iheslarien kopurua izugarri handitzen da udalerrri guztietan.

Hau guztia argitzeko asmoz hemen bildu ditugu bi taula nahiko esanguratsuak direnak.

5. taula. Iheslariak 90.eko hamarkadan

	Andoain	Irun	Oiartzun	Pasaia
1890-91	2	9	5	2
1892-93	2	4	1	1
1894-95	2	5	21	3
1896-97	23	17	36	7
1898-99	8	14	16	3

Datu hauek erraz isladatzen dute gazteek guda kolonialari buruz izan zuten aurkako jarrera, askok eta askok ihesari eman bait zioten.

Baina guztiz adierazgarriak dira aurreko urteetako datuekin konparatzen baditugu.

6. taula. Iheslarien portzentaiak 1877-1899

	1877-1885*	1885-1892	1893-1899
Andoain	9 %3'85	7 %13'5	37 %18'5
Irun	21 %3'6	18 %2'86	39 %7'15
Oiartzun	31 %7'35	15 %4'33	75 %26'7
Pasaia	7 %7'36	9 %8'6	12 %11'7

* 1885. urtean bi errenplazu eman ziren soldadutzarako legeek hala agindu bait zuten.

5. ONDORIOAK

Izenburuak argi adierazten duen moduan, aurkeztu dugun idatzi hau hurbilpen bat besterik ez da. Une honetan ikertzen gabiltzan gaiaren lehen emaitzak besterik ez dira, hortaz lan honek sakontasunean eman zezakeen gutzia beste bilduma batetan argitaratuko da.

Dena den, aztertutako lau udalerrri hauetan jokabide ezberdin batzuk nabari daitezke derrigorrezko soldadutzaren aurrean behintzat.

1877ko lehen errenplazuan laurek dimisioa aurkeztu zuten soldadutzaren ezarpena zela eta. Urte hartako gazteak behintzat (diruaren truke hori bai), ez zuten soldadutza bete. Baina erabaki eta egoera hauek ez ziren hurrengo urtetan errepikatu.

Datu batzuren arabera udalerrri batetik bestera ezberdintasun nabarmenak somatu ditugu. Ezberdintasun hauek salbuespenetako portzentailetan eta mota bakoitzeko salbuespentan argi ikusten dira. Gauza bera esan daiteke iheslarien kopuruengatik edo berrerospenen adibideengatik.

Gure asmoa, idatzi honen bitartez eta datozen ikerketen emaitzekin, gaia osatzea da. Espero dugu aurkezten ditugun datu hauek gerora baliagarriak eta interesgarriak suertatzea.

6. KONTSULTATUTAKO ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

6.1. Iturriak

- Pasaiako Udal Artxiboa
- Andoaingo Udal Artxiboa
- Irungo Udal Artxiboa
- Oiartzungo Udal Artxiboa. Hiru kasuetan A sekzioa (Aktak) eta E.5 sekzioa (Remplazos).
- Donostiako Udal Liburutegia. Gipuzkoako Aldizkari Orokorra (B.O.P.)

6.2. Bibliografia

- Angulo, J.M. de (1976), *La abolición de los fueros e instituciones vascongadas*, 2 liburua (2. arg.) Madril.
- Alijostes, G. (1994), "1876ko uztailaren 21eko foru sistemaren deuseztapen legearen ondorioz, estatuko soldadutzarako lege...", *Leizaur* 3, Andoain.
- Esparza, J.M. (1995), *Abajo las quintas*, Txalaparta, Tafalla.

- Montero, M. (1995), *La construcción del País vasco contemporaneo*, Txertoa. Donostia.
- Serrano Perea, M. (1896), *Manual de reclutamiento y reemplazo del ejército*, Madril.

ANTIMILITARISMOA ETA BAKEZALETASUNA EUROPAKO HISTORIAN (1815-1918)

Ludger Mees
EHUko Irakaslea

I. SARRERA

Bakezaletasunaren inguruko ikerketek eta gogoeta teorikoek azken bi hamarkadetan gorakada nabarmena ezagutu dute. Argi dago, hedapen honen arrazoia mendebaldeko gizarteetan eta politikan gertatutako bilakaera izan dela. Izan ere, NATOk Europan zehar bere misilak kokatzea eta horrela Sobiet Batasunatik omen zetorren arriskuari aurre egitea erabaki zuenean, Alemanian sortu eta ondoren beste zenbait herritan ere zabaldu zen mugimendu bakezale indartsu batek ederki astindu zuen mendebaldeko sistema politiko eta soziala. Ohiko alderdi politikoetatik at, jendea hainbat talde eta ekimenetan biltzen zen, misilek Europara ekarritako arrisku latzaren aurka beren protestak eta haserrea publikoki adierazteko, mundu osoa haimaka bider milaka zatitan puskatzeko adina indar zuten misilek Europa osoko bizitza une batetik bestera ezabatzeko arriskua ekarri zutelako. Ezustean harrapatutako politikariek ez ezik, gizarte zientzialariek ere fenomeno honen azterketari ekin zioten. Zergatik sortu zen mugimendu hori? Zergatik une historiko zehatz horretan? Zeintzuk dira bere arrakastaren arrazoiak? Nolakoa da bere barneko egitura? Zeintzuk dira bere helburuak eta nolakoa da gizarte eta sistema politikoarekiko bere lotura? Hauexek dira mugimendu bakezalea jaiotz geroztik hainbat liburu, artikulu eta iker-proiektutan eztabaidatutako galdera garrantzitsuak.

Ikerketa eta gogoeta horietatik ateratako tipologiaren arabera, gaur egungo soziologiak eta zientzia politikoak mugimendu bakezalea *gizarte mugimendu berritza* hartzen du. XIX. mendeko gizarte mugimendu zahar edo tradizionalekin alderatuz, gizarte postindustrial eta postmodernuaren gizarte mugimendu berrien ezaugarri nagusiak honako hauexek lirateke: mugimendu bakezaleak, feminismoak eta ekologismoak bezelaxe, ez du oinarri sozial klasistarik, klase anitzeko koalizioaren ondorioa baita. Mugimendu hauen helburuak ez daude lotuta baliabide ekonomikoaren banaketarekin, helburu ez materialak defendatzen dituztelako (ingurugiro garbia, bakea, askatasuna, identitatearen finkapena). Programa hauek balore berrietan (elkartasuna, ekologia, bortxakeriarik gabeko gizarte, besteak beste) dituzte beren sustraiak. Mugimenduok ez dute barneko egitura formal eta hierarkikorik ezartzen jarraitzaileak antolatu, mobilizazioa

burutu eta programak ahalbideratzeko, ekimen eta talde ezberdinak elkartzen dituen sare zabal eta informala osatuz.

Halere, *gizarte mugimendu berri* gehienekin gertatzen den bezelaxe, alde historikoa ahazten ez duen azterketa batek ustezko *berritasunaren* tesia neurri handi batean zalantzan jarriko luke. Mugimendu bakezalea ez baita *berria*, postindustrialia edo postmodernua, tradizio luzea eta aberatsa dauka eta, tradizio hau oraingoz gutxi ezagutzen bada ere. Bakezaletasunaren ideiarri dagokionez, historian zehar pentsalari eta idazle frankoren lanetan aurki daiteke. Zentzu hone-tan, aditu batek baino gehiagok Biblian eta Jesusen bizitzan lehen bakezalearen frogak ikusi ditu. Askoz beranduago, Kant-ek jorratu zuen ideia hori 1795ean argitaratutako *Bake Iraunkorraren Aldeko Proiektua* izeneko bere idazlanean. William Godwin eta Tolstoi ere bakezaleen aintzindarizat har daitezke.

Bakezaletasunaren mugimenduari dagokionez, berriz, bere hastapenak errazago zehaz daitezke, Napoleonen aurkako guden ostean hain zuzen ere. Londresen 1815 eraturako *Society for the Promotion of Permanent and Universal Peace* deituriko elkarte mugimendu honen lehen taldea izan zen Europan. Urte bat lehenago, New Yorken antzeko talde bat sortu zen.

Ondorengo lerroetan, beraz, Vienako Kongresuko Europa izango dugu abiapuntu historikoa. Mugimendu bakezalearen azterketak eramango gaitu ehun urte beranduago piztuko zen Munduko Lehen Gerratearen atarira. Izan ere, sarraski odoltsu honek ikaragarritzko jipoia eman baitzien Europako bakezaleei eta hori dela eta, 1918an mugimendu bakezalearentzat epe berri bat hasi zela baieztatu daiteke.

2. BAKEZALETASUNA ETA ANTIMILITARISMOA

Gaur egun, bakezaletasuna eta antimilitarismoa eduki berdintsuko hitzak bezala erabiltzen dira sarri askotan. Sinonimotzat hartzen ez badira ere, bi hitz arteko lotura hestua dagoenik ezin da ukatu. Historian zehar, ordea, hori ez da beti gertatu. Are gehiago, esan genezake, XIX.mendean, hitz bakoitzaren atzean proiektu ideologiko eta politiko ezberdina, eta baita mugimendu ezberdina ere bazegoela. Hobekien aztertu den Alemaniako kasuari erreparatzen badiogu, arazo hau garbiago geldituko da. Bertako langile mugimendu sozialdemokrata, esate baterako, zalantzarik gabe mugimendu antimilitaristatzat jo daiteke, militarrek gizartean eta estatuan zeukaten gehiegizko eragina eta boterea eten gabe salatzen zuelako. Sozialdemokraziatik at sorturiko talde bakezaleekiko bere liderren jarrera, berriz, guztiz ezkor, kritikoa eta zorrotza izan ohi zen.

Bakezaletasunak, edo beste europar hizkuntza guztietan esaten den bezala: pazifismoak, bestalde, bere hasieratik antimilitarismoarengandik bereizteko ahaleginak egiten zituen. Izan ere, pazifismo-hitza asmatu eta erabiltzen hasi zen,

militarrek eta militaristek bakezaleei leporatzen zieten kritika gogorra indargabetzeko. Azken hauen ustez, bakezaleak antimilitaristak baitziren, eta horrekin batera aberriaren aurkako etsaiak, aberririk gabekoak, iraultzaileak, traidoreak. Aurreneko bakezaleak horrelaxe definitzen zuten bere burua: bakearen lagunak, bakearen langileak edota bakearen abokatuak. Pazifismo-hitza 1845ean lehen aldiz idatzi batean aurkitzen bada ere, XX. mendearen hasiera arte ez zen erabili. Emile Arnaud-ek, Frantziako bakezaletasunaren aintzindarietako batek, 1901ean proposatu zuen hitz honen erabilpena, gainontzeko bakezaleen artean eztabaida gogorra sortuz. Azkenean, urte horretantxe Glasgow hirian bildutako X. Nazioarteko Bake-Kongresuak ofizialki onartu egin zuen Arnaud-en proposamena. Harez geroztik, dextente lehenago jaio zen mugimenduak bazuen bere deitura ofiziala.

Glasgow hartutako erabakiak, halere, ez zion erantzun garbirik eman beste zenbait galdera korapilatsuri: Zeintzuk dira pazifistak? Zer edukin eman hitz horri? Kontzientziaz bakearen alde lan egiten duen edozein politikariri dei al dakioke pazifista? Zer gertatzen zen bake-elkarteetatik at gelditzen ziren baina azken hauen ideia nagusienetarikoa, bitartekaritzaren ideia hain zuzen, onartzen zuten sozialistekin? Pazifistak al ziren?

Balorapen normatiboa baztertzea da galdera hauek erantzuteko ezinbesteko baldintza. Karl Mannheim-ek aurkeztutako ideologia eta utopiaren arteko bereizketak pazifismoaren tipologia eratzeko giltza ematen digu. Pentsalari honen eskeman oinarriturik, historikoki bi pazifismo mota bereiz daitezke, nahiz eta errealtatean bateko arrastoak beste pazifismo motan ere topa daitezkeen. Bi pazifismo motak pazifismo utopikoa eta pazifismo ideologikoa liriateke.

Pazifismo utopikoaren jarraitzaileentzat guda eta bortxakeria sistema politiko eta sozial ustel, maltzur eta korrupto baten derrigorrezko ondorioak dira. Beraz, ikuspegi honetatik, ez du zentzu handirik bakearen alde lan egiteak sistema bera aurretik ez bada goitik behera aldatzen. Kategoria honetan erlijioan oinarritutako pazifismo goiztiarra sartuko litzateke, baita marxismo iraultzailea ere.

Pazifismo ideologikoaren esparruan, berriz, oso bestelakoa da guda eta sistemari egindako interpretazioa. Izan ere, logika honen arabera, guda printzipioz ontzat hartzen den eta babesa merezi duen sistema eta gizartearen aurkako eraso latza baino ez da. Jakina, pentsamolde honen iturburua ilustrazioa eta eboluzionismoaren kosmobisio baikorra da: gizakia berez ona eta baketsua denez gero, gizartea eta mundua ere horrelakoak izan daitezke.

Historikoki, XIX. mendea aurrera joan ahala, pazifismo ideologikoa nagusitzen joan zitzaion pazifismo utopikoari. Mugimendua jaio zenetik, honako hirurak izan dira bere osagai ideologiko nagusiak. Lehenik eta behin, *kuakerismoa* aipatu beharra dago. Jakina denez, kuakerismoa XVII. mendean Ingalaterran sortu eta batez ere Estatu Batuetan zabaldu zen protestantismotik banatutako adar

konfesionala da. Kuakeroek ez dute sakramenturik eta elizaren inongo hierarkiarik onartzen. Epaietan zin egiteari eta baita armak erabiltzeari uko egiten diote. Bakearekiko erakutsitako konpromiso tinkoa goraipatzeko, 1947an Bakearen Nobel Saria jaso zuten kuakeroek. Guda ez ezik, edozein bortxakeria-mota ere gaitzetsi egiten zuten, eta horrekin batera bortxakerian oinarrituriko gizartea. Halere, diskurtso honetatik ateratako ondorioak ez zituen bizimodu kontenplatibora eraman, aktibismo politikora baizik. Izan ere, kuakeroak konbentzituta baitzeuden kristautasunaren aurkako bortxakeria eta, honen ondorioz, guden beharra ere ezabatzerik bazegoela eta horretarako, otoitzez gain, berrikuntza politikoak ere behar-beharrezkoak zirela. Kuakeroek sortutako talde bakezaleak XIX. mendearen lehen erdian batez ere Ingalaterran eta Estatu Batuetan hedatu ziren.

Pazifismoaren bigarren osagai ideologikoa *merkataritza librearen aldeko liberalismoa* izan zen. Korronte honetan kokatzen diren bakezale liberalentzat gudaren aurkako argudiorik garrantzitsuena gudaren indar suntsitzailean datza: gudak nazio guztien aberastasuna hondatu egiten duelako. Horrelakorik gerta ez zedin, liberal horiek ikusten zuten ezinbesteko lehen baldintza nazioen arteko merkataritza libre zen. Merkataritza libreari esker estatuen arteko harremanak sendotzen ziren heinean, bakea gordetzeko interesa ere areagotzen zen eta bilakaera honek azkenik bake iraunkorarentzako baldintzak ezarriko zituela zioten.

Hirugarrenik, Mazzini ideologo nagusitzat duen *nazionalismo demokratikoa* ere pazifismoaren iturburutzat har daiteke. Nazionalista hauek gudaren funtsezko arrazoiak Aintzinako Erregimenaren egituran ikusten zituzten. Izan ere, ohiko agintari erreazionarioek nazioen burujabetasunari uko egiten zioten bitartean, –horixe uste zuten *Risorgimentoko* nazionalistek–, gudek ere jarraituko zuten. Behin nazio guztiek bere askatasuna lortu eta burujabetasunaren printzipioan oinarritutako munduko ordenu berria ezarri ondoren, aldakuntza honen fruituak bake iraunkorra ekarriko zuelakoan zeuden.

Urteak aurrera joan eta sekularizazioa hedatu ahala, kuakerismoa, beste bi korronteen mesedetarako, indarra galtzen hasi zela kontuan hartuz, XIX. mendeko bakezaletasuna edo pazifismoa pazifismo ideologikotzat har daiteke. Mugimendu liberal zabalaren adarra izan zen eta bere jarraitzaileak orohar klase ertainekoak ziren. Grafikoki, eta Chickeringek egindako proposamenari jarraituz, liberalismo, internazionalismo eta pazifismoaren arteko lotura hiru borobilekin islada daiteke. Borobilik handiena internazionalismo liberala litzateke; horren barruko bigarren borobilak internazionalismo liberal politikoa litzateke eta horren barruko borobil txikiena, berriz, pazifismoa. Chickeringen arabera, internazionalismo liberalak mota guztietako nazioarteko harremanak bultzatzea proposatzen dutenak biltzen ditu. Erdiko borobilak ordezkutzen duen internazionalismo liberal politikoa, berriz, lehengo multzo zabaletik talde zehatz bat bereizten du: nazioarteko harreman horien areagotzeak ondorio politikoak ere ekarriko dituela edo ekarri beharko lituzkeela pentsatzen dutenak, hain zuzen. Gogoeta hau nazioarteko zuzenbidearen abiapuntua izan zen, baita gatazka guztiak bitartekaritzaren bidez

konpontzearena ere. Barneko borobil txikian aurkitzen diren pazifistek, bestalde, hurrengo urratsa ere ematen dute. Pazifistek estatu-nazioari uko egiten ez badiote ere, estatua nazioarteko komunitatearen menpe egon dadila eskatzen dute. Beren helburua estatuen arteko konponezinak bideratuko dituen nazioarteko erakunde baten sorrera da, eta estatuek erakunde honen erabakiak onar ditzatela aldarrikatzen dute.

Ikusten denez, pazifistek nazioek eta estatuek komunitate bakarra osatzen zutela pentsatzen zuten, nahiz eta iritzi ezberdinak eduki komunitate honen oinarriei dagokienez. Batzuentzat, munduak komunitatea osatzen zuen, gizaki guztiak berez onak eta baketsuak direlako eta hori dela eta, interes berdinak dituztelako. Beste batzuentzat, berriz, oinarri materialak ziren munduko komunitatea ahalbideratzen zutena. Batez ere positibismoaren inguruan mugitzen ziren pazifista horientzat historia mundu ilun, txar eta triste batetik etorkizun argitsu eta hobera doan etengabeko aurrerapausua zen. Aurrerapausu honek nazioarteko harremanen sendotzea ekarriko zuela, horrela apurka apurka gudak pizten zituzten desorekak eta ezberdintasunak desagertuko zirela eta azkenean munduan bakea nagusituko zela espero zuten.

Esandakoa laburbilduz, XIX. mendeko mugimendu bakezaleari dagokionez, honako ezaugarriak azpimarratuko genituzke: Pazifismoa mugimendu liberalaren adarra zen eta 1848 ondorengoko liberalismoarekin gertatzen zen bezalaxe, klase ertainek osaturiko mugimendua zen pazifismoa ere. Bere filosofia eta programa egituratzen zuten bi ideia nagusiak nazioarteko zuzenbidearena eta bitartekaritzarena ziren. Bere barneko antolaketari dagokionez, mota anitzeko taldeetan biltzen ziren bakezaleak: *Peace Societies* izeneko taldeetan, politikariak eta notableak batzen zituzten elkarte ezberdinetan eta beste talde eta erakunde erreformatzaileetan.

3. MUGIMENDU BAKEZALEAREN GARAPENA EUROPAKO HISTORIAN

1914/18an amaitu zen XIX. mende *luze* horretan, Europako mugimendu bakezalearen historia hiru epetan zati daiteke. Ehun urteko bere historian hazkunde-prozesu luze, geldo, baino narbarmena bizi zuen pazifismoak, nahiz eta bilakaera horren bukaeran 1914ko erronkaren aurrean aho zabalik eta indarririk gabe gelditu.

3.1. Pazifismoaren hastapenak (1815-1867)

Ez da harritzekoa, mugimendu bakezalearen hasiera garai horretan ekonomikoki, sozialki eta politikoki gehien mobilizatutako herrian gertatzea, Ingalaterran hain zuzen. Bertan hedatu ziren lehen Bake Elkartek, kuakeroek 1815ean Londonen sortutako bere *Peace Society*-k bidea urratu ondoren. Nahiz eta antzeko beste zenbait talde Ingalaterratik kanpo sortu, hala nola 1821ean Parisekoa eta 1830ean Ginebrakoa, ez zuten benetazko bizitzarik garatu beren aurreneko

urteetan. Horrela, 1843an Londresen nazioarteko Lehen Bake Batzar Nagusia bildu zenean, bertara joandako ordezkari gehientsuenak ingelesak ziren. Ondorengo urteetan, estatu ezberdinetako bakezaleak beren harremanak sendotzen ahalegindu ziren, garraioaren hobekuntza eta batez ere trenbide-sarearen hedapena aprobeztatuz. Europan zehar 1840 eta 1860 bitartean ospatutako 28 nazioarteko batzarretatik bostek zeukaten bakea hizpide. Halere, harreman horiek hasieran ez zuten fruiturik eman eta orohar esan daiteke, bakezaletasuna batez ere Ingalaterran kokaturiko eta kuakeroek eragindako tokian tokiko mugimendua zela.

1848ko iraultzak bultzakada nabarmena eman zion mugimenduari. Urte gutxitan lau batzar garrantzitsu antolatu ziren: 1848an Bruselasen, 1849an Parisen, 1850ean Frankfurten eta 1851ean Londresen. Bilkura hauetan guztietan 1843ko egoera berbera errepikatu zen, gehiengo ingelesa zen eta.

1851eko Batzarra amaitu bezain laster, liberal bakezaleek, gainontzeko beste liberalek bezelaxe, errepresioaren zama nozitu behar izan zuten. Izan ere, iraultzatik garaile atera ziren erregimen errestituzionistek oztopo handiak ezarri baitzizkioten mugimenduaren garapenari 1850. eta 1860. hamarkadetan.

3.2. Bakezaletasunaren aurrerapausuak (1867-1889)

Europar pazifismoak bazterketa politiko hori gainditzeko eta mugimendua suspertzeko behar zuen laguntza Frantziatik jaso zuen. Frantses Inperioaren liberalizazioak 1860. hamarkadaren bigarren erdian ahalbideratu zituen ondorengo urteetan etorriko ziren aurrerapausuak. Giro berri horretan, 1867. urtean, bi bake-elkarte garrantzitsu sortu ziren, hurrengo urteetan ere mugimenduaren bultzagileak izango zirenak. Parisen, Frédéric Passyk eratu zuen *Ligue Internationale et Permanente de la Paix* delako elkarte. Elkarte hau printzipioz bakezale liberal guztiei zabalik bazegoen ere, bere sortzaileak errepublika-zalearen kutsu nabarmena eman zion.

Oraindik ezkertiarago izan zen urte horretantxe Ginebran eta Charles Lemmonier-ren gidaritzapean sortutako *Ligue Internationale de la Paix et de la Liberté* deituriko elkarte. Liga hau Garibaldik berak zuzendutako kongresu internazional baten ondorioa izan zen. Grossik, Liga honen programari egindako azterketan, pentsalari eta filosofia ezkertiar ezberdinen nahasketa izan zela dio, bertan Owen, Fourier, Saint-Simon edo utilitarismo ingelesaren arrastoak aurkitu zituelarik. Saint-Simon- eta errepublika-zale sutsua zen bere sortzailearen iritziz, bakearen alde lan egiteak demokraziaren alde lan egiteak eskatzen zuen. Lemmonier-ren ustez, bakea Europara ekartzeko, funtsezko zenbait oinarri jarri behar ziren: demokraziak monarkia ordezkatzeko, estatu eta elizaren arteko banaketa burutzeko, ejerzito profesionala desagertzeko eta estatuek eta nazioek Europa Batua sortzeko, besteak beste.

Bi erakunde hauen eraketak eta ondorengo iharduera aktiboak erakusten duten legez, pazifismoak bigarren epealdi honetan zeukan ezaugarri garrantzitsuenetarikoa mugimenduaren nazioarteko koordinakuntza izan zen, aurreko garaiko tokian tokiko egitura gainditzen lagundu zuen koordinakuntza hain zuzen. Ahalegin hauen ondorio garrantzitsuenak, eta aldi berean mugimendu bakezalearen urrezko garaia, 1889z gozotik eman zen, Frantzia eta Prusiaren arteko gudak eragindako geldiduna erabat ahaztu zenean.

3.3. *Bakezaletasunaren hazkundera (1889-1914)*

Aurreko epealdian burututako bideari eutsiz, 1889 urteak pazifismoaren historiari beste mugarrria ezarri zion, urte horretan Frantziako hiriburuan sortu baitziren Europako bakezaleen lana aurrerantzean batzen saiatuko ziren nazioarteko bi erakunde garrantzitsuak. Alde batetik, Munduko Lehen Bake Kongresuan Europa eta Ipar Ameriketako hainbat bake-elkarteren ordezkari elkartu ziren. Parisen bildutakoek hartu zituzten erabakiak hauexek izan ziren: mundu osoko bakezaleen lana lehen baino hobeto koordinatzea, horretarako erregulari bilkurak antolatzea eta programaren ardatz nagusia derrigorrezko bitartekaritzaren ideia izatea.

Urte berean eta leku berean, bestalde, osatu zen baita ere parlamentuen arteko lehen batzarra (*Union Interparlementaire*). Batzar horretan elkartzen ziren Europako zenbait parlamentutako politikariak, frantsesak eta ingelesak nagusi zirelarik. Korrante politiko ezberdinetako parlamentario hauek elkartzen zituena bakezaletasunarekiko lotura berezia sentitzea zen. Beste bilkurako ordezkariak bezelaxe, parlamentari bakezaleek ere azpimarratu zuten etorkizunean maiz elkartzearen borontatea eta bitartekaritzaren printzipioa norberaren parlamentuan bultzatzearen nahia.

Ondorengo urteetan, borontate hori egia bihurtu zen. Izan ere, 1889tik 1914ra bitarteko epealdian, munduko 20 bake-kongresu eta 18 parlamentuen arteko bilkura antolatu bait ziren. 1889an hasitako lanaren jarraipena ziurtatzeko eta ia urtero biltzen ziren pazifista edo parlamentarien batzarrak prestatzeko, 1892an Bernan bi erakunde hauen Idazkaritza Permanenteak osatu ziren, *Permanent Secretariat of Universal Peace Congresses* izenekoa alde batetik, eta *Permanent Secretariat of Interparliamentary Conferences* delakoa bestetik.

Antolakuntzaren alorrean burututako aurrerapausuak ez ezik, mugimendu bakezaleak bere historiaren hirugarren epealdi honetan europar gizarteetan zuen bere eragina ere areagotzea lortu zuen. Mendearen bukaeran artean gutxi mobilizatutako bakezale alemaniar eta austriarrak ere mugimenduari batzen hasi zitzaizkion. Bakearen aldarrikapena gero eta gehiago entzuten zen baita kultur arloan ere. Bakearekin loturiko antzezlanak eta liburuak hiri handietako antzerki eta liburudendetan agertzen ziren, zenbait kasutan sekulako arrakasta lortuz: horra hor

Bertha von Suttner austriar kondesak 1889an argitaratutako eleberriaren adibidea. *Die Waffen Nieder!* edo *Arma Behera!* izeneko bere liburuak 1889tik 1905era 37 berrargitarapen ikusi zituen eta dozena bat baino hizkuntza gehiagotara itzulia izan zen.

Garai horretan, bakearen ideiak politika ofizialaren esparruan sartzea ere lortu zuen. Horren adierazgarri 1899an eta 1907an Hagan antolaturiko desarmeari buruzko lehen bilkurak eta baita ere 1899an osaturiko Hagako Epaitegi ospetsua dira. Bakearen aldeko ekimen eta lanak saritzeko, 1901ean Bakearen Nobel Saria eman zen aurreneko aldiz. 1910ean, azkenik, Estatu Batuetako Fundazio indartsu batek (*Carnegie Endowment for International Peace*) bakezaleen proiektuak ekonomikoki babestea erabaki zuen.

Laburbilduz, beraz, Europako mugimendu bakezalearen garapenaren hirugarren epealdi arrakastatsu honetako ezaugarri nagusiak mugimenduaren sendotzea eta internazionalizatzea dira. Antza zenez, garai horretan Europako bazterrak harrapatu zituen modernizazio-prozesuak lehen aipatutako liberal bakezaleen tesiak baieztatu egiten zituen. Izan ere, gizarte tradizionalaren kalterako Europako (eta munduko) ekonomia eta politika internazionalizatzen ari baitziren. Garraioen hobekuntzari esker, salgaiak merkatura edo eskualde ezberdinetako politikariak nazioarteko batzar batera eramatea gero eta errazago zen. Azkar hedatzen ari zen prentsaren bidez, leku batean sortutako albisteak edo ideiak berehala lau haizetara zabaltzea eta hiri handi berrietan bizi zen jendearengana eramatea hainbat profesionalentzako eguneroko lana bihurtu zen. Bestalde, bazirudien internazionalizazio-prozesu honek herriak eta biztanleak bata bestearengana hurbildu eta arazoak bide baketsu batez konpontzen lagundu zuela, 1870/71ez geroztik, Europak gerrate handirik gabeko garai luze samarra izan zuen.

Pazifismoaren garapen guzti hori, halere, neurri handi batean itxurazkoa baino ez zen. Koordinakuntza internazional eta programa internazionalista guztien gaintetik, Europako bakezale gehientsuenak patriotak bezela sentitu ziren. Analisi historikoak erakusten digunez, indar kontserbatzaileek eta militaristek bakezaleen aurka azaldutako kritikak ez zuen ez hanka ez bururik, garai horretan emandako nazioarteko gatazka guztietan oso gutxitan aurki baitaiteke bere gobernuaren aurkako politika defendatzen zuen bakezalerik. Gehiegizkoa litzateke, ordea, bakezaleak ongi mozorratutako nazionalista edo txobinista izan zirela esatea. Haien jokabideetan patriotismoa eta internazionalismoa nahastu egiten ziren, ondorengo adibideek erakusten duten bezala:

Bakezaleentzako aurreneko erronka Britainia Handiak 1900ean Hego Afrikan piztutako gerrate inperialista izan zen. Boerren Guda bezela ezagutzen den gerra horretan, boerrek edo afrikanerrek, jatorriz Holandatik etorritako kolonoek alegia, kontrolatutako errepublikak menperatu zituzten ingelesek. Ingeles militarrek, –Winston Churchill boluntario gisa tartean zegoelarik– era oso krudel batez

eramandako guda odoltsu honen helburua bertako meategiak, horien artean urrezkoak ere, bereganatzea izan zen.

Guda hau Hagako lehen konferentzia bukatu eta oso urte gutxitara piztu zen eta horregatik ez da harritzekoa Europako mugimendu bakezalearen hasierako txundidura. Ingalaterrako iritzi publikoa ia erabat inperialismoaren aldekoa azaldu zen, liberal gutxi batzuk kenduta. Inperialismoaren garaiko gainontzeko europear gizarte askotan, berriz, iritzi publikoak eta zenbait gobernuak ere kritika zorrotzak egiten zizkieten Britainia Handiko gobernuari. Bertako pazifistek, batez ere kuakeroen menpean zeuden elkarteek, hasiera batean gerrarekiko beren ezadostasuna adierazi zuten. Gerra aurrera joan ahala, ordea, Britainia Handiko bakezaletasuna zatitu egin zen. Alde batetik, kuakeroek kontrolatutako korronteak isildu egin ziren, gehiegizko politizazioaren beldur zeudelako eta giro inperialista sutsuan bakezaleen lana gero eta zailagoa bihurtu zelako. Publikoki beren iritziak adierazten ausartzen ziren pazifista gutxi batzuk gobernuaren jokabidea salatzen zuten, Hagako konbentzioa ez zuela errespetatu leporatzen ziotelarik.

Beste estatuetakoa bakezale gehienak guda horrekin ados ez bazeuden ere, gutxiengo txiki bat ezik, bere azalpenetan ez zuten kolonialismoa eta inperialismoa zalantzan jartzen. Britainia Handiko gobernuari zuzendutako kritikak edukiari baino itxurari begiratzen zion gehiago. Zentzu honetan, ingelesen pekatua ez zen beren politika inperialista, baizik eta beren politikarien arduragabekeria. Europako bakezaleen iritziak, Boersen aurkako guda horretan britainiar gobernuak etika eta komunitate internazionalaren barruan errespetatu beharko lirakekeen lege eta arauak bertan behera utzi zituen. Horrela, kritika zuzen eta sakon gutxi entzun zitezkeen. Ez pazifistek, ezta inplikaturik ez zeuden eta bitartekaritza proposatzen zuten estatu txikiak ere, ez zuten Londreseko gobernuaren politika aldatzerik lortu, nahiz eta guda honek literatura eta antzerti mailan kritika zorrotzak jaso.

Urte batzuk beranduago, 1908an hain zuzen, Austriak Bosnia-Hertzeegovina anexionatu zuenean, gertaera honek Europako bakezale guztien gaitzespena jaso zuen. Esan beharra dago, halere, oraingo honetan errazago suertatu zitzaizela amankomuneko jarrera mantentzea, Austria-Hungariako pazifismoa oraindik bere hastapenetan eta oso ahul zegoelako.

Bakezaleen benetazko zatiketa beste arazo latz baten aurrean gertatuko zen: Alsazia-Lorenako arazoa hain zuzen. Jakina denez, 1870/71eko gerraren ostean eta Frankfurteko Itunak ezarri zuenez, Alsazia eta Lorenako lurraldeak sortu berria zen Inperio Alemaniarraren parte bihurtu ziren. Harez geroztik, bai Frantzia nahiz Alemaniako bakezaleek norberaren gobernuaren politika defendatzen zuten. Inork ez zuen amore eman ez eta bere ikuspegia aldatu nahi izan; bi aldeetako ordezkariak nazioarteko bilkuretan azalduko argudioen arabera edozein motatako iritzi-aldaketak beren estatuko bakezaletasunari kalte handia egingo ziolako. Frantzian Alsaziaren frantziatasuna zalantzan jartzeak eta Alemanian alderantzizko tesia

defendatzeak, horrela zioten frantses eta alemaniar bakezaleek, bi herrietako pazifismoaren behin betirako heriotza ekarriko zuen. Bi aldeak diagnostiko hone-tan ados bazeuden ere, ondorio ezberdinetara heldu ziren. Frantsesak nazioarteko bilkura pazifistetan gaia modu ofentsibo batez lantzearen alde agertzen ziren behin eta berriz. Alemanek, berriz, mugimendua ez zatzitzearren, arazo hau gai-zerren-detan kentzea proposatzen zuten.

Polemika eta zailtasun guztien gainera, halere, konpromiso batera iristeko ahaleginak egin zituzten bi herrietako bakezaleek. 1905eko Luzernan ospatutako Bake-Batzarrean bertan bildutako delegatuek, frantsesak eta alemanak barne, Alsazia-Lorenako arazoari zegozkion honako bi erabakiak adostu egin zituzten: alde batetik, bat etorri ziren arazoa ez zela behin-betirako konponduko bakean eta justizian oinarritutako munduko ordenu berria ezarri arte. Bestetik, etorkizuneko ordenu berria ziurtatu eta gero, eta lurralde horietako herritarrek horrela erabakiko balute, aurretik egindako konkistak eta anxioak ezeztatuko liritekeela zioten.

Nahiz eta bi aldeek erabaki hauek modu ezberdin batez interpretatu, bai alemanek nahiz frantsesek *modus vivendi* baten bila jarraitu zuten eta aurkitu ere bai. Biek behin behineko konponbide bezela bi lurraldeen autonomia zabala Alemaniako Inperioaren barruan aldarrikatzen zuten. Kotsentsu ahul hori sendotzeko eta arazoaren soluzioa ahalbideratzen laguntzeko, Munduko Lehen Gerratea piztu aurretik, bi herrietako bakezaleek *Franko-Germaniaren arteko Errekontziliaziorako Komite Permanentea* osatu zuten, antzeko zenbait proiektutan ere parte hartuz (*Frantziar-Germaniar Liga*). Halere, gudak bere krudeltasun osoz laster erakutsiko zuen bezela, bi gizarteen giro politiko eta kulturala ez zetorren bat bakezaleen ahalegin horiekin. Bai Frantzian, bai Alemanian, militarismoa indartsuagoa zen bakezaletasuna baino.

Militarismo, nazionalismo eta txobinismoaren eragina Europako gizartean, eta baita bakezaleen zirkuluetan ere, zenbait urte lehenago Italian ere gelditu zen agerian, 1911ean Italia eta Turkiaren arteko gudaren ondorioz, Italiak Tripoli anexionatu zuenean. Lausanneko bakearen arabera, Libiak autonomia gorde arren, *de facto* Italiaren menpe gelditu zen. Gerra hura piztu zenean, Italiako pazifista askok, guda bera onartzeaz gain, txalotu ere egin zuten, horrela bertako mugimendu bakezalearen zatiketa probokatuz. Gudaren aurkako aktibistak gutxiengoan gelditu ziren. *Pazifista* gehienek, berriz, Italiako gizarteak bizi zuen giro kolonialista eta nazionalista jarraituz, bat egin zuten gobernuarekin, harez geroztik *pazifista belizista* bezela ezagutzen zen korrontea osatzen zutelarik. Zatiketa honek hiru urte beranduago Europa mailan etorriko zenaren katastrofearen lehen abisua eman zuen.

Halere, ez da gehiegikeria baieztatzea, 1914eko gerrateak mugimendu bakezalea erabat ezustean harrapatu zuela. Austriak Serbiari 1914eko uztailaren 27an gerra aldarrikapena egin zionean, Europako bakezaleek hasieran ez zuten erreak-

zionatu. Gainera, aurreko hilabeteetan, mugimenduaren zenbait aintzindari hil ziren, horien artean aipatutako Bertha von Suttner ospetsua. 1914eko udako krisia areagotzen zen bitartean, Europako pazifistak omenaldiak antolatzen ari ziren.

Europako bazter guztietan krisiak zekartzan arrisku latzak zabaldu zirenean, bakezaleak ere esnatu egin ziren, arazoak konpontzeko beste irtenbideak azter zitezen eskatuz. Halere, egoera horrek ez zuen luze iraun. Behin tropak fronteetara abiatu ondoren, zenbait kuakero eta Tolstoi-zale kenduta, Europako bakezale guztiek gerraren aldeko joera hartu zuten. Izan ere, historikoki pazifista gehientsuek ez baitzuten inoiz gerra erabat gaitzetsi, gerra defentsiboa eta justiziaren defentsan egindako gerrak betidanik bidezkotzat jo ohi zituzten eta. 1914ean, horixe bihurtu zen interpretazio nagusia: Alemania eta Austriako bakezaleentzat bere soldaduak burutzen ari ziren gerra justiziaren aldeko gerra zen, Errusiak prestatu omen zuen inbasioaren arriskua baztertu asmoz egin beharreko gerra. Britainia Handiak eta Frantziak ere errudunak ziren Alemaniako bakezaleen begietan: bata, berekoikeriak edo egoismoak bultzaturik, mundu osoa menperatu nahian omen zebilelako, eta besteak aspaldi ezarritako mugak aldatu nahi zituelako. Hona hemen jarrera hori ederki isladatzen duen Alemaniako Bake Elkartek 1914ean argitaratutako adierazpen ofiziala:

“Guda honetan, ezin da izan inolako zalantzarik Alemaniako bakezaleen beharrei dagokienez. Alemaniako pazifistok beti autodefentsa nazionalaren esku-bidea eta beharra errekonozitu izan dugu. Edozein alemanak bezalaxe, pazifistak ere aberriari zor dion erantzunkizuna bete behar du” (Chickering, 324).

Alemaniako armadak 1914eko abuztuan Belgika okupatu zuenean, neutralitatearen bortxatze honek beste herrietako pazifisten protestak eta haserrea areagotu zituen bitartean, Alemaniakoak isilik geratu ziren. Arrakasta militarrek eragindako lilurapenak harrapatu zuen alemaniar gizarteak, nonbait, isiltasuna baino gehiago eskatzen zuen. Hori zela eta, pazifismoaren zenbait buruzagi herbesteko, batez ere Suizarako bidea hartzera behartuak aurkitu ziren.

Horrela, azken finean, gerraren aliantza militarrek ere Europako mugimendu bakezalean narbarmendu egin ziren. Mugimenduaren goiko erakundeei zegokienez (Ginebrako kongresuen eta parlamentarien bi permanentek) inoperante gelditu ziren, beren eginkizunak laguntza humanitarioa bideratzera eta presoek aldeko zenbait gestio burutzera mugatu ziren eta.

4. 1914: BAKEZALETASUNAREN ERABATEKO PORROTA OTE?

Zalantzarik gabe, Munduko Lehen Gerratea Europako mugimendu bakezalearen porrotaren adierazgarri odoltsua izan zen. Gatazka areagotzen zen neurrian, bakezale asko, beren ideia internazionalistak ahaztuz, beren gobernuaren aliatu

bihurtzen ziren. Beraz, zenbait salbuespen kenduta, ez zioten gerrari aurre egin, ez ezin izan zutelako baizik eta horretarako arrazoirik ikusten ez zutelako. Gerra amaitu ondoren, bakezaleek beraiek ere aitortu egin zuten beren porrota.

Halere, horrelako interpretazio ezkor eta kritikoari juzku ahistorikoa deritzogu. Sinplekeria izango litzateke aipatutako porrota bakarrik bakezaleen akatsei, pentsakera utopikoari eta ahultasunari leporatzea. Testuinguru historikoari so eginez gero, pazifismoaren historiaren lehen epealdiari dagozkion gure ondorioak ez lirateke horren ezkorrak eta goibelak. Izan ere, giza mugimendu indartsuagoek ere porrot berbera jasan behar izan zuten. Horra hor, esate baterako, gerrateak eragindako II. Internazionalaren zatiketa. Ez sozialisten, ez bakezaleen mezuak eta politikak ezin izan zuen inperialismoak eta txobinismoak menperatutako Europa horretan ezer aldatu. Ezintasun hori ulertzeko, pazifismoak Europako estaturik indartsuenean, Alemaniako Inperioan hain zuzen, bizi izan zuen bazterketa gogoratzea nahikoa da. Inperioko erregimen autoritarioan militarismoaren boterea eta eragina nola edo hala murriztu nahi izatea, horixe izan zen bertako bakezaleen *pekatua* eta elite agintariak ezin izan zuten pekatu hori inolaz ere onartu. Are gehiago: pazifismoari itxurazko zenbait kontzesio egin arren (zenbait bakekongresu antolatu; diputatu eskuindarrak *Union Interparlementaire* izeneko batzordera bidali, eta abar), eliteek pazifismoa etsaitzat hartzen zuten. Horrela, pazifismoa nahi gabe oposiziora bultzatua izan zen. Bazterketa hau gainditzeko itxaropen handirik ez zegoen, Inperioko egitura politiko eta soziala, eta honekin batera kultura politikoa, aldatzen ez zen bitartean, bakezale gehientsuenek horrelako ondorio erradikaletara iristen ausartzen ez baziren ere. Alemaniako pazifismoak ez zuen hiritarren arretarik bereganatu, bertako gizarteak “militar, berrarmartze eta inperialismoari askoz ere sinpatia handiagoa eskaintzen ziolako zaharkiturik bezela hartzen zen herrien arteko adiskidetasunaren idealari baino” (Wehler, 1106). Mugimendu bakezalea Alemanian horren ahul bazegoen, garbi dago Europa mailan ere ezin zuela gorpuztu eta sendotu.

Halere, balantze orokorra egiterakoan, ezkor samarra izan arren, badaude zenbait argi-izpi ere. Alde batetik, ez dugu ahaztu behar, Hagako epaitegi gorena, neurri handi batean, garai horretako bakezaleei zor diegula. Haiek ere, inork horretan pentsatzen ez zuenean, bultzatu zituzten beranduago osatuko ziren Nazioen Elkarte eta NBE (Nazio Batuen Erakundea). Horrezaz gain, bakezaleen programaren ardatz historikoa, estatuen arteko gatazkak bitartekaritzaren bidez konpontzearena hain zuzen, gaur egun mundu osoan zehar guztiz onarturik dago. Bere azken fruitua Jugoslavia ohiak bakerako bidea har dezala Parisen sinatutako ituna izan da.

Bukatzeko, Europako pazifismoaren historiaren balantzea orekatzen laguntzen duen azken gogoeta bat. Europako bakezaleak hasiera hasieratik Europazaleak ere izan ziren, Estatuaren arteko mota guztietako mugak, aurreiritziak, konponezinak eta gatazkak elkarlan baketsuan gainditzea helburutzat zuten eta.

Zentzu horretan gogora ditzagun Frantzia eta Alemaniako bakezaleek bi herriak hurbiltzeko egindako ahaleginak, nazionalismoaren eta txobinismoaren lilura Europa pozointzen eta gerraruntz bultzatzen ari zen garai latz horietan. Munduko bi gerrate eta milioika hildako gertatu ondoren, historiak 1914 aurreko bakezaleei arrazoia eman zien. 1945ez geroztik, Europako batasuna eta bakearen ardatza Frantzia eta Alemaniaren arteko hurbilketa eta azkenik laguntasuna izan da. Hori guztia azpimarratzeak eta gogoratzeak baduela bere zentzurik, nik uste, Europa osoan zehar joera nazional, berekoi eta antisolidarioak gorantz dihoazen une hauetan.

BIBLIOGRAFIA

- Brock, Peter (1972), *Pacifism in Europe to 1914*, Princeton U.P., Princeton.
- Chickering, Roger (1975), *Imperial Germany and a World Without War. The Peace Movement and German Society, 1892-1914*, Princeton UP, Princeton (New Jersey).
- Cooper, Sandi (1991), *Patriotic Pacifism Waging War on War in Europe, 1815-1914*, Oxford U.P., Oxford/New York.
- Grossi, Verdiana (1994), *Le Pacifisme Européen 1889-1914*, Bruylant, Bruxelles.
- Holl, Karl (1981), *Pazifismus in Deutschland*, F. Schöningh, Paderborn.
- Mannheim, Karl (1936), *Ideology and Utopia: An Introduction to the Sociology of Knowledge*, New York.
- Núñez Florencio, Rafael (1993), *Sociedad y Política en el Siglo XX. Viejos y nuevos movimientos sociales*, Síntesis, Madrid.
- Offe, Claus (1992), *Partidos políticos y los nuevos movimientos sociales*, Sistema, Madrid.
- Raschke, Joachim (1988), *Soziale Bewegungen*, Frankfurt².
- Riesenberger, Dieter (1995), *Geschichte der Friedensbewegung in Deutschland. Von den Anfängen bis 1933*, Vandenhoeck&Ruprecht, Göttingen.
- Scheer, Friedrich-Karl (1983), *Die Deutsche Friedensgesellschaft (1892-1933). Organisation, Ideologie, politische Ziele*, Haag Herchen Verlag, Stuttgart.
- Uhlig, Ralph (1988), *Die Interparlamentarische Union 1889-1914. Friedenssicherungsbestrebungen im Zeitalter des Imperialismus*, Franz Steiner Verlag, Stuttgart.
- Wehler, Hans-Ulrich (1995), *Deutsche Gesellschaftsgeschichte*, III. alea: *Von der "Deutschen Doppelrevolution" bis zum Beginn des Ersten Weltkrieges 1848-1914*, C.H.Beck, München.

ORAINA

MILITARISMOA: GAUR EGUNGO GIZARTEA ETA ARMADA

*Gotzon Hermosilla
Soziologoa*

0. MILITARISMOA ETA ANTIMILITARISMOA. DEFINIZIOAK

Soldadutzaren aurkako borrokak eta batez ere intsumisioak euskal gizartean lortu duten onarpen mailak antimilitarismoaren gaia ekarri du plazara. Ideologia guztiak hiltzear ei dauden honetan, ideologia (errealitatea ulertzeko modua) berri eta indartsu baten aurrean aurkitzen gara, antimilitarismoa ez baita derrigorrezko zerbitzu militarren kontrako borrokan agortzen.

Antimilitarismoa, hitzak dioen legez, militarismoaren aurkako ekinbide teoriko eta praktikoa dugu, hau da, “gizarte batetan elementu militarrek Estatuaren manua beretzakotu duten sistema politikoaren” kontrakoa, UZEIren hiztegiari kasu egiten badiogu¹. Hala ere, militarismoaz hitz egiten dugunean ez gara soilki militarrek zuzenean Estatuaren manua hartu duteneko sistima politikoez ari. Militarismoaren eragina askoz sakonagoa da eta demokrazia formalaren joku-arauetan mugitzen diren sistima politiko askotan ere nabariak dira bere ondorioak. Militarismoak, arlo militarrek arlo zibilarekiko duen nagusitasuna eta balore militarrek gainerako esparrutan lortzen duten hegemonia bezala ulertuta, gauzapen anitzak izan ditzake, eta gizartean, politikan, ekonomian, komunikabideetan eta masa-kulturan eragiteko gaitasuna badu, geroago ikusiko dugun bezala.

Autore gehienak bat datoz ikuspegi honekin, ez guztiak ordea. Dan eta Ron Smithen arabera, militarismo izenaz ezagutzen dugunak ez du iturburu bakar bat. Militarismoa termino analitikoa baino gehiago, deskriptiboa litzateke; kausa askoren efektuak izendatzeko balio du, baina ez da efektu askoren kausa bakarra. Azken finean efektu horiek guztiek elkarloturarik badutela pentsatzen badugu eta kausa bakarra aurkitu nahi badugu, indar armatu iraunkorrek dituzten estatuen egitura sozio-ekonomiko-politikoetara jo beharko genuke, beti ere egile hauen arabera.

1. UZEIren Politika Hiztegiaren I. tomoan honako hau irakur dezakegu: “Militarismoa: gizarte batetan elementu militarrek Estatuaren manua beretzakotu duten sistema politikoa. Armada, herria gobernatzeko, oinarri politikotzat daukan manua” 367. orr.

Antimilitarismoa militarismoarekiko aurkakotasunaz definitu dugu. Hala ere, antimilitarismoa ez da soilki militarismoaren kontra aritzen den ideologia edo praktika politikoa. Militarismoa borrokatuz, gizarte eredu alternatibo baten bila doa. Ideologia globala, orokorra da antimilitarismoa, Savaterren definizioan adierazten den bezala: “antimilitarismoa ekinbide politikoa da, gaur egun arlo militarrek zibilarekiko duen nagusitasuna ezabatu nahi duena, estatu garaikidearen aldakuntza eta demokraziaren erradikalizazio eraginkorrerantzako lehenengo urrats gisa”².

1. ITURBURU TEORIKOAK

Antimilitarismoaren iturburu teorikoak bilatzeko orduan, hiru korronte ideologiko klasikoetara jo izan da gehienetan: liberalismoa, marxismoa eta anarkismoa.

a) Liberalismoa

XVIII eta XIX. mendeetan zehar indartzen den liberalismoaren korrontearen pentsalariek ez dute Armadaren autonomia begi onez ikusten bi arrazoiengaitik:

- Garai hauetan goraka doan burgesia berriaren idealen kontra doalako (arrazoiaren indarra, merkatua, zibilizazioa). Merkatua garatuko denean gerrak ezinezko bihurtuko direla pentsatzen dute.
- Armada ekonomikoki onuragarria ez delako, bitarteko ekonomiko ugari suntsitzen ditu.

b) Marxismoa

Ezaguna da armada estatuaren tresna gisa ulertzen duen ikuspegi marxista klasikoa. Kapitalismoan burgesiak erabiltzen du tresna hori langileriaren zapalkuntza bermatzeko eta, beraz, klaseak desagertzen direnean armadak ere desagertuko dira.

Marxismoari eta antimilitarismoari gagozkiela Alemaniako sozialdemokraten korrontea aipatu beharra dugu ezinbestez, eta zehazki Rosa Luxemburg eta Karl Liebknecht. Hauei zor diegu “antimilitarismo” terminoaren sorkuntza. Korronte honek armagintza aztertzen du, eta kapitalaren metaketarako gune oso garrantzitsua dela azpimarratu. Beraz, hauen arabera militarismoak bere funtzio ekonomikoa ere badu, eta kapitalismoaren fase inperialistaren ezaugarri nagusienetako bat da. Bi arlo ditu militarismoak: barnekoa, langileriaren kontrako errepresioa abioan jartzekoa, eta kanpoko, gainerako estatuekin merkatu berriak eskuratzeko lehian sartzen denekoa.

2. Savater (1984).

c) Anarkismoa

Anarkismo klasikoaren ikuspegia ere arras ezaguna dugu, eta beraz ez gara gehiegi luzatuko. Armada herriaren kontra aritzen den botere koertzitiboa da, estatuarekin batera desagertu behar dena. Tradizio honetako praktikarik aberatsenak XX. mende hasierako Frantziako sindikalismoa eta Espainiar Estatu Gerra Zibilekoa dira.

Antimilitarismoak hiru iturri hauetatik edaten du, eta nabariak dira hauen aztarnak gaur egungo teorizazioetan. Bestelakorik ere topa dezakegu noski: Ezker Berriak, mugimendu alternatiboek, ekologismoak, feminismoak, nazio askapenerako borrokek ere eragina izan dute antimilitarismoan. Ikus dezagun bada zein den antimilitarismotik armadari eta, orohar, militarismoari egiten zaion kritika.

2. ARMADAREN IRAKURKETA ANTIMILITARISMOTIK

Armada Estatuaren atal bat da, eta beronek gizartearen kontrola ziurtatzeko indarra erabiltzeko eskubidea bereganatzen duenean sortzen da. Indarraren erabileraren monopolioaren ondorioa dugu Armada. Indarra erabiltzen espezialistak diren gizonak osatzen dute, eta gainerakoen aurrean erabilera horren monopolio legala dute.

Historian zehar talde espezialdu hori aldatzen joan da, batez ere bi aldagairen arabera: suntsitzeko gaitasunaren garapena eta klase borroka. Bi aldagai hauen garapenaren ondorioz, hiru joera antzeman ditzakegu armadaren bilakaeran: lehenengoa, armadaren barnean ere suertatzen den lanaren banaketa soziala, erabili beharreko indarkeria mailaren arabera; bigarrena, mundializazioa, armaden elkarren arteko osagarritasuna eta aliantza militarren fenomenoak; eta hirugarrena, indarkeriaren automatizazioa.

Armada Estatuaren tresna da, eta indarra erabiltzeko eskubidea bereganatzea da bere ezaugarri nabariena. Hala ere, militarismoaren azterketa sakona egin nahi badugu ezin gera gaitezke ikuspegi murriz honetan, lehen esan dugun bezala militarismoak gizartearen arlo desberdinetan (botere harremanetan, ekonomian, masa-kulturan) uzten baitu bere aztarna. Horixe da hain zuzen datozen lerroetan jorratuko dugun atala.

2.1. Armada aktore politiko eta sozial gisa

Badago lotura estrukturalik klase-gizarte eta armadaren artean. Armada klasetan banaturiko gizartearen eta lanaren banaketa sozialaren ondorioa da, eta gainera klase-gizarte horretan antzematen diren ezaugarrien eredu kontzentratua ere bada (autoritarismoa, hierarkia, lanaren banaketa, disziplina etab). Zentzu

honetan, armada teoria soziologikoan “instituzio orokorra” deitzen denaren adibiderik garbiena da (gartzela eta eroetxearekin batera, derragun bidenabar), hau da, gizarte orokorraren barnean dagoen gizarte itxia da, bere arauak beste edozein erakundek baino askoz zehatzago finkatzen dituen. Honak teoriarik defendatzen duen gizartearen baloreak bereganatzera darama. Klase-gizartearen balore, arau eta harremanak armadan birsortzen dira.

Lotura estruktural hauetaz gain, badago bestelako faktorerik armadaren izaera klasista areagotzen dutenak: ideologia burgesaren eragina, armadaren eta goiko klaseen interes amankomunak, armadaren partaideen arteko harremanak eta abar.

Hala ere, armadak badu bere autonomia, Beltzak esaten duen bezala: “armada ez da soilki tresna bat: bere barnean botere bortxatzailearen indar nagusia datza, eta usu ikusten da badela indar honen erabiltze autonomorik”³. Erabiltze autonomo hori izaera horretatik dator, “botere bortxatzailearen indar nagusia” izatetik alegia. Suntsitzeko gaitasun ikaragarria du, eta Estatuaren erakunderik boteretsuena eta antolatuen da.

Beltzak dioenaren arabera, armadaren autonomia arlo politikoan jokatzeko bi modutan gauzatzen da: zuzenki botere-hartzearen bidez eta presio-talde bat bezala arituz.

2.2 Armada ideologia sortu eta hedatzeko tresna gisa

Baina armadaren funtzioa ez da soilki indarra erabiltzea. Badu ideologia sortu eta hedatzeko gaitasun ikaragarria. Armada tresna ideologikoa ere bada.

Armadak badu ideologia propioa, “balore militarrik”, barnean bizi dituen tentsio estrukturalen ondorioz sortzen direnak (gizakiak hiltzeko konbentzitu eta gerrarako prestatu beharra). Balore hauek uniforme xamarrik dira, armada ia guztietan agertzen dira, eta honela laburbil ditzakegu:

- nazionalismoa: armadaren eginkizuna aberria kanpo eta barne etsaiengandik gordetzea da, baina aldi berean nazioaren baloreak gordetzeko betebeharra ere badu. Armadak nazioaren ideia indartzen du bere ideologian.
- interes nazionala babesteko eginkizuna ere ezartzen dio bere buruari. Jakina, arazoa interes nazionala zein den zehazteko orduan sortzen da. Interes nazional bakar bat dagoela baieztatzeak, bestalde, klaseen arteko desberdintasunak izkutatzeke balio izaten du.
- objetibotasun politikoa: armada ez da politikan sartzen. Bere eginkizuna orokorragoa denez (interes nazionala bilatzea, lehen esan dugun bezala) ez da

3. Ikus UZEIren Politika Hiztegiaren I. tomoan, 50 eta 51. orrialdeetan, “Armada” terminoaren inguruan Beltzak idatziriko artikuluxka.

arazo politiko zehatzetan sartzen. Hala ere, esperientziak frogatzen digu ikuspegi hau erabat ideologikoa dela.

– balore burgesak bereganatzen ditu: ordena zaindu beharra, autoritarismoa, matxismoa. Orokorrean, balore atzerakoien gordeleku izaten da armada. Segurtasun nazionala, barne segurtasuna bezalako doktrinak jarri ditu indarrean, eta hauekin komunikabideak eta Estatuaren ideologia kutsatu.

– Belizismoa, indarraren erabileraren apologia, irtenbide militarren aldeko apostu sutua ere sarri izaten dira armadaren baloreen ezaugarri.

Garapen teknikoak aldaketak ekarri ditu. Armak eta estrategiak gero eta konplexuagoak dira, eta beraz kualifikazio teknikoak garrantzi handia hartu du. Hala ere, honek ez ditu armadaren balore tradizionalak zokoratu.

Robin Luckhamek armaren fetitxismoa aipatzen du, gaur egungo masa-kulturaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat bezala. Armak helburu batekin ekoizten dira (suntsitzea), baina azkenean helburu horiek gainditu eta sinboloak bihurtzen dira. Hori gertatzen da armen ezaugarri bereziengatik. Gainerako kontsumo-produktoak ez bezala, merkatu berezia dute (Estatuak baitira bezero garrantzitsuenak). Bestalde, ezinezkoa da erabakitzea zein den behar den kopurua (gerran izan ezik). Arma nuklearren kasuan, helburua balizko etsaiei gu erasotzeko asmoa burutik kentzea da, “disuasioa” deitu dena, baina horretarako zein arma kopuru behar den zehaztea ezinezkoa da, eta gainera ezinezkoak diren hipotesiak (gerra nuklearra benetan egin daiteke mundu osoa deuseztu gabe) erabiltzen dira. Honek guztiak armek masa-kulturaren jokatzen duten rol sinbolikoa indartzen du.

Armen kultura, kultura armamentistikoa nola sortu eta gizarteratzen den oso ondo aztertu du Luckhamek *La cultura de las armas* bere liburuan. Kultura honen sortzaileen artean maila desberdinak egongo lirateke:

– Zientifikoak, armen etengabeko garapenerako beharrezkoa den jakintza zientifikoaren jabe direnak.

– Segurtasunaren intelektualak, gerra-sistimaren funtzioak definitu eta arrazionalizatzen dituztenak (analistak, armadaren intelektualak, aholkulariak, etab).

– Segurtasunaren kudeatzaileak: ekoizpenaren eta erabileraren kudeaketaz arduratzen direnak: enpresariak, militarrek, polizia, zerbitzu sekretuak.

– Interpretatzaileak: konplexu militar-industrialaren eta gizartearen arteko bitartekari aritzen dira, eta ideologia armamentista gizarteari ulertarazten saiatzen dira (politikoak, iritzi-sortzaileak, kazetariak, irakasleak).

– Publizista eta propagandistak: publikoari armamentismoaren balore eta irudiak zuzenean igortzen dizkietenak: arma enpresen zerbitzuak, eta baita ere kazetariak, kultura-ekoizpenean aritzen direnak (zinema, telebista, hezitzaileak etab).

Lehenengo hirurak konplexu militar-industrialaren barnean kokatzen dira, eta beste biak kanpoan edo konplexu militar-industrialaren eta gizarte orokorraren arteko zubi gisa aritzen dira. Konplexu militar-industrial edo konplexu armamentistaren ideia hau oso garrantzitsua da: gaur egun badago sinbiosis bat armada, arma industria eta segurtasunaz arduratzen den burokraziaren artean, hiru hauek konplexu oso bat osatzen dute. Beltzak Estatu Batuetan duen indarra azpimarratzen du, eta beste autore batzuek (Luckhamek edo Dieter Senghaasek) kontzeptu bera darabilte. Senghaasek erabilgaitzagoa den baina sinbiosisaren ideia hau hobeto isladatzen duen terminoa darabil: “konplexu politiko-ideologiko-militar-zientifiko-teknologiko-industrial”⁴. Aurrerago, militarismoak arlo ekonomikoan duen eragina aztertzean, “konplexu militar-industrial” kontzeptu honekin egindako dugu topo berriro ere.

Nola lortzen du kultura armamentistikoak hegemoniko bihurtu eta beste hainbat arlotan eragitea? Batzuetan zuzenean egiten du, baina gehienetan zeharka, bere burua moldatuz eta bere formak kanpo-baldintzetara egokituz. Kultura etengabe aldatzen den zera dugu, eta militarismoaren kulturak aldaketa horiek kontuan hartu behar ditu bera ere aldatzeko. Horretarako hainbat tresna erabiltzen ditu: bitako elkarketak, diskurtsoaren zientifikazioa, beste balore batzuekiko elkarketa (adibidez, armada bakearen defendatzaile bezala agertaraziz), eta abar. Lan honetan interpretatzaile, publizista eta propagandistek zeregin handia dute militarismoaren baloreak arlo politikora eta gizartera eramaten.

Eta zeintzu dira kultura armamentistaren produktuak? Luckhamen arabera, sozialki eraturako gertaerak (berriak, historia...), simulazioak (jokuak, kontsumorako produktuak...), irudiaren formazioa (propaganda, publizitatea) eta fikzioa (pelikulak, telebista-saioak, eleberriak...). Produktu hauek ezaugarri garrantzitsua dute: batzuek forma ideologiko hutsa hartzen dute; beste batzuk, aldiz, merkantzia bezala gizarteratzen dira. Funtzio ideologikoa betetzeaz gain, merkatuan ere betetzen dute beren funtzioa.

2.3 Armada eragile ekonomiko gisa: armamentismoa

Armagintzak eta gerrak kapitalismoan industrializazioa eta merkatua bizkortzeko balio izan dute. Armagintza kapitalismoaren motorra da, beste garaitan kotoia edo burnia izan ziren bezalaxe:

– Alde batetik, kapitalismoaren fase inperialistan armada indartsua edukitzea interes ekonomikoak babesteko berme ezinhobea delako.

4. Luckham (1986), 25. orr.

– Beste aldetik, armamentismoa kapitala metatzeko gune pribilejiatua delako. Krisi garaietan, gainerako produktuetan etekin-tasa jeisten denean, armada negozio ezinhoba bihurtzen da: ziurtasuna, konpetentzia txikia, produktuen zaharkitze azkarra eta abar.

Beraz, armamentismoak klase militarren, arma-industriaren eta bloke menperatzailearen interesak batzea lortzen du: lehen aipatutako konplexu militar-industrialak sortzen da.

Dan eta Ron Smithek oso ondo aztertu dituzte konplexu militar-industrialaren osaketa eta partaideen arteko harremanak, eta batzuetan interes kontrajarriak ere badituztela ohartarazi. Hiru aktore nagusi nabarmentzen dituzte: militarrek, burokrazia eta industria. Militarrei dagokienez, azken hamarkadetako aldaketa teknologikoa asumitu dutela azpimarratzen dute, baina honek barne-mailako inertzia indartzeko balio izan duela gaineratuz. Burokraziak berriz militarrekiko interes amankomunak ditu (burokratek ere gastu militarrekiko behar direla pentsatzen dutelako), baina bi arlo hauen arteko iritzi kontrajarriak ere badagoela ohartarazten dute Dan eta Ron Smithek. Bukatzeko, industria eta teknologiaz ari garelarik industria armamentistikoa eta estatuaren artean alde bitako dependentzia sortzen dela azpimarratzen dute egile hauek: industriak estatuaren beharra du bizirik iraun ahal izateko (estatua da arma-industriaren bezero nagusia, eta dirulaguntza publikoak ezinbesteko ditu industriak), baina estatuari ere industria indartzea komeni zaio eta hala egiten du normalean (dirulaguntzak emanez eta esportazioa bultzatuz, adibidez).

3. ONDORIO GISA

Ikusten dugunez, antimilitarismoak armadaren eta, orokorrean, militarismoaren kritika sakona egin du. Baina ez dezagun ahantz antimilitarismoaren definizioaz aritu garenean esandakoa: antimilitarismoa ez da soilki militarismoaren kontra aritzen den ideologia edo praktika politikoa, eta honetan bat datoz beren burua antimilitaristatzat aitortzen duten gehienak. Militarismoa borrokatuz, derrigorrezko soldadutzaren desagertzea, armada guztien abolizioa eta balore militarren suntsipena xede, gizarte-eredu alternatiboa aldarrikatzen du antimilitarismoak: Savaterrek esaten zuen bezala, estatu garaikidearen aldakuntza eta demokraziaren erradikalizazio eraginkorra.

Gizarte alternatibo horren diseinuan eta demokrazian erradikalki sakontzeko behar horren definizioan dauka antimilitarismoak gaur egun bere erronkarik garrantzitsuenetakoa. Hori, gure iritzi apalean, gainerako esparruetan garatzen diren borroken ekarpenak (feminismoa, ekologia...) asumituzetik etorriko da. Eta Euskal Herriari gagozkiolarik, naziotasuna eta izaera nazionalaren onarpena ere ezinbesteko ardatz izango dira Armadak desagertu osteko gizarte alternatibo hori definitzerakoan.

Zentzu honetan, euskal antimilitarismoak oraindik ere hutsune teoriko nabarmenak ditu, eta hau normala eta ulergarria da, insumisioaren aldeko dinamikak eta errepresioari aurre egiteko beharrak lehenetsun osoa izan baitute orain artekoan. Hala ere, bada eztabaidari ekiteko garaia. 1995.eko “Abolizioaren aldeko mobida” izan da gaia plazaratzeko parada egokia, eta lehenengo eztabaidak piztu dira zenbait egunkaritan agerturiko iritzi artikuluetan ikusi den bezala, armadak desagertarazteko zer egin behar den eta horren osteko gizartea zer nolakoa izan behar den nork bere aburua azalduz. Eztabaida garrantzitsua, dudarik gabe, eta antimilitarismoaren teoria eta praktikan guztiz aberasgarria.

BIBLIOGRAFIA

- García, J.; Gisbert, T.; Porret, F.; Muñoz, J. (1990), *Con razón, insumisión*, Editorial Revolución, Madril.
- Luckham, R. (1986), *La cultura de las armas*, Lerna, Bartzelona.
- Pesutic, S. (1992), *¿Fuerzas armadas? No, gracias*, Gakoa-Hirugarren Prentsa, Donostia.
- Savater, F. (1984), *Las razones del antimilitarismo y otras razones*, Anagrama, Bartzelona.
- Smith, D. eta Smith, R. (1986), *La economía del militarismo*, Editorial Revolución, Madril.
- UZEI (1980), *Politika hiztegia*, I, Elkar, Donostia.

KOARTELETAN ANTZEZTUTAKO 'ETSAIA' **(errepresentazio eta irudi sozio-kulturalen signifikantzaz)**

Kepa Fdez. de Larrinoa
EHUko Irakaslea

SARRERA: ANTZEZTUTAKO ETSAIA

'Etsaiak' (esistitzen) direlako dira armadak beharrezko. *Vox populi* da arestiko esaldia. Oso hierarkikoki elkartu eta harremanduriko soldaduez osatuta dago armada. Ezbairik gabe, 'etsaia' hitz gakoa da armadaren presentzia fisiko eta kognitiboan.

'Etsaia' funtsezkoa denez gero, armadaren izana da-eta, soldaduen formakuntzan eta soldadu-egintzan 'etsaia'ren nozioa barneratzeak izugarriko garrantzia du. Barneratu ez-ek, ekinez praktikatu, gertutik bizitu eta ezagutu behar dute soldaduek delako kontzeptu militarra. Zeren soldadugintza ez baitatza ezagutza teoriko soilean, baizik eta beronen performantzan ere bai.

'Etsaia'ren performantza bi modutara ager daiteke armadan: benetako errepresentazioa edo alegiazko errepresentazioa izan daiteke. Benetako errepresentazioa kanpoaldeko gerlan agitzen da, ikusgai eta haztagi den 'egiazko etsai' baten aurrean. Alegiazko errepresentazioa, ordea, barneko koartel eta barruti militaratan antzezten da, 'balizko etsai' baten aurrean.

Armadaren diskurtsoari begiratzuz gero, bi kasutan 'etsaia' beste armada bat da, benetako armada edo armada irudikatua. Paradoxikoki, armadaren praxis eta egintzari begiratzuz gero, armadarekin baino, gizarte zibilarekin topo egiten dugu kasu batean zein bestean. Armadaren instituzioak bi izanaldi ditu: bata erauntsiarena da; bia lo egonarena. Hau da, armadak badu martxan edo bizkor dabilen aldialdia; eta badu geldirik edo egonean dagoen aldialdia. Gerla garaia eta bakeunea, hots.

[Tele]Bistan da gerratean gizarte zibilak jasaten duen jipoia eta txikizioa: besteak beste iheslarien (errefuxiatuen) exodoa, bortxaketa sexualak, ume eta zaharren sarraskiak, populazioaren atsekabea... Gerla ofizialen objetibuak zibilak dira, herritarrak. Gerlen errealitateari eta ondorengoei begiratzeaz oso nabarmen jartzen zaigu biktima zibilek eta objetibu ez-militarrak, militarrek baino, inportantzia gehiago izatea.

Gerla ez delarik, armadak koartelelan pausatzen dira, soldadugintzan, ‘egiazko etsaia’ agertu arte, ‘balizko etsaia’rekin ihardueran. **Gerla garaian ‘etsaia’ren errepresentazioak gizarte zibilaren tragedia fisikoa dakar. Bakealdian ‘etsaia’ren errepresentazioa armadak gizarte zibilarekiko duen dominazio-harremanaren dramatizazioa da.** Entseiu honek koartelelako ‘alegiatzko etsaia’z dihardu; hau da, soldadutzan antzezten den ‘etsaia’z.

Lengoaia eta irudigintza militarrek gizarte zibilaren hainbat balore eta zentzu behin eta berriro gutxietsi eta apalarazten dituela ikusiko dugu hemen. Baita ere ikusiko dugu soldadutza alegi diskurtsiboa dela, non nahasten baitira isilpeko egiak, gertatutako historiak eta berba eginiko istorioak.

ARMADA: METAFORAK HAUTATZEKO ETA BEREN ESANGURAK HEDATZEKO (KOMUNIKATZEKO) TEATROA

‘Etsaia’ berba bat da. Berbei indar ikaragarria darie. Zergaitik? Metaforak direlako; ideiak adierazteko gai direlako. Berba moeta asko daudenez gero, errealitate gisa asko izenda daitezke. Beraz, berbek errealitateak eratzen dituzte. Beroni errealitategintza deitzen zaio, eta garrantzia handiko analisi-esparrua da Gizarte Zientzietan.

Berben bitartez sortu eta hedatutako errealitategintzaz gogoeta egin du antropologiak. Antropologiak diosku berben indarra modu askotara ager daitekela. Hau dela-eta, gertakizun berezietan nahiz eguneroko harremanetan, harreman arruntetan, berbak eraginkorrak direla ikus dezakegu idazlan antropologikoetan.

Berbaren ikerketa antropologikoa oso zabala da. Nik hemen hiru erreferentzi teoriko aipatu nahi nituzke: (1) **metafora soziala**; (2) **fetitxegintza soziokulturala**; eta (3) **joko sakonaren metaerrazuna**. Metafora sozialaren ikerketa antropologia sinbolikoari lotuta dago. Fetitxegintza soziokulturalaren ikerketa marxismotik eta estrukturalismo-ondokotik garatu da. Eta joko sakonaren metaerrazunaren ikerketa Ipar Ameriketako Eskola Interpretatibo eta Hermeneutikoak bultzatu du.

Zer adierazi nahi du antropologiak ‘metafora soziala’ espresioa erabiltzean? Psiko-hizkuntzalaritzari begiradaxo bat egin behar diogu, eta George Lakoff-ek eta Mark Johnson-ek (1980) idatzitako liburuan instant batez gelditu. Idazle hauek etsenpluz etsenplu erakusten dute metaforak erabiliz burutzen dugula gizakiok geure pentsatze prozesua.

Lakoff eta Johnson-en eritziz, metaforikoki jendaurreratu ohi dugu burubarnean dagigun gogoeta, eta hala izateak honakoa dakar: guk hautatutako metaforek taxutzen dituzte giza-kontzepzioak eta mundu-ulerkerak, erran nahi

baita, metaforek pentsamolde bereziren bat forjatzen jotzen dutela, delako pentsamoldeak pentsamendua bera egituratzen duelarik.

Psiko-hizkuntzalaritzatik gizarte eta kultur ikerketara etorri gero, erabereko gauzak aurkitzen ditugu. Antropologiaren kasuan James Fernandez-en lana (1974, 1981, 1984) jo behar dugu adierazgarritzat. Idazle honen ustetan, gizarte bizitzan zehar osatzen ditugun iharduera kulturalak **tropoen jokoak** dira: alegia, gizarte-irudi sinbolikoen konbinaketak.

Antropologia moeta honek metaforaren balio soziala ikertzen du: hala bere balio politiko-instrumentala nola bere balio sinboliko-kognitiboa. Gisa honetan aspaldian argitaraturiko liburu batean J. Sapir eta J.C. Crocker (1977) antropologoek idatziari segituz, portaera soziokultural guztien atzetik metafora dabil, metafora soziala.

Metafora, orduan, ekintza sinbolikoa da, literatura, gizartean “bizitzeko beztimendu balitz bezalako literatura” (Sapir eta Crocker 1977). Literatura hau, jakina, berezia da, antzetzua baita.

Antropologia sinbolikoari kasu eginez gero, gizarteak eta kulturak antzokiak eta antzertiak dira. Armada ez da salbuespenik: bertan antzetzokiak eta antzekizunak topatzen ditugu, non ele-metaforak zein gorputz-metaforak gauzatzen baitira.

Soldadutza teatro soziala da, erran nahi baita, soldadutzaren etnografiak talde-metaforak dakartzala. Talde-metaforok errepresentazio-gune eta errepresentazio-une jakinetan zehar bideratzen dira, aktorego zehatza dagoelarik. Egon ere badaude metafora zehatzak, soldadutzaren mundubisioaren berri zehatza dakarten berba zehatzak.

Berbak metaforak dira, bai. Eta armadan erabiltzen den 'etsaia' hitza metafora da, ahoz aho erabiltzeaz gain talde-ihardueran errepresentatu, antzetzu egiten den hitza. Giza eta kultur iharduerak metaforikoak dira, bai. Eta pertsonen ekintzaren bidez zerbait adierazi nahi dute. Zentzu honexetan diogu 'etsaia' hitzak esangura berezia, aparta duela soldaduen munduan. Hain zuzen ere, erranahi etimologikoaz baino, signifikantza ez-berbalaz dihardugu; kontzeptuen antzeppen konkretuez, hots.

Gutxienez, esangurak bi alderdi ohi ditu: alderdi kognitibo eta interpretatiboa; eta alderdi praktikoa. Lehena burubarnean mamitzen da, gertaera sozialak ulertzen laguntzen du, eta ondorioz ordenu intelektuala dakar bizitza sozialera. Bigarrenak egintza, portaera eskatzen du. Lehenengo alderdian esanguraren definizio teorikoa dugu. Bigarrean, esanguraren errepresentazio praktikoa dugu. Hau da, esanguraren antzekizuna. Normalean, bi alderdiok harremanduta daude.

Saio honetan honako baieztapena argitu nahi dut: **gorputz-mugimenduz eta bestelako irudigintzaz metaforikoki ideiak hedatzeko, eta beraiek sinistarazteko antzokia da armada**. Soldadutzaren ‘etsaia’ metaforaren esanahira jo nahi izanez gero, soldaduek koarteletan antzeztutako ‘etsaia’ azalera ekarri behar dugu.

ARMADA: HAUTATUTAKO METAFOREN ESANGURAK EGIAZTATZEKO TEATROA

‘Etsaia’ren errepresentazio praktikoa ikertuz gero, ‘etsaia’ren nozioak erreferente bat baino gehiago badituela antzematen dugu. Nozio eta kontzeptualizazio batzuk oso ageri agertzen direla, aldi berean bestetzu gordeta edo ezkutuan daudelarik, aurkitzen dugu holako miaketan. Bestela esanda, fetitxismo prozesu bat burutzen da .

Zeri deritzo fetitxegintza Gizarte Zientzietan? Errealitate sozialen sakralizazioari, prozesu sozial batzuren eraginez berben gaitasun metaforikoa fosilizatzeari. Ikuspegi honetatik begiratuta, metaforak ez dira errealitate-ekarleak, **fetitxeak** baino; alegia, errealitate sozialaren bahitzaile edo ezkutatzaileak. Zer eta berbek badutela paregabeko abilezia errealitate sozialak ezkutatzeko adierazten digute fetitxegintza sozialaren ikerlariek.

Berben eragina bi arlotan dakusagu bederen: berbek, alde batetik, giza-errealitateak eta talde-irudikapenak –errepresentazio kolektiboak deritzenak– itxuratu edo ahalbideratzen dituzte; beste alde batetik, harreman sozialen norabidea aldatu eta euren funtsa desitxuratu ahal dute.

Fetitxegintza sozialaren ikertzaileek dioskuenez, **hitzek dominazio-formak har ditzakete**, dominazio-sentsazio izpirik sentitarazi gabe. Armadak darabilen ‘etsaia’ren nozio antzeztua halakoxe adibide ona dugu.

Analisi-esparru honen hasiera K. Marx-en eta F. Engels-en materialismo historikoan dago, XIX. mende-bukaerako ekonomia kapitalistaren hiztegiaren isilarazpenek norainoko inportantzia zuten adierazten saiatu ziren idazleok.

Orduko ekonomia kapitalistaren nozio ekonomikoen oinarri sozialak ikertu zituzten; hau da, ekonomi-harremanak identifikatzeko kapitalismoak sortutako kontzeptu eta hitzek noraino ispliatzen zituzten produkzioaren harreman sozialak.

‘Kapitala’, ‘aberastasuna’, ‘merkantzia’, ‘dirua’ eta abarreko kontzeptu linguistiko-ekonomikoen oinarri eta garapen soziala ikertuz gero, marxismoa kritika eta salaketa ekonomiko-politiko bezalakatu zen: prozesu linguistiko baten atzetik suertatzen zen prozesu sozio-ekonomiko baten kritika eta salaketa.

Marxismoak honakoa salatu nahi zuen: prozesu historiko eta sozial luze baten **ondorengo** diren (errealitate sozialak izendatzeko) berbak **kausa** balira bezala agertzen zaizkigu. Auzi honetaz honakoa diosku marxismoaren kritikak: analisi historiko-sozialak harreman sozial berezi, zehatz, jakintzat jotzen duena ekonomia politikoak **gauzatzat** jotzen du, beronen etorkiaz zeharo abstrakzioa eginez.

Ekonomia politikoak ondorengoa kausa bihurtzen du, historiaren kontzientzia neutralizatuz, produktu historikoen garapena ahaztu araziz. Soldadutzan halakoxea gertatzen da 'etsaia' ren nozioaz.

Armadaren mundubisioak bere burua identifikatu eta justifikatzen du 'etsaia' kontzeptuaz baliatuz, **kanpoan** dabilen 'etsaia' kognizioan mamituz eta koarteletan antzetzuz. Zeren hor nonbait 'etsaia' esistitzea da armadaren presentziaren beharra eta arrazoia, hain zuzen ere.

Paradoxikoki, geroago azalduko dugun legez, 'etsaia' **barruan** da. Armadak sortutako 'etsaia' armada bera da. Berau ordea, zeharo isilik dago, ondorengoa kausa bihurturik.

Zientzia Sozialetan Marx-ek eta Engels-ek egindako erakarpenak agerian utzi zuen ekonomia politikaren hiztegia ez zegoela hitz neutroez osatuta. Ederki erakutsi zuten hiztegi ekonomikoaren atzean **nagusigo-harremanak** bazebiltzala.

Zentzu hertsian, Marx eta Engels-en azterketak ez zuen esparru ekonomikotik irten ia. Neurri handi batean, Marx-ek eta Engels-ek nagusigo-harremanen sarean txerkatu zuten gizabanakoen tokia, delako sarea ia eskusiboki ekoizpen-indarren garapenean kokatzen zutelarik.

Noski, baita esparru ideologiko-kulturalean ere modu autonomo handi batez nagusigo-harremanak suertatzen dira, Marx-ek eta Engels-ek arakatu ez zituztenak. Egon ere, irudi ekonomikoen fetitxegintzaz gain, irudi kulturalen fetitxegintza badago. Hauxe bera dugu armadan, hantxe erabiltzen den 'etsaia' metafora bertako irudi kulturala da-eta, bertako fetitxe bihurturiko irudi kulturala.

Armadak produzitzen dituen metaforen ikerkerta, signifikantza kulturalaren produkzioa kritikatu duten idazlanak nola edo hala baliagarriak ditugu. Kritiko eta kritika inportante batzuren berri, besteak beste, honako bi liburuotan aurki dezakegu: Ryan (1982) eta Smart (1983). Bi liburu hauetan Derrida-ren eta Foucault-en filosofo frantziarren erradikalismo kulturala artikulatu nahi zaio marxismoari.

Marx produkzio ekonomikoarekiko berbez saiatu zen iragan den mendearen bukaeran. Bere materialismo historikoaren indarra erredukzio metafisiko baten salaketan zetzan. Mende honen bukaeran badabil 'dekonstrukzioa' deritzan eta

Derridak bultzatutako filosofia erradikal moeta bat, **testugintzan** aritzen dena; testuen agintean, hots.

Bibliografia sailean aipaturiko liburuan, Ryan (1982) azterlariak dio ezen Marx-ek eta Derridak lan berdina egiten dutela; hau da, Marx ekonomian eta Derrida testu literario eta filosofikoetan berdineko norabideetan dabiltzala. Beraz, Derridaren lana kritika eta salaketa da. Alegia, hizkuntzaren eta esanguraren filosofia positibisten eta idealisten kritika eta salaketa.

Esanguraren filosofia positibistari erantsitako egia-hedapenak desegin gura ditu dekonstrukzionismoak; hau da, testu bati darion egia-kutsua suntsitu nahi du. Beste modu batez erranik, testu batean hitzek izendatzen duten errealitatearen egia deseraikitzen saiatzen da filosofia moeta hau.

Berbek eta berbez egindako testuek errealitateak kreatzen dituzte, errealitateon arbitrariotasuna aitortuz baino, beren jatortasuna sinestaraziz. Hala eginez, beren arbitrariotasuna ezkutatu edo isiltzen dute. Zentzu honetan, betiko egiak direlako kontzientzia sortarazten dute. Armadako errealitatea ‘eraikia’ denez gero, badu bere testugintza, irudigintza, metaforagintza, egiagintza berezia. Eta armadako testuen egintzaren egitasuna ‘deseraiki’tzeko biderik egon badago. ‘Etsaia’ren antzezkiak zernolako testua muntatzen duen begiratzea da bide bat.

ARMADA: DOMINAZIO-JOKO SAKONAK ANTZEZTEKO TEATROA

Botere eta nagusigo-harremanen analisi ez-ekonomikoak aurrera eramane daitezkeela erakusten du Derridaren filosofiak. Berdin erakusten du Foucault-enak. ‘Genealogia’, ‘deszendentzia’ eta ‘emergentzia’ nozioak ekartzearekin, Foucault filosofoak armadaren barruko mundu ideologiko-kulturala analizatzeko tresna arras egokiak hedatu ditu.

Foucault-ek aztertutako bi analisi-esparru dira aipatzekoak hemen: alde batean, gorputzarenganako botere-erak ikertu zituen; bestean, arrazionalitatearen (mundua eta errealitatea kontzeptualizatzeko) moduen eta botere-moduen arteko harremanak zituen arakatu.

Soldadutzan baditugu ezagutza militarren moduak eta botere-harreman beregisakoak, bertako praktika militarren erritualizatzen direnak. Zinez jakingarria da Foucault-en ‘emergentzia’ kontzeptua bete-betean aurkitzen dugula armadan. Zeren koarteleko ‘etsaia’ren dramatizazioaren atzetik gorputzarenganako botereak baitihardu.

Bi gorputzari daragie botereak koartelean: alderdi batean, soldaduen gorputz fisikoari daragio, bere gorputzarekiko lengoaia eta disziplina zehatzak

inposatuz; beste alderdi batean, gorputz komunitarioari daragio, soldaduak datozen gorputz (gizarte) zibilarekiko muga eta portaera jakinak bortxaz ezarriz¹.

Foucault-en lanak bi modutan argitzen du armadaren 'etsaia' ren metaforaren antzezpena. Foucault-en eritziz, alde batetik, garapen historikoa ez da prozesu historikoaren metaketa, baizik eta noizean behin agertzen den menperatasun-harremanen joko. Bestela esanda: dominazio-joko baten behin behineko azalpena. Esanguratsuki, armadaren etnografiak erakusten digu bertan suertatzen diren antzezkizunetan dominazio-joko funtsezkoak erritualizatzen direla.

Foucault-ek, beste alde batetik, ezagutzak diskurtsiboak direla azpimarratu du, erran nahi baita, errealtateari buruzko ezagutza batzuk azalekoagoak direla beste batzuk baino. Hala gertatzea iharduera politikoa da, diosku Foucault-ek. Are politikoa da bere erranahia finkatzea. Armadan ere 'etsaia' ren nozioa antzeztean definizio-jokoa agertzen da, erranahi batzuk besteen gainean inposatzean, bestetzu isiltzera joz edo bazterreratuz.

Beraz, errealtatearen esanguren produkzioan badugu ibilbide bikoitza: **esangura sozialaren kreazioa ez da egia sozialaren sinonimoa** (Marx-en eta Derridaren kritika); eta **ezagutza sozialaren egintzan ezagutza moeta asko menperatuta daude** (Foucault-en kritika). Biok kontutan hartu behar ditugu armadan antzezten den 'etsaia' ren nozioa miatzean.

Armadaren barne mundua ikertzerakoan bertako produkzio metaforikoari zein beronen esangura kulturalari begiratu behar diegula errana dut honainoko lerroetan. Halako xedeari ekiteko, zenbait izen eta ikuspegi teoriko hurbildu ditut irakurlegoarengana. Azkeneko bat nahi nuke labur-labur aipatu.

Antzezkizun kulturalak testuak direla esanda gaude Clifford Geertz-en bultzatutako antropologiatik. Armadaren etnografia testu kulturala balitz bezala analizatu behar dugula dakarkigu Clifford Geertz-en proposapen honek.

Antropologia moeta honi jarraikiz, kultura testua da, antzezten den testua, erran nahi baita, jendaurrera emaniko ekintzak eta iharduerak ikertuz gero, kultura horren funtsak eta erroak aurkitu ahal ditugula; areago: **testu kulturalen performantza publikoa bertako jendeak bere buruaz istorioak kontatzeko teatro bezalakatzen da**.

Idea hau ederki garatu zuen Clifford Geertz-ek *Deep Play: Notes on a Balinese Cockfight* idazlanean², non baitio antzezkizun kultural batzu 'joko sakonak' direla, hau da, pertsonen identitateak eta estatusak dramatizatzeke

1. Gizabanakoen gorputz fisikoarekiko eta gorputz sozialarekiko mugen eta inposaketen berri etnografiko ugaria Joseba Zulaikaren *Chivos y Soldados* liburuan bila daiteke.

2. *La Interpretación de las Culturas* liburuan bere gaztelerazko bertsioa dago.

antzeztokiak direla. Baliko adibidea ekarrita, Clifford Geertz-ek honakoa darakuskigu: antzekizun kulturalak direla medio kultura batek bere burua agertzen du, hala eginez bertako nortasun sozialak nola kontzeptualizatzen diren azaltzen delarik.

Gure galdera orain hauxe da: Zer antzezten da, zer istorio kontatzen dute soldaduek beren buruez, armadaren kontestu ideologiko-kulturalean ‘etsaia’ nozioa testu kultural bihurtzen denean? Alegia: zein da ‘etsaia’ metaforaren esangura armadaren koarteleako teatroan antzezten denean?

GOARDIA EGITEAREN ETNOGRAFIA

Koarteleko ‘etsaia’ren dramatizazioa **goardia** egitearekin gauzatzen da. Soldadutzaren erritualizazio militarrik beteena **goardia** zerbitzuan antzezten da, agerraldi militare honek ‘etsaia’ren irudia erdigune duelarik. **Goardiaren** deskripzioa eginda gero hobekiago jabetuko gara koarteleako iharduera honen inportantzia.

Goardia egitea zelatari ihardutea da. Armak hartuta eta berauek kargatuta koarteleako sartu-irteera eta kokagune estrategikoetan zelatari, adi izatea da **goardian** soldaduari dagokion betebeharra. **Goardia**, berez, armen zerbitzua da, eta anitz soldaduren ahotan:

guduka gehien gogorazten didan koartel-eginkizuna **goardia** duk, zeren koarteleko bizimoduan **goardia** baita armadak bere izakera berezia erakusten digun aktibitate bakarra; beste eginbeharrak, prestakuntzak edo *destino*-ak, hala nola bulegoko lanak eta garbiketak, mundu zibilean ere egiten dituk; koarteleko egunerokotasunean gu soldaduak garela eta armadan gaudela esaten digun zerbitzua **goardia** duk, batez ere **cambio de guardia** deritzan mementuan, bertako ekintzaren seriotasun, parafernalia eta eskakizunean usaintzen baitiok armadari bere izpiritua. **Goardian** berez soldadulana edo papera jokatzeko duk. **Goardian** sartzen haizenean heure buruak esaten dik militarra haizela.

Armak talde-lanean erabiltzeak bereizten ditu gizarte zibila eta gizarte militarra. Armak talde-lanean erabiltzen ikaste-prozesua oso garrantzizua da armadan. Militarra pertsona armaduna denez gero, gizarte zibiletik gizarte militararako jauzian armaren rola funtsezkoa da.

Soldadutzan zibilak soldadu, militar bihurtzen dira. Bihurtze hau luzea da, epeka gauzatuz. Lehenbiziko urratsean honakoa gertatzen da: pertsona bere ingurugiro zibiletik hartu eta C.I.R.ean, *Centro de Instrucción de Reclutas* izena duen tokira daramate. Hau bortxaz da. Joan nahi duenez ez zaio pertsonari galdetzen. Zentzu hertsian, pertsona hau bahituta suertatzen da.

C.I.R.ean uniformea emanen zaio. Baina ez da oraindik soldadua. *Recluta* da. Ez da zibila, ez da soldadua. Soldadugai den neurrian, C.I.R.ean ikaslea da.

Ikasketan hierarkia eta armak ezaugarri nagusiak dira, C.I.R.eko eskolak *instruzioa* eta *tiroa* baitira, armekin eta taldean egiten direnak. Gaur egun hilabete bat t'erdian burutzen du *recluta*-k bere ikasketa, noiz **juraren** ospakizun publikoan, **patio de armas** deritzan tokian, agintzen baitu aberriaren alde eta militar-gainekoen esanetara bakarrik erabiliko duela berari emandako arma. Ekintza beronek bihurtarazten du soldadu, armadun, militar, gerlarako gai eta prest.

Soldadua denez geroz, bigarren urratsa datorkio, soldadutegira joatea, koartelera, han postari, kamarero, sukaldari, idazkari, txofer eta abarreko gisaz *destino* bat emanda. Emandako zerbitzu honez gain, **armen zerbitzuak** bete behar ditu. Bereziki bi dira: bata, **goardia**; eta bestea, **errefortzua**.

Goardia inportanteagoa da, hogeita lau orduko zerbitzua da, ordu horietan zehar erritualizazio askotxo eta landuak daudelarik. **Errefortzuaren** zerbitzua **goardia** zerbitzuaren konplementarioa da. Gehigarria da, hots. Normalean gaueko zerbitzua da, koartelaren barneko gauza berezi edo baliotsuen segurtasuna hobeki zihurtatzeko.

Goardia zerbitzua eguneroko zerbitzua da, aldizka soldadu talde banak egiten duena. Zelatari iharduteko postuak ugariak dira, eta ezberdinak. Talde bakoitzeko soldadu guztiek hogeita lau ordu horietan zehar aldizkatzen dira postu denetan zehar.

Noski, atsedeen-ordu eta lotordurik bada. Hauexek ere txandaka betetzen dira. Loaldiak eta atsedeen-uneak, gau luzean baino, egunean eta gauean zehar motz eta etenda datoz. Ondorioz, neke-giroa berehala nagusitzen zaio soldadu-taldeari.

Hasieran zela-postuetako betebeharra ximplea da: zelatariak kanpotik koartelera norbait sartuko ote den. Ekinean, ordea, gauza konplikatuagoa da. Militar-gaineko esanak edo ordenuak oso jakinak dira: zela-postuaren aldean koartelera sartu edo koarteleatik irten nahi duenari **alto** emanda eguneko **kontrazeinua** eskatu behar zaio; gelditzen ez denari, edo eguneko pasahitzak ahora ekarri gabe sartu-edo-irtenean tematzen denari, tiroa bota behar zaio.

Pasahitzak ez dakizkienari ez zaio ametitzen ez sarbidea ez irtenbidea. Bere presentzia ez dago onartuta. Koartelerako arriskutsua da. Espazio militarren etsaia da. Koartelean kanpotarrik sartuz gero, norbaitek haren barruan kalterik eginez gero, egun hartako **goardian** dabilzan soldaduen errua da, eta zigorra latza da, falta ikaragarri larria baita kontzepzio militarrean.

Mundu militarearen ulerkerari eutsiz gero, **goardiaren** errepresentazioa goiko esperientzia da, esperientzia sakratua. Ikus dezagun zergaitik. **Goardiaren** ekintza fisikoari, literalari begiraturaz gero, kanpoko erasotik koartela defenditzea, edo defenditzeko prest egotea, da **goardia**. Hala ere, bere errepresentazio alegorikoari

kasu eginez gero, **goardia** honakoa da: gerlaren errepresentazioa, aberriaren kanpoko etsaien erasoari aurre egitea.

Koartele tako hormen osagarri estetikoak eta apainketak ikustean berehala jabetzen gara arestiko baieztapenaz. Koarteleko salek eta korridoreek orok badituzte beren muruetan oso nabarmen kokatuta koadro handiak non bakar-bakarrik Espainiako mapa agertzen baita, bere ziluetaren barruan kasko militarra, edo txapel militarra, edo arma bat dagoelarik. Espainiaren lurralde osoa militarri definitzen da; kanpotarren aurrean nortasun militarra ematen zaio.

Idea eta irudi hauek koarteleko estetikan ez-ezik, bertako eskola teorikoetan behin eta berriz plazaratzen dira. Lengoia militarrean, orduan, koartelak Espainia ordezkatzeko du, eta Espainia koartela da. Bata bestea da, eta alderantziz. **Goardiaren** antzekizuna, beraz, goi errepresentazio baten erritualizazioa da.

Goardiaren dramatizazioak erantzunkizun handia eskatzen dio bertan parte hartzen duen soldaduari, **goardialdia** osoan zehar erakutsi behar baititu puntako ezaugarriak: uniformearen dotorezia eta txukuntasuna, gorputz eta buruaren kontrol zuhurra, argitasuna; alegia, mementuro bere armarekin xahu, somakari eta esna agertu beharra. Jakina, orduak joan eta orduak etortzearekin ezaugarriok betetzea gero eta zailago zaio zelatariari, nekea agertzen da-eta. Logurea eta asperra.

Zelatari bakoitzak, bere zela-postuan kokatu eta, normalean bi orduz ohi dihardu, berak, bakarrik eta bere bakarrean. Zela-tokiak txikiak izaten dira, hotzak neguan eta beroak udan. Inolaz ere ez du handik joaterik ondoko txandako soldaduak bere tokia hartu arte, *errelebu*a etorri arte. Eraberean, inondik inora ez du arma bere eskutik lagatzerik.

Distrakziorik ez dira onartzen. Ondorioz, irrati txikirik, zigarrorik erretzerik, karta-jokorik, irakurtzerik, izkribatzerik, ezer jan edo edaterik, ez da ametitzen. Kanpora, letorkeen ‘etsaia’ri begiratzailerik ari izan baino, deus ez da onesten. Zigorrak ezin garratzagoak dira.

Goardian diren soldaduen kopurua koartel bakoitzaren eta beronek dituen ‘defentsa’ beharkizunen arabera erabakitzen da. **Goardialdiaren** sekuentzia, normalean, honelakoxea izaten da: bi orduz postu batean; beste bi orduz beste postu batean; bi orduz atsedenez; bi orduz postu batean; beste bi orduz beste postu batean; bi orduz atsedean; eta horrela hogeita lau ordu bete arte.

Soldadu bakoitzak koarteleko zela-postu guztietan zehar igaroten da. Atsedendialdiak **goardiako** aretoan egiten dira, beste soldaduengandik aparte. Bertan egiten da loa, jan-edana, elesta eta denborapasa.

Goardia aurki egiten zaie soldaduei denbora luze eta lerdo. Oraingo soldadutza urtebetekoa dela, eta soldaduak **goardian** astean behin edo birritan aritzen direla kontutan harturik, segituan ikusten dugu poliki-poliki aldatzen dela **goardiaren** esangura soldaduen kontzientzian.

Klase teorikoetan eta barneko ikonografiaren bidez aldarrikatzen den mezu ofiziala puskatzenago doa zelatariek beren **goardiaren** dramatizazio praktikoa gero eta gehiago jokatzearekin. Aberria defenditzeko goi drama eta ohore sakratua errepresentatu beharrean, **goardia** egiteak komedia-kutsua hartzen du.

Denbora aitzina joanez, koartelaren kanpotik barnera inor ez etortzeaz gain, zelatari zintzo eta zorrotza izatea oso zaila dela ikasten du soldaduak, zeren **goardialdia** baita, ihardunaldia baino, egonean egon beharra, luzera handiko egonaldia.

'Etsaia'ren lekuz, koartelek kanpo hiriak, herriak, soroak edo basamortuak daudela fite ikusten du soldaduak; hau da, laster daki zelatariak hor kanpoan dagoena bera datorren mundua dela; bere gizartea, gizarte zibila. Jakin ere soldaduak laster daki beroni zelatan ihardutea alperrikako lana dela, gizarte armaezduna da-eta.

Soldadutzaren denboran eta **goardialdian** aurreratu orduko, soldadua bere postuan gogaitu, lokartu, hoztu, izerditu egiten da. Loak ustekabeen harrapa ez dezan, dibertimendurik bilatu behar du. Neguan hotzak aka ez dezan, zerbait asmatu behar du.

Eta ahal dituen estrategiak garatzen ditu: irrati txikiak, zigarroak, kartak, aldizkariak eta argigailuak eraman; iratzargailua *errelebuaren* ordua heldu baino pixkat lehentxoago jarri; edo zailtasun tekniko handirik ez balego, zela-postutik kanpoaldera joan, kafetegia batean edariren bat hartzeko.

Estrategia hauek garatu ahala, haien arriskua neurtzen du soldaduak. Soldaduak badaki edozein mementutan militar-gainekoren bat datorkiokeela bere postura *nobedade* eske. Zeren **goardia** egiteak hierarkiaren arabera egindako ekintza da. Koarteleko muga eta ertzetan *tropa* dago, hau da, soldadu arruntak. Hauen lana koordinatu eta kontrolatzeko, **goardiako** azpi-ofizialak daude, eta berauen gainetik **goardiako** ofiziala. Azpi-ofizialak eta ofiziala militar profesionalak dira.

Azpi-ofizialak ere bai aspertzen dira beren egonaldian, eta batzutan entretenimendu gisa, beste batzutan hierarkian gora joateko merituek irabaztekotan, ezkutuan eta isilpean hurbiltzen zaizkie soldaduei berauek hutsean harrapatzeko asmotan. Portaera honen ondorioz, soldadutzako soldadua, hau da behin behineko soldadua eta soldadu profesionala elkarren arteko joko berezi batean sartzen dira.

Zelataria kanpoko ‘etsaia’z zeharo ahaztuta dagoela ikusten dugu. Kanpoko ‘etsaia’ren tokia militar profesionalak hartu du. Soldaduak barnera begiratzen du, barnera dabil beldurrez edo mesfidantzaz, ‘etsaia’ barnetik baitatorkioke.

Goardiaren praxian dramatizatzen den ‘etsaia’, beraz, ez da kanpoko ‘etsaia’, baizik eta barneko ‘etsaia’. Alegia, ‘etsaia’ ez dago koarteleatik at, baizik eta koarteleatik barne. Areago, joko honen protagonista sozialak eta historikoak zein diren pentsatzen jartzen baldin bagara, konklusio arras esanguratsuak elkitzen ditugu.

Lehenbizi ikusten dugu zelataria gizarte zibiletik bahitutako pertsona bat dela, bere nahiaren kontra hor ezarria. Bigarrenez esaten zaio pertsona honi bere gizartea goiatatuz arma bat eskutan ihardun dezan, hortik arriskua datorrela aipatuz.

Beste alde batetik ikusten dugu soldadu hau behin behineko militarea dela, urtea bete ondoren berriro gizarte zibilera itzuliz. Aldi berean ikusten dugu soldadu honek benetako ‘etsai’ztat hartzen duen irudia ejerzito profesionala dela.

Antzezten den jokia sakona da, zeren protagonistak gizarte zibila eta gizarte militarra baitira, biak aurrere aurre eta elkarren aurka azaldurik **goardiaren** erritualizazioa dela medio.

Koartelean errepresentatzen den istorio bat da **goardia**, Espainiako historia hurbila gogorazten diguna. 1936. urtean gizarte eta botere militarrek gizarte eta botere zibilar indarkeriaz aurre hartu nahi izan zion. 1939. urtean bere nahia bete zuen. Ordudanik oraintsu arte gizarte militarrek gizarte zibila eta beronen baloreak zapaldu ditu. Neurri handi batean, Espainiako historia hurbila *pronunciamiento* militarren eta *golpe de estadoaren* historia da.

Militarrak ez dira gizarte zibilaz fido, eta gizarte zibila ez da gizarte militarraz fido. Hauxe bera antzezten du **goardiaren** egite praktikoak, nahiz eta **goardiaren** egite ideologikoak aldarrikatu **goardia** aberriaren alde sinbolikoki odola eta bizitza ematea dela, ohore sakratu eta handia.

Antzezkizunetan eta ekoizpen kulturaletan, Raymond Williams-i (1989) kasu eginez gero, **sentimentuen egiturak** aurkitzen ditugu. Nabarmen dago militar profesionalen sentimentuen egitura eta soldadu arruntena ez dela gauza bera.

Errealitate sozio-kulturalen definiziozintzan praktika eta ideologia nahasten dira, esangurak lehian agertuz.

Armadaren antzokian drama bikoitza dago: batean, Espainiako historia sozialaren drama hurbila; bestean, soldaduarena. Bietan gizarte militarrek gizarte zibilean bere botere gutzia inposatzen du.

Armadaren 'etsaia' metaforaren errepresentazioa soldaduen ikuspegitik begiratur gero, 'etsaia' bakarra da: ejerzito profesionala. Halaxe dio **goardiaren** antzekizunak. Halaxe dio Espainako historia hurbilak. Lehenago aipatu bezala, Clifford Geertz antropologoaren ustetan, erritualizazioak partehartzaileek elkarri istorioak kontatzeko iharduerak dira. **Goardiaren** erritualizazioak kontatzen duen istorioa historia da: gizarte zibilak 'etsai' handia du, gizarte militarra.

PERFORMANTZEN ANITZ-ERRANAHIATASUNA

Metaforen jokoaz eta beren esanguren produkzioaz ari izan naiz. Gizarte signifikantzen atzetik talde sozio-kultural eta ekonomiko asko egonda, beren interesak eta helmugak kontrajarriak suertatzen dira maiz.

Errealitate sozialei buruzko metaforak beren praxian ikertu behar ditugula izan da hemengo argudioa. Beren praxian ikertu ondoren, gogoeta egin. Hau dela-eta, koartelelan mundubisio militarren errealitatea tankeratzen duten metaforak koartelelan praxiak dakartzen erreferenteekin esaminatu behar ditugu. Guk hala egin dugu 'etsaia'ren metafora bere antzekizunean hona ekarrita; **goardia** zerbitzua behatuta, hots.

Antzekizunari begiratur gero, paradoxikoki, soldaduen 'etsaia' armada profesionala dela aurkitzen dugu; alegia, ejerzitoaren instituzioa bera. Militarren mundutik behin eta berriro aldarrikatu izan da armadak beharrezkoak direla, hor nonbait kanpoaldeko 'etsaia' jagole dagoelako; erran nahi baita, lo edo ageri-agerian dagoen 'etsaia' (esistitzen) delako.

Halako baieztapena sinesgarria izan dadin, 'etsaia'ren irudiak 'identifikatu', 'eratu' behar dira. Eta eraberean, irudiok dramatizatu. Hau da, fisikoki edota imaginarioan 'etsaia' sortarazi, eta 'etsaia'ri eutsi behar zaio.

Pentsamolde militarrek indar egiten du armada errealitate legitimitzat har dezagun. Bidezko, legezko eta beharrezko errealitatetzat, hots. Egiatzko edo ustezko armaden arteko konfrontazioan oinarrituta aurkezten du pentsamolde militarrek bere burua. Halakoa adierazpen tautologikoa da: armadako jendeen arteko aferak daudelako daude armadak eta armadako jendeak; eta alderantziz.

Aldiz, errealitate militarren bestelako definiziorik badago. Definizio ofizialaz gain, koartelelan 'etsaia'ren dramatizazioak baita ere jakinarazten du, armaden arteko gatazkaz baino, gizarte zibilaren eta gizarte militarren arteko gatazkaz gogoeta egin behar dugula. 'Etsaia' ez dugu armada bat beste armada batekin harremanean, baizik eta gizarte zibila instituzio militarrekiko harremanean.

Public transcript-ak eta *private transcript*-ak bereiztu ditu J.C. Scott (1990) antropologoak. Aurrenak instituzio, jende haundien, nagusien esanahi ofizialak dira, beraien aitzinean menpekoek antzetzen dituztenak. Bigarrenak menpekoen definizioak eta esangurak dira, beraien artean bakarrik aitortzen direnak.

Soldadutzan berdin suertatzen da. **Goardia** egiteak performantza beregisakoa dakar, bere erranahia ere bai. Erranahian, horratio, koska bada, zeren eta badugu performantzaren erranahi ofiziala, militare profesionalarena; eta baita ere badugu performantzaren erranahi pribatua, gizarte zibiletik bahituriko soldaduena, hain zuzen ere.

BIBLIOGRAFIA

- Fernandez, J. (1974), "The Mission of Metaphor in Expressive Cultures", *Current Anthropology* 15 (2), 119-145.
- (1977), "The Performance of Ritual Metaphors", in Sapir, J. & Crocker, J.C. (arg.), 1977, *The Social Use of Metaphor*, Philadelphia, University of Pennsylvania Press.
- (1984), "Convivial Attitudes: The Ironic Play of Tropes in an International Kayak Festival in Northern Spain", in Bruner, E. (arg.), *Text, Play and Story*, American Ethnological Society, New York.
- Foucault, M. (1977), *Discipline and Punish: The Birth of the Prison*, New York, Pantheon.
- (1978), *The History of Sexuality*, New York, Pantheon.
- Geertz, C. (1973), "Deep Play: Notes on a Balinese Cockfight", *The Interpretation of Cultures*, New York, Free Press.
- Lakoff, G. eta M. Johnson (1980), *Metaphors We Live By*, Chicaco, Chicago University Press.
- Ryan, M. (1982), *Marxism and Deconstruction: A Critical Articulation*, Baltimore, The John Hopkins University Press.
- Sapir, J. eta Crocker, J.C. (arg.) (1977), *The Social Use of Metaphor*, Philadelphia, University of Pennsylvania Press.
- Scott, J.C. (1990), *Domitation and the Arts of Resistance*, New York, Yale University Press.
- Smart, B. (1983), *Foucault, Marxism and Critique*, London, Routledge.
- Williams, R. (1980), *Problems in Materialism and Culture*, Londres, New Left Books.
- Zulaika, J. (1989), *Chivos y Soldados*, Donostia, Primitiva Casa Baroja.

GASTU MILITARRA: ESTATU ARRAZOIA

Luzio Tabar
“Gerrarik Ez” taldeko partaidea

Gastu militarra urte bakoitzeko udazkenean erabakitzen da, estatuek hurrengo urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituztenean. Aurrekontu hauetan partida ezberdinak dira (helburu ezberdinetarako diru kopuruak) eta hauetariko bat, partida militarra da, gastu militarrik. Gastu hauek erabilpen ezberdinak dituzte, baina nagusiak hiru dira:

- Armadako partaideei ordaintzea
- Mantenimendua: janaria, jantziak, maniobrak ordaintzea,...
- Inbertsioak: arma sistemak erostea eta gaurkotzea:
 - Ikerkuntza: honetarako, gastu bakarra ez da estatuek egiten dutena. Unibertsitateek, zenbait instituto berezik ere gastatzen dute.
 - Arma inportatzea.
 - Estatuan bertan arma erostea.

MUNDUKO GASTU MILITARRA

Zenbait aipamen

- Munduan, 850.000 milioi dolar gastatzen da urtean armamentuan. Hau da, 300.000 milioi dolar egunean, edo bestela esanda, 3.473.000 pezeta segundu bakoitzean.
- Munduko gastu militarra, munduko biztanlegoaren erdirik pobreenak irabazten duena baino gehiago da.
- 1960-1990 bitartean, gastu militarrik, hezkuntzan gastatutakoa baino 2 biloi dolar gehiago izan dira eta osasungintzan gastatutakoa baino 6 biloi dolar gehiago.

Gaur egun

Sobiet Batasuna desagertu zenean, gerra hotza bukatzean, nolabaiteko itxaropena sortu zen, gastu militarrik gutxituko ote ziren edo. *Bakearen dibidendoa* askotan entzuten zen esaera genuen. Frantziako lehendakaria zenak, Mitterrandek berak, esan zuen gutxituko ziren gastu militar horiek honela banatuko

zirela: heren bat Hirugarren Mundurako, beste heren bat Ekialdeko herrietarako eta beste herena herri garatuatarako.

Esan behar da % 20ren bat gutxitu direla orokorrean, baina proportzio ezberdinetan:

- Sobiet Batasun ohia: % 50.
- Estatu Batuak: % 25 (baina hala ere, Reaganen mandatuaren hasierakoak baino % 120 haundiagoak dira).
- Alemania: % 10.
- Ekialde Urrunean eta Ekialde Hurbilean berriz, haunditu egin dira.

Dena den, gutxitze honek ez du aipatutako *bakearen dibidendorik* sortu. Estatuetakoa aurrekontu orokorrak orekatzeko, estatuetakoa zorrak gutxitzeko baino ez du balio izan.

ESPAINIAKO GASTU MILITARRA

Historia pixka bat

Espainian, gastu militarra dela eta, joera aldaketa haundia izan zen 1980. urtearen inguruan.

Francoren garaian, armada biztanlegoaren kontrolerako armada zen, eta oso haundia bazen ere (soldadu eta *mando* asko), armamentu aldetik eskasa zen.

Baina Unión de Centro Democráticoren (UCD) garaia bukaeran eta sozialistekin batez ere, hau dena aldatu zen:

- ofizial asko jubilarazi zuten (ekonomikoki inolako kalterik jasan gabe).
- NATO n sartzearekin batera, militarrek gainerako Estatuetakoeekin parekatzeko nahia erakutsi zuten.

Gainera, PSOEk, UCDren garaian egindako *Ley de dotaciones presupuestarias* izeneko legea onartu zuen. Lege honek zioenez, hurrengo 8 urtetan, armamenturako inbertsioak haundituko ziren. Honek bultzada ikaragarria eman zion armamentu industrigintzari. Gainera, arma pilo bat inportatu egin zen (1984. urtean munduko lehen inportatzailea izan zen Estatu espainola: FACA programako 72 hegazkin).

Beste alde batetik, nazioarteko armamentu plangintzetan parte hartzen hasi zen. NATOko bileretara eta Frantzia eta NATOren arteko harreman berezia dela eta, Estatu honek armamentu ekoizpenean parte hartu ahal izateko sortutako *Grupo*

Europeo Independiente de Programas izeneko taldeko bileretara joaten ziren ordezkari espainol ofizialek kontatzen dute, armamentu programa berri bat onartzerakoan, lehendakariak esaten zuela: “Espainaz gain, zeinek hartuko du parte programa honetan?”.

80. hamarkada bukaeran egoera aldatu zen eta Estatuko armamentu industrigintza arazoak izaten hasi zen, gastu militarrek gutxitu ez baziren ere.

Espainiako benetako gastu militarra

Azken urteotan, behin eta berriro errepikatzen digute bai militarrek bai arma-ekoizleek nola Gobernuak hala alderdi politiko gehienek, Espainiak Europako gainerako Estatuak baino askoz ere gutxiago gastatzen duela afera militarretan eta 2000. urterako Barne Produktu Gordinaren % 2 gastatzera iritsi beharko lukeela. Datu hau gezur hutsa da.

1. Defentsa Ministeritzaren aurrekontua

Espainian, gastu militarizat Defentsa Ministeritzaren aurrekontua besterik ez dute hartzen, militarrek diren beste gastu asko kontutan hartu gabe. Ikus dezagun: 1995.eko hasierako aurrekontu hau 866.499 milioikoa zen, 1994. urtekoa baino % 7,6 haundiagoa. 866.499 milioi hauetatik, %53,5 (463.330 milioi) soldatak ordaintzekoa zen; % 28,7 (248.905) inbertsioetarako eta % 17,8 (132.034) instalakuntza eta materialaren mantenimendurako. Aurrekontu hau, Barne Produktu Gordinaren % 1,27 zen.

Ondoren, aurrekontuen murrizketa egin zuen Gobernuak eta Defentsa Ministeritzaren aurrekontutik 11.882 milioi kendu zuen. Beraz, azkenean 854.617 milioikoa da.

Aipatzekoa da Defentsa Ministeritzaren aurrekontua (eta ez dut esaten gastu militarra) haunditzen den bigarren urtea dugula (1994. urtean % 6,6 igo zen) aurreko urteetako joeraren aurka. Honek ez du esan nahi aurreko urte horietan gastu militarra gutxitu zenik, Defentsa Ministeritzaren aurrekontuari dagokion gastu militar orokorraren zatia gero eta txikiagoa zela baizik.

2. NATOren irizpideak

Espainiak izan ezik, NATOko gainerako Estatuak irizpide berberak erabiltzen dituzte gastu militarrek neurtzeko. Espainiak berriz, zenbait gastu militar beste zenbait ministeritzaren aurrekontuetan izkututzen ditu. Honako hauek ditugu:

- Defentsa Ministeritzako “organismo” autonomoen gastuak. Garrantzitsuenak: *Instituto Social de las Fuerzas Armadas, Instituto para la vivienda de las Fuerzas Armadas, Instituto Nacional de Tecnología*

Aeroespacial eta *Gerencia de Infraestructura de la Defensa* delakoak. Hauek aurrekontu propioa dute: 1995.ean, 110.573 milioi.

– Militarren pentsioak, Lan eta Giza Asegurantzak Ministeritzak ordaintzen dituenak: 1995.ean, 331.864 milioi.

– *Guardia Civil*-aren aurrekontua. Militarra denez, gastu militartzat hartu beharko lukete, baina Justizia eta Barne Ministeritzaren aurrekontuetan agertzen da. 1995.ean, 269.298 milioi.

– Beste zenbait ministeritzatan diren partida militarrek, batez ere Kanpo Arazoetarako Ministeritzak NATOri eta Mendebaldeko Europako Batasunari (MEB) ematen diena. 1995.ean, 1.229 milioi.

Beraz, NATOren irizpideak erabilita, Estatu Espainoleko gastu militarra ez zen, urte horretan, 854.617 milioikoa, 1.567.581 milioikoa baizik, % 82 haundiagoa.

3. Gure irizpideak

Guk gainera, gastu militartzat, kontzientzi eragozpenari dagozkion aurrekontuak ere sartzen ditugu, gaur egun militarizaturik baitago gure ustez. Beraz, Espainiako gastu militarren aurrekontua 1995. urterako, 1.571.298 milioikoa da, hau da Barne Produkto Gordinaren % 2,3. Honek baieztatzen du lehen aipatu duguna: politikari eta militarrek, 2000. urterako gastu militarrek Barne Produkto Gordinaren %2 izatera iritsi beharko lukeela esaten dutenean, gezurretan ari dira (ez baitut uste murriztu nahiko dutenik), gaur egun haundiagoa baita.

Dena den, esan beharra dago, aurrekontu hauek ez direla benetako gastu militarra. Denok dakigu aurrekontuetan agertzen dena, askotan, ez datorrela bat benetan gastatzen denarekin. Aurten ez dakigu zer gertatuko den, baina aurreko urteetan Defentsa Ministeritzak aurrekontuetan jarritakoa baino 100/150 mila milioi gehiago gastatu ditu, hau da, % 10/15 gehiago.

Gainera, urteoro, Estatuak zor publikoa atera ohi du, diru aski ez baitu biltzen gastu guztiei erantzuteko. Zor publiko honek sortzen dituen interesen zati proporzionala Defentsa Ministeritzari dagokio eta gastu militartzat hartu beharko genuke.

Beraz, gaur egun, konta daitekeen gastu militarra Estatu Espainolean, Barne Produkto Gordinaren % 2,4/2,5 da eta 2000. urterako % 2 izatea nahi badute, murrizten hasi beharko dute.

4. Kontaezina/kontagaitza den gastu militarra

Ohartu bazarete, “konda daitekeen” aipatu dut oraintxe; izan baitira kontaezinak edo kontagaitzak diren beste zenbait gastu militar. Adibidez:

– Udal guzti guztiek soldadutzara joan behar duten herritarrak direla eta gastatzen dutena.

- Zenbait infraestruktura, Herrilanetarako Ministeritzak ordaintzen dituenak: zenbait errepidetako zolu berezia, lehentasun militarra duten hegazkinetarako pistak, egoera berean dauden kaiak,...
- Armamentu industriek jasotzen dituzten laguntzak: bai estatalak, bai autonomietakoak nola udaletakoak.
- Armamentu entpresa publikoen galerak (Industrigintza Ministeritzak ordaintzen dituenak).
- Garapenerako Laguntza Fondoak: 1980-1990 bitartean, Estatu Espainolak fondo hauetako 61.776 milioi pezeta armamentua saltzeko erabili ditu, osoaren laurden bat. Hau ilegala da, nazioarteko akordioek debekatzen dute.
- Zerbitzu Militarra eginen ez balute, soldadu horiek guztiek denbora horretan ekoiztuko luketena.
- Industrigintza edo Hezkuntza Ministeritzek ordaindutako zenbait ikerketa, helburu militararak edo erabilpen bikoitza izanzen dutenak.

Hau guztia eta aurrekoa batuz gero, benetako gastu militarra izanen genuke, edo dexente hurbilduko ginatke. Dena den, hemendik aurrera erabiliko ditugun kopuru eta portzentaian, kontaezinak edo kontagaitzak diren partida hauek ez ditugu kontutan hartuko. Gainera, aurrekontuak direnez, Zor Publikoaren interesen zatia eta urte bukaeran, balantzea ixtean, izan daitekeen gehiegizko gastua ere, alde batera utziko ditugu.

1995.EKO GASTU MILITARRA DELA ETA

Zenbait aipamen

- 1995.ean, egunero, 4.385 milioi pezeta gastatu genituen.
- Beste zenbait ministeritzaren aurrekontuak, Defentsa Ministeritzarenarekin konparatuz gero, honako portzentaia hauek aterako zaizkigu:
- Giza Aferak: % 3,3
- Kultura: % 4,6
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura: % 12,6
- Hezkuntza eta Zientzia: % 72,8

1995ean gehien haunditu ziren partidak honako hauek dira:

- *Guardia Civil*-arena, aurreko artekoa baino % 27,2 haundiagoa
- Kontzientzia Eragozpenari dagokiona: % 44,6 haundiagoa

Ikerkuntza

Aipatzekoa da, beste alde batetik, ikerkuntza militararak duen garrantzia. 1995ean 48.465 milioi gastatu zuten. Estatuak ikerkuntza zientifikoetan gastatzen

duenaren % 23,5. Portzentaia hau estatu nuklearrek besterik ez dute gainditzen. Konparaketak egiten hasiz gero:

- Osasungintzaren inguruko ikerkuntzak lau aldiz txikiagoa du aurrekontua.
- Hezkuntzari buruzko ikerkuntza eta ebaluaketa, 80 aldiz txikiagoa da.

Armamentu erosketak

Armamentua erosteko berriz, 248.905 milioi erabiliko dituzte, % 15,7. Programarik garrantzitsuenak honako hauek ditugu:

- EFA izeneko gerra hegazkina, Europako beste zenbait estaturekin batera 1995.ean ekoizten hasi zena. Orain arte ikertzen eta garatzen aritu dira eta Estatu Espainolak 120/150.000 milioi gastatu ditu dagoeneko. 1995.ean aurrekontuetan 20.000 milioi dagozkio programa honi eta kalkulo ofizialen arabera, 2013. urtean, 87 hegazkin erosiko ditu Espainiak, kostu orokorra 850.000 milioikoa izanen delarik.
- *AV-8B Plus* izeneko hegazkina (EEBB eta Italiarekin batera), ekoizpen fasean dagoena: 17.308 milioi aurten. Osotara, sei urtetan, 51.442 milioi.
- Hemezortzi *F-1* hegazkin erostea: 8.928 milioi 1995.ean. Osotara, 3 urtetan, 19.104 milioi.

Eta dena den, ez pentsa datozen urteetan joera aldatuko denik. Adibidez, *Plan Norte* delakoak, lur armada eguneratzeko plangintza orokorrak, 2002. urterarte bilioi erdia hartuko du. Eta abar, eta abar, eta abar.

ETA EUROPAN, ZER?

Hala ere, gure agintariak gezurretan ari badira gastu militarra Barne Produktu Gordinaren % 2 baino txikiagoa dela esaten dutenean, arrazoia dute esatean Europako Batasuneko gainerako estatuek baino gutxiago gastatzen duela Espainiak.

Gainerako Estatu hauen gastu militarra bataz beste, Barne Produktu Gordinaren % 2,7 da eta Espainian berriz % 2,4/2,5. Hau da, gainerakoek gastatzen dutenaren %90 inguruan.

Baina beste zenbait arlo ikusten badugu, ezberdintasunak nabariagoak dira. Adibidez:

- Ikerkuntza zientifikoa: %35.
- Garapenerako elkarlaguntza: %55.
- Osasungintza: %83.
- Hezkuntza: %85.

BESTELAKO DATU BATZUK BUKATZEKO

- Submarino batek 1.500ren bat milioi dolar balio du.
- Tanke bakar baten balioarekin 4.000 tona arroz eros daitezke, urte oso batez 24.000 lagun elikatzeko haina.
- *MX* misil baten balioa aski da 50 milioi ume elikatzeko edo 65.000 osasun zentro irekitzeko edo 340.000 eskola eraikitzeko.

BIBLIOGRAFIA

- “Gasteizkoak” taldea (1995a), *El verdadero gasto militar (txostena)*, Gasteiz.
- “Gasteizkoak” taldea (1995b), *Informe sobre el gasto militar para 1995 y las exportaciones de armamento en 1994*, Gasteiz.
- Gómez Gil, C. (1994), *España y la ayuda oficial al desarrollo: Los créditos FAD*, “Centro de Investigación para la Paz (Madril)” eta “Seminario de Investigación para la Paz (Zaragoza)”.

INSUMISIOAREN ERAGINA EUSKAL GIZARTEAN

*Rafael Ajangiz
EHUko irakaslea*

Gizarte mugimenduek gizartean eragina izan nahi dute, hau da, gizarte aldaketak sortarazi nahi dituzte. Hori da beraien helburua eta asmoa, izateko arrazoia. Askotan eragin hau argi eta garbi atzematen da. Baina nolakoa izan den edo noraino heldu den zehazteko orduan, adituen artean eztabaida eta desakordio itzelak sortzen dira. Eta insumisioa, noski, ez da salbuespena izango.

Izan ere, eta gaia sortu berria izateaz gain, eztabaida honek hiru arrazoi ditu oinarri. Lehenengoa, politikarekin erlazionaturik gauza guztiak bezala, interes haundiak eta kontrajarriak daudelako. Nola ez, arlo honetan inportanteena ez da benetan gertatutakoa, memoria kolektiboan geratuko dena baizik. Hots, arrazionalitatea, insumisioari buruzko azalpena. Horrexegatik idazten dira hainbat eta hainbat liburu, eta horrexegatik aktore politiko guztiak insumisioa bereganatzen saiatzen dira.

Bigarrena arrazoi teknikoagoa dugu: gizarte mugimenduak estudiatzen dituztenek eraginari buruz oso gutxi aztertu dute. Izen ezberdinekin –atarramenduak, ondorioak, efektuak, inpaktoa, arrakasta, besteak beste–, askotan aipatu da gaia. Baina sistematikoki bakan batzuk.

Eta hirugarrena, neurtzeko zailtasuna. Non eta nola erakusten zaigu mobilizazioaren eragina? Nola frogatu mugimenduarena dela? Zein unitate hartu hori neurtzeko? Nola balidatu prozesu osoa?

NEURTZEKO ZAILTASUNA

Insumisioak gizartean duen eragina neurtzerakoan, prozesu logikoena hau liteke: insumisioaren helburuak zerrendatu, dagokien aurreko eta ondoko egoera soziala neurtu eta parekatu, adierazle objektiboak eta fidagarriak erabiliz, eta azkenik diferentziak edo etekinak zenbakitu eta baloratu. Zuzena dirudi, gero. Hala eta guztiz ere, autore gehienek ustetan horrelako prozesua oso gaitza da, oso zaila.

Zergatik hori? Besteak beste, hurrengo eragozpenak aurkitzen ditugulako (Rucht 1992, Giugni 1994). (1) Gizarte mugimendua ez da aktore politiko bakarra

–beste batzuk ere badaude–, eta beste faktore estruktural batzuk eta bitarteko aldagaiak ere tartean sartzen direla kontutan hartuta, ezin dugu kausalitatea frogatu, mugimendu eta eraginaren arteko kausa-ondorio harreman zuzena, alegia. (2) Jasotako balorazioak –askotan daukagun indikadore bakarra– subjektiboak izango dira beti. (3) Ikerketaren emaitzak, eta balorapenak hain zuzen ere, etekinak edo ondorioak neurtzen ditugun momentuaren arabera izango dira beti. Hau da, zerbait dinamikoaren aurrean gaude. Eta honekin lotuta: (4) denbora pasa ahala mugimenduaren helburuak ere aldatzen dira. Edo hobeto esanda: hasieratik helburuen matrizearen edukin gordina bera bada ere, helburuen arteko harremanak eta ondorengo hierarkiak aldatzen dira. Beraz, hasieran premiazkotzat hartzen zen helburuak geroago beste bati utziko zion lekua. Hau da, esaterako, derrigorrezko soldadutzaren deuseztapen eskaerarekin gertatu dena. Insumisioa sortu zenean, hori zen nagusi. Gaur egun, ordea, ejerzitoaren abolizioaz eta gizarte desmilitarizazioaz mintzatzen da.

Gauzak horrela, insumisioa bezalako mobilizazioaren eragina neurtuz gero ondorengo joera dinamikoak hartu behar dira aintzakotzat: (a) denboraren aldakortasuna, (b) espazioaren aldakortasuna, (c) mugimenduaren barneko aldakortasuna, (d) eta inguru politiko eta kulturalaren aldakortasuna. Funtsean, gure aurrean gizarte prozesu dinamikoenetarikoa bat dugu eta argazki finkoek ez dute ezertarako balio.

MUGIMENDUAREN HELBURU MATRIZEA

Xede zaila bai, baina ez ezinezkoa. Ikerketa diseinu on baten bidez eragina azaltzera hurrera gaitzkeela onartu behar da. Horren zain geratzen garen bitartean, eta laguntzeko asmoz, urrats bi emango ditugu gaur: mugimenduak duen helburuen matrizea ezagutu eta zer nolako inguruan lan egiten duen deskribatu. Honela gizarteari nondik nora eragin nahi dion jakingo dugu.

Demagun helburuak hauek direla –honetaz gehiago zehaztu beharko da, mugimendu erakundeen artean desadostasuna omen dago–, behintzat Kontzien Eragozpen Mugimenduak (KEM) zabaldu dituenak: (a) konskripzioa, militarra nahiz zibila, ezabatzea; (b) ejerzitoen abolizioa; (d) armagintza desagertaraztea ekoizpen zibilera birmoldatuz; (e) biolentziara jo gabe gizarte gatazkak konpontzea; (f) giza eta gizarte balioak sendotzea, beraz elkartasunik ezari, autoritarismoari, hierarkiari, norberekeriari, xenofobiari, matxismoari, ingurugiroaren aurkako erasoei, eta abarrei aurre eginez; (g) eskusio praktikei eta ideologiei ere aurre egitea; eta (h) justizia sozialaren alde gogor lan egitea, beraz Iparra eta Hegoaren arteko muga –Iparrean Hegoarena barne– desagertaraziz. Hau da mugimenduak duen antimilitarismo eta militarismoaren kontzeptua, “gizarte desmilitarizazioa” esamoldean barneratzen duena.

Kontzeptu horrek ez du zer ikusirik orain arte sustatu den “militarismo” kontzeptuarekin: esparru zibilean militarrek sartu eta beraien lehentasunak inposatu (Shaw 1991). Kontzeptu hau nagusia da oraindik, itxuraz urte askotarako. Hala eta guztiz ere, “bake positiboa” eta “biolentzia estrukturala” kontzeptuekin estuki erlazionaturik, mugimenduak gizarte egituraz eta giza harremanaz interpretazio berri bat proposatzen digu.

GIZARTEA: MUGIMENDUAREN INGURUA ETA HELBURUA

Askotan eragin edo arrakasta politikotzat politika formal hertsia ulertzen da, hots, egondako erabaki politikoak, batez ere legeekiko atarramenduak. Abiapuntu honek mugimenduaren eta Gobernuaren arteko harreman zuzenari erabateko garrantzia ematen dio, beraz zentro eta periferia, nagusi eta nagusi gurako kategorietara joz. Lehengo garaietako eskemak.

Izan ere, hau ez da batere zuzena gizarte mugimendu berrien kasuan, insumisioaren kasuan. Zeren honek gizarteari begira jokatzeko baitu batik bat, eta ez Gobernuari begira –«oriented not to the existing power but to civil society» Cohen-en (1985) hitzetan–. Gizarte zibila da nagusi –herri adiera (Ortego, 1993), ez neoliberala–. Gizarte zibilean osatzen eta mobilizatzen da mugimendua eta gizarte zibila da mugimenduak bere balioak eta diskurtsoak bultzatzen dituen esparrua.

Hau dela eta, joku politiko formala bakarrik hartzea urritzea delakoan, inguruaren kontzepturik zabalena hartuko dugu, esaterako Rucht-ena (1995). Rucht-ek “inguru egitura”-ren kontzeptua aurkezten digu. Eta “inguru egitura” horren barruan hiru esparru daudela dio: inguru kulturala, inguru soziala eta inguru politikoa.

Inguru kulturala lagunaren joerez eta jokaerez osatuta dago. Hortaz, lagunaren interesak, esperientziak eta balioak ukituta dauden heinean, emango dizkiote mugimenduari beren laguntza, kidetasuna eta inplikazioa. Mugimenduak horrexegatik bultzatzen du diskurtso eredu bat eta ez bestea. Diskurtsoa, esplizitua nahiz inplizitua, da hemen nagusi. Hau gaiaren agerpena, markoa edo “framing” deitzen da. Hortaz, komunikabideekiko harremana arazo zentral bihurtzen da gizarte mugimenduaren estrategia barruan.

Inguru soziala gizarte zibila da. Hau da, gizarte sareen eta inguruneen multzoa. Ondorioz, gizarte “ehun” edo sare hori –“tejido social” delakoa– zenbat eta aberatsagoa izan, harremanak zenbat eta bereiztuagoak, estuagoak eta elkarrekin lotuagoak izan, mugimenduak gero eta aukera hobek izango ditu mobilizazioa sustatzeko. Euskal Herria horren eredu ona da.

Eta azkenik, Inguru politikoa. Edo beste era batera esanda, aukera politikorako egitura, bere aliantza eta gatazka sistema biek. Honek ere mugimenduaren

ekintza mugatzen du, baina mugimenduak berak eragina izan dezake honetan. Azken finean, gizarte mugimendua aukera politikorako egituraren atal bat baino ez da.

Bi ohar hauek insumisioaren kasuan eraginari buruzko teoria askoz ere lan gehiago egin beharko dugula erakutsi digute. Beraz, gaur intsumisioaren eragina azaltzeko proposamen bat baino ez dugula egingo argi eta garbi esan nahi dugu.

INSUMISIOA GAI BILAKATUZ

Gamson-ek *The strategy of social protest* liburuan (1975) bi egoera arrakastatsu azaldu zituen. Bata, mugimenduan parte hartzen zutenek etekin materialak bereganatzen zituztenekoa. Bistan dagoenez, ez da insumisioaren kasua; hemen etekin garbiena soldadutzatik –edota ordezko zerbitzutik– zigorrik gabe libre geratzea izango baita, eta helmuga hori oraindik urrun dago nonbait.

Bigarrena, berriz, gauzatu egin da. Mugimendua –edo mugimenduaren erakundeak hain zuzen– besteen iritziz aktore politiko egitea da, gizarte legitimazioa lortzea. KEM eta Kakitzat taldeek status hau lortu dute, hau da, bozeramale eta solaskide egokitatzat onartuta daude. Honetaz gain, joku eta borroka politikoan boterea dute –hitz honen jatorrizko esanahian–, hau da, besteengandiko erantzun politikoak, konpromezuak nahiz elkartasuna –erasoak ere bai– lor ditzakete eta komunikabideek beraien adierazpenak ontzat hartzen dituzte.

Komunikabideekin segituz, ezaguna da insumisioa egunero zabaldutako gai bihurtu dela. Intsumisioa berria da berez. Eta jaio zenez geroztik itzelezko gorakada ezagutu du: 1988 urtean, euskal prentsan 139 berri ezberdin zabaldu ziren; 1993 urtean, berriz, 840, egunero bi eta erdi, alegia. Are gehiago, Rochon-ek (1990) misilen aurkako Europar mugimenduari buruz aipatu duen bezala, beste muga bat gainditu da: idatzietan informazioa ezezik askotan kazetarien begikotasuna ere adierazten da.

KONSKRIPZIOAZ ETA DEFENTSAZ EZTABAIDA

Gai bihurtu ahala, insumisioak iritzi publikoaren esparruan bai konskripzioari buruz –Estatuarekiko zerbitzuaren derrigortasuna–, bai defentsa ereduari buruz eztabaida ireki du. Insumisioa agertu baino lehen, salbuespen periferiko batzuk izan ezik, defentsa gaia izanezina zen. Aurreko mugimenduaren mobilizazioek ere –NATOren erreferenduma esaterako– ez zuten hori lortu. Agian, batzuek diotenez, diskurtsoa ez baitzen defentsa ereduari buruz, Ipar Amerikakoa denaren aurka baizik. Gaur egun, berriz, defentsa ereduari buruz mota askotako iritziak entzuten dira.

Izan ere, gutxienez lau proposamen omen daude: derrigorrezko soldadutzaren armada, armada profesionala NATO edo MEBaren arabera, armada profesional murriztua NATOetik kanpo eta lurraldea bakarrik defendatzearen, eta pausuz pausuko armadaren desagerpena. Beraz, ez da soldadutzari buruzko kontua soilik izaten –Gobernuari gustatuko litzaiokeen legez–, baizik eta Pandoraren kutxa ireki da.

Melucci-ren (1985) hitzetan –baita Aguila (1992) ere–, mugimenduak dagoen eredia ez dela egon daitekeen bakarra azaltzen dio gizarteari, beste proposamen alternatibo batzuk ere osa litezkeela. Horrela, azaltzeko eta alternatibekin erkatzeko beharrea egonda, betiko ereduari akatsak eta gutxiegitasunak nabari dakizkioke. Eta horrela, ikus daiteke halaber gerrarako prestaketa ez dela nahitaezkoa, aukera bat baizik. Lehen urratsa emanda dago. Orain zailena datorkio mugimenduari: alternatibak proposatu behar ditu.

Herri eztabaida politikoa baino zerbait gehiago piztu da. Mugimenduak esparru honetan argi eta garbi izan duen eragina konkripzio eta defentsa gaia agenda politikoan sartzea izan da. Gobernuak ahalegin guztiak egin ditu hori ebitatzeko asmoz. Behin eta berriro esan du insumisioa ez dela Defentsaren arazoa, Justiziarena baino, edota, egoera larrietan, bakarrik soldadutza kontua dela eta ez defentsa eredia. Hori guztia egiatzko eztabaida ebitatzeko asmoz. Eta lortuko zuen desobedientziarik egon ez balitz. Baina alferrik: mugimendu antimilitaristaren ekintza izan da giltza. Are gehiago, jasotako errepresioaz baliatuz, hein handi batean gaia defintzeko gauza izan da, esaterako objetore eta insumisioen zenbakiak, militarri buruzko iritzi publikoa eta bereziki antimilitarismoaren diskurtsoa zabalduz.

DISKURTSO ALDAKETAK

Behin eztabaida ireki dela eta iritzi politikoak erakutsi direla onarturik, hurrengo urratsa aldaketak neurtzean datza. Hala ere, hau nahikoa zaila da, batik bat insumisioaren aurreko inkestak oso gutxi eta edukin eskasekoak baitira. Antza, gaurko soldadutzaren derrigortasunaren aurkako iritzia eta “gastu militarrek gastu sozialentzat” leloarekin adostasuna lehengoak bezalakoak dira. Datuen aldetik, akaso, armada guztiak desagerpenaren ideiak aurrerapenik haundiena izan duela esango genuke (Ajangiz 1992, 1994b). Inkestetan bietatik batek armadaren profesionalizazioarekin bat egingo lukeela agertu arren, bestea ejerzittoa desagertzearen alde dago. Estatuko beste herriekin gonbaratzean, datu honek, harrigarria izateaz gain, diferentzia nabaria adierazten du. Beste indikadore batzuek ere diferentzia hau erakusten dutela kontutan hartuta, Euskal Herria europar herririk antimilitaristenetarikoa bat dela esan liteke.

Hala ere, honek ez du esan nahi mugimendu antimilitaristak iritzi publikoa bere zokora eramán duenik, ez. Geroari begira antimilitaristek askoz gehiago lan

egin beharko dute beren proposamenak indarra gal ez dezan. Ikus dezagun. Alde batetik, posible denari begira eta askatasun pertsonalaren diskurtsoa dela eta, armadaren profesionalizazioaren diskurtsoak armada desagertzearena garai dezake. Bestalde, autodeterminazioarekin lotuz, Euskal Herriko Askapenerako Mugimenduak (EHAM) armada desagertzearen beste bertsio bat bultzatu du, horrela antimilitaristen proposamenaren garapena eta barreiatzea oztopatuz. Eta azkenik, bloke-dinamika agortuz geroztik, Ejerzitoak nozitu duen krisialdiak publikora beste irudi bat zabalarazi dio, gehienbat betebeharrei dagokienez. Kontraesana iruditu arren, Bosniarenari esker batik bat Ejerzitoak zerbaitetarako balio duela ikusi da. Hitz batez, nahiz eta mugimenduak eztabaida ireki duen, dirudienez kontrolatzea ez dago beraren esku, eta beste aktore batzuek hobeto aprobeatza litzakete zabalduko aukerak.

Diskurtsoari dagokion eragin nabariena, beraz, ez da izan militarari buruzkoa, bitartekoei buruzkoa baino. Hau da, desobedientzia zibila. Hemen mugimendua bai izan da arrakastatsua. Bi datu daukagu hau frogatzeko. Lehena, honetaz prentsan argitaratutako artikulu kopurua: sekulan ez beste. Desobedientzia zibilak lehen-go inpakto gutxiko estampa galdu du eta gaur borroka armatu mitikoarekin parekatzen da. Hots, metodo politikoen aldetik biolentzia eta ezbiolentzia aurrez aurre daude, hau hura bezain erradikala izan daiteke. EHAM barruan eta borroka armatua erabili dutenen artean ere. Bi adibide: preso batzuek insumisioa eta desobedientzia zibilari buruz idatzitako irazkinak, eta *Egin*-en zabalduko eztabaida gaia.

Bigarren datua Snow et alii-k (1986) aurkeztutako “gaiaren agerpena –edota markoa– zabaltzea” (ingeleseraz “frame amplification”) dinamika hemen ikus daitekeena da. Zertan datza? Insumisioa hitza beste borroka edo egoera batzuekin lotzen da, desobedientzia eta errebelia esanahia adierazteko. Hiru adibide: feministek “no al servicio familiar obligatorio, insumisioa” zabalduko kanpaina, *El País*-en titularra “las insumisas de Argelia” han jenero zapalkuntzari aurre egiten dioten emakumeak izendatzeko, eta HBren inguruak bultzatutako “herri insumisioa gara” leloa eta ideia. Ikusten dugunez, zentzu honetan insumisioaren adierazpideak oso narrazio indartsua du.

POLITIKA FORMALAREN ESPARRUA

Politikaren esparruan ere gauza interesgarri batzuk antzeman dira. Insumisioa agertu zeneko alderdi politikoek fitsik ere ez zuten esaten gaiaz, gero 1989 urteko hauteskundeetan bat batean horri eusteko. Lehengoekin gonbaratuta, adierazpenak eta programak aldatu dituzte dagoeneko. PSOE-PSE eta PP armada profesionaleruntz mugitu dira, IU-EBk herriko armadaren mitoa baztertu du, EA insumisioa bihurtu da, HBk “herri insumisioa gara” lema “insumisioa ez da bidea” eta “ejército popular vasco” direlakoan ordezkari jarri du, EAJ-PNVk legerari desobedientzia onartu du, eta abar. Eta sindikatuekin eta bestelako erakundeekin antzeko gauza

gertatu da: elkartasun plataformak osatu eta “antimilitarismoa” eta “gizarte desmilitarizazioa” hitzak gero eta gehiagotan erabiltzen dituzte. Argi dago horri buruz ulertzen dutena mugimenduaren kontzeptuarekin bat datorren aztertu behar dela. Baina funtsean, begi bistan dago mugimenduaren “gatazka sistema” oso txikia dela, eta “aliantza sistema”, berriz, oso handia.

Ziurrenik, gai honi buruzko erabaki politikoa Euskal Herrian hartuz gero, ibilbide horiek isladatuko ziren aurrerapenei bide emanez. Baina ez, gobernu zentralari zegokion defentsa eskumen osoa berak baitu, eta honek errepresioari ekitea erabaki zuen. Honen ondorioz etorri diren neurri legalak –hauek mugimendu antimilitaristak eraginda ere– halakoak izan dira: pilaturiko hoge mila objektore erreserbara pasatzeko dekretua, insumisioen aurkako prozesuak esparru judizial militarretik zibilera pasatzeko agindua, 1991ko Soldadutza Legea, Kontzientzi Eragozpenaren Arautegia, gizarte ongizatearen arloentzako babes publikoak objektoreak hartzeko behararen menpean kokatzeko dekretua, fiskalei bi urte eta lau hilabeteko zigorra eskatzeko agindua, insumisioak espetxera sartu bezain laster hirugarren gradura pasatzeko agindua, Zigor Kodearen proposamen berrian esandakoa, eta abar.

Errepresioaren kutsuak ezagunak dira. Hau idazten ari naizenean 236 insumiso preso daude, haietarik 165 Euskal Herriko espetxeetan. Eta honek, azalpen eta justifikazio guztien gainean, kostu politikoa du. Lehenengoz, errepresioaren azalpenak oso ahulak izan baitira. Iritzi publikoak ez du ulertzen errepresioa eta gaitzesten du. Eta bigarren, errepresioak beste kontraesan sakonago bat agertu baitigu: gobernuaren politika herritar gehien nahiarekin bat ez datorrela, gobernuak gizartearen aginduari ekin beharrean “razón de Estado” delakoari ekin dio. Hau da, demokrazia formalaren gutxiegitasuna eta ordezkatzeko funtsezko loturaren apurtzea desestali da berriro.

Ordezkaritza edo errepresentatzearen muina jokoan dago orduan. Eta ikuspuntu honetatik bai alderdi barruan eta bai alderdien artean azaleratu diren arazoak ulertterazak dira. Alderdi barnean eta bakoitzaren ekintza politikoan denetarik jazo da: kontrajarritako proposamenak, erakundeetan boto gaitzestuak, desadostasunak eta tirabirak... Proiektu politiko eta alderdiaren osotasunaren aldetik honek kostu politikoa suposatzen du, argiagoa PSOEn kasuan. Hala ere, Estatu mailan gauzak normalizatuz doaz, hau da, gatazka kontrolpean dabil, eta barneko tirabirak gero eta gutxiago erakusten dira.

Alderdien artean ere desakordioak agertu dira, hau da, sistema instituzionalean fisurak ireki dira, eta hau garrantzizkoa da. Nabariena estatualisten eta nazionalisten artekoa izan da. Errepresioaren bidez gobernuak insumisioen kriminalizaziora eta baztertzera heldu nahi bazuen, Espainian lortu du agian, baina ez Euskal Herrian. Aitzitik, gatazka honek beraren aurka jo du, beste alderdiek hau beraren aurkako tresna politiko bat egin dute. Adibide batzuk eman ditzakegu:

euskal parlamentuan egon diren eztabaidak eta erabakiak Madrileko Gobernuari aurre eginez, baita Nafar Parlamentuaren Giza Eskubide Batzordearena ere, ehundaka euskal udaletan harturiko erabakiak, eta abar.

Beraz, Euskal Herriko aukera politikorako egitura itxia dela ezin esan arren, insumisioak apur bat gehiago zabaldu duela esatera ausartuko gara. Behintzat, Rucht-ek dioenez, mugimendu antimilitaristaren alde eta nolabait ere antzeko mobilizazioen alde botere harremanetan aldaketa burutu da. Hau da, gaur gizarte mugimendu erakundeen eta alderdi politikoen artean harremanetarako aukerak ugaritu dira, instituzioetara sartzeko posibilitate gehiago daude, batez ere instituzio lokaletara (Barcena, Ibarra & Zubiaga 1994). Eta gizartearen demokratizazioaren atal bat honetan datza: erakunde formaletan parte hartzeko aukerak haunditzean.

DEMOKRAZIAN SAKONDUZ

J. Keane-ek (1988, p. 51) dio: “a pluralist and self-organizing civil society independent of the state is an indispensable condition of democracy”. Insumisioaren kasuan hori lortzeari laguntzen dion frogatu beharko dugu. Autore batzuek (Ajangiz 1994a, Bárcena, Ibarra & Zubiaga 1994, Carrasco 1993, Pastor 1993, Pérez 1994, Zubero 1995), behintzat, baietz uste dugu dagoeneko, insumisioak demokrazian sakontzeko potentzial handia duela azpimarratuz.

Lehen esan dugunez, antimilitarista bezalako mugimenduek gizarteari begira jokatzeko dute batez ere. Haien politika formalarekiko harremanetan agortzen ez den zerbait bezala ulertzen eta lantzen dute demokrazia. Mugimendu antimilitaristak gobernuarekin negoziatzeko aukera izan badu ere, horrela etekin politiko klasikoak lortu ahal izanez, gatazka aukeratu du, epe luzerako gizarte atarramenduen arabera (Melucci 1985). Hau aintzinako ezkerre eta ezker berriaren arteko ezberdintasuna da, baita NATOren aurkako mobilizazioa eta insumisioaren artekoa ere. Hots, betiko “centralized organization / parliamentary strategy / single issue” ereduaren ordez, “decentralized organization / societal strategy / broad ideological critique” ereduari ekin dio mugimenduak (Rochon 1988).

Eta horretarako bitartekoa desobedientzia zibila izan da. Mugimenduak sarritan gogorarazi digunez, bere ekintza politikarako proposamenaren barruan aukera hau ez da bigarren mailako gauza izan, zerbait zentrala eta guztiz esanguratsua baizik. Orain dela gutxi mugimendu honen teoriko nagusienetarikoa batek (Randle 1994, p. 9) idatzi duenez, “civil resistance is a method of collective political struggle based on the insight that governments depend in the last analysis on the cooperation, or at least the compliance, of the majority of the population”. Beraz, nagusiaren poterea besteek obeditzean datza, onarpenean. Eta horri uko egiten diotenean, desobedienteak berriro berreskuratzen du utzitako boterea.

Batzuk izan dira aukera honen ondorioak. Hasteko, mobilizazio honi esker lehen baino jende gehiagok –insumisoak berak, laguntza taldeetako kideak, senitartekoak...– hartzen du parte ekintza politikoan. “Cognitive liberation” prozesua (McAdam 1988) bizi dute: orain aldaketa posiblea delakoan daude eta ekintzarako gauza sentitzen dira. Mobilizazio guztiekin gauza bera gertatuko dela pentsa dezakegu, bai, baina mobilizazio hau berezia da: hemen esperientzi zorrotz berezi bati buruz hitz egiten ari gara, gartzela tartean dago eta.

Kolektiboki, beraz, desobedientzia zibilak soldadutzaren aurkako gogotik gizartea eraldatzeko deia eta proiektua egin du. Hau da, insumisioa gizarte apatiaren kontrako txertoa izan da. Eta indibidualki, parte hartzearen ondorioak ezagutzen ditugu: ikuspuntu politikoaren aldetik sozializazio politikoaz mintza gaitzke, eta gizarte psikologiaren ikuspuntutik jarrera eta portaera aldaketek. Gainera, agi denez, ikas-prozesu honen ondorioa betiko izango da (DeMartini 1983, Eyerman 1989).

Bigarrenez, zilegi dela eta ez dela, zuzena dela eta ez dela, Sistemaren edo sistema honen legitimitateari buruz eztabaidatu izan da. Hau da, gizartekideak politikari buruzko zentzua eta era berean burujabetasun etikoa berraurkitu ditu. Politikoki parte hartzea bakarrik botua ematera murrizten duen eredu sasidekreatibo hau zalantzan jarri da esaterako.

Hirugarrenez, banakako eskaeratik borroka kolektibora pasatu da. Definizioz desobedientzia zibila kolektiboa da eta insumisioan identitate kolektiboa sortu da, bai diskurtso amankomunarekin eta bai Melucci-k (1988) aukezten zituen zirrarezko inbertsioekin: taldearekin identifikazioa, elkartasuna... Orohar, askabide indibiduala nahiz kolektiboa. Melucci-k (1989) kultura proposamen berriaz ere mintza gintezkeela dio. Hau da, beste balio eta kode batzuk proposatzen dira.

Laugarrenez, balio eta kode berriekin batera, mugimenduak taldea eta lagunaren artean beste harreman bat ere eskaini dio gizarteari. Desobedientzia zibilean taldea da nagusi, noski, baina pertsonak ez du galtzen burujabetasuna. Hau da, indibidualtasuna eta taldetasuna balio parekoak dira. Horregatik deszentralizazioa, profesionaltasunik eza, funtzio bereizte eza eta den dena asanbladetan erabakitzea, besteak beste, erakundearen ezaugarriak dira. Demokrazia zuzena eta partehartzailea. Ingeleseraz, “grass-root democracy”. Barruko antolaketa hau nahitaezko erreferentzi bihurtu da gero eta talde gehiagorentzat.

Bostgarrenez, sareak (Diani 1992). Insumisioak gizarte sarea aberastu al du? “Insumisioari esker gaude hemen” aitortzen zuen Bake Ixilaren buruzagi ezagun batek Bizkaian sortutako “Gogoa” gunearen lehenengo topaketetan. Insumisioekin elkartasun ekintzetan eta ekimenetan, elkar hobeto ezagutuz, aurreiritziak eta lehenengo ekintza amankomunarako oztopoak ezabatuz, eta “praxis cognitiva común” (Pastor 1992) garatuz, zenbait familia politiko elkarrekiko harremanetan

sartu dira, eta honi guztiari jende berria ere bildu zaio. Beraz, protestarako eta mobilizazioarako potentziala (Kriesi et alii 1993) handitzeaz gain, gaurko gizarte sare alternatiboa lehengoa baino aberatsagoa eta artikulatuagoa dela esan genezake.

Eta seigarrenez, ekintza estiloa. Mugimenduak ohiko ekintza batzuk erabili ditu –manifestapenak, kontzertuak, ibilaldiak, kalejirak...–, bortitzak sekulan ez baina, eta erabaki honek badu bere esanahia (Webb et alii 1983). Aitzitik, ekintza zuzen ezbiolentoa izan da bere ezaugarria: giza kateak, kateaketak, okupazioak, gose grebak, kale antzerki eta dramatizazioak, ekintza ikusgarriak eta abar. Beraz gaur, insumisoez ezezik beste aktore politiko batzuk ere erabiltzen dituztela kontutan hartuta, ekintzen aukera handitu dela begi bistakoa da.

Ondorio hauetariko batzuk, guztiak ez badira, ez dira azaldu neurri berdinean mugimendu antimilitaristaren barruko arlo guztietan. Ezagun denez, erakundearen barneko eren eta kanpoko estrategien arabera daude. Euskal Herrian hiru erakunde antimilitarista dauzkagu eta horien barruan makina bat talde, nor bere kutsuekin, eta orokorrean hartzen baditugu, haien arteko ezberdintasunak handiak izan daitezke. Beraz, aldagai hau oso serio hartu behar dugu kontuan.

MUGIMENDU ANTIMILITARISTARI BERARI BEGIRA

Hitzaldi honi amaiera ematerakoan, mugimendu antimilitaristan bertan ere insumisioak izan duen eragina aztertu beharko genuke. Antimilitaristek aitortu dutenez, insumisioa primeran etorri zaio mugimenduari. Inoiz ez da hain sendo egon. Barrura begira partaide eta talde kopurua handitu dela ezagun da: 1995.ean Euskal Herrian 44 talde antimilitarista zeuden –KEM, Kakitzat eta EKEA kontutan hartuta soilik–, orain dela zazpi urte baino lau bider gehiago. Gainera, lehen ez bezala, gaur partaideek taldeetan segitzen dute, ez dira erretiratzen adinarekin. Honek gaietan sakontzeko aukera ederra eman dio mugimenduari eta nabaritu da, hala nola, armagintzari buruzko ikerketan.

Gorakadak, haatik, arazoak ekarri ditu. Mobilizazioa zabaltzea eta antolaketa deserdiratuaren ondorio bat taldeen arteko deskoordinazioa izan da, batez ere erakunde desberdinen artean. Gainera, erakundeen kanpoko talde batzuk sortu dira, esaterako Nafarroa Intsumitua herrialde horretan, helburu eta estrategia zentraletik banatzean. Talde batzuen barnean hierarkizazio informalaren seinaleak azaldu dira –beste batzuen barnean, ordea, hori betidanik egon da–, eta instituzionalizazioaren mamua –edo etorkizun politikorako bidea (Neidhardt & Rucht 1992)– agertu da. Mugimendua, gaur, krisialdian dago. Hau da, aurrera jo dezake bere garapena eta gizartearen eragin sendoagoa eskuratuz, baina atzera eta murriztera ere jo dezake, emakumeen eta ekologisten taldeei gertatu zitzaizen legez.

Nahiz eta nahikoa ezezaguna izan, badago oso interesgarria den beste esparru bat: nazioartekoa. Jaio zenetik Euskal Herriko mugimendu antimilitaristak nazioarteko antzeko taldeekin harremanak izan baditu ere, gaur buruan dago. Hau da KEMen kasua, adibidez, War Resisters' International-en barruan. Eta insumisioa beste herrietako taldeentzat eta erakundeentzat ezinbesteko erreferentzia bihurtu da, 1994tik Ameriketakoentzat bereziki. Nazioarteko harremanak eta haietatik sortutako diskurtsoak nahiz elkartasunak –Jugoslavia ohiaren kasuan inork elkartasuna adierazi badu, hori mugimendu antimilitarista izan da– fokatze holistikoa erakusten digu, hau da, osotasuna, gizarte mundialaz pentsatzea (Aart 1993). Hau diskurtsoaren aldetik. Erakundearen aldetik, ordea, goiz da Estatu markoa gaineratu denentz esateko (Pastor 1990), baina azken urteotan War Resisters' International-ek ezagutu duen gorakada ikusiz gero, hara doala dirudi.

LABURBILDUZ

Funtsean, hitzaldi honetan datozen ideiak adierazi ditugu. Mugimendu antimilitaristaren helburua gizarte aldaketak sortaraztea izanda, bai berak gogoan zeuzkanak, bai espero ez zituenak aztertu behar ditugu. Hori egitean neurtzeko zailtasunarekin topo egiten dugu, metodologiaren aldetik batik bat mota askotako aldakortasun iturburuak daude eta. Gainera, insumisioaren kasuan, mugimenduak gizarteari begira jokatzeko du, eta ez Gobernuari begira, helburu nagusiak adierazkorrak dira eta ez instrumentalak. Lehengo mugimenduaren mobilizazioekin erkatuta, ezberdintasuna dugula hemen kontutan hartuz, inguru egituraren hiru esparruak aztertu behar ditugu: kulturala, soziala eta politikoa.

Eraginean sartuta, lau esparru arakatu ditugu: diskurtsoa, politika formala, demokrazia partehartzaila, eta mugimendua bera. Lehenengoan, azpimarratzekoa da mugimenduak soldadutza eta defentsa gaia gizartean eta agenda politikoan sartu dituela. Are gehiago, militarismoaz kontzeptu berri bat eskaini dio gizarteari. Hala eta guztiz ere, eta ejerzitoen desagertzearen ideia euskal gizartean lehen baino askoz gehiago isladatu arren, itxuraz mugimenduaren etorkizuna iluna da, beste bi proposamenek –ejerzitoaren profesionalizazioa eta EHAMen “desmilitarizazioa”– indar haundiagoa dute nonbait. Diskurtsoari dagokion eragin nabariena, ordea, bitartekoei buruzkoa izan da: desobedientzia zibila.

Politika formalaren esparruari dagokionez, Euskal Herriko alderdi politikoek mezu eta jarrera aldaketa batzuk egin dituztela ikusi da. Madrilgo gobernuarekin ez da hori gertatu. Aitzitik, errepresioari eutsi dio. Eta horrelakoak izan dira hartutako erabakiak. Hala ere, horrek koste politikoa ekarri dio, bai gizarte legitimazioaren aldetik eta bai gainontzeko alderdiekiko gatazkaren ondorioz. Euskal alderdiekin gutxienez. Hemen gatazka hau Madrilgo gobernuaren eta alderdien aurka erabili dute. Eta honen ondorioa aukera politikorako egitura apur bat

gehiago zabaltzea izan da, beraz insumisioa bezalako mugimenduak zenbait instituziotara eskaerak sartzea errezago edukiz.

Demokratizazio prozesuei begira, insumisioak eragina izan duela garbi dago. Agian hondar nabariena. Eta erakunde antimilitaristei kasu egiten badiegu, beraien asmoarekin bat egin du. Gure aldetik ondoko hondarra ikusi dugu: demokraziari eta politikoki parte hartzeari buruz eztabaidatu eta arduratu, jende berria ekintza politikoa sartu eta horretarako sozializatu, identitate kolektiboa eraikitzeaz batera balio eta kode berri batzuk bultzatu, biziki demokratikoak diren antolakuntza praktikak erabili eta barreiatu, gizarte sareak bizkortu, ekintza zuzen ezbiolentia ohoratu eta ekintzen aukera aberastu, aukera politikorako egitura ireki, eta estatuen mugen gainetik fokatze holistikoa landu eta gizarteari eskaini. Noraino heldu den eragin hori aztertu behar dela eta gorakadak mugimenduari krisia ekarri diola jakinda, ekintza sozialari eta politikoa begira insumisiotik haize berria eta freskoa datorkigula nabaria da. Eta azken urteotako gertaerak gogoan hartuz gero, hori eskertzekoa da.

BIBLIOGRAFIA

- Aart, J. (1993), "From power politics to social change", *Review of International Studies* 19, 3-21.
- Aguila, R. (1992), "La dinámica de la legitimidad en el discurso político de la transición", in R. Coratelo (arg.), *Transición política y consolidación democrática*, Madril, CIS, 47-75.
- Ajangiz, R. (1992), "La opinión pública ante el servicio militar, la objeción de conciencia y la defensa militar", in P. Ibarra (arg.), *Objeción e insumisión, claves ideológicas y sociales*, Madril, Fundamentos, 83-104.
- , (1994a) "La objeción de conciencia en los Anuarios del CIP", *Papeles* 52, 137-147.
- , (1994b) *La opinión pública ante la objeción de conciencia y lo militar*, EHUKo Soziologia saila (argitaratu gabea).
- Bárcena, I., Ibarra, P. & Zubiaga, M. (1994), "Social movements and democracy in the Basque Country", *XVI AISP Congress*, Berlin (abuztua).
- Carrasco, A. (1993), "La insumisión como paradigma democrático", *Crisis* 1, 61-82.
- Cohen, J. (1985), "Strategy and identity: new theoretical paradigms and contemporary social movements", *Social Research* 52, 4, 663-716.
- DeMartini, J.R. (1983), "Social movement participation: political socialization, generational consciousness and lasting effects", *Youth and Society* 15, 195-223.
- Diani, M. (1992), "The concept of social movement", *The Sociological Review* 38, 1-25.
- Eyerman, R. (1989), "Social movements", *Theory and Society* 18, 531-545.

- Gamson, W. (1975), *The strategy of social protest*, Belmont, Wadsworth Pub. Co.
- , (1988), “Political discourse and collective action”, in B. Klandermans (arg.), *International Social Movement Research: from structure to action*, London, Jai Press, 219-244.
- (1992), *Talking politics*, Cambridge, Cambridge Univ. Press.
- Giugni, M. (1994), “The outcomes of social movements: a review of the literature”, *The Working Paper Series* 197, New York, CSSC.
- Herrero, J.A. (1994), *Poder, retórica e insumisión*, Hondarribia, Hiru Argitaletxea.
- Keane, J. (1988), *Democracy and civil society*, Londres, Verso.
- Kriesi, H., Ssaris, W. & Wille, A. (1993), “Mobilization potential for environmental protest”, *Sociological Review*, 9 bol., 155-172.
- McAdam, D. (1988), “Micromobilization contexts and recruitment to activism”, in B. Klandermans (arg.), *International Social Movement Research: from structure to action*, Londres, Jai Press, 125-154.
- McAdam, D., McCarthy, J. & Zald, M. (1988), “Social movements”, in N. Smelser (arg.), *Handbook of Sociology*, Londres, SAGE.
- Melucci, A. (1985), “The symbolic challenge of contemporary movements”, *Social Research* 52, 4, 789-816.
- , (1988), “Getting involved: identity and mobilization in social movements”, in B. Klandermans (arg.) *International Social Movement Research: from structure to action*, Londres, Jai Press, 329-348.
- , (1989), *Nomads of the present*, Londres, Hutchinson Radius.
- Neidhardt, F. & Rucht, D. (1992), “Towards a ‘movement society’?: on the possibilities of institutionalizing social movements”, *Conference Social Movements and Societies in Transition*, Berlin (azaroa).
- Ortego, E. (1993), “La sociedad civil”, *Página Abierta* (azaroa).
- Pastor, J. (1992), “Evolución, crisis y supervivencia de los movimientos sociales. El caso español”, *IV Congreso Español de Sociología*, Madril (iraila).
- , (1993), “Minorías críticas e identidades colectivas...”, *Papeles para la Paz* 49, 51-68.
- Pérez, J.A. (1994), *Manual práctico para la desobediencia civil*, Iruñea, Pamiela.
- Randle, M. (1994), *Civil resistance*, Londres, Fontana Press.
- Rochon, T. (1988), *Mobilizing for peace. The antinuclear movements in Western Europe*, Londres, Adamantine Press Ltd.
- , (1990), “El movimiento por la paz de Europa Occidental...”, in R. Dalton & M. Kuechler (arg.), *Los nuevos movimientos sociales*, Valentzia, Ed. Alfons el Magnànim, 149-171.
- Rucht, D. (1992), “Studying the effects of social movements: conceptualization and problems”, *ECPR Joint Meeting*, Limerick (Ireland), martxoak 30-apirilak 4.
- , (1995), “The impact of national contexts on social movement structures: a cross-movement and cross-national comparison”, in D. McAdam et alii (arg.), *Opportunities, Mobilizing Structures, and Framing*, Cambridge, Cambridge Univ. Press.

- Shaw, M. (1991), *Post-military society*, Cambridge, Polity Press.
- Snow, D. et alii (1986), "Frame alignment processes, micromobilization and movement participation", *American Sociological Review*, 51 bol., 464-481.
- Snow, D. & Benford, R. (1988), "Ideology, frame resonance, and participant mobilization", in B. Klandermans (arg.), *International Social Movement Research: from structure to action*, Londres, Jai Press, 197-217.
- Tarrow, S. (1994), *Power in movement*, Cambridge, Cambridge Univ. Press.
- Webb, K. et alii (1983), "Etiology and outcomes of protest", *American Behavioral Scientist*, 26 bol., 311-331.
- Zubero, I. (1995), "Objeción de conciencia y profundización en la democracia", *Papeles* 54, 27-35.

ANTIMILITARISMO ETA NAZIONALISMOAREN KONTZERTUAK

Estonia, Eslovenia eta Euskadiko kasuak

*Iñaki Barcena
EHUko irakaslea*

*Mario Zubiaga, Gabirel Ezkurdia eta
Pedro Ibarra, nire lagunei hiru mila esker. Zuekin bidaiatu,
diskutitu eta elkarrekin oso gustora lan egin eta ikasiz gero,
aurrean duzuen bururatu zait*

AURKEZPEN MODUAN

Mende honen bukaeratik hurbil xamar aurkitzen garelarik eta Bigarren Mundu Gerraren ondotik Sobietar Batasunak errepresentatzen zuen bloke militarra desagertuz geroztik, badirudi gatazka armatu zein txobinismoaren haize kirastuak ugaltzen ari direla Pandoraren kutxa zaharretik ihesiz. Ruanda eta Somalia, Haiti zein Bosnia, Chiapas, Moldavia, Txetxenia, Sri Lanka edo Sartaldeko Timor gerra eta gatazka militarren isladapen gordinak dira eta ez dirudi Varsoviako Ituna lurperatzerakoan, agindutako dinamika paketsutik abiatzen garenik.

Gertuago, Irlanda, Korsika edota Euskadin indarkeria politikoaren keinuak begibistan ditugu ere bai eta kontraesan nazionalen poderioz soluziobideak oso zailak dira. Dena den gure helburua ez da hain gogoko eta konplexua. Gure kasu honetan antimilitarismoaren dinamikak, hiru nazio europar txiki eta arazo nazioanalaz zeharkaturik daudenak, analizatu nahi ditugu.

Ez dira jaioberriak guk aztertu behar ditugun fenomenoak, nazionalismo eta militarismoa hain zuzen ere, nahiz eta aukeratutako hiru nazio europarretan gizarte mugimendu berri batekin, hots, antimilitarismoarekin uztarturik gonbaratu nahi. Hor legoke berriztasun bakarra.

ANTIMILITARISTEN HELMUGA ETA SAILKAPENAZ

Militarismoa, gaur munduan indar armatuek (ejerzitoa zein polizia eta beste gorputz itxura zibilez) baliabide militar, politiko, teknologiko, ekonomiko edo kulturalen bidez gizakien bizitza eta herritarren harremanen kontrolerako egiten duten saio iraunkor eta hazkorra litzateke, orain dela hamarkada bat Vicenç Fisas, ikertzaile katalandarrak definitu zuen bezala¹.

Manifestapen oro hauen aurka mugimendu antimilitarista pluribertsal bat altxatzen da planeta osoan zehar eta bere baitan “gerra guztien” eta militarismoaren aspektu ororen aurkako mugimenduak, normalean konpromezu erlijiosoz nahasten direnak, Kuakeroak, Jehovaren Lekukoak, Baha’i Fedekoak eta abar topatzen ditugu. Bere alboan “gerra konkretu” edo partikularren aurkako mugimenduak: Vietnam, SOS Balkanes, Sahara edo Zapatisten aldeko komiteak, etabar luze bat topatzen ditugu. Hirugarrengo maila batean, gerra edo militarismoaren aspektu partzial baten kontrako mugimenduak: Intsumisioa zerbitzu militarri, Campaña contra el Comercio de Armes - C³A (Katalandarren kanpaina, armamendua, produkzioa, ikerketa, esportazioa eta salmentaren aurkakoa), NATOtik ateratzearen aldeko kanpaina edota oraintsu Mururoako entsaio nuklearren aurkakoa, sartuko lirateke. Sailkapen hau Bob Overy² irakasle anglosaxoniarrari mailegatu diogu eta sailkapenarekin segituz beste bat gehitu nahi dugu.

II. Mundu Gerra eta gero lau olatu edo uhin antimilitarista nagusi izan dira³. Hasierakoa, Moskutik eta antifaxisten lidergoaz zuzendutako mendebaldeko arma nuklearren desagerpenerako mugimendu europarra, Pakearen aldeko Munduko Kontseilu pro-sobietarrak antolatua (1945-60). Bigarren olatua Ingalaterran zabaldutako C.N.D.-k (Campaign for Nuclear Disarmament) desarme nuklear unilateralaren alde eredu oso garrantzitsu bat erein zuen. Alemaniako Eliza Protestanteak antolatutako Bazkoko ibilaldiak ere hemen koka daitezke (1960-1970). Hirugarrengo uhina, gazte eta ikasleen mugimenduen eraginez (Ezker Berria) Vietnam-eko gerraren aurka eta politika inperialistaren salaketan eraikiko da (1965-1975). Azkenik, laugarren olatua, Euromisilen aurka (Pershing II, Cruise eta SS-20) eta Desarme Nuklear Europarraren aldeko mugimendua genezakeen “Esterminismoaren aroan”, E. P. Thompson historialariaren terminoa berrerabiliz. (1980-1985).

1. Fisas, (1982) 20. orr.

2. Overy, (1982).

3. Antola, (1984) 9. orr.

NAZIONALISMOAREN ARRASTOAK

Ordurako irakurleak galdetuko dio bere buruari, bai, oso ongi antimilitarismoaren istorio hau guztia; baina honek zernolako zerikusia du nazionalismoarekin?

Nazionalismoaren sailkapen apropos bat erabiliz⁴ eredu defendatzaile edo barreiatzaileen artean (hor leudeke Euskadi, Estonia eta Eslovenia), gizarte mugimendu berrien papera eta eragina estudiatu nahi dugu, antimilitarismoarena espres eta konkretuki. Hori da gure helmuga.

Askoren ustez, Amerikako Estatu Batuek (AEB) eta Sobiet Batasunaren (SESB) arteko dinamika bipolar desaktibatu egin zenetik nazionalismoaren haize pozoinduak sakabanu ziren eta hor datza oraingo egoera desegonkorren zergaitia. Beste batzuen ustetan, Noam Chomsky eta James Petras adibidez, Iparra hipergaratu eta Hegoa zapalduaren desoreka izkutatzen zen Mendebaldeko Pakearen aldeko Mugimeduaren *eurozentrismoa*-ren atzetik. Gerra nuklearrerako arriskua Erteuropan aurrikusten zen eta sarraskiak aldiz Libano, Palestina, Panama, Nikaragua, El Salvador, Chad edo Somalian.....

Mugimendu pakezale europarrak perestroika-berregituraketa eta glasnost-gardentasun politikan, eragin zuzena izan zuen. Baita ere, 1985. urtetik aurrera Ekialdeko errejimeneren aldaketa prozesuetan eta desarme nuklearrerako lortu ziren akordioetan (Washington-go Akordioa, Reagan-Gorbatxov, 1987).

1991.ean Baltiko, Balkanek eta Kaukasoan independentzia nazionalak aldarrikatzen dira eta bertako populazioak laster ejerzito errusiar edo jugoslaviarraren eraso eta mehatxu gordinen aurrean asaldatu dira. “Egonkortasuna” zihurtatzen zuten aparailu militar hauen irteera-kanporaketa proiektu nazional hauen eskaizunen zerrendako goiko puntutan, berehala kokatu zen, Estonian eta Eslovenian.

Nahiz eta 1990.eko Ekainean Estonian, Tallin-eko Raekoja enparantzan, manifestaldi nazionalista batetan agure batek sustengatzen zuen kartelaren leloa izan, “Red Army Out” ingelesez eta errusiar zirilikoan baita, oraindik ederki gogoratzen dut. John Reed-en liburuaz egindako “Reeds” filmean Trotsky eta Lenin-en ejerzito gorri-anaiaren goraipamena, etorri zitzaidan burura. Bosnian ikusi berri dugunez, Titorena ez da hobeto portatu.

4. Peter J. Taylor-ek bere obran (*Geografía Política*) A. Orridge-ren mailegua eginez (Orridge, 1987) protonazionalismoak (Ingalaterra, Frantzia, Espainia, Portugal, Suedia...), nazionalismo bateratzaileak (Alemania eta Italia) eta barreiatzaileak (hemen, Norvegia, Finlandia, Polonia eta Chekoeslovakiaz aparte Euskadi, Korsika edota Eslovenia zein Estoniako kasuak sar litezke) eta gero askatzaileak (Vietnam, Hegoafrika,...) eta berritzaileak (Mexiko, Egipto eta Txina) desberdintzen ditu.

Dena den, mendebaldean Sobietar Batasun eta Jugoslaviako porrotaren azalpen gutxi eta sinpleen atzetik, nazionalismo “berri”-en arriskuak antzematen dira soilik.

Gure kasuan, interesgarria iruditzen zaigu nola partidu bakarreko eredu sozialaren aurka gizarte mugimendu kopurutsuak ikusi ziren perestroikaren hasierako urteetan. Baina ez dugu ukatu edota ahaztu behar, 1989tik aurrera, “Altzairuzko Horma” desegin zenetik, ez direla gizarte zibil berpiztuaren nahiak eta esperantza demokratikok gehien agintzen dutenak.

TRANSIZIO PROZESUAK

	1970	1975	1980	1986	1991
		FRANCO+	AUTONOMI E.	“OTAN” ERREF.	INTSUMISIOA
EUSKADI	LANGILE & MUG.NAZIONALISTA			M.ANTIMILITARISTA & NAZIONALISTA	
SLOVENJA	PUNK/ M.ALTERNATIBOAK		P	GIZA ESKUBIDEAK. & DEMOKRAZIA	I G
			E	KOSOVO “Eslovenia Armadarik gabe”	N E
				NAZIONALISMOA /L.KOMUNISTA	D R
			R		E R
			E		E R
			S	————MULTIPARTIDISMOA————	P A
EESTI			T		E
			R	“FOSFORITA” “Kantuen Iraultza”	N
			O		D EGERZ.
			I	E. BERDEAK HERRI FRONTEA	E GORRIA
			K	KONG. ESTONIARRA	N KANPORA
			A		T.

SINTONIA ETA DURUNDIA

Trantsizio prozesu politikoak segituz eta Euskal kasua Estonia eta Esloveniako esperientziekin konparatzen baditugu, bere egitura politikoen aldaketan ahots antimilitarista eta nazionalistak jokatu duten paper baterakoia eta sintonikoaz jabetzen gara.

Ez modu berean, noski. Frankismoa eta stalinismoa ez dira inolaz ere berdinak izan eta Titoren erregimenak ere bere berezitasunak eta Moskurekiko diferentzia ugari zituen⁵. Nahiz eta partidu bakarreko erregimenak izan, Jugoslavia eta Sobietar Batasuneko egitura estatala eta gizartearekiko harremanak ezin ditugu berdindu, gizarte batean eta bestean sozialismoaren egiturak eta funtzioamendua desberdinak izan baitira. Nazio eta errepubliken arteko harremanak ere bai.

5. Kuzmanic (1993).

Horrez gain 1970. hamarkadan hasita eta 1990.eko hasierako bosturtekora arte diskurtso antimilitarista (eta beste gizarte mugimendu berrien diskurtsoa) eta nazionalismo emerjenteen durundi edo erresonantzien eremuak bateratzen direla somatu dugu. Hori bai, elementu, sujetu eta erritmo desberdinekin. Eta gainera errepublika sozialista zirenetan “kontzertu” nazional-antimilitaristak independen-tziaren ostean, beste doinu, instrumentu eta musikariekin entzungo dira.

Estoniako hsparrutik hasita, bertan “poso” edo hondar nazionalista ederki gordeta zegoen. 1918-1940 bitartean Baltiko-ko errepublika honek, Iraultza Boltxebikearekin batera estatu nazionalaren eraketa lortuz gero, Bigarren Mundu Gerran zehar aleman eta sobietar tropen okupazioa ezagutu zuen. Geroxeago Stalin-ek populazioaren 5%-a atzerrira eraman zuen, deportazio hori ejerzito “atzerritarraren” obra izanik⁶.

Perestroikaren hasierako urteetan mugimendu ekologista (Eesti Roheline Liikumine-Estoniako Mugimendu Berdea) berriaren kanpainak Moskutik egindako plan energetikoen aurka (FOSFORITA), mezu nazionalista eta antimilitaristaren uztartze prozesua ekarri zuen (beste gizarte mugimenduekin batera). Sozialismo burokratikoaren urteetan, Paldiski, Narva eta beste Baltikoko itsasertzeko lekuetara agintari sobietarrek instalazio eta industria militar “oso arriskutsu eta kutsakorrak” esportatu zituzten.

1988. urtean “Kantuen Iraultza” aurrera zihoan heinean, gizarte mugimendu guztien bagoiek bere “trenbidea” nazionalismo estoniarrean topatuko dute. Doinu eta neurri horiekin, tropa eta ejerzito okupatzailearen aurkako mezuak zabalduko ziren ere, Ejerzito Gorrian subiranotasun nazionalaren ezintasuna argiro isladatzen zela eta.

Estoniar gizartean ez zen mugimendu antimilitarista berezirik izan. Ekitaldiak bai. Ez zen mendebaldeko parametroen arabera gizarte mugimendu berri bat antolatu. Adierazpen berri hori, agian, ekologisten artean topatuko dugu eta bestelako esparru sozialetan. Adibidez, 1990. urtean Tallinen European Desarme Nuklearrerako nazioarteko konbentzioa antolatzen denean, Berdeak eta Herri Frontea izango dira erakunde herritar anfitrioi nagusiak.

Estoniako gizartea oso aberatsa da erakunde eta talde antolaketa mailan⁷, eta Ejerzito Sobietarra alde egitearen errebindikazioa estoniar gizarte zabalean barneratutako eskakizun sendoa zen, nahiz eta berezko mugimendu antimilitarista txikia edo eratu gabea izan.

Ejerzito kanpotarrari alde egitea exijituko zaio eta hori 1994.eko Abuztuan lortuko da. Hasierako pausua gazte estoniar guztiek armada gorria uztea izan zen,

6. Ikus: Roos (1985).

7. Aareelaid-Tard & Siisiäinen (1993), 215-231 orr.

eta horixe bera erabaki zuen Estoniako Sobiet Gorenak, Moskurekiko tirabira definitiboak hasi zirenean. Geroago “Herri Fronteak” gizarte zibilaren eskakizunen bilduma eginez, erakunde nazional berriak eta independentziarako bideak landuko ditu eta oraintsu bere ejerzito nazionala eraikitzeari ekin diote.

Esloveniako kasuan, eta hori garrantzitsua da oso, ez da hasiera batetik diskurtso nazionalistarik ahots disidenteen bilduma egingo duenik. Aitzitik 70. urteetako hamarkadan Mendebaldeko Europatik etorritako “kutsu” alternatiboak diskurtso demokratiko baten inguruan txertatuko dira. Esloveniako mugimendu bakezale eta antimilitarista oso ezaguna izango da Europan zehar, 80. urteetan izan ziren desarme nuklearrerako nazioarteko kanpainetan, Liga Komunistaren gazte erakundearen (ZSMS) babesa eta laguntzari esker⁸.

“Perestroika” jugoeslaviarraren kasuan, Ljubljana hiriburua esloveniarraren topatzen ditugun aktibista eta akademiko gazteen zirkuloak⁹ oso eraginkorrak suertatuko dira. Euren kontra ejerzito federalak eraso bortitz zuzenak antolatuko ditu.

Jasotako errepresioaren aurka 1988.eko Udaberrian Giza Eskubide eta Demokraziaren aldeko proposamenak mugimendu antimilitaristaren inguruan eraikiko dira. Belgradeko agintari militarrek mugimenduko partaide batzuk atxilotu eta epaituz gero “heroe nazional” berriak bihurtuko dira.

Une honetatik aurrera erakunde eta mezu nazionalistek, hau da, Eslovenia errepublikaren independentzia prestatuko dutenek protagonismo sozio-politiko osoa hartuko dute. Milan Kucan-en Liga Komunista Esloveniarrak berak, independentzia prozesuan ez zuen kontrola galdu nahi. Are gehiago, independentziarako bidea zuzenduko du, 1991.eko udaran helduko dena, Estonian bezala.

Ordurako gizarte eta instituzio politiko esloveniarraren berrogei urtez geroztik entzuten ez ziren ahots nazionalistak, Belgradeko agintarien aurka eta handik, zuzendutako Ejerzito Federalaren aurka batez ere, ozenki altxatu egin ziren. 1991.eko abuztuan bederatzi egunetako liskar armatuak Austria eta Italiako mugetan soilik izan ziren, Kroazian eta Bosnian ez bezala. Ejerzito Federal Jugoslaviarrak lurralde esloveniarraren kontrola erraz galdu zuen, batasun nazionala eta etnikoaren poderioz, bere helburuak eta armak ondoko Kroazia eta Bosniara trasladatu zituelarik.

8. Honetaz kontsultatu: Fink-Hafner (1992).

9. Ikus Kuzmanic (1994) eta baita ere Fink (1994).

DURUNDI ESPARRUAK¹⁰

Euskal kasuan luze xamar edo amaierarik gabeko trantsizio prozesuaren erdian, 1983. urtetik aurrera, masa mugimendu antimilitarista agertzen da, NATOren aurkako kanpainan. Ez da izango, ordea, trantsizio politikoaren sujetu politiko nabarmen bat, langileriak eta nazionalismoak okupatu baitzuten esfera publikoa, frankismotik aurrerako bilakaera politikoan.

NATOren aurkako kanpainan bizkortuko da, nahiz eta mobilizapenak Estatu Espainarreko beste hirietan bezain kopurutsuak ez izan. Erreferendumaren emaitzak bai¹¹. Hiru urtetako kanpaina luze honetan arazo nazionalaren eraginagaitik hiru izan ziren mugimenduaren plataformak (Mobida, Manifiesto eta Kolektiboak) mezu nazionalista ardatz banatzailea izanik¹².

Harrez gero mugimenduaren parterik dinamikoena “intsumisioa”-ren estrategia bultzatuko du eta egun lortzen ari den arrakasta sozialak ez du ukatzerik. Ikusi dugunez¹³ euskal mugimendu antimilitarista euskal gizartean ondo erroturik dauden diskurtso demokratiko eta anti-erre-presiboak maisuki erabili ditu, euskal publikoa bere alde jartzeko. Bestalde partidu nazionalistak eta ENAM-eko sare sozialak ere bere alde ipini ditu eta durundi efekto faboragarri bat izan du euskal mugimendu antimilitaristak nazionalismoaren oihartzunak eta sare sozialak erabiliz¹⁴.

10. Taula hau eta aurrekoa, testu amankomun batetik hartuta daude, hain zuzen ere: Zubiaga, M.; Ibarra, P. & Barcena, I. (1995).

11. 1986-III-12-an Euskadin NATOren erreferendumean 63,7%-ak hartu zuen parte soilik (PNV-k abstentsiora deituz) eta botoemilengandik 62,6%-ak ezetza eman zuen.

12. Ikus Barcena, I.; Ibarra, P. & Zubiaga, M. (1995), 30-38 orr.

13. Ibarra, P.; Zubiaga, M. & Barcena, I. (1995), 99-125 orr.

14. Bere tesinaren konklusioetan Jesus Casquete-k idazten (1995) duen arabera: “The antimilitarist movement in the Basque Country enjoys the availability of influential allies within the established political actors (most of all nationalist parties) and institutions (local councils, state governments and regional parliament). Hence the nationalist cleavage dividing the Basque society and politics is the mayor factor that explains the mobilizatory succes of antimilitarism. Yet this is not the same as to say that the struggle the movements carries out has a ‘national’ character, that it is a challenge from a stateless nation against its ‘metropoli’.”

EGITURA SOZIO-POLITIKOA ETA DISKURTSO PUBLIKORAKO BALIABIDE ESKURAGARRI DIFERENTEAK

Lehenengo kontsiderazio bat egin dezakegu. Gizarte mugimendu berriak aztertzeko daukagun metodologia berriak aplikatuz¹⁵, APE edo Aukera Politikorako Egitura, hain zuzen ere, mugimendu antimilitarista eta errebindikapen nazionalisten artean elementu amankomunak daudela iruditzen zaigu eta ondorioz bion arteko anplifikazio edo erresonantzia normaltzat har genezake.

Ikusi egin dugunez, espazio zein denboran zehar diferentzia ugari topatzen ditugu hiru kasuetan, baina nahiz eta APE desberdinak egon, hiruretan ahots nazionalista eta antimilitaristen uztartzeak ematen dira.

Agian argiago erakus dezakegu bi mugimenduen bateragarritasuna diskurtso publikoak aztertzen baditugu.

Estonian, mugimendu antimilitarista bereizgarririk ez zegoenez, asmo horiek ekologisten kanpainetan topatuko ditugu eta oro har mezu eta mugimendu nazionalista berriaren parte bat bezala. Perestroikaren hasierako urteetan APE-k diskurtso ekologista –ekonazionalista– bat posible egin zuen, baina APE berak aldaketak ezagutu zituen heinean, instituzionalizazio nazional eta independentziarekin, antimilitarismoaren mezua Ejerzito Gorriaren atzera egitean fokalizatu egin zen, soilik. Hori lortu egin denean (1994) badirudi asmo antimilitaristak asetu direla. Horregatik eredu horri “eko-nazionalismoa” deitu diogu: ekologismoa (bere barnean antimilitarismoaren eskakizunak izanik) gizarte mugimendu berriak eskakizun nazionaleri irekiera emanez gero trantsizio prozesuan kode nazionalista izango da nagusi, ekologismoaren tinteak oso argi gordez.

Eslovenian aldiz 1970. hamarkadan sortu ziren talde eta erakunde antimilitaristentzat “demokraziarako bidean” Ejerzito Federala arerio nagusienetarikoa bat izango da eta nabariak izango dira ere armada federalak egingo dituen mehatxu eta errepresio saioak euren aurka¹⁶.

1988.eko udaberrian “Eskubide Zibil eta Demokratiko”-en aldeko kanpaina hasten denean mugimendu nazional berri honen erdigunean pentsalari eta aktibista antimilitaristen presentzia ohargarria dugu. Eta mugimendu demokratiko erraldoi horren ostean, Suitzako talde antimilitaristen esperientzia jarraituz, “Ejerzitorik gabeko Eslovenia” kanpainari ekingo diote, sinpatia handia lortuz.

15. Aukera Politikorako Egiturak aldagai desberdinen analisiak bilatzen ditu, besteen artean egitura edo sistema politikoaren testuingurua, mugimenduak aurkitzen duen arerioen iharduera eta hirugarrenik mugimenduaren aldeko lagunen iharduera. Ikus: Kriesi (1992). Euskadiko kasuari zuzenki dedikatua: Zubiaga, Mario (1992). Eta Diskurtso Publikoaren analisirako baita ere: Snow & Benford (1988).

16. Gertakizunen kronolojia oso bat aurkitu nahi ba duzue ikus: Hren, (1992).

Baina diskurtso nazionalista eta independentziarako liderrak mugimendu demokratikoaren bridak hartzen dituztenean, ez zegoen tarte handirik errebindikapen antimilitaristentzat, batez ere, Belgradeko agintari eta komunikabideekin harremanak txartu eta Ljubljankako kaleetan tanke “federalak” paseiatu zirenean. Gero etorriko dira Bosniako sarraskiak eta mugimendu antimilitaristaren inpotentzia eta autodisoluzioa¹⁷. Hor nazionalismoaren diskurtsoa berpizten da eta demokrazia politikoaren eskakizunei independentziarena gehitzen zaio, bestelako argudio eta zioak alboratuz. Eredu hau “demo-nazionalismoa” izendatu dugu, errebindikapen demokratikoen atzetik gehien nagusitzen dena, Estonian bezala borroka nazionalista baita.

Euskal Herrian azken hamar urteetan, antimilitarismoaren leloak eta kanpainak lar ondo egokitu dizkiote euren diskurtso eta kanpainak arazo nazionalari. Adibidez, mugimendu antimilitaristak hasiera baten Jarrai ezker-nazionalista gazte erakundearekin tirabira gogorrak izan bazituen ere, azken hauek bere diskurtsoa aldatu dute¹⁸ “Zerbitzu militarra ETA(m)-ean” lelotik “Euskadi Nazioa, intsumisioa”-ra eraldatu dutelarik.

Izan ere, mugimendu antimilitaristak izugarrizko laguntza lortu egin du indar politiko, sozial eta sindikal desberdinen eskutik, EAJ moderatutik hasi eta ENAM-aren gazteria osatzen duen Jarrai erakundean amaitzeko.

Diskurtso publikoari dagokionez, eta aipatutako idazkian esaten dugunez, euskal ezker abertzaleak erresistentzi kultura baten eraikuntzaren lidergoa hartu zuen frankismo garaian eta iragarpen edo trantsizio demokratikoan, herri-erresistentzia Espainako estatuarekin errepresioari aurre egiteko. Errepresioaren aurrean sentikortasuna eta instituzioekiko mesfidantza bizkortu dira. Bereziki gazteen artean zabaldua dagoen kultura edota errealtatearen marko interpretatzaile horretan begi onez ikusten da adierazitako errepresioaren kontrako mezu salatzailea. Horrela erresistentziaren kulturak, errepresioaren kontrakoa denak, “berezko” haserre hori areagotzen eta indartzen du, bakezaleak espetxeratzen dituen gobernu baten aurrean¹⁹.

Bigarrenez, mugimendu antimilitaristak Euskal Herrian oso ongi erabili ditu ustez kontrajarriak izan daitezkeen bi kultura: Erresistentzia nazional eta errepresioaren aurkakoa non ETAK eta ENAM-ek zerikusi handia daukaten eta indarkeriarena, non ETA-k ere protagonismo nabarmena daukan. Dena den mugimendu antimilitaristak ez du ekarri ETA-ren aldeko mugimendu erradikalarekiko

17. Ibidem. 37-40 orr.

18. Patxi Gaztelumendik bere artikuluan (1995) Jarraik emandako prozesu autokritikoa aipatuz gero, datu soziologikoak ekartzen ditu aditzera: “Euskal gazteen artean %98-ak errefusatu egiten du espainar armadaren soldadutza egitea, gazteen %6-a soilik du espainoltzat bere burua, eta gehiengoak independentziaren aldeko jarrera du. Horrela bada, gure artean bat egiten du independentziaren aldeko borrokak, armada eta soldadutzaren aurkako liskararekin”, 57. orr.

19. Idem; Ibarra, P.; Zubiaga, M. & Barcena, I. (1995), 107. orr.

etsaitasunik, antimilitaristek erakunde armatuaren indarkeriari zuzenean erasotu ez dioten heinean²⁰. Hirugarrenez “herri-subiranotasunaren” diskurtsoa dugu, demokrazia zuzena edo partehartzailearena, estatu zentralistaren aurka, non intsumisoez desobediente zibilen diskurtso anti-estatalista egiten dute.

Sinbiosis prozesu honek, aurreko kasuetan ez bezala oraindik mantentzen da eta guk “alternazionalismoa” deitu egin diogu, esparru amankomun eta diferenteak mantentzen diren neurrian eta ideologia alternatiboen presentzia dela eta.

KONKLUSIO GISA: DISINTONIA ETA SINTONIA BERRIA

Estonia eta Eslovenia populazio eta lurraldez Euskal Herria baino txikiagoak dira. Orain ejerzito nazional berriak ari dira eraikitzen, kontzientzi objektioa kontutan hartuz eta 6 hilabetetako soldadutza ezarriz. Ez dute gastu militar handirik izango, eta ez dute ondoko herrialdeetan beldurra sortuko baina esaterako, Estoniako lider politiko nagusiek NATOn daukate ikusmira.

Aldiz Esloveniako ejerzito berria Janes Jansa, lider karismatiko antimilitaristaren “obra” kontsidera daiteke neurri baten, Defentsa Ministeritzatik pasa eta gero. Bere kasuan bezala gaztaroan talde alternatibo eta gazteri komunistaren partaideak ziren liderrak, Esloveniako errepublika berria, estatu-nazional kapitalista berri baten diseinatzaileak dira.

1990. ean “Eslovenia ejerzitorik gabe” kanpainak populazio eta lider politiko askoren beneplazitoa (M. Kucan, Errepublikako Presidentearen barne) lortu zuen arren, hurrengo urtean Ejerzito Federalaren erasoan ondorioz armada propioari ekin zioten. Kroazia zein Bosniako gerraren aurrean, Esloveniako mugimendu antimilitarista autodisolbatu egin zen 1992 urtean. Ez ziren kapaz izan egoera politiko-militar berrian diskurtso antimilitarista bati eusteko.

Erregimen sozialista ohi hauetan nazio-estatuaren eraikuntza prozesuan diskurtso antimilitaristak alboraturik geratu dira zeharo, disintonian, desentxufaturik edo ixildurik.

Gauza bera gerta liteke Euskal Herrian? Badirudi frankismotik honako trantsizio prozesu luze honen azken urteetan eta beste arrazoien artean protesta nazionalistaren laguntzaz antimilitaristen proposamenentzako esparrua zabaldu egin dela. Hemengo eredu kapitalistan ejerzitoak betetzen duen funtzioak (merkatuak zihurtatu, kanpoko zein barneko “etsaia” kontrolatu...) eta militarismoaren eraginak areagotzen direla dirudi, eta zentzu horretan talde antimilitaristak eta ezker erakunde nazionalisten arteko elkarlana eta aliantzak mantentzen dira.

20. Ibidem. 109. orr.

Badirudi sintonia berri bat orkestratu dela oraingo egitura politikoaren eremuan eta Hego Euskal Herrian behintzat, arazo nazionalaren konponketa ezak errazten duela antimilitaristen eta beste mugimendu alternatiboen eragin soziala. Zalantzan dagoena da zernolako indar eta perspektibekin abiatuko den euskal mugimendu antimilitarista autodeterminazioaren egunerantz eta nola lortuko duen Euskadi askatu horren eredu berria desmilitarizatua izatea.

BIBLIOGRAFIA

- Aarelaid-Tard, A & Siisäinem, M (1993), "Voluntary associations in Estonia and in Finland from the nineteenth century to the present time", *Proceedings Estonian Acad. Sci. Humanities and Social Sciences*, 42, 2. or. 215-231.
- Antola, Esko (1984), *Compaings against the new european peace movement*, Turkuko Unibertsitatea, Finlandia.
- Barcena, I. (1994), "Etnoecología o Econacionalismo? Breve introducción a la realidad ecologista y nacional en Estonia, Ucrania y Euskadi". *Ecología Política*, 7., Bartzelona.
- Barcena, I.; Ibarra, P. & Zubiaga, M. (1995), *Nacionalismo y ecología. Conflicto e institucionalización en el movimiento ecologista vasco*, Libros de la Catarata, Madril.
- Casquette, Jesus (1995), "The socio-political context of mobilization: The Case of the Antimilitary movement in the Basque Country", MA Thesis Draft. New School of Social Research. New York, otsaila.
- Fink-Hafner, Danica (1994), "Anti-party sentiment in a context of democratic transition. Slovenia in comparison of other post-socialist countries", Joint session ECPR. Madril, apirilak 17-22.
- , (1992), "Political Modernization in Slovenia in the 80's and in the early 90's", *The Journal of the Communist Studies*, 8 bol., 4 abendua, Fran Cass, Londres.
- Fisas, Vicenç (1982), *Crisis del militarismo y militarización de la crisis*, Fontamara, Bartzelona.
- Gamson, William A. and Meyer, David S. (1992), "The Framing of Political Opportunity", Conference "European/American Perspectives on Social Movements", Washington, D.C., August 13-15.
- Gaztelumendi, Patxi (1994), "Intsumisioa eta Abertzaletasuna", *Larrun*, 20. zbk. Donostia.
- Hren, Marko (1992), "El gran fiasco del razonamiento pacifista occidental. Pensar localmente , actuar globalmente", *The Intruder* 6, Movement for the Culture of Peace and Nonviolence, Ljubljana, Azaroa. Itzulia eta argitaratua: *En pie de Paz*, 28. zbk. 1993.eko Udaberrian.
- Ibarra, P., arg., (1992), *Objeción e insumisión*, Fundamentos, Madril.
- Ibarra, P.; Zubiaga, M. & Barcena, I. (1995), "Mugimendu Sozialak eta Demokrazia Euskal Herrian: Intsumisioa eta Ekologismoa", *Uztaro* 14, 99-125 orr.

- Jalusic, Vlasta (1994), "Troubles with Democracy: Womens and Slovene Independence" in *Independent Slovenia*, Benderley & Knest (arg.) St. Martin Press, New York.
- Järve, Priit (1991-92), "The Baltics in the Early 1990's0. Between Democracy and Authoritarianism", *Politikka*, 4, Sisältö Vuosina.
- Kriesi, Hanspeter, "El contexto político de los NMS en europa Occidental", in *Las transformaciones de lo político*, Alianza Universidad, Madril.
- Kuzmanic, Tonci (1993), "Stalinism as a problem of methodology", in Kuzmanic & Truger (arg.), *Yugoslavia War*, Austrian Study Center for Peace and Conflict Resolution, Schlaining, eta Peace Institute, Ljubljana.
- Kuzmanic, Tonci (1994), " Civil Society and Nationalism in Slovenia. From Civil Society, Traverse the War, towards the New Age", Peace Institute (Ljubljana), Argitaratu gabea.
- Orridge, A. (1987), "Las variedades del nacionalismo", in Tivey, L. (arg.), *El Estado-Nación*, Ediciones 62, Bartzelona.
- Overy, Bob (1982), *How are effective the peace movements*, Harvest House, Montreal; edota Housmans, Londres.
- Roos, A. (1985), *Estonia, a nation unconquered*, Estonian World Council Inc. Baltimore.
- Ruutsoo, Rein (1993), "Transational Society and Social Movements in Estonia, 1987-1991", *Procedings Estonian Acad, Scienc. Humanities and Social Sciences*, 42, 2. 195-214 orr.
- Snow, David A. & Benford, Robert D. (1988), "Ideology, Frame Resonance, and Participant Mobilization" in B. Klandermans; H. Kriesi; S. Tarrow (arg.), *From Structure to Action: Comparing Social Movement Research Across Cultures* (International Social Movement Research 1). Greenwich, Conn.: JAI Press.
- Taagepera, Rein (1992), "Ethnic relations in Estonia, 1991", *Journal of Baltic Studies*, XXIII/2 (special issue: Baltic Nationalism in comparative perspective), Michigan, udara.
- Vetik, Raivo (1993), "Ethnic conflict and Accomodation in post-comunist Estonia", *Journal of Peace Research*, 30 bol. 3, abuztua.
- Zubiaga, M.; Ibarra, P. & Barcena, I. (1995), "Nationalism and social movements: Estonia, Slovenia and the Basque Country. Discoursive Resonance and Harmonization", 2. Soziologiako Kongresu Europarra, Budapest, abuztua (moldiztegian).
- Zubiaga, M. (1992), "Euskal Nazional Mugimenduaren (ENAM) aukera politikorako egitura (1988-1992)", *Inguruak*, 7.

ERRONKAK

DESOBEDIENTZIA ZIBIL EZEZAGUNA: FISKO-ERAGOZPENA

Kerman Ibarra Iriondo
Irakaslea

Artikulu labur honetan Fisko-Eragozpenaren egoera aztertu nahi dut, Desobedientzia Zibilaren ikuspuntutik. Lortu duguna eta eskuratzeko gelditzen dena, aurkitu ditugun oztopoak, batzuk gaindituak, beste batzuk oraindik aurrean. Kontzeptu batzuk komentatuko ditugu: legezkoa, zilegizkoa, efikazia, efizientzia, utopia, defentsa, etab. Fisko-Eragozpenaren ekarpenak eta hutsuneak, bultzatutako proiektuak. Atal hauek hemen duzuen artikulutxo osatzen dute.

DESOBEDIENTZIA ZIBILAREN DEFINIZIO BATEN BILA

“Desobedientzia Zibila norbaitek ezlegalki, publikoki, indarkeririk gabe eta bere pentsamoldearekin leial jokatu, gobernu baten lege, politika edo erabakiak bertan behera uzteko helburuarekin jokatzeko duenean gauzatzen da”¹.

“Desobedientzia Zibila jendaurreko ekintza ez bortitza, konziente eta politiko bat dugu, legearen kontrakoa, gobernu baten programa edo lege batetan aldaketaren bat lortzeko nahian egiten delarik”².

Bi zehaztapen hauek, H. A. Bidau eta John Rawlesenak direnak, J. A. Pérezek idatzi zuen *Manual práctico para la Desobediencia Civil* delako liburuan aipatuta daude. Bietan eite ezlegala eta aldaketa politikoaren nahia azpimarratu ahal ditugu. Ezlegaltasuna konzienteki egiten da. Ez dago nahasterik. Gainera bizitza publikoan aspektu konkretuenak egiteko eta ulertzeko era berri bat sortzea da desobedientzia honen helburua. Gogo pertsonalik ez dago. Talde-borondatea, elkarrekiko interesa eta eginkizun kolektibo bat dago.

Sobre los límites de la desobediencia civil deituriko lanan, J. C. Acinasek Desobedientzia Zibilaren beste zehaztapen bat ematen digu:

1. “Alguien comete un acto de desobediencia civil si, y sólo si, actúa de manera ilegal, pública, sin violencia y consecuentemente, con la intención de frustrar las leyes, políticas o decisiones de un gobierno”, Pérez (1994).


2. “Comenzaré definiendo la desobediencia civil como un acto público, no violento, consciente y político, contrario a la ley, cometido con el propósito de ocasionar un cambio en la ley o en los programas de gobierno”, Pérez (1994).

“Borondatezko eta aproposoko, aldez aurretiko egintza konsziente oro, ondorio bezela haustura –egitez edo omisioz– duena, lege, gobernu-xedapen edo aginduren batena hain zuzen, zeinaren balio juridikoa finkoa edo dudagarria izan baitaitekeen baina, edozein kasutan, egintza hura aurrera eramaten dutenek inmorala, bidegabekoa edo ez legezkoa kontsideratzen dutena, ez obeditzeko eta lege, gobernu xedapen edo agindu hura hausteko arrazoi on eta nahikoak –moralak eta politikoak– dutela uste baitute.”

Definizio honetan ‘legezko’ eta ‘zilegizko’ hitzen kontzeptuen diferentzia interesatzen zait. Berba biak erro berberatik datoz, hau da, latinezko *lex, legis* hitzatik. Baina erro berberatik sortu badira ere, Historiak esanahi ezberdinak eman dizkie. Ez dira sinonimoak, dudarik gabe. Elhuyar hiztegi entziklopedikoan, esate baterako, bestelako definizioak agertzen dira. Legezkoa “Lege bidezkoa; legearen arabera” litzateke, legeak diona betetzen duena. “Zilegi”, ordea, “Legeak edo moralak eragozten edo galerazten ez duena” izango litzateke.

Lege guztiak ez dira zilegizkoak; legezkoak, ordea, bai: lege guztiak ez baitira justuak. Bidezkoa al da heriotz-zigorra? Eta apartheid-a mantentzen zuten legeak, justuak al ziren? Eta esklabuen salerosketa baimentzen zituzten legeak? Eta emakumeari bozkatzeko eskubidea uko egiten zioten legeak, justuak al ziren? Eta Frankoren garaian promulgatu zirenak? Justiziaren, zilegitasunaren kontzeptua, normalean, orokorrean, subjektiboa da; legezkoarena, ordea, ez. Baina aipatu ditudan legeetan ez dago subjektibotasunik gaurrengungo gizaki zentzudunarentzat: lege horiek ez ziren ez zilegizkoak, ez bidezkoak, ez justuak.

Hor sortzen da Desobedientzia Zibila. Zilegizkoa ez den lege baten aurka agertzen da, aldaketa lortzeko elkarlana eta gizarteko beste pertsona eta talde batzuen konpromezua bultzatzen duelarik. Legea desobeditzen da eta honen ondorioz Estatuaren erantzuna dator: desobeditu duten pertsonen kontra, edo, selektiboki, hauetariko pertsona batzuen aurka. Errepresio honi erantzun bat ematen zaio, talde-erantzun bat, errepresio horretaz baliatzeko eta salatzen den arazoa kaleratzeko, hedatzeko. Grafikoki:



Horrez gain Desobedientzia Zibilak beste alde garrantzitsu bat du, ahaztu ezin duguna: Sistema Demokratiko Parlamentarioak inposatutako mugak apurtzen

saiatzen da. Dugun sistema politiko honek gutxitan kontsultatzen digu ezer. Desobedientzia zibilak ohitura zahar eta eroso hau ere aldatu nahi du. Ez du dena politikarien eskuetan utzi nahi. Denetarako ordezkaririk ez. Erabaki batzuen ardura geuk hartu behar dugu, gizarte honetako andra eta gizon gehienok. Lau urtetan behin gure iritzia eskatzen digute, hauteskundeetan. Baina, zer galdetzen digute?

Ordezkarien eskuetan jarri ezin ditugun erabakiak badaude. Ezbidezkotzat jotzen dugunarekin kolaborazioa ukatuz iritzia ematea eskubide bat da, nahiz eta ezbidezkoa den hori legezkoa izan. Defentsa, norena, zerena, nola, non; gaindikortasun handiko gai bat izanez ezin dugu alde batera utzi, defentsari buruzko kontzeptuak oso ezberdinak baitira.

Nire ustez, defentsak ez dauka zer ikusirik bandera, armari eta aberriarekin, Estatuaren osotasunarekin eta interes estrategikoekin. Defentsa, benetazko defentsa, giza eskubideekin lotuta dago: bizi-baldintza egokiak izateko eskubidea, osasun eta hezkuntz zerbitzu duinak eskuratzeko eskubidea, etab. Eta kontzeptu biak, defentsa-bandera eta defentsa-giza eskubideak, kontziliaezinak dira, nik uste.

DESOBEDIENTZIA ZIBILAREN EZAUGARRIAK

Bai euskaraz zein gaztelaniaz efikazia eta efizientzia berbak, efikaza izatea eta efizientea izatea, sinonimoak dira, esanahi berbera duten hitzak (izan ere askotan biak “eraginkortasun” bezala itzultzen dira). Ingelesezt, ordea, ez da holan. Efikazia xede baten lorpenarekin loturik dago, produktuarekin elkartua. Efizientziak, berriz, prozesuarekin zerikusia dauka. Dagoen helburu hori lortzeko jarraitutako prozesua, aribidea, kontutan hartzen da. Prozesuak zentzua dauka, zergatia. Ez dago, soilik, helburuaren menpean. Efizientziak ez gaitu neurtzen amaierako produktuaren arabera. Badago, alegia, prozesu eta produktu, efikazia eta efizientiaren artean dikotomia bat.

Desobedientzia Zibileko kanpainetan helburuaren lorpena garrantzitsua da, noski. Baina bideak, aribideak, balore handia dauka, berez. Ezin dira gauzak edozein modutan egin. Eta aribide honetan, gainera, beste bide batzuk sortuko dira, pertsona berriak, egoera berriak, azkenengo helburu horiek, mementuz, ahaztu eraziko dizkigutenak. Norberaren inplikazioa derrigorrezkotzat jotzen duten prozesuak dira, zeinetan borondatea eta konpromezua beharrezkoak baitiren.

Beste ezaugarri bat, konpromezu horretatik jaioa, desobedientiaren agerpen publikoa da, behar diren azalpen guztiakin. Desobedientzia ez da izkututzen, legearen zilegitasun ezaren ondorio logiko bat da, eta holan defendatu behar da. Horrexegatik legea desobeditzen duen pertsonak errepresioaren arriskua ezagutu behar du, eta onartzen du. Eta, ahal den neurrian, Estatuaren errepresio hori erabili behar du Desobedientiaren zergatiak ezagutu arazteko, hedatzeko.

Desobedientzia Zibilaren kanpainietan konpromezu hori hartu duten pertsonen partehartzea handia da. Estatuak dauzkan erakundeetan askoz ere ordezkapen maila baxuagoa badugu ere, erabaki batzuetan ardura handiagoa hartzen dugu. Defentsa arloan, adibidez. Nahi eta behar dugun armadaren tamaina eta ezaugarriak, betebeharrak, finantzabideak, armagintza-aurrekontuak eztabaidatu nahi ditugun gaiak dira, premia biziko gaiak.

Desobedientzia zibilak demokrazia hurbiltzen du edo, hobeto esanda, hurbilketa hori exijitzen du. Itxaron ezin duten gaiak daude: arazo militarra da bat. Gaur eguneko sistema mantentzeak irtenbide gabeko etxarte ilun batera bideratzen gaitu, lehergailuz beterik dagoen etxarte batera. Eta bide hori jarraitzeak ondorio mingarriak ekarriko dizkigu, ekarri dizkigu.

Aldaketa posiblea al da? Jakina. Ezbairik gabe. Nahiz eta oso utopikoa izan, borondatea behar da. Aldaketa honen aribidea hasita dago, Desobedientzia Zibila pixkanaka pixkanaka egoera aldatzen ari delako. Egin ahal da, utopiak egingarriak direlako.

Hiztegiarekin jarraituz: utopia, dio, pentsatzen denean eginezina ematen duen plangintza edo proiektua da. Utopiaren aurrean (batzuetan sinonimo legez hartzen da) kimera dago. Kimera posible ez den proposamen edo plangintza bat da, nahiz eta egingarria dela esan daitekeen. Ez da berdin: batzuetan, eta pertsona batzuen buruetan proposamen batzuk, gaur utopikoak direnak, kimerekin nahasturik daude, ez dutelako ezberdindu nahi. Ejerzitoaren desagerpena ez da nahi kimeriko bat, baizik eta lortu eta bete dezakegun utopia bat, bere betekizunaren prozesua hasi dugularik.

FISKO-ERAGOZPENEA: DESOBEDIENTZIA ZIBILA

Fisko-eragozpena Desobedientzia Zibilaren kanpaina bat bezala burutzen hasi zen: lan antimilitarista berri bat bezala. Gaur egun, nik uste, desobedientzia izatearen nahia mantentzen duela esan behar dugu, desobedientzia-sortzaile bat izatearen nahia, baina, praktikan, gastu militarrei eragozpena egiten diegun batzuek ez dugu desobedientziarik egiten (errenta aitorpena negatiboa dugunok). Estatuaren indarra hain da handia, ezen desobedientzia egitea zaila, ia ia ezinezkoa bihurtzen baita. Ogasunari ejerzitoari dagokiona ez ordaintzeak sormen ariketa handi bat suposatzen du eta guk, fisko-eragozleok, oraindik ez ditugu fruitu oparoak lortu. Zelan desobeditu hilero gure soldatetatik %13, %15 edo %19 kentzen digun Estatuari?

Dena den, gorago esan dugunez, Desobedientzia Zibilaren ezaugarri nagusienetako bat efizientzia da, ez efikazia. Zerga edo fisko-eragozpenaren bidez gastu militarren arazoa kaleratzea eta armagintza merkataritzea salatzea lortu

dugu, apurka apurka. Eta kaleratze eta salaketa hauen ondorioz ejerzitoa eta armagintza gero eta eztabaidagarriago bihurtu dira.

Erakunde Ez Gobernutarrak (EEG) delakoek, alderdi politiko batzuek eta beste nazioarteko erakunde batzuek gastu militarren murrizketaren beharra aipatzen dute; gastu horien berrantolaketa-beharra. Eta fisko-eragozleek gai horretan erreferente apala izatea lortu dugu.

Arestian agertutako eskemari jarraituz Fisko-eragozpena egiten dugunok desobedienteak ez garela esan ahal dugu; desobedientziarik ez dago errenta aitortpena itzultzeko edo negatiboa irtetzen zaigunon kasuan behintzat. Desobedientziarik ez dagoenez Desobedentzia Zibileko kanpainia batetan eman beharreko hurrengo urratsak ez zaizkigu agertzen. Hauxe da Zerga-eragozpenak duen hutsunerik garrantzitsua. Desobedientzia Zibilak (adibidez, intsumisioak) Estatuari planteiatzen dion aurkaketa gobernuarentzat ezerosoa da. Epaileek ez dute desobedienteen aurka errepresio gogorrik egin nahi, errepresio hori desobedienteek erabiltzen baitute gizartea informatzeko.

Fisko-eragozpenaren kasuan, berriz, jasotako errepresioa ez da nabarmena eta publikoa izan, eta honek bere kaleraketa oztopatzen du. Kaleratzerik gabe Estatu-erakundeei ez diegu zirikutzen. Orain arte egondako errepresio bakarra diru-bahitura izan da. Errentagarritasun gehiago ateratzea posible al zen? Ez dugu jakin nola.

Baina Fisko-eragozpenak baditu lehen aipaturiko Desobedientzia Zibilaren ezaugarriak: efizientea da, jendeaurrekoa, konpromezua eskatzen du eta, bestalde, utopikoa da, harroki utopikoa.

Hau dena kontutan harturik Fisko-eragozpena gizartea aldatzeko oso tresna baliagarria dela esan dezakegu. Ez da, noski, helburu bat, bide bat baizik. Gizarte ezmilitarista lortzeko baliabide bat da, besterik ez. Nahi dugun gizarte-aldaketak gure ekintza politikoa, aktiboa, zuzena, publikoa eta tinkoa behar du. Zerga-eragozpena ekintza politikoa, aktiboa, zuzena, publikoa eta tinkoa da. Gizarte-aldaketak ekintza kolektiboa eta lagunkidea behar du. Zerga-eragozpena lan kolektibo eta lagunkidea da. Bestela zentzurik ez du.

Azkenik, Zerga-eragozpena lortu duena nabarmena da. Kanpainetan egondako partehartzea handitu da, hedatu da, gizartearen sektore ezberdinetara helduz. Zerga-eragozpena, zalantzarik gabe esan dezakegu, bide onetik doa. Eragozpen Zibila ezagunagoa da eta lehenengo urtetan egin dizkiguten bahiturak ez daude, gaur egun, ondo ikusiak. Gure helburuak pertsona gehiagok konpartitzen ditu, nahiz eta eragozpenik ez egin. Hau hurrengo urratsa da, konpromezu eta partehartze sakonagoa eskatzen duena. Dena ailegatuko da.

GASTU MILITARRA ETA ARMA MERKATARITZAREN AURKA

Orain arte ez dut azaldu zelan egiten den zerga-eragozpena, Desobedientzia Zibila eta Zerga-eragozpena maila teorikoan aztertzen saiatu naizelako. Baina horretara noa.

Zerga eragozpena Estatu espainiarrean izandako gastu militarra salatzeke asmoarekin jaio zen, sortu genuen. Gastu hauek handitu dira azkenengo urteotan, nahiz eta ondoko koadrotik beste ondorio bat ateratzea posible izan. Kontutan hartu behar dugu ondorengo datu hauetan Gobernuak Estatuako Aurrekontuetan Defentsa Ministeritzari emandakoa bakarrik agertzen dela. Horretaz aparte Estatuak beste gastu militar batzuk ditu: Barne Ministeritzan Goardia Zibilak jasotakoa; Justizia Ministeritzan PSS delakoak jasotakoa, etab. (ikus, gorago, Luzio Tabarren artikulua). Guztira, gastua hanpatzen da. Azkenik, sarritan aurrekontuetan esanda eta urte amaieran gastatua ez doaz bat, gastatuak aurrekontutakoa baino askoz gehiago izaten baita.

Hona hemen datu horiek:

I. KOADROA

Defentsa Ministeritzaren gastuak, milioi pezetatan

1983	478332
1984	552834
1985	618631
1986	630984
1987	704077
1988	762061
1989	817913
1990	870434
1991	858091
1992	785883
1993	755650
1994	805482
1995	866499

Pentsatu al duzue zenbat arazo konpondu ahal diren diru horrekin guztiarekin? Hemengoak edo munduko beste bazter batekoak.

Zerga-eragozpenak salatzen du gastu militarrek ez duela bakarrik gerra garaian heriotza sortarazten, bake garaian ere heriotza ekartzen duela (bakearen kontzeptua, bestalde, nahikoa eztabaidagarria da): diru-zarrastalkeriak ere heriotza ekartzen du. Beharrezkoak ez diren gauzetan dirua gastatuz premia asko ahazten da.

Eta zarrastalkeri honen eskutik armagintza datorkigu. Hirugarren Mundua delako zonako herri batzuek diru-kopuru handia gastatzen dute armagintzan. Eta saltzailea Estatu espainiarra izan da sarritan. Erosle hauen artean gerratetan sartuta dauden herrialde batzuk aurki ditzakegu.

II. KOADROA

Gatazketan dauden herrialdeei Espainiak egindako arma salmentak (1989-93), milioi pezetatan

<u>Herria</u>	1989	1990	1991	1992	1993	89-93
Kolonbia	88,3	88,2	58,7	0,6		234
Guatemala	17,1		0,2	0,7		18
Peru	0,8	12,3	0,8			14
Angola	0,6		359	3,4	301,3	664
Hegoafrika	41,9	19	11,9	12,8	12	98
Sudan	6,6	8,2	17,8		1,9	35
Iran			105,1			105
Libano	8,6	18,2	17,5	21,3	16,3	82
India					1676,2	1676
Indonesia		0,7	79,7	26,2	49	156
Pakistan	12,5	7,7	8,1	0,6	27,1	56
Filipinak	17,1	13,6	4,1			35
GUZTIRA	193,5	167,9	662,9	65,6	2083,8	3173

Hurrengo koadro honetan enpresa, materiale eta erosleen izen batzuk agertzen zaizkigu:

III. KOADROA

Arma exportazio garrantzitsuenak (1988-1995)

Enpresa	Produktua	Erosleak
CASA	80 hegazkin <i>C-212 Aviocar</i>	Angola, Argentina, Bolivia, Bostwana, Txile, Kolonbia, EEBB, Lesotho, Marokko, Mexiko, Mozanbike, Panama, Hegoafrika, Suedia, Tailandia, Venezuela, Zinbaue.
	30 hegazkin <i>C-101 Aviojet</i>	Txile, Honduras, Jordania
	3 hegazkin <i>Patrulla Mar</i>	Marokko
EXPAL	Munizioa	Saudi Arabia, Emiratoak
ENASA	Kamioiak eta blindatuak	Marokko
BAZAN	19 patrullera <i>Cormoran</i>	Angola, Kongo, Marokko, Filipinak
	10 patrullera <i>Altura</i>	Marokko, Mexiko
	4 fragata	Hegoafrika
	hegazkinuntzi 1	Tailandia
	Nabigazio-materiala	Angola, Argentina, Australia, Marokko
EXPLOSIVOS BURGOS	1180 tonelada munizio	Argentina, Jordania, Marokko
GAMESA	Munizioa	Iran
STA. BARBARA	Arma, obusak eta munizioa	Alemania, Italia, Saudi Arabia, Frantzia, Venezuela
InDRA	Materiale berezia	Eslobakia, Indonesia, Portugal, EEBB, Marokko Alemania, Italia, Frantzia
IVECO-PEGASO	1100 kamioi	Marokko

Egoera honen salaketaren beharrak Zerga-eragozpenaren izaera azaltzen du: aktiboki, kolekiboki, publikoki eta desobedientzia eginez gizakiok irtenbide gabeko karrika honetatik eramaten gaituen zirimolaren aurka borrokatu behar dugu.

ZELAN EGITEN DEN FISKO-ERAGOZPENA

Asmo horrekin 1983 urtean Andaluziako Indarkeriaren Aurkako Batzordeak Zerga-eragozpenaren ideia zabaltzen hasi zen eta hurrengoan, 1984.ean, Kantabriako Indarkeriaren Aurkako Batzordeak, Bartzelonako Justizia eta Bakeak eta Kontzientzi Eragozpen Mugimenduak ere kanpainian parte hartu zuten, Estatu espainiarrean egindako lehenengo Zerga-eragozpen kanpainian.

Teknikoki Zerga-eragozpena errenta aitorpenean kenketa bat egitea besterik ez da. Kenketa ehuneko bat (%) izan daiteke, edo kantitate finko bat. Ehunekoa Estatuaren aurrekontuetan Defentsa ministeritzak jasotzen duen ehunekoa izan ohi da. Lehenengo urteetako kanpainietan eragozle guztiek ehuneko hori kentzen genuen. Gainera aitorpenean Ogasunari gure eragozpenaren berria ematen diogu eskutitz baten bidez, gure desobedientzia jendeaurrekoa, publikoa baita.

Baina (lehenengo urtetaz berba egiten dudala gogoratu nahi dut) bahiturak heldu ziren, batzuek diru kopuru handiak suposatu zutelarik.

Orduan, errepresio honen ondorioz, kuota finkoa asmatu genuen. Ez genion ordaindu behar genuenari ehuneko bat kentzen, 3000, 5000 edo 7000 pezeta baizik. Holan, desobedientzia mantentzen genuen, proiektuak aurrera eraman ahal genituen eta jendearengana ailegatzeko oztopoak murriztu ziren.

Garai horretan eragozleen kopurua handitu zen, Euskal Herrian batez ere. Gero, Madrilgo Gobernuak, langileen soldatetatik zuzenean ateratzen zuen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ehunekoia igo zuenez, aitorten gehienak negatibo ateratzen hasi ziren, gaur egungo egoerara heldu ginelarik.

Gure asmoa ez da zerga gutxiago ordaintzea; izan ere, diru kopuru berdina ordaintzen da, aipatutako kantitatea desbideratuz. Diru hau beharrezkoak diren proiektuetara zuzentzen dugu, gizakion eskubide eta beharrak kontutan hartzen dituzten proiektuetara alegia. Zerga-eragozpenean, hortaz, antimilitarismoa eta elkartasuna lotuta daude, biak erro berberatik datozelako. Desbideratzen den dirua gizartean dauden injustiziak konpontzeko helburuarekin lan egiten duten talde eta pertsonak jasotzen dute, horrela aldarrikatzen dugun Defentsa orokorraren kontzeptua eraikitzen laguntzen dugularik.

Hasieran, lehenengo kanpainietan, objetatutako dirua eragozle bakoitzak egokia ikusten zuen erakundeari ematen zion, baina mugimendua indartuz joan zen heinean interesgarriago eta eragingarriagoa iruditu zitzaigun diru horrekin

proiektu edo kanpainia konkretuak bultzatzea. Horregatik 1986. urtean eragozpenaren dirua jasotzen dituzten erakundeen izenekin batera, bi proiektu agertzen dira, bata Estatu espainiarrekoa eta bestea nazioartekoa. Azkenengo lau urtetan, EEGak eta beste talde batzuk gure kanpainetan sartu direnetik, eragozleengandik hurbilago dauden proiektuak aurkeztu dira. Erakunde bakoitzak berea dauka, eta haien bazkideen artean zerga eragozpena hedatzen dute. Holan, gure lanaren zabalkuntza segurtatzen dugu eta erakunde hauen proiektuak aurrera ateratzen laguntzen dugu.

Hona hemen kanpainaldi bakoitzean proposatutako proiektuak:

IV. KOADROA

Zerga-eragozpen batzordeak eragotzitako diru-kopurua desbideratzeko proposatutako proiektuak (1986-94)

1986	Marinaledako Nekazaritza-Kooperatiba (Sevilla) Eskola bat Bataholan (Nikaragua)
1987	El Telenoko Bakearen Etxea Bakerako Nazioarteko Brigadak
1988	Auzo Koordinakundeak sortutako "Adingabeen defentsarako kanpainia" Eskola bat Saharan
1989	Bakearen Etxea Anchurasen Nekazaritza- Eskola bat Eritrean
1990	Nekazaritza-Kooperatiba bat Kadizen Osasun Hezkuntza Lesothon
1991	Bakearen Etxea Anchurasen Filipietako Emakume kolektibo batzuk EEG batzuen proiektuak SOS Arrazakeria
1992	Quito-ko Etxe Indiarra SOS Arrazakeria EEG batzuen proiektuak
1993	Bakearen Etxea, Osijek, Kroazia SOS Arrazakeria EEG batzuen proiektuak
1994	Paraguayko eragozleen taldeak SOS Arrazakeria EEG batzuen proiektuak

ZERGA ERAGOZPENA MUNDUAN

Baina Zerga-eragozpena ez da bakarrik Estatu espainiarrean egiten. Beste munduko estatuetan beste era ezberdinez egiten da. Batzuetan modu sinbolikoz (Holandan, adibidez, bertan ezarritako misil bakoitzagatik 0,01 florin kentzen da), beste batzuetan, ordea, kopuru handiagoak kentzen dira. Baina helburua berbera da beti, hau da, gastu militarretan parte ez hartzea eta hortik kendutako dirua beste gizarte-proiektu batzuetara zuzentzea.

Armadari laguntza ukatu dioten kasu franko aurki ditzakegu Historian zehar. Batzuetan uko horren zergatia politikoa zen, baina beste batzuetan bakearen aldeko apustu pertsonalak ziren. Kuakeroek, esate baterako, Ameriketara heldu zirenetik ez zuten defentsarako lanetan parte hartu.

Gure egunetan Fisko-eragozpenaren aldeko apostua egin zuen lehenengo erakundea *Peacemakers* delakoa dugu. Ordutik hona eragozpen mota hau hedatuz eta indartuz joan da etengabe, batez ere Vietnamgo gerraren ondoren.

Europari dagokionez, 70. hamarkadan sortu zen indarrez. Gaur egun 16 estatutan ditugu eragozle taldeak: Alemanian, Australian, Belgikan, Britainia Handian, Danimarkan, Espainian, EEBBetan, Frantzian, Italian, Japonian, Kanadan, Luxenburgen, Norvegian, Suedian eta Suitzan.

Hainbeste talde koordinatzeko *Fisko-Eragozpenaren eta Bakerako Zergen aldeko Kanpainen Nazioarteko Konferentzia* delako bilera eratu da, adibidez, 1994.ean Hondarribin egin zena. Bertan arazo juridikoak, hots, nazioarteko zuzenbideak eta giza-eskubideek eskaintzen dituzten aukerak aztertu ziren. Estatu batzuetan (Belgikan, Britainia Handian, Holandan eta Alemanian) Fisko-eragozpena arautzeko lege proposamenak aurkeztu dira.

AZKENENGO LERROAK: ZERGA-ERAGOZPENAREN ORAINALDIA

Hamaika urte igaro ondoren Zerga-eragozpena egoera larri batean aurkitzen da. Estankamendu batean. Norabide aldaketa edota bultzakada handi bat behar du, sartuta dagoen geldiunetik irtetzeko. PFEZaren igoerak eta aitorpen negatiboak hazkundeak, aurreko igoeraren ondorioa, egoera berri batera eraman gaituzte. Egoera eroso, baina nahi ez duguna. Gehienok ez dugu errepresiorik jasaten, gure desobedientzia juridikoki desagertu delako (ordaindu behar dutenen kasua alde batera utzita: hauek dira desobediente bakarrak). Baina errepresio falta horrek gure lanaren fruituak kentzen dizkigu, errepresio hori ezin dugulako salatu, aprobetxatu.

Egia da, eta jadanik aipatu dugu, proiektu berriak azaldu direla, Fisko-eragozpenaren diruaz finantziatu direnak. Eta honek ezagutarazten du Zerga-

eragozpena. Honen ondorioz, gero eta ezagunagoa da eta bere filosofia antimilitarista hedatzen ari da gizarte osoan zehar. Defendatu nahi dugun Bake kontzeptuarekin lotuta dauden proiektuak eraiki ditugu, eta honi esker gure Defentsa kontzeptua zabaltzen ari da. Bakea, ez ahaztu, justiziarekin lotuta baitaigo. Eta Estatu defentsak, estatu enjertzitoez, ez dute justiziarik defendatzen.

Baina lorpen hauek ez dira nahiko eta bide berriak aurkitu behar gaude, gure desobedientzia aurrera eramateko hain zuzen. Zeharkako zergak ez ordaintzea posible izan daiteke? Edo beste zuzeneko zama batzuk, nahiz eta foru- edo udal-zergak izan? Ildo horretatik joan daiteke bidea, eta argiago ikusteko, dudarik gabe, helduko zaizkigun laguntza guztiak ongi etorriak izango dira.

BIBLIOGRAFIA

- Askoren Artean (1990), *El debate sobre la objeción de conciencia*, CIP, Madril.
Fisas, Vicent (1995), *Secretos que matan*, Icaria, Bartzelona
Perez, J.A. (1994), *Manual práctico para la desobediencia civil*, Pamiela, Iruñea.
Zerga-Eragozleen Batzordeak (hainbat urtetan), *Koadernoak*.

ANTIMILITARISMOAREN ETORKIZUNAZ

Iban Zaldua
Gasteizko Kontzientzi Eragozpen Mugimendua

Kontzientzi Eragozpen Mugimenduak (KEM) antimilitarismoaren etorkizunaz izan dezakeen ikuspegiak hitz egiteko ez dago beronen historian gehiegi sakondu behar; izan ere, historia hau nahikoa laburra eta ezaguna da eta jadanik hainbat liburu eta artikulutan jorratu da¹. Hortaz, pare bat apunte baino ez ditugu emango. KEM Euskadiko herri-mailako talde antimilitarista batzuek osaturiko erakundea da, asanblearioa, ez-biolentoa, zeinaren helbururik garrantzitsuena desmilitarizazioaren ildotik gizarte aldaketa sakona lortzea baita. KEM Hego Euskal Herrian finkatutako mugimendua bada ere, Espainiar Estatu² mailan *Movimiento de Objeción de Conciencia* (MOC) delakoarekin koordinatzen da; bere sorrera, hortaz, 1976 inguruan koka dezakegu, denboran zehar erakundearen osaketa eta ideologia(k) aldatzen joan badira ere³. Garai horretako testuingurua ikusita, argi dago hasiera batean lehenengo eragozle “politikoen” aurkako errepresioaren salaketaren inguruan sortu zela, eta helburu orokorra soldadutza edo konskripzioari alternatiba zibil bat proposatzea zela, eragozleak biltzen zituen talde oso zabal eta anitza osatzen zuelarik.

MOC-en bilakaera, hala ere, abiapuntu horretatik urruntzen joan zen hurrengo urteetan: bere jarrerak geroz eta gehiago zehazten joan ziren eta, hortaz, baita hasierako aniztasun handi hura galtzen ere, batipat 1979an egindako I. Kongresu ostetik, zeinetan gorago aipaturiko oinarritzko lerroak finkatu baitziren (hots, antimilitarismoa eta ez-biolentzia, asanblearismoa eta erradikaltasuna), gizarte zerbitzu baten ideia, pausu positiboa bezala alegia, guztiz baztertzen ez bazen ere. Garai horretatik aurrera, gainera, MOC eta KEMek *War Resisters' International* (WRI) nazioarteko erakundean parte hartzen dute.

Hurrengo urteetan MOC eta KEMek antimilitarismoaren edukin ezberdinetan sakontzeko lana egin bazuten ere, Kontzientzi Eragozpen Legearen (KEL)

1. KEM eta MOC-en ibilbide historikoari buruzko idatzirik osotua: Ibarra (1992), 27-65. Ikus Ajangiz, Manzanos & Pascual (1991) eta Grupo Antimilitarista de Iruñea (1992) ere. Intsumisioaren historia konkretuari dagokionez, KEM-MOC-en ikuspegiarekin hain atsegina ez den analisi baterako, ikus Herrero (1994).

2. Estatu izendapen hau egileari gehiegi gustatzen ez bazaio ere (terminologikoki tronpatzailea iruditzen baitzaio), KEM-ek Iberiar Penintsulako herrialdeen pluraltasuna adierazteko Espainiar Estatua esamoldea erabili du tradizionalki.

3. MOC-ek, ordea, ba omen du aintzindari historiko bat Espainian, II. Errepublika garaian hain zuzen ere, Xabier Agirrek (1996) adierazi duenez.

tramitazioa eta onarpena suertatu zen erakunde hauen erronkarik handiena, NATOren sarreraren aurkako mugimenduen testuinguruan beste talde antimilitarista berriak sortzen ari ziren bitartean. Izan ere, 1984an Estatuko Parlamentuak onartu zuen legearen aurkako oposaketa sakontzen joan zen, lehenengo mementuan aitortza kolektiboa dela medio, eta 1988-89tik (hots, KEL delakoa konstituzionalizat hartu eta berau betetzeko arautegia indarrean jarri zenetik) intsumisioaren bidez, hau da, desobedientzia zibileko estrategia eredugarri baten bidez. Ibilbide honetan azpimarragarriak dira MOC-en II. Kongresua (1986, erakundearen antimilitarismoaren definizioa nabarmenki zabaltzen zuelarik), Epaitegi Konstituzionalaren aurrean aurkeztutako errekurtsioak KELaren aurka, Valentziako batzarra (1987, zeinean intsumisioa definitzen hasi baitzen) eta Orioko batzarra (1988, zeinean KEMek behinbetiko bultzada eman baitzion estrategia honi).

Orduetik aurrerako “historia” ezagunagoa da, ziur aski, euskal irakurlearentzat: 1989 eta 1996 artean bai soldadutzari baita Ordezko Zerbitzu Zibilaria (OZZ) ere egindako ukoak eta intsumisioen kopuruak hazkunde ikaragarria izan dute Espainian, baina batez ere Hego Euskal Herrian. Epaitegi zibilen protagonismoa, zigorren aldaketa, hirugarren graduaren bide diskriminatzailea, “plantea”... ibilbide honetako urratsak izan dira. Epaiketa eta gartzelaren inguruko borroka guztiak (batzuetan gehiegizko kutsu antierrepresiboa izan dutenak) testuinguru horretan kokatu behar ditugu. Gainera, bide horretan KEM-MOC-ek protagonismo piska bat galdu du, beste talde eta asanblada batzuk sortu eta garatu direlarik (izan ere, “intsumisioa” terminoa gizarte-bizitzaren beste eremu batzuetara zabaldu da): KEM kontzeptuaren sortzailea izan bazen ere, intsumisioa ez da jadanik bere ondarea, eta hau oso argi eduki behar dugun zerbait da.

Izan ere KEMen honi buruzko bi ikuspegi nagusi (eta eztabaida ugari) izan dira azken urte honetan. Parentesi bat irikiz, esan beharra dago KEM talde asanblarioa dela eta bere oinarria herrietako talde autonomoek osatzen dutela, honek funtzionamendu arazo batzuk ekartzen dituelarik (adibidez, erabaki amankomun bizkorrak hartzeko zailtasunak, edo iritzi oso ezberdinen iraupena erakundearen barnean): hau da, gure ustez, aberasten gaituen horizontaltasun ahaleginaren prezioetako bat. Orain arte behintzat, KEMeko gehiengoaren ustez intsumisioa gure jardueraren tresna nagusia litzateke, abiapuntu horrek antimilitarismoaren beste gai batzuetan sakontzeko oinarria ematen digularik; beste era batean esanda, KEMaren orientazioa bereganatzen duten intsumisioak (kuarteletakoak edo “betikoak”) “egitea” garrantzizkoa izango litzateke gizartean antimilitarismoaren beste gai batzuk zabaltzeko, beti ere kontutan harturik intsumisioa estrategia dela, noski, zeinaren zentzua, hortaz, soldadutzaren desagerpenarekin batera erradikalki aldatuko bailitzakeen. Beste ikuspegiak, gutxien garenak, intsumisioaren estrategia bultzatu behar dugula aipatzen du ere, baina ez du intsumisioa KEMaren ardura espezifikoa kontsideratzen, beste talde batzuekin landu behar den zerbait baizik, horretarako KEMaren laguntza eta sostengu osoa izango litzuketuen herrietako intsumisio asanblada edo batzarrak bultzatu beharko liratekeelarik; ikuspegi

honentzako KEMak, espezifikoki, antimilitarismoaren beste alderdi zabalago batzuk landu beharko lituzke, hots, gizartearen militarizazioa, bakerako hezkuntza, armagintza eta gastu militarrik, emakumea eta militarismoa, etab.

Gauzak horrela zeudelarik, bai MOC bai KEM Zigor Kode berria eta “heriotz zibila” delakoari aurre egiteko intsumisio bide alternatiboak lantzen ari ziren unean, Partido Popular-eko (PP) gobernu berriak iragarritako espainiar konskripzio edo soldadutzaren amaieraren berria heldu zaigu, eta honek aldaketa inportanteak dakartza antimilitarismoaren etorkizuna eztabaidatzerakoan; izan ere, soldadutzaren amaieraren gaia erabakigarria da datorren urteotako mugimendu antimilitaristentzat.

Lehenengo erronka, gai honi dagokionez, soldadutzaren desagertzearen arrakasta “ustiatzearena” izango da. Izan ere, argi utzi behar dugu antimilitaristok lortu dugula, hein batean, soldadutza desagertaraztea, intsumisioaren helburu bakarra ez bazen ere. Egia da, alde batetik (hau aitortu beharra dago), nazioarteko ejerzitoen bilakaerak bide horretara eramaten duela ez bakarrik Espainiar Estatua, baizik eta baita Europako gainontzeko estatuak ere (izan ere, profesionalizazioaren bidea hartzeko pausuak hartu dituzte Belgika, Herbeherak eta Frantzia bezalako herrialdeetan); eta, beste aldetik, “legezko” eragozleen kopuru handiegia suposatutako arazoa ere erabakiorra gertatu dela iragarritako aldaketa honetan (seguru aski legezko eragozpen eskakizunen igoaldia profesionalizazio prozesua azkartzeko indar bat bihurtuko delarik). Baina, egi hauek alde batera utzita, argi izan behar dugu soldadutzaren desagertzea mugimendu antimilitaristaren arrakasta dela ere, intsumisioaren estrategiarena alegia, honek azkenengo zortzi urtetan maila orotan (gizartean, legegintzan, zuzenbidean, politikan) sortarazitako tentsioa aipatu emaitzan erabakiorra gertatu delarik, eta legezko eragozleen mordoak zerikusia izan badu ere, intsumisiorik gabe hainbeste legezko eragozlerik ez zela egongo. Honek ez du esan nahi datorren urteetan intsumisioa eta kartzelaraztearen kontrako ekintzak abandonatu beharko ditugunik, intsumisioek eta kondenek izaten jarraituko dutelako; ez-gaikuntzaren aurkako borrokak eta “kuarteletan Intsumisioa” kanpainiak, alde honetatik, garrantzi handiagoa hartuko dute. Baina (hau itxaropena baino ez da) soldadutza amaitzeaz dagoela arazo hau bigarren plano batetara pasatuko da hala beharrez eta, izan ere, ez dakigu oraindik epaileek zer egingo duten desegite testuinguru honetan.

Bigarren erronka konplexuagoa izango da, dudarik gabe: soldadutzaren aurkako borrokaren ondoren, zer? Antimilitarismoak gizarte-oinarria galtzeko arriskua izango du, orain arte intsumisioaren alde eta intsumisioen errepresioaren aurka mobilizatzen ziren pertsona eta talde askoren laguntza eta elkartasuna galdu edo, behintzat, lainotu egingo delako. Mugimenduak, alde horretatik, seguru asko gaztetasun piska bat galduko du, soldadutzaren edo OZZren mehatxua desagertu egingo delako gazteenenetzat, hots, orain arte mugimenduaren bizkar hezurra izan direnentzat. Honek ondorio positiborik ere izan dezake, hala ta guztiz ere: gauzak

ondo egiten badira, militante antimilitaristen jarraipen handiagoa lor daiteke, orain arte ez-egonkortasuna nahikoa ohikoa izan den bitartean. Izan ere, jendea taldeetan sartzen zen baina dena delakoagatik soldadutzarekin zuen auzia amaitzen zenean bere militantzia maila lausotu egin ohi zen.

Antimilitarismoak gai berriei aurre egiteko prest egon beharko du; egia da orain arte hala egin duela eta, izan ere KEM-MOC-ek edo erakunde hauen inguruan ibili den jende askok ekarpen inportanteak egin dituztela bakerako hezkuntza, gizarte-kontrola, emakumea eta ejerzitoa, defentsa alternatiba eta antzeko gaien inguruan, baina azken urte hauetan intsumisioak nolabait gai guzti horiek estali dituela aitortu behar dugu. Antimilitarismoak Hego Euskal Herrian ekin beharko duen bide berrian lan-eremu horien guztien protagonismoa berriz azaleratu beharko dugu.

Lehenengo, ejerzitoaren gai konkretuari dagokionez. Profesionalizazioak ejerzitoarekin eta ejerzitoak gizartearen gain duen eraginarekin bukatzen ez duela erakusten saiatu behar dugu. Gure lan hau zaila izango da, intsumisioen alde eta konskripzioaren aurka jende asko badago ere, horien artean ejerzito profesionalaren aldeko (edo behintzat, kontrako ez den) pertsona pilo bat baitago. “Salduko” diguten imajina, gainera, ejerzito txiki, mugikor eta bakezale batena izango da, batez ere atzerrian gauzatuko diren “elkartasunezko” bake-operazioetara bideratua egongo dena. Imajin hori guztia kritikatzeko eta desegitea oso zaila izango zaigu, intsumisioak eta errepresioak eskaintzen ziguten propaganda-tresnarik izango ez dugularik, gainera (adierazgarria da, arlo honetan, nola trantsizio ostetik Estatuak ejerzitoak soziologi-inkestetan jasotzen zuen balorazio orokorki ezkorra azken urte hauetan positiboa bihurtzen joan den, iritziaren zentzu aldaketa honetan “gure” soldadu eta lejonariak Bosniako “baketze” prozesuan izan duten partehartze nabarmenak zerikusi handia izan duelarik). Alde honetatik, dudarik gabe, mugimendu antimilitaristak fisko-eragozpena bezalako tresnak bultzatu eta eraginkor bihurtu beharko ditu, estatuen gastu militarra salaketa-gai nagusienetako bat bilakatzuz; izan ere profesionalizazioak gerra-gastuaren hazkunde bat ekarriko duelakoan gaude, eta hau bereziki arbuiagarria gerta daiteke gizarte-gastuak eta Hegoalde pobrearekiko laguntza murrizten ari diren testuinguru batean. Ezin dugu ahaztu, hain zuzen, zein izan den azken hamabost urte hauetan mugimendu antimilitaristaren ikurra: ejerzitoen desagertzea, soldadutzarena bide horretako pausu bat baino ez zelarik.

Ildo honetatik, antimilitarismoaren nazioarteko ikuspegia sakondu beharko dugu: ejerzito berriek batez ere atzerriantz begiratzen dute geroz eta elementu internazionalagoak direlako, bai Hegoaldeko “mehatxuari” aurre egiteko, bai “bake-indar” bezala erabiliak izango direlako (alde honetatik espainiar ejerzitoaren aldakuntza oso sakona izango da, XIX. mendetik Transizio garaia arte batipat barne-populazioaren kontrolerako diseinatutako indarra izan delako). Gezurkeri hau azaleratzea eta salatzea gure helburu inportanteenetako bat bihurtu behar dugu,

mundu “garatuak” bultzaturiko gerrak konpontzera bidaltzen diren gudaosteek eginkizunaren hipokresia salatuz, bertako armagintza industriaren aurka agertuz, etab., horretarako Hegoaldearekiko elkartasuna adierazten duten Erakunde Ez-Gobernutarrekin (EEG) bat egin beharko dugularik (*Sarea* bezalako elkarteek erakuntza, alde honetatik, norabide egokian emandako pausua iruditzen zaigu⁴). Gure antimilitarismoa, hortaz, internazionalista (edo, agian hobeto esanda, internazionalistagoa, kontutan harturik KEM nazioarte mailan beste talde antimilitarista eta bakezaleekin koordinaturik dagoela WRI delakoaren bidez) bilakatu beharko dugu, baina zentzu sakon, solidario, jatorrizkoago batean⁵.

Honek Euskal Herriak bizi duen nazio-azura garamatza: soldadutza desagertuz gero, hurrengo urteetako erronketako bat ea arazo honetan euskal antimilitarismoak zeresanik duen ikustea izango baita. Eta hemen beste parentesi bat irikitzea komenigarria iruditu zaigu, berez autonomia osoa gordetzen duen KEMaren ezaugarrietako bat baita Estatu mailakoa den MOC bezalako erakunde batekin mantendu duen lotura. Baina soldadutzaren desagertzea, Hegoaldekoarekin oso erlazionatua jaio den Iparraldeko mugimendu antimilitarista baten sorrerak eta Europa barneko muga politikoen desagertze progresiboak (alderdi militarri dagokionean NATOren indarketa eta Euroejerzito delakoaren sorrera ematen ari dena) ikuspegi berriak eskaintzen dizkigute: argi dago KEMaren koordinazioa, eta mugimendu antimilitaristarena, geroz eta aldakorra edo dinamikoagoa suertatuko dela, batzuetan Euskal Herri, beste batzuetan Hegoalde, besteetan Estatu eta geroz eta gehiago nazioarte mailan koordinatu beharko dugularik. Baina kidetasunaren gai hau alde batera utzirik, argi dago alde bietatik militarismoaz puztutako “gure” gatazkan zeresanik badugula, bai biolentziaren monopolioa omen duen estatuaren praktika geroz eta militarizatuagoi dagokienez, bai aspaldidanik logika militarrean buru-belarri murgildutako ETari dagokionez ere (eta aitortu beharra dago gatazkaren elementu honen ekinbidea zalantzan jartzeko proposamen eskas gauzatu dituela euskal mugimendu antimilitaristak). Alde honetatik bidea zein izan daitekeen esatea ausartegia litzateke (erakunde antimilitaristen arteko desberdintasunak nabarmenak izango liratekeelarik, ziurrenik), baina antimilitarismoak ejerzitoen salaketa soila ez baizik gizarte-aldaketa osoago baten bektore izan nahi badu, argi dago Euskal Herriak duen arazo militar konkretuari aurre egin beharko diola noizbait.

Eta honek euskal mugimendu antimilitaristaren bigarren gai edo erronka nagusira garamatza. Militarismoa kritikatu eta borrokatu behar dugu, noski, baina ez bakarrik zentzu hertsian definitzen dugun militarismo hura (ejerzito, gastu militar, erakunde armatu, armagintza industria eta esportazioekin loturikoa), baizik eta zentzu zabalago batean ulertutako militarismoa: gizartearen txoko guztietara

4. Izen osoa “Arma merkataritza eta gastu militarren ordean giza garapenaren aldeko taldeen Sarea” litzateke; helburuei dagokienez, ikus Sarea (1995).

5. Elkartasun arrazoien eta internazionalismoaren jatorrizko zentzu horri buruz oso egokia da Ziegler (1987). Ikus, gaur egungo balizko internazionalismoaren analisirako, Waterman (1991).

hedatzen dena, hezkuntza, gizon eta emakumeen arteko edo famili barneko erlazio, Estatuaren eta hiritarren arteko loturak usteltzera heltzen dena. Alde honetatik talde antimilitaristean interes handiagoa piztu beharko lukeen gaia gizarte-kontrolarena litzateke eta, konkretuki, geroz eta ezaugarri militaragoak hartzen ari den poliziarena (polizia eredu berri hura izan nahi zuen Ertzaintzaren jarrera eta desfileei begirada bat botatzea baino ez dugu). Egia bada ejerzitoak partehartze gutxiago duela mendebaldeko herrialde garatuen barne-biztanlegoaren kontrolean, argi dago geroz eta gehiago polizia ezberdinak bere gain hartzen ari direla funtzio hauek, eta eginkizun horiekin batera ezaugarri militar argiagoak ari direla bereganatzen, kasu askotan informazio-teknologia berrien laguntza estimaezinarekin. Eta gauza berbera esan dezakegu hirien zentruetan eta gune publikoetan ugaltzen ari diren uniformatutako (noski) segurtasun-goardiei buruz, etab. Ziur gaude eremu hau ikertzea eta salatzea talde antimilitaristen eginkizun berria bihurtuko dela.

Ekintza-esparru aberatsa zabaltzen da, ikusten denez, mugimendu antimilitaristaren aurrean. Aipatutako guztiak laburbiltzen dituen erronka nagusia, hortaz, intsumisioaren “garaian” mugimenduak bereganatu duen gizarte-sostengua mantentzea eta zabaltzea izango litzateke, lortu den arnasa ez galtzea, alegia. Zaila izango da, botere publikoek sekulako ahalegina egin baitute (eta egiten ari baitira) ejerzito profesionalaren beharra azpimarratzeko, eta zentzu zabalean ulertutako militarismoaren hariak bereiztea ez delako hain erraza eta argia. Hau guztia intsumisioak jaulki duen borrokaren jarraipena dela azpimarratu beharko dugu, eta horregatik erronka berri honi aurre egiteko ditugun tresnarik egokienak, berriz ere, estrategia ez-biolentoa eta desobedientzia zibilarena direla defendatuko dugu: oraingoan ere imajinazioa martxan jarri beharko dugu. KEMek ezingo du bide hau bakarrik jorratu, eta horretarako beste talde antimilitaristekin eta gizartearen esparru geroz eta zabalagoekin lan egingo du asmo hauek gauzatzeko (aspaldi pasatu baitziren KEM-MOC-ren esklusibismo asmoak). Beste era batean esanda, antimilitarismoaren etorkizuna ekintza eremuen zabalkuntza eta sakonketan ikusten dugu; borroka berriek azken hamabost urte hauetakoaren arrakasta izango duten ala ez, mugimenduaren partaideen espezializazio eta instituzionalizazioaren arriskua saihesten asmatuko dugun ala ez, irabaziko dugun ala ez, oraingoz erantzunik gabe geratuko diren galderak izango dira.

ERREFERENTZIAK

- Agirre Aranburu, X. (1996), “Una lectura antimilitarista de la Guerra Civil española”, *Hika*, 67, 47 orr.
- Ajangiz, R.; Manzanos, C. & Pascual, J. (1991), *Objetores, insumisos. La juventud vasca ante la mili y el ejército*, Bilbo.
- Grupo Antimilitarista de Iruñea - KEM (1992), *Génesis de la insumisión. Breve historia del Movimiento de Objeción de Conciencia*, Iruñea.

- Herrero Brasas, J. A. (1994), *Poder, retórica e insumisión*, Hondarribia.
- Ibarra, P. (arg.)(1992), *Objeción e insumisión. Claves ideológicas y sociales*, Madril.
- Sarea (1995), “Sarearen nahia”, *Sarea*, 1. boletina, martxoa, 3 orr.
- Waterman, P. (1991), “Los nuevos internacionalismos”, *Hegoaren Lan-Koadernoak* 7, Bilbo.
- Ziegler, J. (1987), *¡Viva el Poder! Crítica de la razón de estado*, Madril.

MUGIMENDU ANTIMILITARISTA

*Angel Calvo, Zigor Murgoitio, Eugenio Riaño
Elorrioko Kakitzat*

Askotan ez da batere erreza historiaren abiapuntua zein den erabakitzea, eta mugimendu sozial bati buruz hitz egiten denean askoz ere zailago. Zalantzarik gabe, 1980ko hamarkadan eta NATOren erreferendumaren inguruan objetoreen mugimendua indarberritu zen. Ordutik aurrera armaden aurkako borroka, batez ere, soldadutzaren aboliziora zuzendu zen.

Garai horretako gobernuaren eta gaur egungoaren jokaera hitz bitan labur dezakegu, erreforma txikiak eginda benetako arazoa ezkututzen saiatzea. Honen adibide argiena, armada legitimatzearekin batera arazoa konpontzen ez zuen Objezio Legea kaleratzea izan zen. Lege berriaren arabera gobernuak objezioa kudeatuko zuen, onartutako objetoreak soldadutzaren ordezkotzara zerbitzua egitera behartuz. Estrategia berri hau salatzeko gero eta indar handiago zuen mugimendu antimilitaristak, Intsumisio ikurra hartuta, aurrera jo zuen. Horrela, 80ko hamarkadaren amaieran lehenengo intsumisioek gartzela militarretan ordaindu behar izan zuten gizarite ustel honek sostengatzen duen armadaren aurkako jarrera.

Gartzelaren aurreko jarrerak eta batez ere kalean gero eta laguntza handiagoa jasotzeak neurri berriak hartzera behartu zuen gobernuak. Armada jasaten ari zen desgastea batere onargarria ez zenez gero, 1992an estrategia berri bati hasiera eman zitzaion. Epaitegi militarretatik zibiletara intsumisioen aurkako epaiketarik lekualdatuz, armadaren irudia zaintzen saiatu ziren, baina, aldi berean, intsumisioa arazo politikoa zela onartu zuten.

Legearen aldaketarekin intsumisioak gartzela zigor luzeagoak jaso zituen, hala ere ez zuten lortu urtetik urtera handitzen zen intsumisio kopurua geratzea. Berriro ere, arazoa ezkutatzeko asmoz, “amua” bota zuten. Kalean intsumisioen gartzelaratzearen kontrako jarrera apaltzeko, beste presoek hain errez lortzen ez duten 3. gradua ematen hasi ziren. Honen aurreko erantzuna plantoia da, oraindik aurrera eramaten den estrategia.

Azken hamabost urte hauen balorapena egiterakoan antimilitaristen borroka gizartearen intsumisioaren aldeko kontzientzia zabaldu duela esan dezakegu. Honekin batera zalantzan jarri du militarren defentsa edo segurtasun eredia, armadaren funtzioa auzian jarriz. Soldadutzaren desagerpenak, orain dela urte batzuk utopiatzat jotzen zena, gaur egun data bat dauka. Badakigu egun batetik

bestera ez dituztela soldadutzaren atzetik dauden ideiak baztertu eta desagerpenaren atzetik beste interes batzuk daudela. Hala ere, bere irudia aldatzeko ahalegin itzelak gauzatzen ari den armadaren saiakera ez da besterik gabe gertatu. Gure ustez kaletik egindako presioak garrantzi handia izan du itxuraldaketa honetan. Bosnian egondako militarrek euren bakearen aldeko lana saltzen saiatzea oso adierazgarria eta, aldi berean, salagarria iruditzen zaigu. Argi dago, utopia lortzea gure esku ere badago.

Gaur egun borroka antimilitaristak aurrera darrai. Ezin da ahaztu oraindik hirurehun intsumisok baino gehiagok segitzen duela gartzelan, orain dela gutxi batzuek plantoa egin dutelarik (1996). Oraindik ere, injustiziaren banaketak jarraitzen du. Horregatik epaitegi, herrialde edo epaileen araberako zigorren arteko desoreka, arbitrariedadea, salatzen jarraitu behar dugu.

Borroka fronte hau alde batera laga barik, Zigor Kode Berriak mugimendu antimilitarista ataka berri baten aurrean jarri du. Estatuak mugimenduaren indarra eta kalean jasotzen duen laguntza ikusita, jokaera errepresibo berria aukeratu du. Mantentzen den Gartzela zigorra ezkututzen saiatzeaz gain, heriotz zibila ezarri nahi duen inhabilitazioa ekarri digu Kode Berriak.

Hainbeste urte intsumisioaren aldeko borrokan murgilduta ibili den mugimenduak, soldadutzaren desagerpenak eta Zigor Kode berriak ekarritako aldaketaren aurrean bide berriak bilatzeari ekin dio; alde batetik orain arte jorratutakoak indartuz, edo gizartearen inplikazioa sakontzen dutenak bilatuz.

Zigor Kode Berriak ekarriko duenaren aurrean gizarte eta erakunde inplikazioa indartzeko EUDIMA sortu da. Euskal Udal Intsumisioen Mankomunitateak hurbilen dauden erabakitze lekuetan gizartearen jarrera isladatu nahi du. Kode Berria indarrean jartzea ala ez erakunde hauen jokaeran datza. Horrek, nolabait, gure esku dagoela esan nahi du. OZSren (P.S.S.) kasuan erabilitako metodoa eredutzat hartuz, olatu errepresibo berria geratzeko, sindikatuak, beste mugimendu sozialak eta erakundeak inplikatu behar ditugu.

Honekin batera mezu baikorra zabaltzeko asmoz, nahi dugun gizartea aukeratzeko eskubidea aldarrikatzen jarraitu behar dugu, bakearen aldeko apostua egiten dugunean armadaren aurkako jarrera azpimarratuz. Testuinguru honetan armen ekoizpenaren aurkako salaketa, objezio fiskalaren aldeko jarrera edo militarren gordelekuetara intsumisioa eramanez, berriz ere, militarismoaren kontraesanak agerian utzi behar ditugu.

Armada profesionalaren aurkako armarik onena mezu antimilitarista indartzea dugu. Ibilbide antimilitarista honetan estrategia desberdin guztiek bere lekua hartu behar dute, inor baztertu barik. Mugimendu antimilitaristaren indarrak batzea gauza dadin.